gabe zegoen, eta hau izan zen Diputazioak onartu zuena 1985.eko martxoaren 5ean. Azkenean, 1985.eko uztailaren 10ean, Jose Maria Makua Zarandona, Bizkaiko diputatu nagusi jaunak Luis Villasante Kortabitarte euskaltzainburu jaunari utzi zion etxe hau, Jose Maria Arriola notariaren aurrean sinatu zen agirian.

Etxe honen egokitze eta eraikitze lanen xehetasunak Eduardo de Felipe arkitekto jaunak emango dizkigu. Baina nere txostenaren osotasunerako bizpahiru data azpimarratu nahi nituzke, Euskaltzaindiaren Egoitza honen historia bukatzeko eman behar bait dira. Aipatu arkitektoek 1986.eko apirilaren 2an aurkeztu zuten lehen proiektua. Aldatu beharra gertatu zitzaion 1987ko martxoan erabaki bait zuen udalak plaza azpiko parkingera gure etxearen sototik sarrera ematea. Beraz, behin betirako proiektua 1988.eko urriaren 10ean aurkeztu zuten eraikitze lanen zuzendari diren arkitektoek. Bi urte t'erdiren buruan, hemen gaude agintari eta euskaltzainok 1991.eko apirilaren 26an, Euskaltzaindiaren Egoitza berria eskuratzeko egun zoragarri honetan. Bilboko bihotzean, zazpi kaleetako Plaza Barri honetan, zin egiten dut denon izenean ez dela alferrikakoa izango gaurko emaitza hau euskararen onerako, Bizkaiko Jaurerriaren ohorerako, eta Euskal Herriaren iraunkortasunerako. Hala biz.

EUSKALTZAINDIAREN EGOITZA BERRIARI BURUZKOA

Bilbo, 1991-IV-26

*Anton Agirregoitia
Eduardo J. de Felipe
arkitektokideak*

Eskatu digute gaur bildu diren euskaltzain eta autoritateei azkenengo 15 hilabetetan egin dugun edifizio honen erreforma berriari buruzko zenbait zehaztasun emateko; labur izaten saiaturiko gara, sakontasun teknikoetan murgildu gabe gure entzuleria ez aspertzearren.

Hasi aurretik bi arazo nagusiri aurre egin behar izan genion, bata, etxe hau monumentu legez izendatuta den enparantza batetan kokaturik dagoenez, eman behar zitzaion trataera egokiari buruzkoa, eta bestea barneko premiak programatu eta edifizioan bertan taiuzko egokitzeari buruzkoa.

Lehenbizikoa burutzeko alternatibak, estrukturen txkeoa, horma eta zutabe, zoru eta sabaiaren azalekoak bota eta erantsi ondoren, egin genuen informea ikusita argiago gelditzen ziren. Informe horretan materialak eta bere neurriak zehazturik, ordurarte egondako erreformak kontutan harturik eta erresistentzia kalkuluak eginez, ikusten zen zeuden hormarte eta solairuek ez zutela erabiltze berrirako behar besteko segurtasunik ematen.

Hau dena kontutan hartuta eta gainera udalak gure sotoetik pasatuz eginarazten zigun plazapeko aparkalekurako sarbide eta teilatu berria egin beharrak, nahiko arrazoi eman zigun alternatibatzat lehengoa gordetzea baino bere husketa eta dena gaur erabiltzen diren materialez berririo egitea planteatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Ondare Historiko Artistiko Sailak gure esku utzi zuen erabakia, eta hala erabaki genuen hustutzea eta berria hormigoi armatuz egitea.

Bigarren arloan eta Euskaltzaindiaren aurrebeherrak eta edifizio berak ematen zituen aukerak ezagututa, programa ordenatzeari eta Euskaltzain-

diaren premiak lan multzoka (akademikoak, administratiboak, biblioteka, ...eta abar) jartzeari ekin genion.

Aurreko bi arazoak gaudituta gure proiektua etxearen berezko estruktura begiratzen saiatu ginen, hain zuzen ere enparantza alderako fatxadak erakusten eta sortzen duen barneko ordenaketa gordetzen. Etxearen erro eta balkoi printzipalak plazatik atzekaldeko Foru kalera lerro-lerroka daude, eta zeharkako hormateak, aldiz, material berriek ematen dizkiguten aukeren eta espazio premien arabera taiutuak izan dira.

Administrazioak, plaza aldeko fatxada zaindu eta bere hartan gordetzen saiatu den bitartean, ez du ordea gauza bera egin Foru kalerako fatxadez, zeintzuk jabeen ekintzengatik aldatzen eta higitzen joan dira, edifizio berauen batasun konposizioa eta nortasuna galdu delarik. Honen aurrean eta fatxada honetarako konjuntio planifikaziorik ez dagoenez gero lehengoan uztea erabaki genuen.

Barneko banaketan eta arlo akademikoari dagokionez, hau da bilkura eta gobernu aretoak, euskaltzainburu, buruorde, idazkari eta diruzainaren bulegoak lehenbiziko plantan, edo solairuan kokatu dira, funtzio eta edifizioaren jerarkiak elkartuz.

Administrazio arloa planta nagusipeko entreplantan lekutu da, jendearekiko izango diren harreman ugariak erraztuz.

Bigarren eta hirugarren plantetan, biblioteka, ikerketa, fonoteka, mintegiak eta abar jarri dira, grabazio eta fondo bibliografikoak bertan eta teilatupekoan gordeko direlarik.

Beheko plantan edo solairuan, sarbideak eta kontrolaz gain, gaude-neko aretoa dago, oso handia ezpada ere, hitzaldi, erakusketa, kongresu eta abar egiteko erabiliko dena.

Sotoa, plazapeko aparkalekurako sarbide berriak erdibitua, alde batean edifizioaren instalazio orokorrak ditu: galdara, igongailu makineria, elektrizitate eta iturgintza koadruak... eta abar; beste erdian bat-bateko itzulpen zerbitzua eta goiko plantan erabiliko diren tresnerien biltegiak.

Eskailera nagusiak, igongailuaz batera, edifizioaren planta guztiak, teilatupeko ezik, batzen ditu.

Beste batek barneko erabilerako, sotoa eta planta nagusiaren tarte-koak batzen ditu, eta fondo bibliografikoak, goiko hiru plantetan daude-nak, horretarako eskailera partikular batez elkartzen dira, liburu-jasogailu baten laguntzaz.

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

I. EUSKALTZAINDIAREN ERREGELA BEREZIAK

*J. A. Arana Martija
J. L. Lizundia*

Egoitza, ordezkari-tza eta bestelako lantaldeen ibilpiderako erregela bereziak

1. Euskaltzaindiak 1981.eko urtarrilaren 24ean Loiolan egindako II. Barne Jardunaldietan onarturiko Barne Erregelen gehigarri-zko artikuluan, Arautegiaren 41. artikuluan agintzen duena kontutan hartuz, egoitza, ordezkari-tza, eta besteen *ibilpiderako* Erregela Bereziak erantsiko zaizkiela esaten da.

2. Bestalde, Barne Erregelen 36. artikulua bere b) lerrokadan Euskaltzainburu-goari ematen dio bulego eta gainontzeko langelen apailatze eta ibilpidearen ardura, "bai Euskaltzaindiaren Etxean eta bai Ordezkari-tzetan ere".

3. Lekarozen 1985.ean, IV. Barne Jardunaldietan, idazkariordetzak euskaltzainburuaren aginduz, aurkeztu zuen *Barne eremu eta zerbitzuen ibilpideaz* izeneko txostena oraingoaren oinarritzat har daitekeena. Gidoia aurre proposamen gisa ontzat eman bazen ere, denbora faltaz azken gaia zelako, ez zen testua eztabaidatu.

4. Lazkaon 1989an egindako VI. Barne Jardunaldietan, Zuzendaritzaren aginduz, berriz aurkeztu zen testu berbera. Beste zenbait gairen artean garatzeko erabakia hartu zen.

5. Ibilpiderako Erregela Berezien beharri-zana luza-ezina gertatzen da, besteak beste, arrazoi hauengatik:

1) Datorren udarako Egoitza berri-an Euskaltzaindiaren zerbitzu nagusi eta aruntak era bat kokaturik geldituko dira.

2) Ordezkari-tzetan egiten eta egingo diren lanak eskatzen duten antolamendu eta lankidekatzea.

3) Egitasmo bereziak, hots, une honetan OEH, EHHA eta Gramatika lankide hitzartu edo bekadunen artekaritza eta erantzunkizuna zuzenki Euskaltzaindiaren esku gelditzea.

4) Herri Agjnteeekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz lau hilabetero lanen eta diru erabilpenen kontu errendatzea.

6. Beraz, honako hau proposatzen da:

6.1. Euskaltzainburuaren gidaritzapean hemen izendatzen den batzordeño suntsikor batek *Egoitza, Ordezkaritza eta bestelako lantaldeen ibilpiderako Erregela Bereziak* izeneko txostena idatz dezala.

6.2. Jarraian, txosten horrek legedi eta Euskaltzaindiaren Arautegiaz aurkakorik izan ez dezan, Batzorde Juridikoak bere aholku irizpena eman dezala.

6.3. Proposamen honen bigarren puntuan aipatu bezala, Euskaltzainburu-
goak azter eta onar dezala.

Ziburun, 1991.eko otsailaren 2an

II. EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK

I.—IRUÑEARI BURUZ ERABAKIA

Ikusirik, Nafarroako Gobernuak urriaren 20ko (NAO 1991-1-9) 338/1990 Foru Dekretuaren bidez, hiriburuaren izen ofiziala *Iruña* izatea erabaki duela, Euskaltziandiak Ziburun 1991.eko urtarrilaren 31n egindako hileroko batzarrean, honako hau adieraztea onartu du:

— Aurrez esan bezala eta *Nafarroako Herri Izendiegia/Nomenclátor Euskérico de Navarra*n agertzen denez, Nafarroako hiriburuaren euskarazko izena *Iruñea* dela.

— Izen honen deklinabidea ahonela dela:

Iruñea

Iruñeko

Iruñean

Iruñera

Iruñetik

Iruñeari, eta abar.

Ziburu, 1991-1-31

* * *

A la vista del Decreto Foral 338/1990 de 20 de octubre (BON 9-1-1991) del Gobierno de Navarra, que determina que el nombre oficial de la capital es *Iruña*, esta Real Academia de la Lengua Vasca, reunida en su sesión mensual, que ha tenido lugar en Ziburu, con fecha 31 de enero, ha acordado efectuar la siguiente declaración:

— Que la forma vasca del nombre de la capital de Navarra es *Iruñea*, tal como se determinó en su día y figura en el *Nafarroako Herri Izendiegia/Nomenclátor Euskérico de Navarra*.

— Que su declinación es como sigue:

Iruñea, “Pamplona”

Iruñeko, “de Pamplona”

Iruñera, “A, hacia Pamplona”

Iruñetik, “desde Pamplona”

Iruñeari, “a, para Pamplona”, etc.

Ciboure, 31-I-1991

2.—EUSKALTZAINDIAREN ERABAKI-PROPOSAMENA:
Ramón Jauregi jaunaren eskariari zer erantzun

1. Atseginez jaso du Euskaltzaindiak Euskal Herriko alderdi politiko nagusietako baten izenean azalpena eta eritzi-eskea.

2. Ongi dakizunez, erakunde ofiziala da Euskaltzaindia, bertoko herri-agintek sortua eta, dirubidez zein lege-arauz, behar den babesez hornitua.

Eginkizun zehatz eta berariazkoa du Euskaltzaindiak: euskara egokitu, babestu eta indarberritzea.

Begirune handiz ikusten ditu Euskaltzaindiak bere albo-hizkuntza nagusiak eta haiei dagozkien hiztun-taldeak; baina euskararen erabilera zuzena bermatu eta euskaldunen bide-argitzaile izatea du helburu eta xede bakar.

3. Euskaltzaindiaren berariazko jardun-esparru horretan bidelagun eta eritzi-emaileak atseginez eta beso-zabalik hartzen ditu Akademia honek. Eta, ongi ulertuko duzunez, orain, ere jarrera eta abegi on berberaz gauzkazu.

Jakizu, beraz, euskara indarberritzeko orohar, eta bere erabilera zuzenoparoa bermatzeko bereziki, datozkeen proposamenak behar arretaz aztertuko dituela Euskaltzaindiak eta behar den erabakia hartuko.

4. Hizkuntzari buruzko alderdi-politikan jardutea ez da Euskaltzaindiaren egitekoa. Ez dagokio, ondorioz, aurreko beste zenbait kasutan bezala, Legebiltzarrean Batzorde jakinik sortzea komeni den ala ez adieraztea.

Gasteiz, 1991, apirilak 12

III. EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENAK:

Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz

Hogeitahamabi urte igaro dira Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz lehen agiria eman zuenetik (ikus *Euskera*, 1959, 214-217 or.). Agiri haren ondorenak guganaino heldu dira, hari eskerrak sendatu baitzen garai hartan euskarak zituen gaitzetatik bat: garbizalekeria.

Beste garaiak ziren haiek eta beste garaiak eta gaitzak dira gaurkoak, eta euskararen egungo eguneko gaitz bat askoren ustez mordoilokeria da, lehengoaren kontrakoa, bai baitirudi bazter batetik besterantz joan dela gaitz zaharra sendatu beharraren beharrez. Eta beste gauza askotan bezala hemen ere bazterrek elkar jotzen dutelako, orduko Euskaltzaindiak gaitz haren erremedioa ezarri zuen *Oinarri legeak* balio luke oraingoa ere sendatzeko. Honela zioen (grafia gaurkotuz):

“Hiztegi sailean ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz. Hori hiztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea”.

Zenbait idazlek, izan ere, hitz asmatuetara jotzen zuten orduan beste zenbait hitz nardatuz eta arbuiatuz, erdal usaina zeriela eta euskal hitzak ez zirelaketan; eta asmatuak gaitzesteaz gainera Euskaltzaindiak euskal hitzak zein ziren irakatsi nahi izan zuen behin betiko ondoko lerroetan, esanez: *Euskal hitzak dira euskara bizian sustraiatuak daudenak*.

Bada orduan zenbait hitzen euskal nortasuna defendatu zuen bezala, egungo egunean beste zenbaiten arrotasuna salatu nahi du Euskaltzaindiak, esanez: *Euskara bizian sustraiatuak ez daudenak ez dira euskal hitzak*, sustraitzen ez diren bitartean bederen; eta orduan bezala nahi du irakatsi hitz baten sustraiei igertzeko hiru irizpide daudela: alegia, hitzaren hedadura, hitzaren antzinatasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan, ezen erdaratikako hitzak izan daitezke noski euskal hitzak, baina horrek ez du esan nahi erdaratikako hitz guziak euskal hitz direnik.

Hiru irizpide horiei begira, ezin uka azken urteotan euskal hitzak ez diren mordo bat entzuten dela, telekomunikabideetan batez ere. Batzuk ezinbestean erabiltzen dira, ordain ezagunik ez dutelako. Beste asko ez, ordea, zabarkeriaz baizik. Ez da beharrezko lehengo agiri hartan bezala hemen zerrenda luzea eskaintzea euskal hitzak ez direnena. Askiko da ale batzuk ematea.

Ez dira euskal hitzak *muntra, butxet, rehen, amotinatatu, frakaso, sorteo, arratxa* (“Errealak oso *arratxa* ona du”) *erreskatatu, entzerrona*. Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditza-keenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen direla Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.

Euskaltzaindiak bada hitz hauek eta hauen antzekoak diren beste asko ahalik gutxiena erabil ditzaten eskatzen die euskal idazle, hizlari, irakasle eta gainerako telekomunikabideetako esatariei eta horien ordezkari dezan betiko hitz zaharretara. Berez hitz berrien eratzea Euskaltzaindiari ez dagokion arren, Euskaltzaindia prest dago bere aldetik egiteko honetan laguntzeko.

Azkenik orduan esana berriz errepikatuz, inork gaizki adi ez dezan mezua: kultura eta zibilizazioko hitzak, mailegatuak izanik ere, ontzat hartzen dira, hala nola *politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro*, eta abar.

Bilbon, 1991.eko apirilaren 26an.

DECLARACION SEGUNDA DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA ACERCA DEL VOCABULARIO DEL EUSKARA

Al haber transcurrido ya 32 años desde la fecha en que Euskaltzaindia emitió su primera declaración acerca de la identidad de las voces vascas (véase *Euskera*, 1959, p. 214-217). Hasta ahora han llegado los efectos de aquella declaración, que no en vano logró curar una de las dolencias del euskara de la época: el exagerado purismo.

Eran otros tiempos aquéllos, como son otros los tiempos y los males presentes, y una de las dolencias del euskara de nuestros días es a juicio de no pocos la ramplonería, mal contrario a aquél, de tal manera que parece como si hubiera basculado de un extremo al otro en su afán de corregir el viejo mal. Y como, al igual que ocurre en otros campos, también aquí los extremos se tocan, el *Principio básico* que estableció Euskaltzaindia para remedio de aquel vicio puede valer también para la corrección de éste. Decía así:

“En el terreno del léxico o vocabulario no se debe recurrir a términos inventados o de forja más que cuando no haya otro remedio, y aun entonces cuidando que la formación se ajuste a la índole y exigencias de la lengua. Esto en cuanto al léxico; porque, si se trata de la gramática, es claro que en este terreno jamás se debe tolerar la invención o alteración de la lengua”.

En efecto, no pocos escritores de la época recurrían a voces inventadas con desprecio de otras, tachadas de no vascas por razón de su origen latino-románico y que Euskaltzaindia no sólo descalificó las primeras, sino que quiso además enseñar de una vez por todas cuáles eran voces vascas, al afirmar a renglón seguido: *Son vascas aquellas voces que tienen arraigo en la lengua viva.*

Pues bien, así como entonces defendió Euskaltzaindia la identidad de ciertos vocablos vascos, hoy estima preciso delatar el carácter extraño de otros, proclamando que las voces que no tienen arraigo en la lengua viva no son vascas al menos hasta tanto arraiguen, y sentar la doctrina de que son tres los criterios para discernir el arraigo de un vocablo, a saber, su difusión, su antigüedad y su empleo por los autores clásicos, puesto que, si bien es verdad que voces procedentes del latín o de una lengua románica pueden ser vascas, no es menos cierto que no lo son todas.

A la luz de este triple criterio resulta claro que en estos últimos años se oyen a menudo no pocas expresiones que no son vascas, sobre todo en los medios de comunicación. Algunas se emplean por necesidad, por falta de una voz autóctona sinónima. Otras en cambio por pura desidia. No es menester que, como en aquella primera declaración, se cite aquí una larga serie de palabras que a nuestro juicio no son vascas. Bastará una pequeña muestra.

No son voces vascas *muntra*, *butxet*, *rehén*, *amotinatu*, *frakaso*, *sorteo*, *arratxa* (“Errealak oso *arratxa* ona du”), *erreskatatu*, *entzerrona*. Como tampoco lo son en general todas aquellas cuya comprensión requiere el previo conocimiento del francés o del español, de forma que parece como si, para entender ciertos programas de ciertos medios de comunicación, se obligara a los vascos de Iparralde a aprender previamente el español y a los de Hegoalde el francés.

Pues bien, Euskaltzaindia ruega a los escritores, oradores, docentes y locutores de los medios de comunicación que usen lo menos posible de tales términos y otros semejantes a ellos, y echen mano en su lugar de los viejos vocablos de “toda la vida”. Y si bien la formación de nuevas voces no es incumbencia de Euskaltzaindia, ésta se ofrece a colaborar en esta tarea.

Finalmente Euskaltzaindia reitera lo dicho antes, para no inducir a nadie a engaño: el uso de ciertos términos culturales y de civilización se aprueba naturalmente, aun siendo préstamos; tales como *politika*, *teknika*, *literatura*, *liturgia*, *metro*, *kilometro*, etc.

Bilbao, 26 de abril de 1991.

IV. EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Ziburun, J. Duvoisin kapitainaren urteburukari egitekoak diren ospakizunen aurretik, 1991ko urtarrilaren 31an, arratsaldeko 4etan egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea "Denek Batean" izeneko biltokian. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra azken orduan, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zea-rrera ekonomi eragilea, urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute, J. L. Davant, F. Krutwig, J. San Martin eta A. Zavala jaunek.

Abenduko batzar-agiria onartu da.

A. Berrueta Gasteizko urgazlearen hil-berria aditzera eman da, bere merezi-menduen aipamena datorren batzarrean egingo delarik.

J. A. Arana Martijak ere ama galdu berri du eta doluminak azaldu dizkio euskaltzainburuak batzartuen izenean.

J. M. Barandiaran euskaltzainari *Carlos III* Espainiako domina eman diote Madrilen eta Euskaltzaindiaren goresmenak eman zaizkio, horrela jakineraziko zaiolarik berari.

Diruzaintza

J. A. Arana Martijak 1990eko diru kontuak aipatu ditu. Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek iazko diru laguntzaren zati bat ordaindu gabe daukatela, aditzera eman du. Ustez laster jasotzekoa da diru hori. Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren ondorioz, udalen laguntza bertan moztu da, bakar batzuk bakarrik jarraitu dutelarik ematen. Gero ekonomi-eragilerari eman dio hitza 1991ko txosten ekonomikoaren aurkezpena egiteko.

J. J. Zearretak dio Jarraipen Batzordearentzat egindako proposamena dela, agintarien arduradunekin behin eta berriz eztabaidatu ondoren idatzia. Hiru ataletan banaturik dago txostena: Sarrerak, irteerak eta egitasmoak.

Orriz-orri ikusteko astirik ez dagoelarik batzarrean, nor-berak etxean astiro ikus dezake, baina puntu eztabaidagarrien azalpena egin du aurretik.

Batzordeei dagokienez, agirietan zenbait zehaztasun gehitu beharko dira aurrerantzean, hala nola bilkuren iraupena, kotxe gidarien izena eta lansai osoan egon ez diren orduak. Inprimaki bereziak egingo dira balditza guzti hauen

azalpenarekin eta beti inprimaki horietan bidaliko dira agiriak Bilboko bulegoetara, eta ez bestelako paperetan.

Batzordekideen bazkariei buruz, bakoitzak ordainduko du berea, dietekin batera itzuliko zaielarik onartutako bazkari gastua. Hilabetero nahi da aldiandiko ordainketa burutu.

Eskuarteoak

Euskaltzaindiaren XI. Biltzarrean parte hartu nahi duten guztiak bete behar dituzten baldintzen zerrenda irakurri du J. L. Lizundiak, hala nola lanen neurria, bidaltzeko epea, hitzaldi eta txostenen iraupena, etab. Partaideek datorren otsailaren 28rako egin behar dute lanen eskaintza. Akademi batzordearen esku gelditzen da gero aukera egitea.

Otsailaren 8an Londonen irekiko den Bonaparteren Erakusketa aipatu du J. A. Arana Martijak eta horretarako inprimatu diren iragarkiak azaldu ditu. Kartel horiek berak baliatuko dira gero Euskal Herriko hiri nagusietan egin nahi diren erakusketen berri emateko.

Catalunya-ko Generalitateko buru den Jordi Pujol jaunaren gutun bat jaso da, Hizkuntza Aniztasuna Europan izenburuarekin, apirilaren 4, 5 eta 6an Barcelonan egingo diren nazioarteko jardunaldien berri emanez, eta bertan parte hartzeko gomita zuzenduz. I. Sarasola izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari eta uste gabekoren batengatik joaterik ez balu, Tx. Peillenek ordezkatzuko du.

Asturiasko Printzea izeneko erakundeak gutun baten bidez jakinerazten dio Euskaltzaindiari 1991ko sarirako deialdia, hautagairen baten proposamena egiteko duen eskubidea baliatzera gonbidatuz. Elkarrizketa moduko solasalditxo baten ondoren J. M. Barandiaran euskaltzainaren izena eman eta ganoraz aurkeztea, erabaki da.

Euskaltzaindiak proposatutako *Iruña* izenaren orden *Iruña* ofizialtzat hartu dutela bertako agintariek, aditzera eman du J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak. Solasaldi luzea sortu du berriak eta, edozein duda-muda argitzeko, Euskaltzaindiak aurrez emandako aholkua eta Nafarroako Gobernuak bere *Herri Izendegian* argitaratua dela euskarazko izen zuzena, birretsi du. Euskal Herriari zuzendutako adierazpen baten medioz zabalduko da erabakia.

Ziburuko Udaletxean Duvoisini omenaldia egiteko moztu da batzarrea, amaitu ez delarik iragarritako gaien zerrenda.

* * *

Ziburun, 1991ko otsailaren lehen egunean, goizeko hamar eta erdietan bildu dira bezperako batzarrean egondako euskaltzain guztiak "Denek batean" etxeko bilkuren gelan.

Izendapenak

Abenduko batzarrerako Andoainen aurkeztutako proposamenen arabera, izendapen hauek egin ditu Euskaltzaindiak:

Ohorezkoak, R. De Rijk, J. M. Jimeno Jurio, Jon Etxaide eta Yu. Zitsar'.

Urgazle, J. A. Aduriz, B. Atxaga, G. Aurrekoetxea, G. Brettschneider, A. Eguzkitza, M. Ensunza, P. Esnal, J. M. Etxebarria, I. Idiazabal, J. A. Lakarra, J. K. Odriozola, J. Ortiz de Urbina, R. M. Pagola, G. Rebuschi, J. Sarrionandia, I. Segurola, P. Urkizu eta A. Urrutia.

Karguak: Arautegiak ematen dion eskubidez baliatuz, Zuzendaritzak honako proposamen hauek egin ditu: L. Villasante ikersailburu, E. Knörr Jagon sailburu eta P. Salaburu liburuzain. Beste hautagairen baten proposamenik badagoen, galdetu du Euskaltzainburuak, eta P. Altunak, B. Oihartzabalen izena eman du Iker sailburutzat. Bototara jo ondoren Zuzendaritzaren proposamena ontzat eman da.

Ordezkaritzetako arduradunak lehen bezala gelditu dira: P. Charritton Baionan, J. M. Lekuona Donostian, E. Knörr Gasteizen eta J. M. Satrustegi Iruñean.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

JEAN DUVOISINEN MENDEURRENEKO BATZAR IREKIA

1991.eko urtarrilaren 31n, Ziburuko "Denek Batean" egoitzan bildu dira mahaipuruan: Albert Pery Ziburuko auzapeza, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria eta J. A. Arana Martija diruzaina. Euskaltzain osoez gain, hurrengo urgazleok han zeuden: X. Arbelbide, R. Badiola, J. Camino, J. B. Dirassar, J. Fernandez Setien, B. Goiti, M. Itzaina, D. Landart, J. M. Larrarte, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta.

Albert Pery auzapezak Euskaltzaindiari ongi etorria egiten dio, Ziburuko herriak pozik ikusten duelarik mendeurrenkari Euskaltzaindia hiru egun hauetan bertan bildu delako.

Jarraian, J. Hartschelhar euskaltzainburuak, bere sarrera hitzak egiten ditu, Ziburuko agintariei eskerrak emanez eta Euskaltzaindiaren betekizunak adieraziz. Hiru arrazoiz eskertzen duelarik auzapeza, alegia, lehendabizikoz bilkura hauetarako Herriko Kontseiluak babesa eman diolako Euskaltzaindiari; bigarrenik, Udalaren "Denek Batean" zerbitzu egoitza uzteagatik eta hirugarrenik, Ziburu delako Ipar Euskal Herriko zazpi Udaletariko bat, Euskaltzaindiari diru laguntza ematen diona.

Gero, Duvoisinin heriotzearen 100 urte betetzen bai dira egun, horregatik hartu duela parada Euskaltzaindiak, Duvoisin omenduz batera, bere VII. Barne Jardunaldiak egiteko, bi urterik behin, bakoitzean herrialde batetan txandatuz.

Segidan, “Donibane-Ziburu euskal literaturaren iturri” izeneko txostena azaltzen du P. Charriton euskaltzainak. Herri biotako idazleei buruz mintzatu da, berauen berezitasun eta adibide ugari eskainirik. Bestalde, hemengo izkiriartzailen urratsak azaltzen ahalegindu da suharki mintzatzailea, garai hartako arazoak agertuz eta idazleon berezitasun behinenak goraipaturik.

Azkenik, X. Diharce “Iratzeder” euskaltzainak “Euskarazko lehen Biblia egin zuen kapitainaren lanak eta minak” izeneko txostena irakurtzen du. Hizlariak Duboisinen txikitako gorabehera anitz adierazi ditu eta baita haren familiako zenbait pasadizu garrantzitsu ere. Bestalde, Duvoisin eta L. L. Bonaparte printzearen harreman ugari eta estuak goraipatu ditu. Orohar Duboisinen meritu ikaragarria nabarmentzea nahi izan du hizlariak, zeren Biblia *osoa* itzuli dutenak gutxi-gutxi baitira.

Bilkura amaitu ondoren, Herriko Kontseiluak eskainirik, ondoan dagoen Udaletxean, aperitifa bat hartzen dute Ziburuko agintari, euskaltzain oso, urgazle eta bildutakoek.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

VII. Barne jardunaldien agiria

1991.eko otsailaren lean, Ziburuko Udal egoitzan, arratsaldeko etan, bildu dira: J. Haritshelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charrington, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra azken orduan, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, Iñaki Segurola, OEH azpibatzaordearen idazkaria; Miren Azkarate eta Jose Antonio Aduriz, LEF azpibatzaordearen arduradun eta idazkaria; Andoni Sagarna, EEBS azpibatzaorde idazkaria; Patxi Goenaga, Gramatika batzaorde idazkaria, Jose Luis Lizundia, Onomastika batzaordearen eta Jagon sailaren idazkaria; Jesus Lavin, Literatura Klasiko azpibatzaordearen idazkaria; Ricardo Badiola, Argitarapen batzaordearen idazkari-eragilea; Juan Jose Zearreta, ekonomi-eragilea.

Ezin etorria adierazi dute: J. L. Davant, F. Krutwig, J. San Martin eta A. Zavala jaunek.

Lehendabizi Patxi Goenagak Gramatika batzaordearen idazkariak, aurtengo programen zehaztapen eta kronogramaren azalpena, hitzez, ematen du. Esan zaio beharrezkoa dela kronograma idatziz egitea, Herri Aginteekin dugun Hitzarmenaren arabera Jarraipen batzaordera igorri ahal izateko. Batzaordearen eraberritzea, alde batetik, Jesus Mari Makazaga batzaordearen lanetarako hitzartuta dagoen bekaduna gehitzea erabaki da.

Hiztegigintza batzaordearen hiru azpibatzaordeak aztertzen dira jarraian. Lehendabizi I. Sarasola zuzendari arduradunak eta I. Segurola idazkariak OEHren lanaren azalpena ematen dute. Jarraian, M. Azkarate eta J. A. Adurizek LEF azpibatzaordearena eta hirugarrenik, A. Sagarnak EEBSrena. Segidan hiru azpibatzaordeen eraberritzea egiten da, honela utzirik: OEHren arduradun I. Sarasola, idazkari I. Segurola, kideak: A. Egia, G. Fraile, M.^a J. Kerexeta, E. Kruzeta, B. Urgell, E. Valencia. LEFren arduradun M. Azkarate, idazkari J. A. Aduriz, kideak: P. Altuna, J. C. Odriozola, A. Sagarna, M. Ensunza, P. Goenaga, J. M.^a Larrarte, L. M.^a Mujika, L. Otaegi, B. Oihartzabal, I. Sarasola, P. Uribarren, T. Uribeetxebarria, P. Urkizu, M. Zalbide. EEBSren arduradun A. Urrutia, idazkari A. Sagarna, kideak: J. A. Aduriz, C. Harlouxet, J. Iturbe, J. M.^a Larrarte, M. Lasa, E. Oregi, L. Otaegi. Batzaorde osoaren buru I. Sarasola eta idazkari M. Zalbide izendatzen dira.

III. Dialektologia. G. Aurrekoetxeak EHHaren aurtengo lanen azalpena eta kronograma ematen du. Jarraian, Tx. Peillenek Euskalkien Ikerketako azpibatzaordearen azalpena egiten du. Metodologiari buruz irizpen desberdinak azaltzen dituzte zenbait euskaltzainek eta komenigarritzat jo da euskaltzainen hileroko bilkura batean azpibatzaordearen eginbideaz, propioki gaietan sarturik, eztabaidatzea gai akademiko bezala. Jarraian, azpibatzaorde biak berriztatzen dira, era

honetan finkaturik. Atlasgintza: arduraduna J. Haritschelhar, idazkari teknikoak G. Aurrekoetxea eta X. Videgain, kideak: I. Atutxa, A. M.^a Etxaide, J. M.^a Etxebarria, I. Etxebeste, K. Segurola.

Euskalkien ikerketa: arduradun Tx. Peillen, idazkari X. Videgain, kideak: G. Aurrekoetxea, A. M.^a Etxaide, J. M.^a Etxebarria, I. Gaminde, A. Irigoien, R. M. Pagola, K. Rotaetxe.

IV. Onomastika. E. Knörr eta J. L. Lizundia batzordeburu eta idazkariak aurtengo programen zehaztapen eta kronograma azaltzen dute. Deituren ikerketa egin beharrezkotzat jotzen dela azpimarratu da, hala eskatzen dutelako Herri Agintean izenean Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusikoek.

Mikel Gorrotxategi batzordekide berritza proposatzen da eta honela gelditzen da, gainontzekoak lehen bezala gelditzen direlarik, batzordea: buru E. Knörr, buruorde A. Irigoien, idazkari J. L. Lizundia, kideak: R. Cierbide, J. A. Gonzalez Salazar, M. Gorrotxategi, A. Iñigo, J. M.^a Jimeno Jurio, J. B. Orpustan, P. Salaberri, J. San Martin, J. M. Satrustegi.

V. Literatura. J. Lavinek, F. Krutwigen ezin etorria adieraziz, ematen du talde honen eginkizunen kontu, adierazi zaio euskaltzainen ekaineko bilkuran, hain zuzen Aralarren egindako II. Programa Jardunaldietan azpibatzerde hau deuseztatzea erabaki zela. F. Krutwig bakarrik bere lagintzan jardungo lukeelarik, baina batzorderik gabe.

Herri Literatura eta Literatura Ikerketa azpibatzerdeen aurtengo ekintzen zehaztapena, hitzez, J. M. Lekuona batzordeburuak egiten du. Jarraian, honela gelditzen dira azpibatzerdeak. Herri-literatura azpibatzerdea: arduradun A. Zavalá, idazkari P. Esnal, kideak: J. M.^a Aranalde, A. Aranburu, J. M.^a Etxezarreta, A. Irigoien, J. M.^a Iriondo, M. Itzaina, E. Larre, J. M. Lekuona, A. Muniategi.

Literatura Ikerketa: arduradun J. M. Lekuona, idazkari J. Kortazar, kideak: X. Altzibar, A. Arkotxa, G. Aulestia, P. Charritton, G. Garate, J. Haritschelhar, J. Juaristi, J. M.^a Lasagasbaster, L. M.^a Mujika, J. B. Orpustan, J. Otaegi, Tx. Peillen, A. Toledo, B. Uraga, P. Urkizu.

VI. Jagon sailaren berri E. Knörr sailburuak eman du. Batzorde bakarreko sail honen ekintzen azalpena egin ondoren, lehengoz gain kide berriak proposatzen ditu, hots, lehengo herrialdeetako ordezkarietz gain, beste batzuk ere beharrezkotzat jotzen direlarik, hain zuzen hurrengo hauek: J. M.^a Velez de Mendizabal, arabarra; X. Kintana eta A. Urrutia, bizkaitarrak; J. A. Letamendia, gipuzkoarra; A. Iñigo eta P. Zabaleta, nafarrak; R. Camblong, lapurtarra. Onartzen da proposamena, beraz, honela gelditzen da Jagon saila: buru E. Knörr, idazkari J. L. Lizundia, kideak: J. A. Arana Martija, R. Camblong, P. Charritton, A. Iñigo, X. Kintana, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. M. Satrustegi, A. Urrutia, J. M.^a Velez de Mendizabal, P. Zabaleta, M. Zalbide.

Eta egiturazko batzordeak eta suntsikorak biharamunerako utziz, bilkura mozten da 6 t'erdietan, Donibane-Lohizuneko Herriko Etxean, Haranederren *Iesu Christoren Evangelio Saindua* liburuaren aurkezpena izan delarik. Bertan hurrengook parte hartu dute, hots: Paul Badiola auzapeza, baina beronen ordeza, auzapez ordeza; J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Altuna euskaltzaina, berau liburuaren paratzailea izanik.

VII. Barne jardunaldien jarraipena

1991.eko otsailaren 2an, Ziburuko Udal egoitzan, goizeko 9 t'erdietan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariordea; J. J. Zearreta ekonomi-eragilea eta R. Badiola argitalpenen-eragilea, urgazleak.

Lehendabizi bezperan berriztapena amaitzeke utzitako batzordeak aztertu dira, hots, egiturazkoak. Azkua Biblioteka, VII. batzordea, lehen bezala utzi da. Beraz, VII. batzordea: buru P. Salaburu, arduradun/idazkari J. A. Arana Martija, ekonomi-eragile J. J. Zearreta, kideak; F. Barrenengoa, J. Bilbao, J. A. Etxebarria, J. L. Goikoetxea.

Argitarapen batzordea era lehengoan uztea erabakitzen da. Beraz, VIII. batzordea: buru J. Haritschelhar, eragile-idazkari R. Badiola, kideak: J. M. Lekuona, J. M. Satrustegi, J. A. Arana Martija, L. Villasante, E. Knörr, P. Salaburu, P. Altuna, P. Charritton.

Batzorde Juridikoa ere lehengoan uztea erabaki da. Beraz, IX. batzordea: buru J. Haritschelhar, idazkari J. L. Lizundia, kideak: J. A. Arana Martija, J. M. Lekuona, A. Muniategi, J. M. Satrustegi, A. Urrutia, P. Zabaleta.

* * *

Batzorde suntsikorrak: Bonaparte mendurrenekoan irailean izendatutakoez gain, jaun-andere hauek hautatzen dira, akademi azpibatzorderako hain zuzen: J. Allières, B. Oihartzabal, R. M. Pagola. Oroitarazten da batzorde honek bere hurrengo bilera martxoaren 8an izango duela. Batzorde honetatik azpibatzorde iraunkor-rako J. Haritschelhar, J. A. Arana Martija, X. Videgain, G. Aurrekoetxea hautatzen dira.

P. Salaburuk azaroko batzarrean proposatu bezala, Arantzazuko Biltzarraren 25. urtemuga dela eta, euskararen batasunaren ildotik garatzeko edo berrikusteko dauden gaiak aztertzeko batzordea Jardunaldi hauetarako izendatu beharra utzi zen. Elkarriketa baten ondoren jaun hauek izandaten dira: L. Villasante, P. Altuna, P. Charritton, P. Salaburu, I. Sarasola. Boskote hau hurrengo bilkura batetarako bere eginkizun eta egitura proposamena ekartzekotan gelditu da.

* * *

Egitura edo ibilpidezko gaiak. Lehen puntu bezala, J. A. Arana Martija diruzainak *Egoitza, ordezkari eta bestelako lantaldeen ibilpiderako erregela berezian* proposamena irakurtzen du. Egiteko arrazoi nagusiak hauek dira: 1. Egoitza berrian Euskaltzaindiaren zerbitzu nagusi eta arruntak erabat kokatzea. 2. Ordezkaritzetako lanen antolamendu eta kidekatzea. 3. Egitasmo berezietako, hots,

OEH, EHHA eta Gramatika lankide hitzartuen artezkaritza. 4. Hitzarmenaren ondoriozko kontu errendatzea.

Ondorioz, hiru proposamenak azaltzen ditu: 1. Batzordeño suntsikor batek txostena idaztea. 2. Txosten horrek, ez Euskaltzaindiaren arautegiaz, ez legeriaz, aurkakorik izan ez dezan, Batzorde Juridikoak aholku erizpena ematea. 3. Euskaltzainburgoak azter eta onartzea. Orohar onartzen da J. A. Arana Martijari, J. L. Lizundiari eta J. J. Zearretari gutun zirriborroa agintzen zaielarik, gero, Euskaltzaindiak erabaki dezan.

Gai akademikoen egutegia. Puntu honetaz eztabaida luze bat sortzen da. Alde batetik, denek ikusten dute oraingo goizeko hileroko bilkura gutxiegi dela Euskaltzaindiak dituen gai akademikoak tratatzeko. Bestalde, arratsaldeko ohizko bilera kentzearen aldekoak egonik ere, oraingoz, bi hilabetero behin utzi beharra ere ikusten dute gehientsuek, hala proposatzen duelarik euskaltzainburuak. A. Iri-goienek dio Espainiako Hikuntz Akademia astero biltzen dela eta nolabait bide horretara ere hurbiltzen joan beharko litzatekeela. Bestalde, J. L. Lizundia idazkariordeak, gerra aurreko batzar egutegiaren kopia bat irakurtzen du, zeinetan ikusten baita hileroko bi egun edota egun t'erdietan biltzen zirela euskaltzainak. Hori izan daitekeela bide bat ikusi da. Ostegun arratsaldean euskaltzainak bilduz gai akademiko ez direnak tratatzeko, hala nola, izendapen, eskuarteko, administrazio gai eta beste. Eta ostiralean, gai akademikoak. Hasteko, datorren hilabeteko bilkura goiz eta arratsaldez, gai akademikoez horni daitekeela ikusi da. Arratsaldeko txostenik gabe, alegia. Azken baten denek onartzen dute Euskaltzaindiari datozkion eginkizun eta lanak ikusirik, gai akademikoentzako egun osoko edo egun t'erdiko bilkurak egiten hasi beharra. Oraingoz, zeharo baztertu gabe, azken ostiraletako batzarreak, bereziki Gipuzkoako Foru Diputazioan egiten direnak.

Euskaltzaindiaren bilera desberdinak sinkronizatu beharraz izeneko txostena irakruten du J. L. Lizundia idazkariordeak. Akademiaren hileroko batzordeetako eta Zuzendaritzako bilkurek, geroago eta sinkronizatu behar larriagoa omen dute, oraintsuko adibide batzuk jartzen dituelarik. Ondorioz proposamen hau egiten du: batzordeburu eta idazkari bakoitzak, presta dezatela, urtariletik uztailerarte, hileko egun eta toki jakin baten finkatuz, egutegi bat burutuz. Orohar onartzen da batzordeburu eta idazkariak jakitun jarri bitez bakoitzaren egutegi proposamenak egoitzara bidali ditzaten.

E. Knörrek, euskaltzainburuari, Barne Jardunaldi hauek direla eta, egindako gutuna irakurtzen du, sei puntutan banatzen duelarik. Laburbilduz hauek dira: 1. Batzorde eta kargudun guztiek beren kontuak ematea. 2. Gurea bezalako erakunde guztiek duten bozketa-jarduera edo prozedura, "adineko mahai"tik hasita, arautegia aldatu gabe, Barne Erregelek garatzea. 3. Arautegiaren 4. artikulua eta Barne Erregelaren 40. arautuz, euskaltzain osoak hautatzeko erizpideak, hau da kopuru orokorra eta euskalkien arabeko kopurua zehaztea. 4. Euskaltzain ohorezko eta urgazletarako proposamen ugarrisko egin zirela Andoainen. 5. Egoitza eta Ordezkaritzen barne ibilpidea Lekarozeg gero egiteke dagoela. 6. Barne Erregelaren 12. artikulua ez dela betetzen kexa.

Lehenengokoa ongi ikusten da; bigarrenari buruz, euskaltzainburuak dio, berak ez duela deus horren kontra, beraz, Barne Erregeletan garatzeko testu zirriborroa idazkariordeari presta dezala agintzen zaio, hirugarrenari buruz, gauza

bera; laugarrena bezperan ikusia da; bosgarrenak badu bere gaia eta seigarrenari buruz, ez da deus erabakitzen.

Azkenik, J. A. Arana Martija diruzainak eta J. J. Zearreta ekonomia eragileak 1991ko Aurrekontu Araua banatu eta aurkezten dute. Aurrekontu Arau hau, oro har, aurreko urteetan onartutakoekin bat dator, urtez-urte eta batez ere, dirukopuruei egiten zaizkien aldaketak salbu.

Baina aurtengo honek badu berezitasun nabarmen bat, 12. artikuluan, *Batzar eguneko dietei* dagokiena hain zuzen: 1. Egun osoko bileraren ordaina 10.000tik 12.000ra igoten da. 2. Bestelako bilerak 2.000/orduko ordainduko dira. 3. Hiri gehienetan apartalekuan utzi behar izaten denez, autoeramaileei 500 pta. ordainduko zaie eguneko. 4. Bilera eguneko bazkaria bakoitzak ordainduko du, horretarako 2.500 pta. luzatuko dizkio Diruzaintzak. 5. Batzorde-idazkariak agiriarekin batera, bazkalkide eta autoeramaileen izenak bidali beharko ditu.

Proposamen hauei buruzko zenbait galdera egin dituzte batzordeburuek, eta Diruzaintzak proposamenak egiteko izan dituen oinarri eta arrazoinak azaldu ondoren, ontzat eman dira.

Eta besterik gabe, eguerdiko 12 t'erdietan, VII. Barne Jardunaldiak amaitutzat ematen dira.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

1991-II-22

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko otsailaren 22an egin dute euskaltzainek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

J. A. Arana Martija eta J. L. Davant jaunek ezin etorria adierazi dute.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

Hilberriak

Juan Ramon Urquijo jaunaren hil-berria aipatu da, eta Euskaltzaindiarekin beti izandako harreman baliotsuak azpimarratuz, sendiari doluminak adieraztea erabaki da.

Francesc de Borja Moll, katalanerazko hiztegitagilearen heriotzea gogorarazi du E. Knörrek, dolu agerpena egiteko eskatuz.

Alessandro Baussani, euskaltzain urgazlea, duela urteren bat hil zela Erroman, esan da bestalde, eta berri zehatzagoak lortzekotan dira aipatu dutenak.

Orotariko euskal hiztegiak

Euskaltzainburuaren sarrera labur baten ondoren, OEH-ren corpora erabiltzeko arau batzuen proposamena egin du I. Sarasolak. Bilduma EJIE-ren ordenagailuetan dago euskarri magnetikoetan sarturik. Corpuseko hitz guzien zerrenda, bestalde, eta euren testu ingurua, alfabetoz sailkatuak ezartzen da ikerleek eskumenean. Gai hauez baliatzeko baldintzak aipatu ditu. Euskarri magnetikoak berak erabiltzea eskatuko balu ikerleren batek, Hizkuntza Politikarako Idazkari-tzarekin konpondu beharko luke, eragozpen asko sortzen bait ditu eskariak.

Komenigarri ikusten du ikerlarien artean baliagaien berri zabaltzea.

Euskaltzainek txostena eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauek hartu dira: Hitz sailkatuen zerrenda erabiltzeko euskaltzain baten edo testi zuzendariaren bidez egingo da eskaria, eta ezin da hiztegi bat egiteko baliatu.

Azkue Biblioteka ere aipatu da eta ikerlan hauetarako sarrera nahi dutenek euskaltzain baten bidez edo ikerlanen zuzendarien babesean eskatuko dute baimena.

Euskarri magnetikoak erabiltzeko baldintza hertsia goak ezarri beharragatik Euskaltzaindiko batzarretik pasa behar da beti eskakizuna.

Euskara batuko batzordea

Ziburun hartutako erabakiaren garapenez goizean bildu da Euskara Batuko batzordea, eta bertan L. Villasante batzordeburu izendatua izan da, P. Salaburu idazkari, P. Altuna, P. Charriton eta I. Sarasola direlarik batzordekideak. Arantzazuko Batzarrearen 25. urtekari egin nahi diren ekintzen barruan, orain arte araututakoa berrikustea, arau berriak eman eta gaizki erabiltzen direnak azaltzea da bere helburua.

P. Salaburuk, orain arte onartutako erabakien aipamena egin du. Saikapen sistematiko baten beharra ikusten da. E. Knörrek bere aldetik, *Euskera*-n argitaratutako hiztegiñoa aipatu du. Onarpenen maila desberdinak ere aipatu dira.

Eztabaidan agertutako kezak era askotakoak dira eta ez beti iritzi berekoak. Gaizki erabili ohi diren esamesen salaketa egin behar dela, alde batetik, baina bide horretatik abiatuz azkeneko ondoretaraino joateak lezarkeen arriskuak ikusten dira. Trakeskeria oso nabarmenak bakarrik salatu behar liratekeela zioenaren sokatik gehiago tiratuz, Euskaltzaindiaren eginkizuna arauak ematea dela eta horretara mugatu behar lukeela ere entzun da, ezinezkoa ikusten omen delako aldrebeskerien jarraipenari buru ematea. Esamesei buruz "gaizki" hitza bera baztertzea proposatu da, eredu aipagarrien lekukotasuna eta klasikoen joera zoin den azalduz edo.

Euskaldunberrien arazoa aipatu da gero.

Komunikabidetan entzuten den azentuaz mintzatu da P. Altuna, gauza asko gaitzetsiko ez bada ere, zerbait hobetsiz abiatzeko proposamena aurkeztuz. Batzordearen eginkizuna gai konkretuak aztertzea izan behar luke, batzuen ustez.

Eskuartekoak

Urtarrileko batzarrean onartu zenez, Euskaltzaindiak hirugarrenez aurkeztu du J. M. Barandiaran euskaltzaina "Príncipe de Asturias" domina hartzeko hauta-gaitzat. Gero jakin denez, Eusko Jaurlaritzak bere aldetik proposamen bera egin du.

Bilbao aldizkariaren azken bi aleetan F. Krutwig euskaltzainaren izenean argitaratutako artikuluetan euskara batuari buruz idatzitakoagatik kexu agertu da E. Knörr, Euskaltzainburuari egindako gutun batean. Ezin dela onartu euskaraz egindako akatsak erdaraz salatzea, azpimarratu du J. San Martin jaunak. Salaketa gogorak egin dira orohar artikuluaeren aurka.

F. Krutwig jaunak bere iritzia azaldu du, eta hor nabarmentzen diren hitz gogorrenak ez zituela inoiz berak esan, aitortu du.

Aldizkari berean edo beste nolabait zuzentzea eskatu zaio eta, Euskaltzainburuaren hitzetan, bakoitzak kasu egin behar du zer eta nola ematen dituen bere berriak.

Eta besterik gabe amaitu da goizeko batzarrea.

* * *

LEF batzordearen azalpena

Arratsaldeko 4etan bildu dira toki berean goizeko euskaltzainez landa, LEF batzordeko M. Azkarate, J. A. Aduriz eta M. Zalbide; J. J. Zearreta ekonomi-eragilea, R. Badiola argitalpen-eragilea eta J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa.

LEF batzordeak hitz elkarketaren ondorioei buruz proposamen batzuk egin ditu. Hitz elkartuen idazkeraz egin nahi duen itaunketa zabal baten berri eman du aurrera eramateko baimena eskatuz. Eztabaida luzea sortu du gaiak. Idazleari egindako galderen ondoan irakurlea ere aintzat hartzea, eskatu du L. Villasantek. Arazo xumeegia ikusten du P. Salaburuk konplexotasun horretako lana hartzeko, eta ez legoke gisa bereko azterlanetan horrela jokatzetik. Batzordeak bere proposamena zuzenean egitea hobe dela, uste du. Aurkezleek diote, jokabide desberdinak egon daitezkeela, eta ez duela merezi arauak proposatzea idazleagoak ez betetzekotan. Hauen gogo, asmo eta beharrak ezagutzeko egin nahi da itaunketa.

Justo Maria Mokoroa urgazle zenduaren aipamena egin du J. San Martin euskaltzainak haren bizitza eta lan oparoa txosten batean azalduz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko martxoaren 22an egin dute goizeko hamarretan euskaltzain osoek hileroko euron batzarrea. Bildu dira: J. Hartischelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariordea, J. J. Zearreta ekonomi-eragilea, G. Aurrekoetxea eta X. Videgain Dialektologia azpi-batzordeetako idazkari, euskaltzain urgazleak.

J. L. Davant, X. Diharce eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute. Otsaileko batzar-agiria onartu da.

Euskal hitzei buruz adierazpena

Euskara Batuko batzordearen izenean P. Altunak txosten bat irakurri du, euskal hitzei buruz bigarren adierazpen bat Euskaltzaindiak egin dezan eskatuz. Duela hogeitamabi urte euskal hitzak zein diren esan bazuen, euskal hitzak zein ez diren, esan behar lukeela orain Euskaltzaindiak. Mordoilokeria salatu nahi da alegia, zabarkeriaz erabili ohi diren hitz traketsak. “Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak”, esan bazen orduan, *euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak*, esan daiteke orain, sustraietara igertzeko irizpide berak emanez: hitzaren hedadura, antzinatasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan. Apirilaren 2an eman zenez adierazpen hura, aurtengo egun berean plazaratzeko asmoz eginik dago txostena. Bigarren orri bat ere banatu da zenbait hitzen erabilera azalduz.

Asmoa ontzat eman arren, gaia aztertzeke epea eskatu dute zenbait euskaltzainek. Datorren apirilaren 16ko epea ezarri da oharrak idatzirik igortzeko, eta hurrengo batzarrean ikusiko da gaia.

***Euskera* aldizkaria**

Argitalpen batzordearen azken bilkuran *Euskera* aldizkariari buruz jasotako iritzia aurkeztu du R. Badiola batzorde idazkariak. Honela dio: *Euskera* agerkarian argitaratuko diren lan guzti-guztiak Euskaltzaindiak onartu ortografian idatziak argitaratuko dira. Proposamen hau Euskaltzaindiak 1990eko ekainean Aralarren onartutako erabakian oinarritzen da. Euskalkiak ezin direla baztertu, dio L. Villasantek, baina gutxiengo batasun bat behar dela onartu. Ortografia, aditza, deklinat-

bidea eta erakusleak, aipatu dira oinarrizko bete beharren artean. Herri literaturan esku zabala agertzea gomendatzen du J. M. Lekuonak.

Kultur-hitzez eztabaida bat ez dela egin, eta egin dadin, eskatu du A. Irigoyenek. Bere egunean eztabaidatu zela, erantzun dio L. Villasantek; debatea ukana dela. Alfabeto onartuan ez dagoela *ph*, *th* eta horrelakorik, esan du P. Salaburuk 1979ko *Euskera* aipatuz.

Huts egiteko arrisku eta guzti, gehiengoaren iritzia jarraitzea dela bidea eta, honako proposamen hau bozkatu da: Euskaltzaindiaren argitalpenetan, euskara batuari buruz emandako arauen arabera idatzitako lanak bakarrik argitaratuko dira. Salbuespenak Argitalpen batzordearen esku gelditzen dira.

A Irigoyenek bere botua salbatzen du, euskaltzain zaharren joerak eta kultura hitzen jatorrizko idazkera errespeta daitezela, eskatuz. F. Krutwig jaunak zuri eman du botua.

Beste batzartuen adostasunarekin onartu da proposamena.

Orotariko euskal hiztegia

Laugarren liburukia plazaratu berri duen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hedadura, diru kostua eta amaiera-epeaz kezkatuik Zuzendaritzak urtarrilean Ziburun azaldutako galderei erantzunez, I. Sarasolak xede mugatuago batzuen helburua aurkeztu du. Labur esanez, lan osoaren koerentzia galdu gabe lekukoen sarrera luzeak laburtzea da eman nahi den lehen urratsa. Hiztegiaren aipamen adierazpenak murrizteak ere hainbat lerro kentzeko aukera ematen du, zenbait eragozpen gora-behera.

Murrizketaren eredu berri honek zailtasunak gehitzen dizkio egitekoari, eta bosgarren liburukiaren zenbait orri ekarri ditu arduradunak, zuzenketez jabetzeko. Guzti horren ondorioz, kalkulu zehatzak egiteko modurik ez badago ere, Hiztegi osoa hamalau bat liburukitan eman daitekeela, uste du. Epea laburtzea, alderantziz, zaila ikusten du. Nola nahi ere, 2000gn. urterako amaitzen ahaleginguko dira.

Ahalegin hori eskertu du Euskaltzainburuak.

Eskuarteak

Bonaparteren batzordeak Bilbon egin du bilera, eta besteak beste, Egoitza berriko lanen egoera ikusi du. Datorren apirilaren 26an egin nahi du Aldundiak etxe eskaintza. Azken ukiteuek denbora gehiago emango dute, noski, baina birrantolaketak nagusia egina izango da.

Bilkura gela aurreko sapaie ertz batean, Okondoko Ulibarrik XIX. mendean euskara zainduko zuten hogeitalau gizoni buruz idatzitako bertsoak ezarri nahi dira. Batzuen iritziz, bi leihoen arteko horman eskuizkribuaren itxura eta guzti hitz horiek jasoko dituen lauki bat ezartzea aski da. Gutxienez gela ikusi behar

dela, esan da, eta datorren batzarre egunean ikusiko da. Idazlearen izena eta urtea ipiniko dira noski.

Euskal Komunitate Autonomoko Epaitegi Gorenak eskari ofizial bat bidali du, *batzoki* hitza arrunta edo orokorra den galdetuz. E. Knörr Jagon sailburuak erantzun-zirriborroa aurkeztu du, S. Arana eta Azkueren hitzetan arrunta dela esaten, nahiz alderdi baten eraginez bere biltokien adierazgarri ere baden.

X. Videgain Dialektologia batzordearen izenean mintzatu da, bere taldearekin bilkura berezi bat egin dezan eskatuz Euskaltzaindiari. Euren lan-asmo eta metodologia hobeki ezagutarazteko, galtzeko arriskuan dauden mintzairen "salbamendu" ekintza, etnotestuak eta lexiko berezitua aipatuko lirateke asmoen esparruan. Laguntza materiala eta lanen argitarapenari buruzko etorkizuna, epe eta mugak, ikusi beharko dira eskakizunetan. Kontutan hartuko du Euskaltzaindiak eskaria.

Vienako grabapenak zertan diren galdetu du P. Charrithonek. Azkue Bibliotekan jasorik daudela zintak, erantzun dio J. A. Arana Martijak, eta testuak papere-tan izkribaturik.

E. Knörrek Euskara Batuko batzordeari Jagon sailaren laguntza eskaini dio esamolde traketsak salatzeko hartzen dituen erabakiak zenbait agerkaritan zabalatzeko. Bakoitzak bere aldetik eta norberak izenpetuz zabalkunde lana egitea, eskatu dute beste euskaltzain batzuk.

Gutunen artean Josep Maraldés i Ibarrek Elche-tik bidalia azpimarra daiteke, Roman del Cerro jaunak idatzitako *El desciframiento de la Lengua Ibérica en la Ofrenda de los pueblos* liburua bidaliz, euskaran oinarritzen direla berun iberikoan agertzen diren hitzak esaten delarik.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

2. BATZARREA

Donostian, 1991.eko martxoaren 22an, Gipuzkoako Foru Diputazioan, arratsaldeko 4etan, bildu dira, goizeko euskaltzainez gain, urgazle hauek: J. A. Arkoitza, M. Antxaga, R. Badiola, A. Eguzkitza, J. Etxaide, J. Fernandez Setien, J. Garmendia Larrañaga, M.^a P. Lasarte eta A. Zatarain.

E. Knörr euskaltzainak, Antonio Berrueta euskaltzain urgazle zendu berriaren bizitzako txostena irakurtzen du, zenbait xehetasun interesgarri azalduz.

Jarraian, J. M. Satrustegi idazkariak goizeko bilkuraren berri ematen du, aztertutako gai nagusiak hauek izanik: 1. Euskara Batuko batzorde berriaren txostenaz. 2. *Euskera* agerkariak hartutako erabakiaz. 3. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aleen argitalpen kopuruaz. 4. Egoitza berriaren etxe-hartzea, datorren hilaren 26an izango dela. 5. Elizanburu euskal idazlearen mendeurrena dela eta sariketa biren, olerki eta hitz lauzkoen, iragarpena.

Dialektologia batzordeak goizean eman duen azalpenaren berri ematen da ondoren. Euskalki Ikerketa azpibatzerdearen lan asmo nagusien berri eman dute, galtzeko arriskuan dauden hizkeren "salbamendu", ikerketa, etnotestuak eta lexiko berezitu eta teknikoaren bilketa azpimarra daitezke, besteak beste.

"Jean Baptiste Etcheberri bere biziaren ilunabarrean 13 liburu idatzi dituen" izeneko txostena irakurtzen du E. Larre euskaltzainak. Laurogeitazortzi urteko euskaltzain urgazlearen bizi, idatzi eta zenbait pasadizuren berri eman du Larrek bere mintzaldi aberatsean. Liburuetatik at *Herria* eta *Almanaka* aldizkarietan idatziriko lanez ere mintzatu da.

Bestalde Etcheberryren idazkera goraiatu eta haren zertzelada ere nabarmendu ditu txostenean zehar. Azkenik, Etcheberryren argitarapenen berri eman du. Zenbait euskaltzainek zorionak eskaini dizkiote hizlariari egindako txosten eta erabilitako idaztankera dela eta.

"Euskaltzaindiaren languntzaileak (1933)" izeneko txostena irakurtzen du J. M. Lekuona euskaltzain eta buruorde denak. Oinarri hartuz ezagunak ez diren bi gutun Martin Lekuona apaizak Crispin Guasche Irurako maisuari bidaliak, "Euskaltzaindiaren laguntzaileak" elkartearen berri eman du txostengileak, 1933ko irailan ospatu zituzten Batzarra eta Ikas-bileratxo bereziki aipatuz.

Orain xehekiago ezagutu ditzakegu "laguntzaileen" asmoak, planak eta eralaguntza. Eta jakingarri ere dena, euskal pedagogiaren unetxo bat argiagotzen da,

maisu bat (Crispin Guash) eta beronen pedagogia metodoa erakuspenetatik azalduz. Berri arretagarriak Euskaltzaindiaren historiarako, batez ere "Jagon Sailari", dagozkionetan.

Eta besterik gabe, amaitutzat ematen da arratsaldeko batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

1991-IV-26

Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko apirilaren 26an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea, R. Badiola argitalpen-eragilea eta G. Aurrekoetxea Bonaparteren mendeurrenako azpibatzerde akademikoaren idazkaria, urgazleak, zegozkien gaietan.

J. San Martin jaunak ezin etorria adierazi du.

Martxoko batzar-agiria zehaztu eta onartu da.

Euskal hitzak

Euskara Batuko batzordearen izenean P. Altunak martxoko batzarrean aurkeztutako euskal hitzei dagokien bigarren adierazpen proposamena, aztertu da lehenik. Orduan esandako epe barnean, E. Knörrek egin dizkio izkribuari zenbait ohar. F. Krutwig jaunak ere ekarri du txosten bat, baina hizkuntza landu eta kultur-hitzei begira egina dagoenez, ez du egungo gaia zuzenean ukitzen. A. Irigoyenek proposamena baztertzea eskatu du, beronek ere jakintza landuen arloko kultur-hitzak dituelarik bereziki gogoan.

Adierazpenaren zirriborroari egindako oharrak idazkera eta euskal-hitz ez direnen zerrenda zehazteko egin dira gehien bat. Banan-banan aipatu dira adibide guztiak eta duda-mudakoak kendu, adierazgarritasunaren mesedetan.

Frantsesetik hartutako hitz arrotzak ere aipatzea erabaki da, hala nola “muntza”, “butxeta”, gaztelerazko “arratxa” (kioletan) eta “rehen” hitzen alboa. Horrela onartu da adierazpena.

Gai honen aurretik bidalitako beste txosten bat badagoela gogorarazi dute Euskara Batuko batzordekideek, eta datorren batzarrean eztabaidatzea erabaki da, maiatzaren 20rako oharrak bidali behar direlarik.

Erantzun ofizialak

Gipuzkoako Foru Aldunditik datorren izkribu baten bidez, gaztelerazko “Hacienda”ren ordainik egokiena *Ogasun* hitza den, galdetzen du Diputatuen Kontseiluak, txosten arrazoitu bat eskatuz.

Zerga inprimakien onarpenean esandakoa birretsi du batzarreak, *Ogasun* hitza onartu baitzuen. Baina, batasun arrazoia dago bestalde, eta Bizkaiak nahiz Arabak hitz hau erabiltzen dutenez ofizialki, Gipuzkoak era hartzea eskatzen du Euskaltzaindiak.

Ramon Jauregui, Legebiltzarreko sozialisten bozeremaileak, gutun bat idatzi du, euskararen garapenerako Legebiltzarrean Batzorde bat sortzea proposatu dela bere taldeak, esanez, eta babesa eskatuz. E. Knörr Jagon sailburuak ekarri du erantzuna, Euskaltzaindiak euskara indarberritu eta bermatzeko ahaleginak arretaz aztertuko dituela aitortuz; baina alderdi-politikan egiten dena ez dela bere helburuetan sartzen. Ez dagokiola, beraz, Legebiltzarrean Batzorde jakinik sortzea Komeni den ala ez adieraztea. Horrela onartu da erantzuna.

Gipuzkoako Beterinarioen Elkartetik gutun bat jaso da, euren lanbidearen izenari buruz dituzten zalantzak argitzeko eskatuz, *albaitari* eta *beterinario* hitzen arteko eztabaida daukatela aitortzen dutelarik.

Albaitari eta *albaitero* hitzak direla ezagunenak, esan da, eta *albaitari* proposatzen du Euskaltzaindiak, bigarrena ere baztertu gabe. Gutunean azalduko eragozpenari dagokionez, hitz honek ez du euskaraz bigarren mailako ekintza arunten inolako kutsurik gaurregun. Beterinario ere erabiltzen da.

Nazioarteko Dialektologia Biltzarra

Bonaparteren mendurreneko ekintzen azpibatzorde akademikoan idazkari den G. Aurrekoetxeak Nazioarteko Dialektologia Biltzarreko egitaraua aurkeztu dio Euskaltzaindiari.

Aurrez esana bazen ere, Bonaparteren euskal lan guztiak argitaratu nahi direla faksimilez, gogorarazi du J. A. Arana Martijak, erakusketa ere bertan ikusgai egongo delarik egun haietan.

Euskaltzaindiaren domina P. Yrizar jaunari ematea eskatu du E. Knörrek egina duen euskal aditzaren bilketa-lan eskergarriagatik.

Kanpo-izendapenak

Euskal Letren sarirako epaimahaikide P. Altuna izendatu du batzarreak, E. Knörr izango delarik, hark ezinean, ordezkoa.

Zaldibarko Elizateko Udalak euskararen eragile, itzultzaile eta biblioketari lanpostu bat iragarri du eta epaimahairako ordezkarri bat eskatu du. R. Badiola izendatu da eginkizun hori betetzeko.

Eskuarteoak

C. Santamaria omenduko du bihar Gipuzkoako Foru Aldundia Urrezko Domina emanez eta Gipuzkoako Seme Kuttun izendatuz. Euskaltzaindiaren ize-nean zorionak ematea erabaki da.

Datorren maiatzeko hauteskundeetarako ez du txartel elebidunik egin Nafarroako Gobernuak eta zenbait alderdik bere aldetik bete behar izan du hutsunea neurri batean. Euskaraz ofizialtasuna duenez bere eskubide hori baztertua izana salatzea, proposatu du Jagon sailburuak.

Gertakizun berezia arratsaldeko bostetarako iragarrikerik dagoena, Plaza Barriko egoitza berrian sartzea alegia. Etxean sartze ofiziala Dialektologiako Biltzarrean egingo den arren, Bizkaiko Foru Aldundiak gaur emango dio Euskaltzaindiari etxe eraberritua. Ekintza honen aurretik euskaltzainei etxea erakutsiko zaiela esanez, amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria

2. BATZARREA

Bilbon, Plaza Barriko Egoitzan, 1991.eko apirilaren 26an, arratsaldeko 5etan, bildu da Euskaltzaindia hileroko batzar arrunta egiteko. Gai nagusia: Bizkaiko Foru Diputazioarengandik Egoitza berria berriztatze eta egokitze lanak burutu ondoren, hartzeko ekintza.

Mahaipuruan eseri dira, Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoez, gain, hots: J. Haritschelhar euskaltzainburu; J. M. Lekuona buruorde; J. M. Satrustegi idazkari eta J. A. Arana Martija diruzain; Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusia; Tomás Uribeetxebarria kulturako foru diputatua; Eduardo de Felipe berriztatze lanen arkitektoa. Batzar aretoan bildu dira baita ere: P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, E. Erkiaga, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak. J. A. Aduriz, L. Akesolo, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, F. Barrenengoa, M. Ensunza, P. Esnal, J. M. Etxebarria, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, I. Idiazabal, X. Kintana, J. M. Larrarte, J. L. Lizundia, A. Muniategi, J. K. Odriozola, J. Oleaga, J. Ortiz de Urbina, R. M. Pagola, P. Pujana, K. Rotaetxe, P. Urizarren, P. Urkizu, A. Urrutia eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusiaren hitzekin hasi da bilkura. Lehen eta behin Euskaltzaindiko Egoitza berriaren historia egin du, alegia, aurreko diputatu nagusi izan zen Jose Mari Makuak erosi zuela eta gero, etxearen proiektu, hustuketa eta berreraikitzea etorri direla. Jarraian berriztatze eta egokitze lanen ondorengo egoitzaren berremate-ekintza burutu du hurrengo honekin bukatuz, hots: “Nire gogorik beroena agertzen deusuet euskaltzain jaun agurgarrioi Egoitza hau toki atsegin egoki eta eroso izan dagizuen zuen behar eta ekintza guztietarako”.

Ondoren, J. Haritschelhar buruak, hitzaldi labur bat egiten du. Eskerrak ematen dizkio Bizkaiko diputatu nagusiari Egoitzarengatik. Jarraian Euskaltzaindiaren zenbait zeregin eta betekizun azpimarratzen ditu. Azkenik, Euskaltzaindiaren poza adierazten du Egoitza berria medio delarik.

Jarraian, J. M. Satrustegik goizeko bilkuran aztertutako gaien laburpen bat ematen du, honela labur daitezkeelarik: 1. Euskara Batuko batzordearen proposamen bat onartu da. 2. Ramon Jauregiren eskaria, Eusko Legebiltzarrean batzorde berezi bat sortzea bultzatzeaz, Akademiaren egitekoa ez dela erabaki da. 3. Bonaparte batzordearen proposamenaz, Nazioarteko Dialektologi Biltzarren egitaraua ezagutu da. 4. Kanpo izendapen bi egin dira. 5. Zenbait aholku eta irizpen onartu dira.

“Euskaltzaindiaren Egoitza berriaren historia” izeneko txostena J. A. Arana Martija euskaltzainak irakurtzen du. Txosteneko puntu nagusienak hurrengook

lirateke, alegia; etxe honen aurrehistoria: zein arkitektoak proiektatu zuen, noiz eta beste hainbat xehetasunez. Egoitza honek historian zehar izan dituen jabeak aipatu ditu eta baita ere zertarako erabilia izan den. Azkenik 1984.ean Bizkaiko Diputazioak Banco Bilbao-ri erosi ziola adierazi du. Amaitzeko, zera azaldu du, "Bi urte t'erdiren buruan, hemen gaude agintari eta euskaltzainok 1991.eko apirilaren 26an, Euskaltzaindiaren Egoitza berria eskuratzeko egun zoragarri honetan".

Eduardo de Felipe arkitektoak, Euskaltzaindiaren egoitza berriaren xehetasun teknikoaz txosten bat irakurtzen du bilduen jakingarri. Eraikuntzaren gora-beherak, dauzkan metro karratuak, egindako gastuen errendapena, solairu bakoitzerako proiektatu dituzten planak, Euskaltzaindiaren betebeharrak hornitzeko burutu dituzten kokapenak. Txosten teknikoa Egoitza-eraikuntzan parte hartu duten Herri agente, euskaltzain, tekniko eta langileei eskerrak adierazi dizkie.

Azkenik, urtarrileko VII. Barne Jardunaldien barnean izendaturiko euskaltzain urgazle berriei diplomak banatzen zaizkie, jaun-andere hauek jasotzen dituztelarik: Jose Antonio Aduriz, Gotzon Aurrekoetxea, Martxel Ensunza, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Itziar Idiazabal, Juan Karlos Odriozola, Jon Ortiz de Urbina, Rosa Miren Pagola, Patri Urkizu eta Andre Urrutiak. Ezin etorria adierazi dute: Bernardo Atxaga, Gunter Brettschneider eta Andolin Eguzkitzak. Georges Rebuschi eta Joseba Sarrionandia ere atzerrian aurkitzen dira.

Eta besterik gabe, amaitu da batzar irekia.

BATZAR-TXOSTENAK

LEF BATZORDEAREN PROPOSAMENA EUSKALTZAINDIARI

Donostia, 1991-II-21

*Ibon Sarasola
Mikel Zalbide
Miren Azkarate
Jose Antonio Aduriz
Patxi Altuna
Andoni Sagarna*

I. Asmo-azalpena

Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan eskatu dio Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeari, Hitz-elkarketaren azterketa burutu ondoren, luza diezaiola proposamenen bat, lexiko-sorkuntzarako baliabide honen gainean erabakiak hartu ahal izateko.

Eskari horri erantzunez, LEF Batzordeak, lehen txosten bat aurkeztu zion Euskaltzaindiari Andoaingo 1990.eko abenduaren amaierako Jardunaldietan. Txosten hau ikusi ondoren, erabaki-proposamen zehatzagoa egiteko eskatu zitzaion batzordeari eta, hala, 1991.eko otsaileko bilkurara erabaki-proposamen hau aurkeztuko zutela hitzeman zuten talde eragilekoek. Gaur, gainera, bere eskerrona ere agertu nahi dio LEF Batzordeak Euskaltzaindiari, honek erakutsitako konfidantzagatik.

Euskaltzaindiak Hitz Elkartuen sailkapenez, fonologi aldaketez eta idazkeraz erabaki dezakeena aztertzen hasi orduko, kezka bat nagusitu zitzaion LEFeko talde eragileari, Andoaingo Jardunaldietan zenbait euskaltzainek azaldu zuten kezka bera: onartuko al ditu euskaldun jendeak erabakiok? Izan ere, gauza jakina da Euskaltzaindia bezalako Akademia bat egoteak ez duela besterik gabe ziurtatzen erakunde baten erabakiak hitzun-taldeak onartuko dituenik. Eta erabakien narpen sozial hori gabe, hizkuntzaren normalkuntzaren bidean egiten diren ahaleginak alferrikako gerta daitezke.

Hau kontutan izanik, Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeak ez luke bere proposamena hotz-hotzean eman nahi. Egia da hiru urte luzez, "hizkuntzalariaren betaurrekoaz" hitz-elkarketaren aitzin-gibelak

aztertu ditugula eta, hainbat kasutan, emaitza sendoetara iritsi ere garela. Ez zaigu iruditzen, ordea, azteraldi linguistiko hori aski denik euskaldun-jendeari eman beharreko gomendioen oinarri-idazkia prestatzeko. Orain-dainokoa egindako lana ezertan gutxietsi gabe ere, idazkuntza honetara jo aurretik bigarren urrats bat egitea behar-beharrezkoa dela deritza, aitzitik, LEF Batzordeak.

Zein da erabaki-proposamenetara jo aurretiko bigarren urrats hori? Euskaldungoaren (euskalgintzan nor direnen) gogo-nahien, beharren eta eritzien berri izatea. Hori gabe, hitz elkartuei buruzko hainbat erabaki, askoren ustez behar-beharrekoak izanik ere, euskal jendearentzat desegokiak izatea gerta liteke. Eta horrekin, begiz jotako xedea ez lortzeaz gainera, Euskaltzaindia bera okerbidera makurtuko genuke. Ez bata eta ez bestea nahi dugu, ordea. Eta, ondorioz, arrisku honi ahal den neurri-rik osoenean itzuri egiteko, eritzi-bilketa zabal eta zehatza egin nahi dugu. Beste hitzetan esanik, Euskaltzaindiaren iker-xedeak hiru urte luzez aztertu ondoren, bere jagon-xedeak aztertu nahi lituzke orain, Euskaltzaindiak hartarako baimena ematen badio, LEF Batzordeak: "hizkuntzariaren baturaerakoak" aldi batez erantziz, "hizkuntz jagolearen anti-oiuak" jantzi nahi ditugu. Izan ere, euskara indarberritzeko ahalegin honetan, linguistikaren aldetik egokienak diratekeen neurriak aukeratzea bezain garrantzitsua da, gure ustez, hizkuntz soziologiaren aldetik euskalgintzan dihardutenentzat desiragarri, onargarri eta, beraz, gomendagarriena zein izan daitezkeen jakitea. Areago, Batzorde honek Euskaltzaindiari Andoango Jardunaldian aurkeztu zion txostenean ikus zitekeenez, zenbaitetan (idazkera-kontuan, esaterako) arrazoi linguistikoak ez dira izaten pisuzkoenak; horien ondoan, arrazoi soziolinguistikoak baitira beste hainbat herritan ere baliatzen dituztenak.

Euskaltzaindiak bere jaiotegunetik beretik izan du, hain zuzen, filologo jakitunaren ondoan hizkuntza biziberritzeko jagon-neurrietan kezkatuagoko kiderik. Eta orain ere, aspaldidaniko ohitura jator horri eutsiaz, hitz elkartuei buruzko gomendioak finkatu aurretik euskaldun alfabetatuen (beren eguneroko lan-jardun saiatu eta isilaz Euskaltzaindiaren erabakien arrakasta edo porrota inork baino sendoago erabakitzen eta erabakiko duten ehundaka profesional eta idazle gailenen) eritzia bildu nahi dugu. Eritzi-bilketa honen garrantzia eta beharra hobeto ulertu ahal izateko, kontutan izan behar da gaur egungo euskal idatzietan hitz-elkarketak duen eragina eta garrantzia. Urrutirago gabe, otsailaren 17ko *Euskaldunon Egunkaria*-n jasoak dira ondokoak:

bonba aire-erretzaile, scud misil, Fallujah hiria, Tornado hegazkina, gestio txosten, autobide proiektu, Foru Elkarte, Euskal Autonomi Elkarte, udaletxe, autonomi prozesu, Nafar Pirineoak, propaganda diplomazia, gizarte klase, ezker izena, Europa Ekialdea, uzta biltzale, bele liberal, merkatu ekonomia; patata, pepita eta litxarrerria zorro;

“karlista” izena, Lurraldea alternatiba, haurdunaldi, Garraixi Isila, polizia dependentzia, gartzela zigor; tortura metodo eta aplikapen; protesta ekintza, jaioterri, jarrera aldaketa; lehendakari izendapen, osoko bilkura; gudaroste, Ekialde Ertaina, eritzi artikulua, estrategia aldaketa; Renault auto kontzesionarioa; barne krisialdia, bateratze prozesu; Egin egunkaria; nazio eta gizarte eskubide; Giza Eskubide, apez talde, Gizon taldea, Udal gune, Diseinu Saila, Udal armarrri, birgaikuntza gune, zabor bilketa, pentsamolde, lan banaketa, populazio murrizketa, azpiegitura, azpiegitura falta, lan ekintza, ingurugiro, etxebizitza, Justizia Epaitegi gorena, Foru zuzenbide, ur presio, erdoil arazo, lurrun generatzaile, ur generatzaile; pila bilketa kanpaina; pila botoi, edukinontzi, saltoki, heziketa eskubide, ikertzaile talde, burmuin, sendabide, zientzilari talde, ikerketa bide, zientzilari elkarte, eritetxe, Aire Ejertzito, ‘Ataria’ auzo elkarte, prentsaurreko, Hirigintza Kontseilaritza, auzokide, justizia arrazoi...

Hamar orrialde aztertzea aski izan da halako kopurua biltzeko; hortik atera kontuak, egunkaria osorik ikuskatuz gero, zenbat hitz elkartu aurkituko genituzkeen egunoro. Horietatik asko, gainera, berriak dira. Baina ez da *Egunkaria* bakarrik. Edozein Aurrezki Kutxatara joan eta propaganda-orritxoak hartzea aski dugu:

elkarbizitza, eraberritzea, burubide, egitasmo, borondate-asmoak, iradokizun-buzoi, etxebizitza-kontua, zergarinketa, erregai, hipoteka-bermea, tasazio-balorea, epemuga, aterabide, argazki-makina, sustaketa-kanpaina; luma eta boligrafo-sorta; amortizazio-aukera, GK Txartela, muga-hiri, Soldata-Abonua, bidai poltsa, saskibaloia, kirol-emaitza, asetasun-poza, denboraldi, bidal txekeak, eskudirua, atzerri-moneta, ordainketa-modu, kalte-ordainak, kutxazaina, segurtasun-arrazoiak, arrisku-beregaintza, urtesasoi, Aurrezki-Plana, aurrezki-ekarpenak, bizitza-aseguru, aurrezki-kuota, Altxortegi-Bonuak, Gordailu-ordezkarria, zergaringarri, mugaegunak, istripu-kasuetarako...

Edota “1990.eko urriaren 11an Batzarre Nagusien aurrean Gipuzkoako Diputatu Nagusiak egindako adierazpena politika orokorreko eztabaidan” irakurtzen hasi orduko aurkituko ditugu:

legealdi, Gobernu Taldea, erakunde erlazioak, harreman, Batzar Nagusiak, Pleno Aretoa, Foru Aldundia, Gobernu koalizioa, egitaraua, ibilbide, erakunde sistema, elkarbizitza, (Euskadiko) erakunde esparruan, lan gogo, kargu uzte, aktuzio plangintza, larrialdi, bisitaldi, Foru Diputatu, jokabide plangintza; Hazienda eta Finantz arloa; Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren (iharduera); Finantz eta Zerga Ikuskaritzako Zerbitzua; ikuskapen gestioetan; gobernu programa, Kreditu Lagapenak, Balio Erantsia; Ekonomi Sustapena eta Garapena; Foru Arau proiektua; Zerga Arauak, aurrikusi, Zerga Koordinazio Organoa, (Balorazio Katastralak koordinatzeko) Koadro-Markoa, Foru Dekretua, udalerrri, hiri lurzorua, elkarlanean, gestio aspektuak, zerga bilketa...

Beste horrenbeste aurkituko genuke *Elhuyar* aldizkaria irekiz gero, edota euskararen normalkuntzarako hain beharrezko ditugun edozein mailatako testu-liburuak edo administrazioko dokumentu eta argitarape-nak begiztatuko bagenitu.

Gai honen gainean hartuko diren erabakiek egungo euskal produkzioan zenbaterainoko eragina izango duten garbi dago, beraz. Baina honen ondoan, bada aipatu nahi genukeen bigarren puntu bat, euskalgintzan dihardutenen *consensus*-a beharrezkoago egiten duena. Lehen ere aipatu ditugu arrazoi soziolinguistikoak, eta guztion buruan dago oraindik ere erabat iraungi ez den *h*-aren auzia, oinarri linguistiko handiegirik inoiz izan ez zuena. Alde honetatik, letra horren inguruan sortutako eztabaida antzu eta haserre biziak, marra dela eta ez dela, berriro ere piz daitezke, erabakiak hartu aurretik onarpen-giro zabal bat sortzen asmatzen ez badugu.

Bigarren pauso honek ez du inola ere lehenengoak bezain luze-malkarra izan beharrik: ez dago, alegia, eritzi-bilketa honetan hiru urte luze jardun beharrik. Hilabete batzutako kontua dela uste du, aitzitik, LEF batzordeak. Eta luzapen honek, Euskaltzaindiaren erabaki berrien irrikan legokeenaren arras gustuko izango ez bada ere, gorago esan bezala, mesede handia ekar diezaguke denoi. Mesede horren handiaz jabeturik, bada arrazoirik aski gomendio-txostenaren idazkuntza zenbait hilabetez atzeratzeko.

Ez da komeni, ordea, hau ere oso garbi utzi nahi luke LEF batzordeak, punta-mutur batetik kontra-kontrako bestera joatea: ez gara, alegia, gauzak ondo-ondo egin nahiaren egin nahiaz hitz elkartuei buruzko gomendio-erabakiak gero gero urrunaren itsaso zabalean galdu eta ahazturik uztearen aldeko. Euskaldungoak argibideak eskatzen dizkio Euskaltzaindiari, bere eguneroko lan-jardunean aurkitzen dituen eragozpen ugariak ahalik modu erosoenean gainditzeko; eta LEFek ezin du, gizarte-eske horri entzungor eginaz, Euskaltzaindiak eskatua dion txostena hobe behararen hobe beharraz egin gabe utzi.

Gaurko idazki honen bidez argi azaldu nahi dio LEF batzordeak Euskaltzaindiari, bigarren eskakizun hau ere oso kontutan hartuko duela eta benetan saiaturiko dela begiz joa duen eritzi-galdeketa osoa garaiz eta zuzen bideratzen.

II. Eritzi-bilketa nola egingo den

Eritzi-bilketa aurrera eramateko, honako puntuok argitzea beharrezko iruditzen zaigu:

1. Lehenik eta behin, ezinbesteko da Euskaltzaindiak hartuko dituen erabakiak batez ere norentzat izango diren begien aurrean izatea. Horretarako, aski da Koldo Mitxelena Arantzazuko txostenaren hasieran esan zituenak gogoratzea: “Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskara idatziarena, izkribuzkoarena da. Eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura “ederrean” baino areago”. Hitz hauek beren balio osoa gordetzen dute gaur ere; baina, zorionez, irakaste-lanean ari direnen ondoan, baditugu orain administrazioan eta komunikabideetan ari diren profesional eta teknikari euskaldunak ere. Batez ere horientzat dira, bada, arau eta gomendio hauek; ez literaturgilearen sormenari hesi eta mugak jartzeko.

2. Eritzi-eskea ere, noski, arau-gomendioak bete beharko lituzketenen artean egin beharko da nagusiki: hots, erakunde eta elkarte desberdinetako profesional eta teknikari euskaldunen artean. Baina ez horien artean bakarrik, literaturgilearen eritzia ere axola bait zaigu. Guzti hau kontutan izanik, begiz jotako eritzi-emaileen zerrenda prestatuko du LEF batzordeak.

3. Eritzi-emaileei banatuko zaien bilduma-txostena otsailean prestatuko du batzorde honek. Honekin batera, azalpen-idazki bat ere paratuko da eta, LEFen arduradunak eta Hiztegitzinta-Batzordearen idazkariak izenpeturik, txostenarekin batera eritzi-emaileei bidaliko zaie. Guzti hau burutu ahal izateko, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkarietan txostenaren behar adina fotokopia aterako dira.

4. Bilduma-txostenak, honako atal nagusiok izango ditu:

4.1. Hitz berriak sortzeko eta hainbat erdal sintagma ordezkatzeko, hitz-elkarketa baliabide oparo eta indartsua dela azpimarratu ondoren, gaurko zenbait elkarte-motaren erabilera okerrak aipatuko dira: *erregeak* vs. *errege-erreginak*, *semeak* vs. *seme-alabak*, *aitak* vs. *aitamak* (*gurasoak*) etab. Edo **erretegi Amaña* bezalakoak.

4.2. Bigarren atal nagusian, hitz elkartuko osagaien artean gertatu izan diren hots-aldaketa nagusiak aipatzeaz gain, aldaketok elkarte-mota desberdinetan izan duten hedadura ere aztertuko da, hitz berrien sorkuntzan izan dezaketen pisuaz gomendioak eginez.

4.3. Hirugarren atal nagusiak idazkera izango du ardatz. Bertan, sailkapen morfosintaktikotik abiatuz, hitz elkartu mota bakoitzaren idazkera-modua proposatuko da.

5. Eritzi-bilketa ahalik eta zuzenen bideratzeko, bilduma-txosten eta azalpen-idazkiaz batera, galdekizun-orri bat bidaliko zaie eritzi-emaileei. Horrek ez du esan nahi, noski, aldeztetik prestatutako galderei erant-

tzuteaz gain, eritzi librea emateko aukerarik eskainiko ez zaienik. Hala-ber, erakunde edo elkarte bat denean eritzi-emailea, *Hitz-Elkarketa/1* eta *Hitz-Elkarketa/3* liburukien ale bana bidaliko zaie, txostenak oinarri hartzen duen sailkapenaz hobeki jabe daitezten.

III. Gomendio-txostena idatzi eta Euskaltzaindiari aurkeztea

Eritzi guztiak bildu ondoren, erantzunak banan banan aztertuko ditu LEF batzordeak, ohar desberdinak bateratzen ahaleginduz. Eritzi-desberdintasun nabarmenak daudenean, bilketaren ondoren Euskaltzaindiari aurkeztuko zaion bilduma-txostenean, hasierako proposamena eta beronek sortu dituen kritikak esplizituki aipatuko dira. Era berean azalduko da batzordeak, egiten duen proposamena egiteko, arrazoi linguistikoak ala bestelakoak izan dituen begien aurrean; soziolinguistikaren ikuspegitik, jaso daitezkeen eritzi guztiek ez bait dute pisu bera izango.

Zinez eta benetan uste dugu, prozesu guzti hau burutu ondoren bakarrik egin diezaiokeela LEF batzordeak Euskaltzaindiari hitz-elkarketaren gaineko gomendio-proposamena, euskalgintzan ari direnen gehiengoak gogo onez hartuko duena.

JEAN BAPTISTE ETCHEBERRY
(bere biziaren ilun nabarrean 13 liburu idatzi dituen)

Donostia, 1991-III-22

Emile Larre

88 urte bete ditu Jean Baptiste Etcheberry Donoztiri Basagaitzekoak 1991 ko Martxo honen 13 an. Hiru arrazoinek zorretan ezartzen ninduten egun horretan Iparraldeko apaiz idazle maitagarrienari bisita baten egiteko: lehena, nere bikari denborako erretorea ukana nuela Urruñan 1956 tik eta 1960 ra; bigarrena, hari zor diotalakotz bertsolaritzaren alderat bildu nuen suaren abiadura; hirugarrena aldiz, eguneroko iturri baitezpadakoa bilakatu zaidalakotz, beihalako nausi izan hori, euskal idazkuntzan, bere 13 liburuekin.

Ez zuen bada batere goizik agertua bere idazteko ofizioa holako maixuak. Nehork ez dio bere liburu bat ere ikusi, biloa polliki xuritzen hasi artean. 55 urte, bai bazituen, lehena agertu zuenean, Urruñan, zerbitzari ninduen garaian.

Harroketan ez baita urik sortzen, ez ginuen, egia erran, ordukotz ere osoki arrotza Etcheberry Basagaitzekoa euskara idatziaren zaleek. Piarres Lafitte bere adintsuko adiskideak bazekien bai aspaldian haren berri. Urtetik urtera, *Herria* astekariari datxikola kalonje maiteak bizi zeno argitaratu duen *Almanakan*, nor zuela uste duzue, ixil ixila, giderrik hoberena gure euskaltzain zenak? Etcheberry, eta beti Etcheberry, hala nola *Herria* kasetan Etienne Sallaberry izan zuen bezala. Bere ur on eta nasaiarendako ezagutua da Donoztirin, Basagaitz sortetxeko auzoan, Uhaldegaraiko iturria; holaxeko bat, egin agortuzko iturri nasai eta garbia, Etcheberryren lumakoa, euskara paregabe batean, *Almanaka* agerka-rian: ala Euskal Herriko gizon edo gertakarien berri emaiteko, ala ixtorio txiste batez orrialdearen osatzeko, edo berdin berdina, xokoen betetzeko, Lafittek berak zioen bezala. Guk aldiz ongi dakigu goxoki beteak zirela xokoak eta orriak, holako luma urrezkoarekin.

Eta horra azkenean harrobi aberatsaren (harrobi toki ere da Donoztiri) lehen tiro pindarra: "liburu bat eginen dutanetz?" atera zidan egun

batez lañoki Urruñan, elizatik apaizetxeraino egiten genituen solasgaldue-
tan. Ez zuela ez baitezpadako mirakulurik kondagaitzat baina ez zezakee-
la “izakurgai on” batek nehoi kalterik egin, ez bederen halako jarraitu-
sunez bisitatzen zituen xahar eta parrokiako eriei.

Nere gisako eskukaldia eman nion: hegoaldeko argitaldari; merkea-
goak ezagut araziz lan horrentzat baina aimitzez geroago dut hobeki
asmatu, Lafitteen hurbil-hurbila ereman ditudan 15 urteetan, hau bera
zuela Etcheberryk horretan ere egiatzko su piztaile eta dakigun bezalako
hauskoa.

Hasian hasi: idatz eta zabal

Badira literaturako izen haundienetan zenbait, gazte gazterik bota
baitute zabalerat beren biziko obra mirezgarria. Haietan bat baino gehia-
gok bazekiten gauza bat aintzinetik: ez zutela geroaren menturan egoite-
rik. Talendu goiztia baten jabe izanez batzu, osasun txarrekoak bestek,
goizik ernatu dira eta baliatu zaie; guri ere bai.

Bestelako abisuak ote zituen Etcheberryk ukanak? Gisa guziz, hor
zeuzkan beste egitekoak. Ez da gazteagotan geldirik egona. Hamar urte
hurbil Hazparneko misonestetan egonik, Ipar Euskal Herri osoa kurritua
zuen elizaz eliza eta etxez etxe, erraiteko maneran, orduko misionee-
kin, bitartean gure tokien eta jendeen ezagutza on bat bilduz berak. Handik
lekora hogeit bat uste herriko apaizgoan, Arbonan lehenik eta Urruñan
gero, hots, hori guzia bere apaiztasunak osoan hartu dion epea, erraiteko
maneran.

Baina horra non datorkion biziko maila bat arras garrantzizkoa; eta
askorentzat gelditzeko ordua izaiten dena: erretira edo jubilatzea hurbil-
tzen ikusten den hura. Erretiratze horren ongi prestatzeak ainitz balio
duela, prestatu du zinez berea Etcheberryk... euskaraz idazteari emanez.
Erran dugun adinean beraz, ordu arte baino gehiago, idazkuntza izanen
du, urte luzeetan, kasik goiz guzitako lana. Hor da paper gizon bilakatu-
ko, lehengo predikari suhar eta parrokiako artzain on izana zena.

Erran beharko genuen ere lehenik nolako irakurle gosea izana zen
aspaldi danik Etcheberry. Denak on zitzaizkon liburu iresle horri: histo-
riaki eta biografiak bereziki, eta gure herriari doazkion ikasbide ta kondai-
ra mota herrikoiak Horietan guzietan, barnatasun berean ez ibilirik ere
beti, Lafitteenaren pareko oroimen bat Etcheberryk: hots, irakurriak oro
gogoan atxikitzen. Hor du Donoztirikoak bildu buru bat, ainitz eta anitz
jakintzaz jabetua, eta konda ahala kondagaietan gogoz eta notarik gabe
zakiena.

Ez beraz galda batere idazle argitu horri mila liburu eta kondu meta eskupean harturik idatz dezan. Holako jakintsunek ito zaitzaketela ote dauka, dena xifre, gertakari eta esplikamendu, ondarrekotz zure burua jakintza pedantez gaindika ezartzerainokoa! Ez du maite Etcheberrry jakintsunarena egitea. Beharrenak, entzun-errexenak, hauta eta buru-hauskarriak bazterrerat utz, horra nola doan gainez gain, irakurgai errex eta denbora pasagailu goxo bat eskaintzen diola irakurleari, hala-nola bere predikuen, ixtorio pollit eta trixte alaiez, arintzen zekien bezala.

Hau izanen du beraz gure idazleak, erran dugun bezala, bere laneko biziaren azken herenean, maizenik, goiz goizetako lan hautuzkoa: idatz eta idatz, gogoak eta oroimenak eman ahala; iturria idek, eta utz, ixur dezan datorren bezala bere turrusta nasai. Holaxet aterako dira liburuak eta liburuak bat bestearen ondotik: orain, hamahirugarrena ere hor da, hau azkena, arinxagoa nahitez ahal bezain laster argitaratu beharra duguna.

Argitaratze horiek non egin? 1960 an bururatu zuen Etcheberrry bere Urruña herriko egonaldia. Geroztik urrundu zitzazkion hegoaldeko argitaldaria, handik harat Baionako ospitalean izanen baitu, 23 urte luzez, bere ondar apaiz-lana, luzeena ere; horgo eriei Eleizaren sokorri emaile, menea izanen ditu, Baionan, irarkolak eta argitaldaria. Zenbat aldiz ez dute hauek etortzen ikusi, bere paper meta esku batean, oñoña goxagailuak langileentzat bestean, eta behar zen dirua aldiz sakelan; bere irabazi purruskak horretan xahutzen zituen, ahal arau, eta bazoan, erranez beste aldianduko zuela “eskas” zitekeena.

Ainitz liburu egileren buruko mina hau: nola salduko den gero liburu. Ez du holako buruko minik ezagutu, ez-eta besterik ere hanbat, osasun bezenbat bihotzen jabe horrek. Bera zen eta hortan, bera da beti izan, bere buruaren mediku eta sendagile paregabea: liburu egin, eta adixkideeri eman, eta beti eman oraino, bat bera gelditzen zeno. Segere-tu hori bera genion egun batez salatu, Etcheberrry bere askaziako eta adixkidearena, Etienne Salaberry berari, hau ere liburu eginaren saltzeko kezka hartua zen batean, ez baitzitaion honi ere geroztik erakaspenu urrikitu.

Kezka eta buruko min guzietarik libratua, hola da ospitaleko eri batetik besterat ibili gure idazlea, oñoña eta liburuak eman eta zabalduz deneri. Bazakiten funtsean hauetarik zenbaitek berari galdatzen ere, eta ikusi ditugu eritegietako serora ta erizainak haientzat liburu eske, erranez “ez baita gehiago euskarazko liburu pollitik hatxemaiten”. Ageri zen solas horretan nolako liburuak zituzten eskas: garai batetako kondairak, irakur errexak, eta ahalaz herriko mintzaerakoak. Euskara batua eta liburu jakingarriak beharko dira bihar, segurki, baina, jauzi haundiegia eginez bat-batean, ez behar ahantzi ere atzokoa, edo xoilki, gaurko izakurlea. Horien idazlea dugu Donoztiriko Jean Baptiste Etcheberrry, eta eskerrak!

Bihotzaren betetik

Bakoitzak ulertua duke jadanik ez dela beste idazleen antzekoa gure hamahiru liburuen egile hau eta horren jakiteak balio du izakurlearentzat. Maizenean bere baitan dauka liburuak balioa. Etxe batek bezala. Etxe baten bisita egiten denean, begirada bat emaiten zaio lehenik aintzindeiari, gero ezker eskuinak, goratasuna, neurri guzien oreka, koloreak, hots, kanpoko itxura. Barnera joan-eta, egiten diozu beheretik gainerako itzulia, barneak, barnekoak, eta jalgitzean emaiten zure estimua, berak berez daukan nortasun eta balioarekin. Nork egina den etxe hori ere galda dezakezu baina ez da hori baitezpada zure arazoa.

Etxe horren pareko zerbait izan ditake beraz liburua: honekin berekin, eta horrek dauzkanekin, dugu ezagutza egiten. Etcheberryren liburuarekin ez da batere hola. Gizon batekin gaude hemen solasean, burutik buru. Hor duzu hau bera zurekin, ausartatuak zarezte ondarrekotz biak alkarrekin: adixkidetuak eta iritziz berdinduak ez bazarezte ere, alkarren berriak behintzat askitto ikasiak dituzue: idazlearen sendimendu eta ikuspenak oro iretsi ez badira ere, elkarrizketa bat bada gisa guziz bien artean sortua.

Etcheberryrekin argi eta garbi ikusten dena: “ongi zerbait egin” nahi diola irakurleari berak aitortzen duen bezala, eta inoiz ere “kalterik ez”, “bihotz altxagarri” bai izan nahi duela, berak senditzen duen moldean, berak bere bizi luzean predikatu dituen negurrietan egonez. Hainbestetaino egia da hori non, txixte arinegi bat kondatu duenean, bere ustez behintzat arinegia, nahi baitu segidan bere irakurlea gogoeta moralagoe-tarat erakarri eta gorago ereman.

Ez du halere edifikazioa bere bide ta helburu bakarra. Hainbeste ikusirik baduen apaiz xaharrak, eta errana dugu xahartzean duela idatzi, badaki gizonaren berri, eta zenbat jende mota den munduan. Batekin sendimendu kartsuetarat jo badezake, ezagutua du aspaldi beste bati hobeki kausituko diola solas goxo arraiekin eta badaki hauen bidez hurbiltzen bakoitzaren ondotat: goazen orduan ixtorio kondari, eta gertatuko zaitzue askotan bieri, idazle ta irakurle, irri zafla karkailaka alkarrekin libertzitza. Ez ote da hori ere ongia egitea? Zenbat aldiz ez ote zait gertatu ospitaleko erizain batek liburu horietarik hau eskatzea eta ez beste bat, hain zuzen jostakin eta libertigarriena zen hura! Eta preseski; nola ez hemen sala, barkamendurekin, zenbat den betidanik bere lagunarteko solas jostagarri egin atertuentzat ezagutua eta prezatua izana, Etcheberry jauna! Bihotz altxagarri izaiteko molde hori ez baita txarra-goa, holako talendu baten eskuko delarik!

Horietan guzietan, ez galda Etcheberryri aurrekontu eta aintzin-aurkibide gehiagi: izpiritua eta bihotza direlarik mintzo, hauek dute

bukatzen, nahi duten alderat, errana den bezala. Horretarako, parada guziak on dira. Parada haiek, maizenean, idazlearen bere denborako mila oroitzapen edo irakurtzez irakurtze bildu buruxkak.

Erdarazko irakurtzeak askotan: sainduen bihiak, gizon aipatu edo ohargarrien biziko kondagaiak, hor daude lehen lerroan. Ez galda gero, noiz sortu, noiz zendu, zein egunez zer egin eta bizi bat mailkatzen duten kronologia eta xehetasun haiekarik gehiegi; haiek ez zaizko ez ongiegingarri ez interesgarri: bat edo beste doi doa aski zaizko holakoe-tarik, han hemenka, gogoera sarkor eta beroen aitzaki edo baliagarritzat. Gaineratekoan, bego bera predikari xaharria bere aholku onekin. Hemen erraiten duguna frogatzen duen liburu ohargarriena hauxe ditake: *Michel Garikoitz Sainduaren bizia eta bertuteak* izenarekin agertzen dena. Ibarreko sainduaz jakin behar diren gertakari guziak ez daude hor eta ez nahi ere naski: Beharrenak iduritu zaizkonak ditu bakarrik Basagaitzeko apaizak berexi: gero berak ditu, bertuteetan, bere erakaspen onak kartsuki ezarri, irakurlea haietaz berotu beharrez.

Halaber ezagutzen ditu ere hor irakurleak Frantzian gerlen arteko giroan gehienik hedatzen ziren leloak. Berriegiak dira aldiz, bereziki gure iparraldean, abertzaletasuna eta guharen nortasun kontzientzia; aspaldikoak ordea, adin batetako ainitz herritarren gogo bihotzetan barna sartuak ere, estaduen muga barneko arazo, ikusmolde ta kezkek. Ez da beraz harritu behar, bereziki bi gerla "haundiak" ezagutu dituzten gizaldikoen artean, beren gisako leku ospetsu eta nazionala balinbadaukate Frantziako buruzagi haundi batzuek, bereziki armadakoek, eta ere "Frantziako Erregina" batek. Ez da Etcheberry bat bakarra, estatu giro bat osoak, herriko eskola ofizialek haste, Gerlari ohien Egun eta Sarizta-tzeetarainokoan holaxet hazi eta hezia duena.

Ez haatik uste izan, horiek hola, arrotz bat dugula bere berrian Donoztiriko semea. Ez eiki! Gure herriko kargudun eta gizon ezagutuez, pilotariez, bertsulariez, familiako arbaso, etxeko eta amarik hoberenaren amodiomin kartsuenaz orhatua bai! Beha nola kondatzen dituen Loiola, Xabier, d'Elizagaray, Harizpe, Santa Cruz, Mgr Mathieurenak bezala, Imaz apezka edo Ganix Makearraren balentriak eta nondik ez, Saint Martin, Dongaitz, Arce, Atano III, J. Laduche (aita) pilotarienak, beste zenbaten artean! Gure herri horren mami mamian gaitu hor idazleak ezartzen eta bero beroa erabiltzen. Horiek oro ditu herriko irakurle sano batek maite eta aintzina galdatzen, bai-eta egundaino beste libururik guti irakurri dutenek ere. Bada alabaina herri honen maitarazteko molde bat baino gehiago: ohidura zaharren lur eta mundu hau du gure idazleak berea, berri honetakoek maita eta beira dezaten, berak maitatu duen bezala; eta hori guzia gure zaharren ohidura giro hartan zaigu erakutsia, garai horretako gutiz gehienek senditu duten bezala. Hots, bi leialtasunetan dago Etcheberry: kanpokoek kanpotik sartu diotena batetik, eta berak

etxean, herrian, xurgatu duena bestetik. Eta harentzat ez du batek bestea ukatzen.

Jauntzi loratu aberatsean

Horra beraz bi hitzez, Etcheberry Donoztirikoaren nortasunaz eta liburuaren mamiaz edo gorputzaz, idaia bat. Bakoitzak suma dezake errexki, halako zimurdura bat bezala hartu dutela, bizi aldakor batena eta denborarena, horgo gai batzuek epe laburrean, gaurko gauza guziek bezala.

Bizkitartean, gorputza bazterrerat utzi gabe, gorputzaren gainetik ezarria den jauntziari nahi genioke, laburzki bada laburzki, behako larri-larri bat bederen eman. Erran nahi dut idazkera, Etcheberryren euskara eta zertako ez aitor horren gainean dela gelditzen orain asko euskalzalaren begia. Hots, Etcheberryren euskara dela, bere aberastasun eta iparraldeko berezitasunez, harrigarria. Ez dut nik erraiten hori. Koldo Mitxelenak berak zuen ateraldi hau egin, ez baitakit liburu horietarik zeinen ondotik: “Nik euskara berriz ikasteko daukat J. B. Etcheberry irakurri-ta”.

Berriz ikastekoa ez, bixtan da, bereziki Mitxelenak. Halere nork du gehiago idazten Etcheberryk bezala? Ausarta ere nintake erraitera: nork ote duen Baxenabarreko euskara hori Donoztiri Basagaitzekoaren errextasunarekin erabiltzen! Ongi ezagutu ditut familia horretako bost anaia eta bi arreba, talenduz denak kasik alkarren betekoak. Haien euskara ez zen segurki liburuetakoa, bai haatik herriko iturrikoa, hitzaren orhazta-tzaile miresgarriak zirelarik denak (J. B. da orain bizi den bakarra). Honek kondatzen du nola jarraitu zitzaion Louis bere anaia Ibarreko M. Garikoitzen beila famaturat, bera zalarik hango predikari. Louis ek erran omen zion, ondotik: “Egin duk predikua ere! Haste hartan halako herabe batekin lotu hintzan, huntaz eta hartaz, bainan ni ere segurtatu laster, erran huelarik “Mintzatuko gira fedez”. Orduan egin nian ene baitan “To! Orai salbu duk, hor garbian sartu duk!”

“Garbian sartu” eta mila holako, gramatika xoilak eta hiztegiek guti ezagutzen dituztenak, ihaurri badaude, martxoko lore berrien pare, liburu horietan. Holakoak ditu, beste nekork ez bezala, etxeko solas galduekarik bere liburuetarat ereman donoztiritarrak.

Hauxe behar dut salatu, otoi barka neuretik sartzen badut hemen berriz ere: maite dugu, gu bezalakoek, holako Etcheberrytarren bisita egitea, zeren hor baitugu solas laxoan, aurkitzen, beste inon ez bezala, lurraren gostua deraukan euskara. Gu aldiz hemen gabiltza, gutiz gehienak, bi euskara alkarrekin egin ezkonduz: bat liburuetakoa, hura hotza eta gatzik gabea, eta bestea etxekoa, hau guk erdi arroztua; biak direlarik,

ez alkarren etsaiak, bai ordea bat bestearekin ahalik eta hobekiena joste-koak. Ez da segur hori izanen Etcheberryk bere obretan utziko digun erakaspenik txarrena.

Bateko dena besteko, horra ere hor zuhur-hitz, atsoitz eta erran zaharrak. Horrialde guzietan aurki ditazke holakoak. Hor dugu jastatzen eta ezagutzen nola sortuak diren herriko mintzairan, harri bizi dirdiratsuen pare, zuhurtzia bezenbat poesia darioten ateraldi eta zirtoak: ez batere zerrenda ofizialetan, orain guk, ez galtzeko, liburutan biltzen ditugun bezala, baizik egun guzitako solas naturalean. Berak heldu zaizkie Basagaitzekoeri beren etxeko euskarari, eta hori da guk hemen aipatzen ditugun lanen grazia berezia. Horretan arrazoin eman dezaiokegu Mitxelneri: askok galdua dugula edo galzorian zaharren bizitasun hori.

Mintzairaz dugularik solasa, behar dugu aitortu halere ez duela oso osoan Donoztirikoa, euskara hori: Ardatza bai, eta halaber pentsamenduaren lehen sorkuntza hura, etxeko amaren altzoko grazia harekin guziarekin, Arberu alde horretakoa dauka. Halere ez ditake uka, Arbonan, eta bereziki Urruñan, hor gaindiko hogeitun herrestoa, eta beste kolore bat ere hartu duela nahi ala ez euskara horrek. Hobeki erraiteko, eta hau ere azpimarratzekoa da, ez du berak axola gehiegirik erakusten zein euskara derabilan. Gisa guziz euskara da, ez nolana hikoia, eta horri dio iduriz zerbait garrantzia emaiten, deus garrantziarik emaiten badio ere, gauza pollitenak ohargabe bezala botatzen dituen horrek. Gaineratekoan, nola ateratzen zaion! Lapurdiko itsas-hegi horrekin izan zituen lehenik egitekoak, herri barrenarekin gero, Xuberoa ta guzi. Ez du geroztik xauxunkeriarik izanen apaiz zaharrak nongotik ari den: denenak on zaizko eta denenak maite, maizenean bere herriko hartarat lerratzen bada ere.

Ortografiaz zer erran? Badakigu denek azken 30 urte hauetan izana dugula hor aldakuntza haundia eta batuaren alderako lan guzia. Hamahiru liburu horietako lehenean beraz, ez zen holakorik aipu ere. Geroago oraino, idazlearen adina ikusiz, nehork ez du asmatu ere lehenetarik izan zitakeela Etcheberryy berrikuntzan. Ez izanez bera sistema gizona, egon da bere hainean, ez bederen batere kontra. Egunak zin, egunak joan, euskal mintzaera ta idazkerarekin egin duen hura bera du ortografiarekin egin: denboraren ariaz, astirekin, utzi du ortografia berria bere ohiduretan sartzerat. Hau ere erran behar dugu: ez direlakotz liburu horiek batere aukera zerbaiten alde edo aurkako tresnak, gainerat amatur moldean eta amatur ahalmen xoilekin eginak direlakotz, ez zaio azal horri gehiegi behatu behar. Askotan badira ere gisa bat eta bestera ezarriak diren hitzak. Irakurlea bere aldetik ez bedi gehiegi asalda zer gatik den behin hola eta bestean hala idatzia. Hau segurik erran dezakegu autoreaz, bera nolako gizon goxo eta pasa-errega den jakinki eta: ez diola honek inori trabarik egin ez debekurik eman nolazbait ortografiaren berdintze bat

gogoan egin dizkiolarik bere zuzenketak. Eskola bat edo bestearen arteko auziak ez ditu ezagutzen.

Nolaz ez diren liburu horiek gehiago zabaldu, balaiteke hortaz ere erran beharrik. Ateratze mugatuak izan dituztela, adixkideentzat eta apai-zaren menekoentzat idatzi liburu horiek, hori jakin behar da. Mila ale baino gehiago sekulan ez da izan, eta askotan gutiago. Gainerat, 30 urte badute lehenek eta egin aurkituak dira gehienak. Azken hirurak dira oraino guti zabalduak. Uste dut aski errana dugula zer balio duten euskara aldetik. Herri-literatura mailakoak gutiz gehienez, baldin eta, errana dugu, ez badu ere autoreak klasamendu asmu izpirik, ez-eta ere deus purismokeriarik alde batera edo bestera.

Obrak mintzo! Hori da donoztiritarrak bere liburuetarik bati eman zion izenburua. Arrazoinekin, eta maiz haien berriekin bera etxekotua baitzen betitik, nahi ukan zituen jende aipagarri batzuen merezimenduak euskaldunen begien aintzinerat argitaratu. “Obrak mintzo” izen hori bera beste norbaiti ere emaita zor diogula ez da hemen dudarik. Bere lan guzien gainerat, ez haietarik bestalde, konduaren gaineko, lan hau egin duena ere ez da merezimendugabea (13 liburu, denak urririk).

Talendu bat izaki, euskara urrezko baten jabetasuna, ez zuen segur talendu hori gaitzeru pean utzi behar, ez du utzi gure iparraldeko euskaltzain urgazle xaharrenak eta hobe denendako. Talendu horren ageri baitezpadakoena behar ote litazkeen herritar gehiagoren eskutan ezarri, ikasle ala berdin irakasle zenbait ere, hori ez da gehiago J. B. Etcheberryren lana. Notena ote?

13 liburuen zerrenda

1. *Zeruari buruz*, 199 orrialde, sortze urterik ez dakar. 1958koa izan behar da, Hazparneko misionest ohiaren predikuetako gai nagusienak dakartzka.
2. *Michel Garicoitz Sainduaren bizia eta bertuteak*, 244 orrialde. Lehen zatian, eta doi bat hirugarrenean, sainduaren bizia. Bigarrenean, luzekiago, bertuteak, Garicoitzen ganik doi bat noiztenka urrunduz bada ere.
3. *Frantziako Erregina*, 286 orrialde. Andre dena Maria da hor, Frantziako historian eta lurrean bereziki ikusia den bezala, besteak beste. Baina Maria ganik urruntzen ere badaki hor idazleak, bihotzak eman arau.
4. *Obrak mintzo*, 227 orrialde, saindu eta herritar aipatu batzuen berri: liburu hau zeraukan, bere bizian ezagutu dituenetan, Etcheberryren liburuetan hobereana Luis Dassance batek.

5. *Han-Hemenka*, 187 orrialde. Izenak dioen bezala, hemen hunkitzen ez den gai edo gizon gisarik ez da; irakur errexa, batean jostatuz, bestean goretsiz.
6. *Orotarik*. Hau da Etcheberryren liburu gotorrena, 318 orrialderekin. Arinena ere bai, beste alde batetik, noiztenka bi lerroko irri--solas bat du bere gai laburrena.
7. *Azken buruxkak*, 286 orrialde. Hemen uste ukan zuen donoztiritarrak bere idazle biziaren bururat heldua zela. Holako nekadura zerbaitek utz-arazi ote dizkio orrialde osoak, dokumentuak egia erran, frantsesez? Ez baitzuten gure irakurleek hori hain gustukoa izan beren euskara herrikoi gosean.
8. *Berriz ere beretarik*, 275 orrialde. Zorionez, laster berriz hartu zuen idatz-minak Etcheberry, "beretarik" eta beste.
9. *Hazparneko misionestak*, 82 orrialde, hau liburu guzietako laburrena, egilearen predikari lagun ohiez, eta ere antzinagokoez, beti ere zenduak aipatuz bakarrik.
10. *Orhoitgarriak*, 218 orrialde, 1986an egina. Bazeraukan oraino, oroit--arau, zer erran: Louis Pasteur edo Arseko erretoraz bezala, Baionako ospitalean berak 23 urtez ikusiez eta... holako.
11. *Denetarik*, 173 orrialde, 1988 urtekoa, eta izenak berak dioen bezalakoa.
12. *Ene orhoitean*, 157 orrialde, 1989koa eta agertuetan azkena. Xahartzeari, lehengo Urruñako oroitzapen eta zernahi gauza pollit beti gogorat heldu, irakurleak jada zerbait balinbadaki ere horietaz.
13. *Lehengo eta oraiko gorabeherak*. Hau da azken liburua, oraino manuskrituan dauden 138 orrialdeekin eta urte honetan argitaratu behar lukeen azkena.

Zenbat ote dira horiek guziak eskutan dauzkatena! Dauzkan batek erran dezake, ahoan bilorik gabe, ez dauzkala beste bati uztekoak.

EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILEAK (1933)

Donostia, 1991-III-21

Juan Mari Lekuona

Irailean edo, udapartean behintzat, emakume bat etorri zitzaidan Euskaltzaindiak Donostian daukan bulegora. Irurako maisu izandako baten alaba zela aitortuz aurkeztu zuen bere burua. Eta Lekuonarenak omen ziren bi gutun zekarzkiñ berekin. Nik Manuelenak izango zirela pentsatu arren —hona nire harridura modua!— 1936 galdu zen Martinek idatziak ziren.

Hauetako bigarrenak sinadura ofiziala dakar idazpuruan: “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak / Yaur-salla”. “Colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca / Sección Tutelar”. Musitun, Arabako herriska batean dataturik datoz gutunok, bata 1933-VIII-13koa eta bestea 1933-X-7koa. Igorlea, esan dudanez, Martin Lekuona zen, oiartzuar apaiz gaztea; Musitun parroko zegoena; eta hartzailea, berriz, Don Krispin Guasch, Iruran maisutzan ari zen irakaslea. Eta, hasieran aipatu dudan emakumearekin bukatzeko, esan dezadan niri gutunok ekarri zizkidan emakumea Pepita Guasch Vernet zela, Iruran jaioa eta orain Donostian bizi dena, Don Krispin maisuaren alaba.

Lehenengo eskutitzean ikusten da, Irurako maisuak baietza emana zeukala, “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak” udaldiko jardunaldietan izango zuten ikas-bileratxoan hizlari izango zela. Eta lagungarri gerta zakion, talde honen berri nahiko luzea ematen zaio: asmoak, lanak, ekinbideak, antolakuntza eta abar. Bigarren goan, berriz, ikas-bileratxoa iragon eta gerokoan, ziorionak ematen zaizkio maisuari bere mintzaldiagatik, eta azken berriak aipatzen.

Bi idazkitxo hauek arretagarriak iruditzen zaizkit Euskaltzaindiaren historiarako, batez ere “Yagon salla”-ri dagokion aldetik. Izan ere nahiko urriak dira orduko “laguntzaileei” buruzko berriak; eta gutxi ezagutzen eta aipatzen direnak gainera. Egia da, bai, taldearen boletinaren lehenengo zenbakian aipatzen direla hainbat berri 1933ko batzarrari eta ikastaldiari buruz. Baina gaur nork eskuera eduki aldizkari hori? Bestalde, gutunok dokumentu originalak izateaz gain, ofizialtasunik gabeak dira eta beraz, ahotik ahora esaten diren kontu eta xehetasun partikularrez beteak. Horregatixe pentsatu dut gutunok jaso beharrak direla, eta aintzat hartu beharrezkoak gainera, Euskaltzaindiak historian zehar emaniko urratsetaz oroipena indartzen joango bagara.

1. Gutunon igorlea eta hartzailea

Honela sinatzen dira idazkitxoak: Martin Lekuona batean, Lekuona'tar Martin bestean, datazio-herria bietan Laminoria-Musitu (Araba) da. "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia", lehenengo zenbakian datorrenez, taldearen idazkaria da Martin, Donostian ospatzen duten Batzarrean (1). Eta gero, Euskaltzaindiak urrian egindako batzarrean, lendakari aukeratzen du Lekuona'tar Martin jauna (2). Beraz hasieran idazkari zen eta horregatik idazten dio Don Krispini. Eta "laguntzaileek" udan eginiko bilguraren ondoren, lendakari dugu, Euskaltzaindiak izendatua.

Irurako maisua, aldiz, Tarragona-ko probintzian Vilanoba de Escornalbou-ko semea zen. Aces de Candamo-n betetzen zuen bere maisutzako lanbidea. Denbora berean Aces de Candamo-ko semea zegoen maisu Iruran eta bere herrira joan nahiean zebilen. Eta horra non trukea egiten duen Krispinekin: hau Gipuzkoara etorriko zen, eta bestea hemendik Asturias-a itzuliko, bere jaioterrira (3).

Irurara etorri zenak metodo berezia zuen hizkuntzak erakusteko. Eta metodo honi esker euskaraz ikasi zuen berak, eta euskaldun hutsak ziren umeei gaztelera erakutsi zien, emaitza bikainekin erakutsi ere. Pedagogian aditua eta ikasia zen aldetik egin zioten Laguntzaileek dei ikasaldira.

2. Laguntzaileen asmoak

Gutunaren eitteari dagokion erabera, oso labur emanik dago puntu hau: "gure euskara, ezarian-ezarian, berbiztu nahi genuke Araba eta Nafarroako herri hauetan". Euskararen egoera honela ikusten du: "ez da euskaraz egiten ia Araba osoan (zazpi herritan izan ezik), ez eta Nafarroako herri gehienetan ere. Eta Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait alderditan ere ez da egiten. Hizkuntza galdua edota galduxe den leku haietan dago gure alorra... Eta hau da gure xedea: hizkuntza berri bat erakutsi behar dugu, baina bereizkuntza honekin, ez dela hizkuntza arrotz bat, baizik eta gurea dela, gure herriarena".

Martin Lekuonak gutun hau idatzi baino lehenago, ekainean, artikuluska bat idazten du gai berari buruz, "Eusko-Ikaskuntzaren Deia"-n agertzen dena: "Euskeraren aldeko lanak. Gure asmoa" (4). Lantxoaren epigrafeak adierazgarriak dira: "Zein egueratan lagundu nai genioke guk euskerari. —Nork egin bear du, baña, lan au?— Euskera galduta edo ea galduta dagon erri oietan, nork egin bear du lan au? Nola egin bear litzake lan ori? Arabako erri txikietan (egin dutena)".

(1) "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak. Deia", 1 (1933), 4. or.

(2) "Laguntzalle oiek bere lendakaria Euskaltzaindiak izendatua nai luteke. Ezetz dio onek. Azkatasuna badute ta berak aukera bezate lendakari ori, bañan lenbizikotz Euskaltzaindiak izendatu du: Martin Lekuona jauna. Aurrerantzean berak aukeratu ta izendatu bezate: Guziak ordea Euskaltzaindiaren babespe ta mendeand begoz". *Euskera*, 15 (1934), 268-269. or.

(3) Don Krispinen familikoengandik eta iruratarrengandik jasoa.

(4) M. Lekuona: "Euskeraren Aldeko Lanak. Gure Asmoa". *Eusko-Ikaskuntzaren Deia. Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*, 14 (1933), II Iruillabetea, 14-16.

Eta irailean, Donostian egin zen batzarrean, gai bera zulatzen da, taldearen asmoei buruz hitzegiterakoan. Eta dokumentu hau bera da, nik uste, funtsean, A. Intzak, 1933.urteko ekainaren 28an Euskaltzaindian irakurri zuena, Alkarte euskaldunak egun duen araudia aipatuz (5). Beraz, taldearen gogoeta da Martinek idazten duen artikuluska.

3. Emandako zenbait urratsen berri

Arabako herri txikietan egindakoaren berriak igortzen dizkio maisuari. Apaiz batzuek saioska bat egin nahi izan zuten 1933ko lehen sehilabetekoan. Hiru kantu erritmiko erakutsi zizkieten umeei, estrofa guztiak buruz erakutsiz, horrela kantuetako testuetan agertzen diren hitz eta esaldiak ikas zituzten, eta hitz eta esaldi horiek oinarri izan zitezten gero erakutsi behar zitzaienari. Baina emaitza eskasak izan ziren eta gaizki antolatuak, lehen aldiko saioak zirenez.

Oharkizun berberak egiten ditu Martinek aipatu dugun artikuluskan. Gai hau ere ausnartua zeukan Irurako maisuari idatzi zionean. Eta bistan da zerbait egiten hasiak zirela herriz-herri, baina zerbait hobeto antolatutako plangintza baten beharrean sentitzen zirela maisu-maistra eta apaizok Euskaltzaindiaren babes bila eta ikastaroak antolatzeko adituen bila hasi zirenean.

4. Bideratze berri baten bila

Horregatik, laguntzaile jantzien eskua eta laguntza eskatzen da gutunean. Jakin nahi dute zeintzuk diren hizkuntzen irakaskuntzan erabili beharreko metodoak, eta zeintzuk Europan zehar erabiltzen direnak. Konkretuki Guasch jaunari galde egiten dio beronek erabiltzen duen metodoaz, bai berak umeen laguntzaz euskara ikasteko, bai eskolako umeek berarekin gaztelera ikasteko.

Gero, iraileko batzarrean, eta hari honi berari jarraituz, Europako zenbait naziotan gertatutakoan jartzen du bere arreta: "Txekoslobaki"k Pinlandi"k, Lituani"k, Ulandarendarrak, Irlanda"k, Alsazi"k eta Lorena"k, Galesek, eta Europa"ko beste Erri batzuk erantzun bezate gure ordeez... Erri oiek piztu eta zuzpertz dituzte beren izkuntzak. Zergatik ez guk Euskera...? Zenbat belaunalditan galdu zan Euskera gure erdal errietan? Bitan?... Irutan?... Beste ainbestetan, edo gutxia-gotan, piztu leike, ba, Euskera erri oietan" (6). Bide bera litzateke hemen hartu behar genukeena.

(5) "Aita Intzak esan digu: Gasteiz edo Araba aldeko euskeraren zabalkunderako zerbait egin bear litzakela. Ortara doa oraintxe sortu den *Alkarte* bat eta onen sorizpideren bat eman bear litzaiokela. Ortan dago Euskaltzaindia ere". Batzar-Agiriak, 1933ko Orrillaren 18koa. *Euskera*, 15 (1934), 265. or.

(6) "Euskaltzaindiaren Laguntzalleak. Deia", *ibid.*, 2. or.

5. Ikas-bileratxoan non, noiz eta mahainekoak

Badakigun arren Donostian izan zela, Koruko Andre Mariaren Ikastetxeko Areto apainean (7), eskutitzean esaten zaigu Gasteizen egiteko asmotan zirela Eusko-Ikaskuntzak antolatzen zituen ekintzekin batera, irailaren 4tik 11ra hain zuzen.

Baina laguntzaile nafarrek eskatu zutela Donostian izan zedin Ikas-bileratxoan. Horretarako arrazoia zen Gasteiz ez zetorkiela ongi, eta hobeto zutela Donostia. Eta ontzat eman zen eskabidea. Eta egunei dagozkienari buruz ere badago alde txirik: gutunean irailaren 14 eta 15 izan zitezkeela aipatzen den arren, azkenean bi egun lehenago izan zen, 12an eta 13an.

Aingeru Irigarai egiten du “Eusko-Ikaskuntzako Deia”-n bere kronika (8). “Martin Lekuona izan zen bilkura orren ernazailea. Irur ogei ta amar baño geiago irakasle, apez eta bertzetarik”, dio. Eta Laguntzaileen Deia-n berriz, zera esaten da: “Maian Jaun oiek exeri ziran: Intza’tar Damaso Aba, Euskaltzaindiko Yaur-Sallaren Lendakaria; Irigarai’tar Gotzon, Eusko Ikaskuntzaren ordezko; Pierre Lafitte, Apaiza, Bidasoz aruntzkoen ordezko; Herrero’tar Erraimunda, Irakaslea, Gipuzkoako Eusko Irakasleen ordezko; Alduntzin’tar Koldobika, Naparroa’koen ordezko; Lekuona’tar Imanol, Apaiza, Araba’koen ordezko, Lekuona’tar Martin, idazkari”. “Aretoa, betea. Apaizak eta Irakasleak gaillen. Geienak Araba’tik eta Naparroa’tik etorriak ziran. Irurogei bat gutxienez” (9).

6. Laguntzaileen antolakuntzak

Berriro ere idatziz jasotako gertakarien azpildurak aipatzen dira. Laguntzaileen lehenengo Deia-ri esker ezagutzen genituen erakunde honen asmoak, izena, ikurritza, eralguntza, Idazkaritza nagusia, Laguntzaileen batzordea, urteroko batzorra eta Ikasbilerak, hileroko Deia (boletina), eta ordaindu beharrak (10).

Baina gutunean, maila partikularrean, Euskaltzaindia zergatik aukeratu zen esaten zaigu. “Ez dugu nahi izan elkarte berri bat sortzerik. Nahiago izan dugu lehendik zegoen batean sartu. Euskaltzaindiak badu “Yaur-salla” izenekoa, eta hor sartu gara. Sail honek, orain lan berezirik egiten ez duenak, guk dugunaren antzeko helburua du. Beraz, hemendik aurrera Euskaltzaindiko sail horretako laguntzaile izango gaituz”.

Hortik aurrera erakundearen izenaz eta eragin-indarrez zaio mintzo. Hau da, Euskaltzaindiaren babesean izango duten eragin onaz. Baina Manuel Lekuonak, bere *Azken urratsak* liburuan arrazoi politikoa azaltzen digu Euskaltzaindiaren babesean langintza hau jartzeko: “Lo que digo de no suscitar sospechas, les

(7) *Ibid.*, 3. or.

(8) A. Irigarai: “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak”. *Eusko-Ikaskuntzaren Deia. Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*, 15 (1933), 10. or.

(9) “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak. Deia”, *ibid.*, 3-4. or.

(10) *Ibid.*, 5. or. Erabakietan datoz.

insistí de un modo especial, porque en aquel ambiente estaba a la orden del día, denunciar todo lo que oliera a vasco, como si se tratara de ‘Separatismo’, por lo cual, en efecto, les recomendé, que para ‘evitar sospechas’ se pusieran al amparo y protección de alguna Entidad o Institución reconocida como de confianza; y, en efecto, les recomendé que se pusieran al amparo de la Academia de la Lengua vasca... Protección que les valió el no ser considerados como sospechosos de Separatismo” (11).

7. Guasch-en mintzaldiaz aipamena

Bigarren gutunean aipatzen da oso arretagarria izan zela Don Krispin Guasch-en hitzaldia. “Noiz izango dugu argitaraturik ikusteko zoria, gure haur erdaldunei euskara erakusteko testu-liburu modura erabil dezagun? Izan bihotz zure lana amaitzeko, gero, Eusko-Ikaskuntzak azter dezan eta kaleratu. Irakaskuntz testu bat oso beharrezkoa zaigu” (12).

Gutunean zehazten ez bada ere, jaso dezagun hemen laguntzaileen Deia-ko lehen zerbakiak datorrena: “11’etan.—Guasch’tar Krispin. Irura’ko Irakasle Argiak iragarritako itzaldia egin zuan: Marrazkia, oro-izkera.—Euskera erakusteko nola erabili?”

“Guasch Jauna Katalunyarra da. Irura’ko errian bere ikastolako aurrak Euskera besterik ez dakite. Nola adierazi aiei Irakasleak nai duana? Guasch Jaunak, guziak ulertzen duten izkera erabiltzen du: marrazkia. Arrigarriak dira bide onekin iritxi dituan ondorenak. Eta zergatik ez erabili bide ori bera aur erdaldunei Euskera irakasteko? Guasch Jaunak, olean irudiak marraztuz, argi erakusten digu nola irakatsi leizken marrazki bidez euskal esakunaren zati guztiak: izena, mugaitza, zendina, izenordea, aditza etab. Txalo sutsuak irabazi zituan bere itzaldi bikañaren sariz. Eta guk galdera bat dagiogu: noiz argitaratuko digu Guasch Jaunak amaituxe daukan euskal ikaspidea? ‘(su texto vasco)’. Zai gagozkio” (13). Orain, euskal pedagogiaren historiarako, aztertu beharko litzateke zer dagoen Guasch-en familiak gordetzen dituen paperetan.

8. Hurrengo sei hilabeterako egitasmoa

“Kantuak eta jolasak prestatzen ariko gaituzu. Interes zentruen metodoari atxekitz umeen interesei egokitzen zaien hiztegia bilatuz. *Umearen laguna* izeneko liburuska ere banatu nahi dugu, oharkizun praktikoak erantsiz. Oraingoz ez dago gehiago eskatzerik. Baina gutxi da hau. Orotariko testu bat behar dugu umeari euskera erakusteko ahalbide guztiak bilduko dituen: kantuak, jolasak, grabatuak, marrazkiak, irakurgai mailakatuak, oroimena lantzeko ariketak etab (14).

(11) M. LEKUONA: *Azken-urratsak*, “Idaz-lan Guztiak”, “Kardaberaz Bilduma”, 32 z. Eset, Gasteiz, 1987, 405. or.

(12) Bigarren gutunean.

(13) “Euskaltzaindiaren Laguntzalleak. Deia”, *ibid.*, 7. or.

(14) Bigarren gutunean.

Asmo honen emaitzak honelaxe zehazten dizkigu Manuel Lekuonak: “Al muy poco tiempo les hacía yo un par de Canciones, sobre temas elementales, como un ‘Elixebatxu, txingo, txingo, txingo’ y otra, sobre léxico del oficio de costura, ‘Ba det nik jostorratza’, y otra, más sencilla aún, como aquel diálogo entre madre e hija, que comienza ‘Ama, ekatzu jantzi beltza’, así como Txomin Jakakortejarena, con la gracia que tenía y tiene para estas cosas, les hizo un par de ellas sobre léxico de régimen doméstico y los oficios de un niño” (15).

Eta boletinaren berri emanetz, alegia, hileru aterako dela, eta bi orri izango dituela, bigarren gutunaren berriak amaitzen dira.

Azkena

Euskaltzaindiaren historiari dagokion zerbait da Laguntzaileen alderdi hau. Batzar-agiritan aipatzen da talde hau 1933ko maiatzean, ekainean eta urrian (16). Gaia gutxi ezagutua izanik ere, hor zeuden laguntzaileen boletina, eta “Eusko-Ikaskuntzaren Deia” deiturikoa. Edota Manuel Lekuonaren aipamenak. Orain, gutunoi esker, gaia xehekiago eta beste ikuspegi batetik ezagutzeko egokiera iritsi zaigu. Dokumentu ofizialetan aipatzen ez diren zenbait xehetasun eta ñabardura aurkitzen ditugu: orduko protagonistak; lanen eta antolakuntzen barne-xehetasunak, eta Euskaltzaindiaren Laguntzaileak 1933ko irailean edukiriko Batzarraren eta Ikas-bileratxoaren berri pertsonalagoak. Papera apal hauek argitara ematea Euskaltzaindiaren historia osabetetzen joateko izango al-da!

(15) M. LEKUONA: *ibid.*, 404-405. orr.

(16) Batzar-agiriak. Orrilla 1933, Garagarrilla 1933, Urrilla 1933. *Euskera*, 15 (1934), 265, 267-268 eta 268-269. orr.

Musitu 13-VIII-33

Sr. D. Crispin Guasch
Maestro Nacional
IRURA

Agur: Aunque no tengo el honor de conocerle personalmente, le dirijo esta carta como a un antiguo conocido y amigo, porque, por muchos conductos, pero, sobre todo, por conducto de D. Juan de Aranguren, coadjutor presbítero de Andoain, y de D. Raimundo de Herrero, presidente de la Asociación Vasca de Maestros de Guipúzcoa, nos es Vd. muy conocido; y, seguramente, que le serán a Vd. conocidas nuestras aspiraciones de querer resucitar, poco a poco, nuestro Euskera en estos pueblos de Alava, Navarra, etc. Hasta ahora nos hemos puesto al habla con Vd. por mediación de D. Juan de Aranguren, por la causa que al principio le he dicho, y por estar éste identificado con nuestras aspiraciones. Pero hoy hemos de dirigirle directamente esta carta, ante todo, para mostrarle nuestro agradecimiento; porque nos consta que ha tomado Vd. nuestros proyectos con un cariño y atención, a que no son acreedores, si no es en cuanto tienen de entusiastas. Quisiera, también, por esta carta darle alguna ligera noticia de nuestras aspiraciones.

Como sabe Vd. muy bien, el Euskera, desgraciadamente, no se habla ya en casi toda Alava (solamente se habla en 7 pueblos de esta región) y en gran parte de Navarra, y en algunas zonas de Guipúzcoa y Vizcaya. Nosotros hemos escogido por campo de nuestra acción euskerista, éste donde el Euskera es ya difunto (aunque persiste en la toponimia, en palabras caseras y, sobre todo, en construcción de la frase, que es completamente vasca), y donde por lo tanto, su enseñanza es igual a la *enseñanza de una lengua nueva*, con la particularidad de que es una lengua no extraña, sino nuestra, de nuestro pueblo.

Este es nuestro terreno de acción, y éste nuestro problema: resucitar un idioma viejo, muerto.

Y, qué procedimientos se imponen para llevar a cabo este propósito? Nosotros, unos cuantos sacerdotes, sin otra preparación que un poco de buena voluntad, quisimos hacer un pequeño ensayo en el primer semestre de este año. No conocíamos ningún método científico. Pero, como estaban entonces en boga los cantos rítmicos de los Pospoliñas de Donosti, nos propusimos enseñar a los niños de algunos pueblos de Alava tres de esos cantos rítmicos con todas sus estrofas, para que los niños aprendiesen así las palabras y frases que aparecen en la letra de esos cantos, y esas palabras y frases fuesen la base de otras que nos pareciese bien enseñarles. Los resultados de este primer ensayo, pobres como primeros y mal organizados, los verá Vd. en nuestro próximo Congreso.

Pero, ya que habíamos empezado a andar, quisimos dar alguna forma a estas aspiraciones nuestras, y, así, lo primero que hicimos fue solicitar colaboraciones de personas competentes sobre métodos que se deben y han empleado otros pueblos de Europa para conseguir el mismo fin que pretendemos nosotros. Uno de nuestros consultados ha sido Vd., por un método peculiar suyo, de que hemos tenido alguna noticia por la prensa, y, sobre todo, por referencias particu-

lares que nos aseguraban que Vd. había aprendido el Euskera por ese método, con los niños de la escuela de su digna dirección de Irura, y enseñaba el castellano a esos niños con ese mismo método con unos resultados insospechados. ¿Cual no sería nuestra alegría y agradecimiento cuando nos comunicó nuestro amigo Aranguren que se ponía Vd. a nuestra disposición, y se comprometía a hacernos una exposición de su método en un Congresillo que proyectamos para fines de este verano?

Aprovechando la semana escasa que acabo de pasar en mi pueblo natal de Oyarzun, pensaba pasar por Irura para entrevistarme con Vd., pero no me ha sido posible. Pude conferenciar por teléfono con D. Juan de Aranguren, que me comunicó que en todo este verano se quedaba Vd. en Irura y que en un día de estas vacaciones nos podría dar Vd. su conferencia.

Nosotros habíamos pensado celebrar nuestro Congresillo en Gasteiz-Vitoria —coincidiendo con los *cursos de verano* que Eusko-Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos organiza en Vitoria desde el 4 al 11 de septiembre. Y así, había pedido yo a la Sociedad de Estudios Vascos que le llamasen a Vd. para ese Curso, a donde también asistiríamos nosotros. Pero nuestros compañeros navarros nos piden que el Congresillo se celebre en Donosti, porque Vitoria les viene mal, y San Sebastián mucho mejor. Hemos accedido a sus ruegos. Por lo tanto, nuestro Batzar será en San Sebastián, a mediados de septiembre, probablemente del 14 al 15. La fecha exacta no la he determinado, porque espero contestación de algunos colaboradores, como también la suya.

Le agradecería, pues, mucho, que me escribiera Vd. dos letras indicándome si le viene a Vd. bien esa fecha (14 y 15 de septiembre) o algunos días antes.

Tenemos que imprimir también un programa-convocatoria del Batzar. Haría Vd. también el favor de enviarme el título de su conferencia? Y... tendría Vd. algún inconveniente en que, por diversas razones muy fáciles de vislumbrar, figurase su nombre en el programa? No es que nuestro Congresillo sea un acto clerical (!) ni por su fin, ni por los concurrentes, porque asistirán también algunos maestros; pero estamos en unos tiempos, en que le crean a uno dificultades por nada, y no quisiéramos creárselas a Vd. en su porvenir, que, seguramente, tiene que ser brillante.

Le he hablado de que asistirán también algunos maestros al Congresillo. Como nuestro objeto es completamente cultural, quisimos que participasen en él también los maestros, y nos pusimos al habla con algunos. Tenemos el ofrecimiento particular de algunos maestros de Alava, de Navarra y de la Asociación Vasca de Maestros de Guipúzcoa. Es necesario que en esta labor marchen juntos el maestro y el sacerdote, que ambos son los representantes de la cultura en los pueblos. En la escuela y en el catecismo, creo que se puede llegar a unos resultados hermosos.

De nuestra organización, dos palabras. No hemos querido formar una Asociación aparte. Hemos preferido agregarnos a alguna de las que existen. La Academia de la Lengua Vasca tiene una Sección Tutelar, a la que nos hemos agregado. Esa sección que permanecía inactiva, tiene un fin parecido al nuestro. Somos, pues, en adelante colaboradores de esa Sección de la Academia. Nuestro

nombre es: "Euskaltzaindiaren laguntzalleak-Colaboradores de la Academia de Lengua Vasca". Bajo sus auspicios seguramente creceremos y nos extenderemos mucho. Bajo la tutela de la Academia y bajo la dirección de Vds., los competentes en pedagogía.

Agur, adiskide ta anai maite. Barkatu eskutiz luze au. Agindu nai dezuna zure menpeko gelditzen naizen lagun oni.

Lekuona'tar Martin

Laminoria-Musitu (Alava)

Musitu, 7 de octubre de 1933

Sr. D. Crispin Guasch

IRURA

Agur, adiskide: Vengo a agradecerle en nombre de los Colaboradores de la A. de la L. V. su desinteresada colaboración en nuestro Congresillo de San Sebastián. No pude hacerlo personalmente, porque enseguida tuve que venir a esta Parroquia de mi cargo.

Interesantísima su conferencia. ¡Qué lástima que no la pudiesen ver y escuchar todos los Colaboradores esparcidos por las zonas erdelunes de nuestra Patria!

¿Cuándo tendremos el gusto de verla publicada, para que nos sirva de texto en la enseñanza del Euskera a nuestros niños erdelunes? Anímese, Sr. Guasch, a terminarla, para que Eusko-Ikaskuntza la examine y publique. Tenemos verdadera necesidad de un texto de enseñanza. No todos los Colaboradores tienen la suficiente voluntad, ni todos están capacitados, para ingeniarse en buscar maneras prácticas de enseñanza; hay que darles todo hecho. Y sabe Vd. que por este año (al menos en el semestre que viene) nos vamos a ceñir a preparar cantos y juegos con vocabulario adaptado a los intereses del niño según el método de los centros de interés. Vamos a repartir también el librito *Umearen laguna* con algunas anotaciones prácticas. Por ahora no se puede más. Pero es poco. Hemos de tender a tener un texto completo, que abarque todas las posibilidades de enseñanza del Euskera al niño: cantos, juegos, grabados, dibujos, lecturas graduadas, ejercicios de memoria, etc., etc. Sabemos que Vd. será colaborador incondicional en esta nuestra empresa. Así nos lo manifestó Vd., y así lo esperamos del amor suyo al Pueblo Vasco, del que es Vd. gran admirador.

Dentro de poco pensamos publicar el primer número de nuestro Boletín (una doble hoja mensual) con un resumen de la Asamblea y Congresillo de Donosti. Se lo mandaré tan pronto como salga a la luz. Tendré también a Vd. al corriente de todas nuestras iniciativas y actividades.

Reiterándole, pues, nuestro agradecimiento, me es muy honroso ofrecerme de Vd. s.s. y Cap.

Martin de Lecuona

Laminoria-Musitu (Alava)

BESTE ZENBAIT LAN

HERRI-LITERATURA

ERRIMA UZTAPIDEREN BERTSOGINTZAN

1991-V-20

Pello Esnal

Gure umetan honako bertso hau moldatu eta hamaika aldiz kantatu zigun aitona Benitori:

Erbia gisatuta,
kapoia erreta,
xoxoa ez da txarra
mantekaz beteta;
Pedro Marik gitarra jota,
Jabierrek tronpeta,
aitona dantzan jarrita,
horra nahiko festa!

* * *

Sei urte neramatzan *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan Uztapidek darabilen errima-modua lantzen, Euskaltzaindiak Manuel Lekuona ikerketa-saria antolatatu zuenean. Aukera ezin hobea iruditu zitzaidan egina nuena aurkezteko.

Ordurako burutuak nituen bi lan: Oindegia (Uztapidek *Sasoia joan da gero* liburuan erabilitako oinen hiztegi antzekoa) eta Errimategia (oinak errimaka bilduz osatutako errima-alorren bilduma). Baina ez nintzen eskuz egindako bilduma haiek txukuntzen hasiko. Gainera, apenas izan zezaketen inorentzat interesik, ia-ia zerrenda hutsak izaki. Bestalde, hasia nuen hirugarren lan bat ere, aurreko biak oinarri hartuta: Uztapideren Oin-errimen almatzenaren osatzea. Horiek horrela, zer egin? Hirugarrena azaltzea erabaki nuen, beste bien berri ere emanaz.

Hala adierazi nuen lanaren aurkezpenean, eta honela jarraitzen:

Gure asmoa honako hau besterik ez da: oraindik erabat bukatzeke dugun lana gu baino adituagoen eskuetan jartzea, honaino egindako bidea zuzena den azter dezaten aurreragi sartu aurretik. Jasotako iritzia-
ren arabera jokatu dugu aurrerantzean: merezi badu, aurrera eginez, zuzendu beharrekoak zuzenduz, Oindegia eta Errimategia informatikaz berretsiz eta Uztapideren Oin-errimen almazena burutuz; eta merezi ez badu, berriz, dagoen-dagoenean utziz.

Aukera hura egin nuen. Ez zen, ez, lehenengoa. Sei urte lehenago ere egin behar izan nuen beste bat, eskuak lanari erantsi aurretik. Izan ere, oro har bi jokabide metodologiko bait nituen aukeran, bertsolaritzaren muinera iritsi nahi eta errima hartu nuenean aztergai. Intuiziozkoa zen lehenbizikoa: intuizioa gidari atzematea errimaren zer-nolako nagusiak; gero etorriko zen hori datuz hornitzea eta adibidez jaztea. Bigarren jokabidea alderantzizkoa zen: datuak abiapuntu, hauen azterketa erabatekoa eginez atzematea errimaren funtsa.

Errimaz argitaratua zegoena irakurtzeak eraman ninduen bigarren jokabidea hartzera, garbi samar bait zegoen ia beti lehenengo bidetik ibili izanak ez dizkigula gogobeteko emaitzak utzi, nahiz eta agian erru guztia ez egon aukera metodologikoaren baitan. Bigarren jokabideak ere bazituen, ordea, bere alderdi kamutsak; besteak beste, lan-esparrua hain handia izatea luze-zabalean. Izan ere, nola ekin bertsolari guztien errima-erabilera aztertzeari? Batekin hasi beharra zegoen. Baina, halere, nola bildu eta aztertu bertsolari baten bertso guztiak? Beraz, intuizioz jokatu beharra zegoen bertsolari bakarra hautatu eta honen bertso-bildumaren aukera egitean ere. Hala aukeratu nituen Uztapide eta bere *Sasoia joan da gero* bertso-liburua. Ez naiz inoiz damutu.

Baina ez zen orduan amaitu aukera egin beharra. Erabaki beharrean bait nago orain ere, Euskaltzaindiak Manuel Lekuona ikerketa-saria irabazitako lana argitaratzea erabaki duenean. Nola eman argitara: besterik gabe dagoen-dagoenean ala zertxobait osatuta?

Lana berriro irakurtzean sortu zait galdera. Egiten hasi berria den etxearen tankera hartu bait diot orain bi urte burututakoari. Hor ditu planoak eginda, zimenduak aterata (ezkutuan gehiago agerian baino), gai ugari bildua eta pilatuta... Eta galderaren bi aukeren aurrean berehala egin dut bigarrenaren alde: orain bi urte egindakoa ikutu gabe, bigarren lanez zertxobait osatzearen alde, alegia. Horretara bultzatu naute, besteak beste, bi urte hauetan egitasmoa lantzen egindako aurrerabideak eta honen berri dakiten lagunek emandako aupadek. Baina horiek gutxietsi gabe, indar gehiago izan du azken batean Euskaltzaindiak eskainitako aukerari ahalik eta etekin gehiena atera nahiak; merezi duelakoan bait nago.

Bi azken urte hauetan egin bait dut aurrerabiderik, lehenago jarritako oinarrien gain; nahiz eta zeuden zeudenean egon gaur ere orduan aipatutako hiru lanak: Uztapideren Oindegia, Errimategia eta Oin-errimen almazena. Eta hori, batez ere informatikaren aldetiko eragozpenengatik. Halere, horiek gehiago dagozkie egitasmoaren ezkutuko alde ilunari; eta beude oraingoz bere horretan, ego-kiera hobearen zain.

Aurrerabideei dagokienez, berriz, hor doaz bigarren lanean, Manuel Lekuona saria jaso zuen lanaren jarraian. Bi puntu nagusiko artikulua da, lehenengo lanaren osagarritzat jo dezakeguna, osagarri hutsa ez bada ere; aurrekoaren pare bat puntu ere birmoldatzen bait ditu. Baina utz dezagun dagokionerako bigarren lanaren nondik-norakoan berri ematea. Eta amai dezagun lehenengo lanaren aurkezpenean bezala:

Asmatuko ahal genuen!

UZTAPIDEREN OIN-ERRIMEN ALMAZENA BERROSATZEN

Sasoia joan da gero bertso-liburuko oin eta errimak aztertzen eta egituratzen: ondorengo lan zabal eta osoago baten hasikin.

ALDEZ AURRETIKO ZENBAIT ARGIBIDE

Laburduren esanahia

Ad. aditza.

Adj. adjetiboa.

Bald. baldintza, baldintzazkoa.

Zenb. Zenbatzailea.

Bertso-sailak, bertsoak, puntuak eta oinak aipatzeko modua

Ikus 523. orrialdean puntu honi dagokiona.

Errimen berri emateko modua

Ikus 532-533. orrialdeak eta 533. orrialdeko (24), (25) eta (26) oin-oharrak.

AURKEZPENA

Sorginkeria hitza dugu bertsolaritza zer den adierazteko egokienetakoa. Sorginkeriatik asko bait du bertsolaritzak; baita sorginetik ere bertsolariak. Eta sorginkeriak bezala, harridura eta lilura sortzen ditu bertsolaritzak bertsogintza ezagutzen hasten denaren baitan: “hori da hori!”. Eta harridura eta lilura jakinmin bihur daitezke gerora: “nola liteke bat-batean bertso neurtu eta errimatuak sortzea?”. Eta aztertzaileak bereganatu egiten du jakinminak sortutako galdera, eta zatitu, xehetu, birmoldatu...; bai bait daki zenbat errazten duen bidea ondo egindako galderak. Eta hasierako jakinmin hura areagotu besterik ez zaio egiten ikerketariari bertsolaritzaren bidean aurrera joan ahalean.

Gure baitan ere hasierako harridura jakinmin bihurtu zen denborarekin, eta jakinmina astiro-astiro aztergura. Eta galdera batzuk sortuz joan zitzaizkigun: nola

erabiltzen du errima bertsolariak?, zein oinez baliatzen da?, zeintzuk dira errima eta oin erabilienak?, ez ote daude oinak eta errimak elkarren artean lotuta?, ez ote daude klitxe batzuk eginak?, nola ditu ordenatuak bertsolariak errimak eta oinak?... Eta pixkana-pixkana sendotuz joan zitzaigun ziurtasun bat; baita habia egiten ere hiru susmo: errima dela bertsogintzaren bihotza, erriman dagoela bertsogintzaren gakoa, errima lagungarri ere gerta dakiokela bertsolariari, hasieran ematen duen baino errazagoa izan behar duela errimak eta oinak erabiltzea... Eta galdera eta susmo horiekin lanean hasi ginen.

Galderak eta susmoak gidari, errima eta oinak aukeratu genituen aztergai bertsogintzaren alderdi askoren artean, Uztapidek bere bertoetan erabilitako errimak eta oinak, hain zuzen; izan ere, errima aztertzea iruditzen bait zitzaigun bertsogintzaren muinera iristeko biderik egokienetakoa. Baina ezin Uztapideren bertso guztiak erabili, eta azkenekoekin geratu ginen: *Sasoia joan da gero* liburu-koekin, alegia. Eta liburu horretako oinak eta errimak arakutzen hasi ginen: jira eta bira, multzoak egin eta desegin, fitxa bat hemen, bestea han... Eta, pixkana-pixkana, bi helburu jarri genizkion geure lanari: batetik, edozein bertsolariren bertsogintzako errimak eta oinak aztertzeke sistema baliagarria moldatzea eta, bestetik, Uztapideren Oin-errimen almazena berrosatzea. Bi helburu hurbil horiek, jakina, urrunagoko xede bat zuten: bertsogintzan sakontzea.

Eta hala taxutu genituen lehenengo bi lanak: Oindegia (Uztapidek *Sasoia joan da gero* liburuan erabilitako oinen hiztegi antzekoa) eta Errimategia (Oindegiko oinak errimaren arabera bilduz osatutako errima-alorren bilduma). Eta bi lan horiek oinarri, ekin genion hirugarren bati: Uztapideren Oin-errimen almazena osatzeari. Azkeneko hauxe aurkezten dugu hemen, beste bien berri ere emanez.

Gure asmoa honako hau besterik ez da: oraindik erabat bukatzeke dugun lana gu baino adituagoen eskuetan jartzea, honaino egindako bidea zuzena den azter dezaten aurreragi sartu aurretik. Jasotako iritziaren arabera jokatuko dugu aurrerantzean: merezi badu, aurrera eginez, zuzendu beharrekoak zuzenduz, Oindegia eta Errimategia informatikaz berretsiz eta Uztapideren Oin-errimen almazena burutuz; eta merezi ez badu, berriz, dagoen-dagoenean utziz.

Asmatuko ahal genuen!

1988ko azaroak 24

* * *

1. BERTSOLARITZAREN BIHOTZERA

Lehenengo atal honetan lau punturekin zabalduko dizkiogu atea geure lan honi: lehenengoan beraren muina azalduko dugu; bigarrean gidari ditugun ziurtasunaren eta susmoen berri emango dugu; hirugarrean lanaren zer-nolakoaz arituko gara, laugarrean lan honen gainerako atalak aurkeztuz bukatzeko.

1.1. Lanaren muina: Oin-errimen almazena

1.1.1. *Almazena*

Bada hitz bat, jatorriz euskalduna izan gabe ere, bertsolariek bertsotan aldian behin aipatzen dutena: *almazena* (1). Hitz honen eskutik has dezakegu bertsolaritzaren bihotzera eraman gaitzakeen bidea urratzen, nahiz eta bertsolariek erabilitako esanahi ber-berarekin ez erabili. Guk eman nahi diogun esanahia zedarritzeko, balia gaitezen Uztapidek Txirritari buruz esandako hitz batzuz. *Argia* aldizkari-rik hartu ditugu (2).

Argia: *Txirrita* zer moduzko bertsolaria zen?

Uztapide: Nik hura azkenengo urteetan ezagutu nuen. Bertsolari oso ona zen. Bertsoa errez egiten zuen, bertsokera errezekoa zen. Baina dozena bertso kanta ondoren, badakizue, rima oso erreza zuen eta mugatua noski eta botatakoak berrepikatzen hasten zen. Ez zuen berdin-berdina botako baina oso antzekoa bai.

Argia: Etorri haundikoa omen zen...

Uztapide: Etorri ikaragarria. Hari segituan etortzen zitzaion bertsoa. Jakina, antzekoak baina... Dena dela hori errezagoa da, baina bakoitzak bere bertsokera dauka. Bertsoa asko aldatu nahi duenak, lanak dauzka, zailagoa bait da. Zepai batek ere erreztasun haundiz botako zizun bertsoa, baino oso mugatua honek ere. Azkarra bertsotan hura ere.

(1) Hona hemen Gazteluren bertso bat, berak eta Txirritak Azpeitiko Loiolan San Isidroan jesuiten etxeko leiho banatetik egindako saiotik hartua:

Kabida ona dago
gure almazenetan,
Jaungoikoak grazia
eman digu hortan;
gizon azkarrak dira
estudioetan,
gure kolejiuak
sagardo tokietan.

DORRONSORO, J. (1981): *Bertsotan: 1789-1936*, Bilbo, Elexpuru, 218. or.

(2) XALBARDIN eta ARTASO (1982): "Lehengo egunak gogoan". In *Argia*, 935. zenb., 21. or.

Horraino Uztapideren hitzak. Hona hemen ondoren, gure hitzez emanda, Manuelen aitoren bera: aukera txikikoa zela Txirritaren Oin-errimen almazena, nahiz eta Txirrita etorri handikoa izan eta egundoko etekina atera bere almazen urriari, Aita Zavalak hernaniarraren bertso batean oin hartu eta "ustu ezin zan ganbara"-z hitz egiteraino (3).

Baina zer esan nahi dugu "Oin-errimen almazena" diogunean?

1.1.2. *Oin-errimen almazena*

Oin-errimen almazena ezer baino lehen almazena dugu, biltegia. Eta almazen edo biltegi bakarra, bi gaiz beteta badago ere. Beraz, Oin-errimen almazenez hitz egitean, biltegi bakarrak ari gara.

Baina, aurreratu bezala, almazen horretan bi gai pilatzen dira: oinak eta errimak; bi gai, elkarrekin estu lotuak. Lotura estu hori adierazten du "oin-errima" hitzen tarteko marratxoak ("eta" juntagailuaren baliokide dugu hemen marratxo).

Beraz, elkarrekin estu lotuta dauden bi gairen biltegi bakarra dugu Oin-errimen almazena.

Hori horrela, "oin" eta "errima" hitzen esanahia azaltzea geratzen zaigu, Oin-errimen almazenen esanahi osoa adierazteko. Aldi berean, azal ditzagun "bertso" eta "puntu" hitzen ere (4).

Has gaitezen "bertso" eta "errima" terminoekin. Ez dugu uste inolako problemarik sortzen dutenik. Adostasun osoa dago horien esanahien inguruan. "Bertso" hitzaren ordez "pertsu", "bertset" eta "ahapaldi" (5) ere aurki ditzakegu, baina beti esanahi berarekin: erdarazko "estrofa" eta terminoenarekin. Errima, berriz, puntuen bukaerako ahoskidetza dugu.

Adostasuna ez da hainbestearinokoa beste bi kontzeptuen inguruan. Zer da puntua? Zer da oina?

Gogora dezagun nola erabiltzen den "puntu" hitza gaurko bertsolari-txapelketetan eta jaialdietan. Denok dakigu zer den bertsotan *puntuka* aritzea;

(3) ZAVALA, A. (1976): *Ustu ezin zan ganbara*, Tolosa, Auspoa, 126. Ikus Zavalaren hitzak hitzaurrean (9-10. orr.) eta Txirritaren bertsoa 135. orrialdean.

(4) Zehazte-lan honetan, azken bertsolari-txapelketetan eta saioetan erabiltzen diren hitzez eta kontzeptuz baliatu gara gehienbat. Jokaera honekin ez diogu, ezta hurrik eman ere, orain arteko zenbait terminologiari muzin egin nahi. Erabakia hartu behar eraman gaitu bide bat hartu eta bestea utzi behar izatera. Aitortu gabe doa mingarri zaigula puntu honetan Lekuonatarren jardunetik aldendu beharra; izan ere, ez bait ditugu "oina" eta "puntu" hitzak beraiek bezala erabiltzen. Ikus, besteak beste, Juan Mari Lekuonaren *Ahozko euskal literatura* liburuan 82-84 orr. (1981, Donostia, Erein).

(5) Ikus Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia* (Bilbo, Euskaltzaindia, 1987) "ahapaldi" hitzari dagokion argibidea.

baita zer den bertsoaren *lehenengo puntua* edo *azkeneko puntua* emanda bertsoa osatzea ere.

Adibidez, har dezagun Uztapideren *Sasoia joan da gero* liburuko lehenengo bertsoa:

Len liburu bat idatzi nuen:
 “Lengo egunak goguan”,
 baña senide bakarra zan da
 biziro triste zeguan;
 beste anaia gaztea nola
 jaio bearra dagan,
 au ikusita ia jartzen dan
 patxara obiaguan (6).

Lau puntukoa izaki, bi lerrok osatzen dute puntu bakoitza, Uztapideren liburuko puntu gehientzuenak bezala. Beraz, ez dira berdinak gure “puntua” eta gaztelerazko “verso”. Bestalde, aipatutako liburu berean bada lerro bakarreko punturik; hala nola, eta besteak beste, “Guk sasoiak bagundun” bertso-saileko (47-51. orr.) hamabi bertsoen 5, 6, 7 eta 8. puntuak (“Betrioiarenak” doinukoak) edo “Elurtea” saileko (87-90 orr.) hamabi bertsoen bi lehenengo puntuak (“Uso txuria” doinukoak) (7).

Dena dela, *oina* daraman osagaia den neurrian arduratzen gaitu puntuak: zenbat puntu, hainbat oin.

Aurreko bertso horretan, esate baterako, lehenengo puntua *goguan* oinarekin bukatzen da, eta beste hirurak *zeguan*, *daguan* eta *obiaguan* puntuekin.

Eta *puntua* bezala, *oin* terminoa ere bertsolarien txapelketa eta jardunaldietan duen erabileraren arabera darabilgu. Ezaguna da, esate baterako, “oinak emanda bertsoa osatu” izeneko ariketa. Labur esanda, errima daraman hitza edo hitz-multzoa dugu *oina*. Uztapideren lehengo bertsoa itzuliz, aurreratu dugu *goguan*, *zeguan*, *daguan* eta *obiaguan* ditugula bertso horren oinak. Eta bistan dagoenez, *guan* da oin horien errima.

Ia gehienetan hitz bakarrekoa izaten da oina, baina bi hitzekoa ere izan daiteke zenbaitetan; baita aldian behin hirukoa ere. Adibidez, Uztapideren liburuan bi hitzeko honako oin hauek aurkituko ditugu besteak beste: *ai dia*, *al du*, *an zan*, *arrapa zak*, *bear zan*, *edo ez*, *esan zan*, *ezin du*, *gauza da...* Hiru hitzekorik ere bada: *ez al zen* eta *al da or*.

(6) UZTAPIDE (1976): *Sasoia joan da gero*, Tolosa, Auspoa Liburutegia, 17 or. Hemendik aurrera, aztergai dugun liburu honen aipuak oin-oharretan ez baina testuan bertan egingo ditugu, parentesi artean emanez bertsoa dagoeneko orrialdea edo dena delako bertso, puntu edo oinari dagokion zenbakia (ikus aurrerago, 523. orrialdean, *Bertso-sailak*, *bertsoak*, *puntuak eta oinak aipatzeko modua* puntua).

(7) Baina kontuan izan behar da guzti hori Hegoaldeko-edo bertso idazkeran gertatzen dela; bai bait da, Iparraldean batez ere, puntu bakoitzeko lerro bat idazteko joerarik ere.

Badakigu “puntu” eta “oin” hitzak hemen aipatu bezala erabiliz, benetan estimatzen dugun ohitura eta tradizio batetik atera egiten garela; baina uste dugu onuragarri gerta dakigukeela zenbait arazo argitzeko. Bestalde, ez gara hutsean oinarritzen; zabaldua dagoen herri-erabileran, baizik. Esan beharra dago, halaber, Xabier Amurizak ere bere *Hitzaren kirol nazionala* liburuan bide beretik jotzen duela (8).

Eta, besterik gabe, Oin-errimen almazena zer den adierazia dugulakoan gaude. Aurrerapauso bat emanez, adieraz ditzagun ondoren lan honen hasieran bultzagarri ditugun ziurtasuna eta susmoak.

1.2. Ziurtasun bat eta hiru susmo gidari

Bertsolaritzaren bihotzerako bidean ziurtasun bat dugu gidari eta hiru susmo gidari-lagun. Luzeago jardungo dugu ziurtasunari buruz: errima dugula bertsoaren bihotza. Eta adierazi besterik ez ditugu egingo hiru susmoak: erriman dagoela bertsogintzaren giltza eta gako; oin-errimek sistema bat osatzen dutela (zenbait bertsolariengan) eta errima betebeharreko baldintza ez-ezik baliabide ere badela (zenbait bertsolariengan).

1.2.1. Errima: bertsoaren bihotza

Ez da bertsogintzaz asko jakin behar bertsoak errima ezinbestekoa duela aitortzeko. Errimarik gabe ez dago bertsorik, ez bat-batekorik, ez jarririk.

Badirudi, ordea, ez dutela denek hori horrela ikusten; badela, alegia, bestelako iritzirik duenik ere. Gogora ditzagun, besteak beste, Xalbador handiaren hitzak:

Azken denbora hauetan, pertsuzale batzuek atera daukute ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean; barnean zer duen dela gehienik konda. Eta banago, hori entzunik edo, zorbait entzule ez ote diren egoiten gaizki rimatu pertsu bat entzun arte, esku zartaka hasteko!

Behar bada, pertsulari batzuek ere atseginekin entzun dute ateraldi hori, askatasun horrek arint lezakelakotz gure lanaren zailtasuna. Bainan ez ditela lokar. Pertsulariak pertsuak egin behar ditu. Nolakoak egiten diren, hori bertzerik da. Bainan arrozoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrozoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin orea ere ez da ogia, labean axala egin artean (9).

(8) AMURIZA, X. (1982): *Bertsolaritza I. Hitzaren korol nazionala*, Bilbo, AEK. “Oin” eta “puntu” hitzen erabilera dela eta, erants dezagun, kontzeptu-arazoa ez baina terminologiakoa izaki, ez genukeela terminoz aldatzeko inolako eragozpenik izango.

(9) XALBADOR (1976): *Odolaren mintzoa*, Tolosa, Auspoa Liburutegia, 58. or.

Basarrik ere antzeko hitzez emango digu bere iritzia:

Punturik gabeko bertsoa urik gabeko iturria bezela jotzen degu (10).

Bertsoak errima nahitaezkoa duela esanda, badirudi errimaz dena esana legokeela. Baina beste hainbeste esan daiteke neurriari eta doinuari buruz ere: alegia, ez dagoela ez neurririk gabeko bertsoak, ez doinurik gabekorik. Eta honek berdin balio du bat-bateko bertsoentzat eta jarrirentzat. Izan ere, bertsoa (bat-batekoa nahiz jarria) zerbait izatekotan, kantatzeko den zerbait bait da.

Badu, ordea, errimak bertsoentzat neurriak eta doinuak ez duen lehentasunik, inork gutxi ukatuko dionik. Errima da bertsolaria gehien kezkatzen duen arazoetako bat, eta etengabe lantzen ari dena. Errima da, era berean, bertsozaleak tentuz eta arretaz aztertu eta jarraituko duen elementua.

Errimaren lehentasun horren arrazoiak eta oinarriak aipatzekotan, bi aipatu beharrean gaude, besteak beste: errimaren zailtasuna eta betebeharra. Gera gaitzen bi puntu hauek aztertzen.

1.2.1.1. *Errimaren zailtasuna*

Errimaren zailtasunari dagokionez, begien bistan dago errima dela bertsoa eratzen eta moldatzen duten osagaien artean zailena eta nekezen menderatzen dena. Gogora dezagun, esate baterako, Xalbador zenaren aitortpena.

“Ez dakit baden ofizio errexik, baina etzaut iduri hau baino zailagoko aunitz baden munduan” idatziz ematen dio hasiera urepeldarrak bere *Odolaren mintzoa* liburuko “Pentsularitzaz bi hitz” izenburua daraman atalari (11). Xalbadorren ustez, bi dohain behar ditu bertsolariak: batetik, zaletasuna edo gogoia; bestetik, berriz, “rimaren edo berdin bururatsen diren hitzen bilatzeko erretasuna”. “Dohain hori duena –jarraitzen du– titxolaria deitzen dugu guk hemen. Horieri, zuk hitz bat atera orduko, burrustan heldu zaizkiote hura iduriak gogorat”. Eta bere aitortpena hasi aurretik, hala dio: “Dohain horiek biak dituenak, errex egin dezake pertsua. Horrek zerbait aterako du, barnean, deus baldin badu segurik”.

Eta ondoren, bere esperientzia adierazteari ekiten dio urepeldarrak, inolako galerarik ez duten honako lerro hauetan:

Nahi ez duenak ez beza sinets, baina eni bigarren hori eskatu izan zaut beti. Ez du pertsularia izan behar, ni baino titxolariago izaiteko (12).

(10) EIZMENDI, I., “BASARRI” (1984): *Bertsolaritzari buruz*, Auspoa Liburutegia, 178 zenb., 34. or. Hemen “puntu” dio Basarrik; guk “puntu errimaduna” esango genuke, edo “oina”.

(11) Aip. lib., 57-60. or.

(12) Aip. lib., 58. or.

Ez bainaiz ordea titxolaria, beti nekez ari izan naiz, eta ongi berriz bakan. Nondik nahi duzu, rima ezin bilatuz ari denak, gogoan izan ditzan, pertsuak ona izaiteko eskatzen dituen bertze baldintzak?

Pertsu ona egin nahi duenak, ez du behar *problemarik* izan horren osatzeaz, behin zer erran gogoratuz geroz. Errextasun hori osoan duten pertsulariak, nehork uste baino gutiago dira (13).

Rimaren bilatzea baldin bada enetzat segurik lanik zailena, hori da ere gauzarik premiatsuena pertsuaren egiteko (14).

Eta bukatu, honela bukatzen du Xalbadorrek bere liburuaren aitzin-solasari dagokion atal hau, errimaren beste zenbait alderdiz aritu ondoren:

Rimaren ondotik, negurria da pertsu batek eskatzen duen baldintza nagusia. Airearekin edo doñuarekin bat egin behar dute zure hitzek; bainan hortako ez dut uste dohain berezirik behar den izan. Hortan treba daitekela iduritzen zaut.

Enetzat segurik, negurrian huts egitea —eta gero eta gehiago gertatzen zaut— rimaren bilatzeaz sobera hartua naizelakotz izaiten da nik uste... (15).

Lekutan geratzen da Manuel Lekuonak behin eta berriro gogoratu digun Antonio Pildainen iritzia euskal errimaren erraztasunaz!

Euskeraz rima gauza errezegia zala, esan zigun. Izkuntzaren izaerak errexegi egiten duan artifizio bat. Euskera izkuntza sufijatiboa, atzizkiduna izanik, itzen bukaerak ia beti berdintsuak izanik, bertsoaren bukaera berdiña egitea, gauza errezegia dala, gauza “merkea” alegia, edozeñek egin lezakeana... (16).

Ederki asko eransten du Lekuona zaharrak: “Bertsolariak berak esango ligukete, gauza au ola dan ala ez”. Ezin garbiago mintzatu zaigu arestian Xalbador. Amurizaren iritzia ere ildo beretik doa. Honela dio bizkaitarrak, lau oinak eman da egiten den bertso-aprobaz:

Jendeak beharbada zailtzat jotzen badu ere, aprobarik errezena da hau. Oztoporik nagusienetariko bat rima da bertsogintzan. Rimak emanak badira, kezka handi bat kendua duzu. Hitzei zerbait loturarik bilatzea ez da hain zaila. Beraz kunplitzea aproba honetantxe da errezena. Beste gauza bat da oso ondo kunplitzea. Orduan rimen zailtasuna kendua denez gero, horrek duen meritua beste zerbaitekin hornitu behar da. Baina dena jota, aproba erreza da eta luzimendu handikoa, jendeak zaila dela uste baitu.

(13) Ibid. Azpimarra egilearena da.

(14) Ibid.

(15) Aip. lib., 60. or.

(16) LEKUONA, M. (1980): “Bertsoen metrika”. In: *Jakin*, 14/15. zenb., 62. or.

Eta jarraitzen du:

Aprobarik zailena edo niri behintzat kezkarik gehien ematen didana puntuari erantzutea da. Han rimak eta dena aurkitu behar dituzu eta gainera jartzen dizuten rimari jarraituz. Erantzunak azkarra eta laburra izan behar baitu eta rima ezarriari jarraitu behar, hauxe da traidoreena (17).

Beraz, errima “oztoporik nagusienetariko bat” dugu, “kezka handi” baten iturri; eta errima ezarriari jarraitu beharra, berriz, “traidoreena”. Jardun ote daiteke argiago?

Ez gara honetaz gehiago luzatuko, eta, oraingoz behintzat, ez dugu jardungo non dagokeen errimaren zailtasunaren gako bila.

1.2.1.2. *Errimaren zeregina bertsoaren egituran*

Errimak bertsogintzan duen zeregina aztertzen hasteko, eman dezagun Juan Mari Lekuonaren eskutik bertsolariaren buruan gertatzen den prozesuaren berri.

Lehendabizi azken esaera biribiltzen duela esan dugu; eta hori dela bertsoaren ardatza. Beraz, ahotik barrura hori da lehendabizi. Eta azken esaera honek puntu bat duenez, berehala beste gainerako puntuak ere asmatu behar ditu, azkenaren kideko direnak. Baina ez bakarrik puntuak: azken esaera horren mamiak kudeatzen du beste bertso-lerrotan ere esango dena. Lehenengo hiru puntuen (edo lauren) barruan esaten denak azkeneko esaeraren argigarri, indargarri eta osagarri izan behar du.

Ahotik kanpora, ordea, memoriaz eta gorputz-espresaeraz baliaturik, oso bestela jaiotzen da bertsoa. Bertso-hasiera da lehenik entzuten duguna. Askotan lehen puntuarekin amaitzen da; ez beti. Gero erdiko lana esango geniokeena dator. Bigarren eta hirugarren puntuekin buka daiteke; ez beti. Eta azken-azkenean bertsoaren giltza, zartada, arrazoa, irria.

Horrela da, beraz, bapateko bertsoaren eraikuntza: atzekoz aurrera egin, bigarrena gutxieren barruan egin ere, esango denaren aukera, antolaketak eta hitzezko adierazpen ederra; azkar eta ezerk hutsegina gabe, plazagizonen segurtasun betean (18).

Horra hor, Juan Mari Lekuonaren hitzetan, “bertsolariaren buruan harilkatzen den prozesua”, adibide egokiz erraz horni dezakeguna. Baina horretara jarri gabe, ekin diezaiogun prozesuaren azterketatik atera daitezkeen zenbait puntu azpimarratzeari:

(17) AMURIZA, X. (1980): “Bertsolariaren barne-prozesua”. In: *Jakin*, 14/15. zenb., 136-137. orr.

(18) LEKUONA, J. M. (1982): *Ahozko euskal literatura*, Donostia, Erein, 126. or.

Hemen Lekuonak “puntu” hitzez aditzera emana guk lan honetan “oin” hitzez ematen dugu, arestian esan bezala.

1. Bertsoaren azken puntua da bertso osoaren oinarri eta ardatza; izan ere, bere arabera moldatzen bait dira gainerako puntuak, bai esanahiaren aldetik, baita errimarenetik ere.

2. Azken puntuaren errimaren arabera aukeratutako oinek osatzen dute bertsoaren bizkarrezurra; izan ere, horiek taxutzen bait dute bertsoaren edukia, puntu bakoitza bere oinari begira eraten delarik. Bertsoa azken puntuaren arabera taxutzen den bezalaxe taxutzen da puntu bakoitza bere oinaren arabera.

3. Errimak gidatzen du bertso osoaren dinamika: berak agintzen du bertso-gintzan. Izan ere, azken batean, puntuak osatzen bait dute bertsoa, azken puntuaren errima gidari aukeratutako oinei begira eraturako puntuak, hain zuzen ere.

Esan ote daiteke gehiago errimaren garrantziaz? Aitor ote daiteke beste horrenbeste bertsogintzaren beste edozein osagaiz?

Norbaitek erants lezake, ordea, arrazoi osoz erantsi ere, bertsolariaren buruan harilkatzen den prozesua ez dela beti hemen adierazi bezalakoa izaten; Juan Mari Lekuonak esanak balio lezakeela paradigma eta adibide gisa, baina badela bestela sortzen den bertsorik ere; esate baterako, bertsolariak normalean ez duela azken puntu osoaren beharrik izaten bertsoa moldatzen hasteko, nahikoa duela bukaerarekin, eta zenbaitetan oin hutsarekin ere bai; eta, are gehiago, badela bertsolaririk, azken puntu eta azken oinik gabe ere bertsoa kantatzeari ekiten dionik.

Baina guzti horrek ez du inolaz ere aurreko hiru puntuen funtsa aldatzen (“azken puntua” dioen bakoitzean “lehen puntua” jarriz konpon bait daiteke arazoa). Eta, zerbait egitekotan, areagotu egiten du errimaren garrantzia; izan ere, errima ondo menderatzen duena ez beste ausartuko bait da, eta ausartzen da, Lekuonak adierazitako eredutik behin eta berriro ateratzen.

Honela, bertsogintza aztertuz goazen neurrian, gero eta garrantzizkoagoa azaltzen zaigu errimaren zeregina eta zerikusia. Eta inolako gehiegikerian erortzeko arriskurik gabe aitor dezakegu bertso osoan zehar ageri dela errimaren eragina eta taupada, egitura orokorrean, puntu guztietan, ia-ia hitz bakoitzean. Bertso osoa dago errimaz kutsatua; bertsoaren atal bakoitzean, agerikoan nahiz ezkutu-koan, ageri da errimaren hatsa eta dardara.

Beraz, seguru gaude errimaren aztertzeari ekitean, bertsoaren bihotzeraino garamatzen bidetik abiatzen garela. Bihotzaren atariraino helduko ahal gara bederen!

1.2.2. *Errima: bertsogintzaren gakoa eta giltza*

Ikusi berriak ditugu Xalbadorren hitzak: ez dagoela bertsolaritza baino ofizio zailago aunitz; gogoia eta errimarako erraztasuna duenak erraz egin dezakeela pertsua; erraztasun hori izanez gero, beste guztia egina dagoela...

Gu ere horretan gaude. Eta honako hau da gure susmoa: ofizio bakoitzak bere martingala izanik, errima dela bertsogintzaren martingala, hor dagoela bat-bateko bertsogintzaren gakoa. Eta hori landu ahalean eskuratzen dela bertsogintzaren ate nagusia zabaltzen duen giltza.

1.2.3. *Oin-errimen almazena: sistema konplexua eta "erraza"*

Hizkuntza sistema bat dela eta, oraindik orain irakurria datorkigu gogora:

Orain dela gutxi agertutako ingeles gramatika-liburu batek 1.120 orrialde ditu. Eta ingelesdunak liburu horren eduki osoa ezagutzen du. Baina hiztun horrek daukan ezagutza ez da analitikoa edo kontzeptuala; globala eta intuitiboa baizik. Geure ama-hizkuntza menperatzen dugu; argi ikusten dugu zer dagoen gaizki. Hizkuntzaren arauak guztiz naturalak dira guretzat, baina ez gara azaltzeko gauza.

Gure ezagutzak beste berezitasun bat dauka: guretzat, geure hizkuntza ez da elementu ezberdinen multzo bat. Hizkuntza sistema bat da; eta sistema horren barnean aise mugitzen gara. Orainaldian dagoena iraganean edo geroaldian ipin dezakegu; baiezko esaldia ezezko edo deklarati- tibo edo galdera bihur dezakegu. Hau dena pentsatu gabe.

Hizkuntzalariek gure ezagutza deskribitzen saiatzen dira; eta, bide horretatik aurreratu ahalean, gero eta harrituagorik dauzka hiztunak menperatzen duen sistemaren konplexutasunak (19).

Bertsogintzaz ere beste hainbeste esan dezakegulakoan gaude: zenbait bertsolarik duen bertsogintzaren ezagutza ez dela analitikoa edo kontzeptuala, globala eta intuitiboa baizik; bertsolari-ofiziokoez darabiltzaten oinek eta errimek sistema bat osatzen dutela, eta sistema horren barnean aise mugitzen direla bertsolariak; gero eta harrituagorik gera daitekeela bertsolaritzaren ikerlaria bertsolariak menperatzen duen sistemaren konplexutasunagatik...

Beraz, batetik ia oharkabean erabiltzen dena bestetik konplexua dela; errazagoa darabilenarentzat aztertu nahi duenarentzat baino; hitz bitan, konplexua eta "erraza" dela aldi berean. Menperatu egin behar!

1.2.4. *Errima: betebeharreko baldintza eta baliabide*

Hirugarren sumo hau, berriz, isil samar kanporatuko dugu, inor izutu gabe: zenbait bertsolarientzat, bertsogintzan betebeharreko baldintza ez ezik, baliabide eta bide-errazgarri ere badela errima. Arestian esan bezala, menperatu egin behar!

1.3. **Gure aukera: Uztapideren Oin-errimen almazena**

1.3.1. *Epe luzera begira, egiteko zabala*

Bertsolaritzaren bihotzera hurbiltzea helburu, *Oin-errimen almazena* kontzeptua moldatu dugu, bidea urratzen lagun diezagukeelakoan.

(19) STERN, H. H. (1986): "Wath can we learn from the good language Learner?" In *Canadian Modern Language Review*, 31. bol., 4. zenb.

Baina, nondik hasi? Nola jokatu? Aurrera ditzagun zenbait uste eta iritzi.

- Ez dago errimari buruz oro har jarduterik, bertsolari bakoitzaren jarduera bakarka eta banaka aztertu gabe; bai bait dago alde funtsezkorik zenbaitetik zenbaitera, nahiz eta batzuen artean antzak handiagoak izan aldeak baino. Bertsolari bakoitzaren jarduera aztertzea diogu eta azterketa kuantitatiboaz ari gara. Izan ere, ondo salatu du Joxe Azurmendik arlo honetan dagoen hutsunea:

Rima azterketa kuantitatibo sinpleenak ere egiteko gaude eta rimari buruz teorizatzen ibiltzen gara. (20)

- Errimaren azterketa kuantitatiboak egiteko, bestalde, tresneria sortu beharra dago. Eta kontzeptuak ditugu lehenengo eta oinarrizko tresnak. Hauek eskainiko digute programa informatikoak egiteko aukera; eta programa hauek bideratuko bertsolari bakoitzaren errima sistematizatzea (lehenengo hitzak erabiliz, bakoitzaren Oin-errimen almazena egituratzea).
- Azkenik, espero dugu zenbait bertsolari esanguratsuren Oin-errimen almazena topatzeak eskainiko digula bertsolaritzaren bihotza aurkitzeko argirik.

1.3.2. *Gure aukera*

Horiek horrela, aurkez dezagun geure lana.

1.3.2.1. *Bi helburu*

Bi helburu izan ditugu honako lan hau moldatzeari ekitean:

1. Bertsolarien Oin-errimen almazena aurkitzen eta berrosatzen (bertsolaria bakoitzak osatua bait du berea, jakinaren gainean ala ez) lagunduko digun tresneria taxutzea.
2. Lehen urratsak egitea aipatu tresneria horrekin Uztapideren Oin-errimen almazena berrosatzen.

1.3.2.2. *Lan bikoitza*

Helburuen arabera, lana ere bikoitza gertatu zaigu.

Lehenengo helburuaren ildotik, oinarrizko zenbait kontzeptu berri taxutu behar izan ditugu. (Atera ahalean ematen dugu horien berri. Gero, azkenean, eranskin batean biltzen dira denak.)

(20) AZURMENDI, J. (1980): "Bertsolaritzaren estudiorako". In *Jakin* 14/15. zenb., 160. or.

Lehenengo helburutik irten gabe, Uztapideren Oindegia eta Errimategiaren (edo errima-sailen) berri ere ematen dugu, baina ez osorik, ezta gutxiagorik ere; izan ere, Oindegia eta Errimategi horiek eskuz eginak izaki, heuren zati batzuk besterik ez ditugu ematen. Argi dezagun geure jokabidea.

Oindegia eta Errimategi horiek eskuz eginak ditugu eta ez informatikaz, ez bait genituen hasieran kontzeptuak programa informatikoa egiteko bezain argi. Baina bagenuen datuak eskuartearen erabili ahalean kontzeptuak argitu eta zehazteko esperantzarik. Lortu dugulakoan gaude. Horrexegatik ematen dugu lan horien berri, oso labur bada ere.

Bestalde, ulerterraza da eskuz egindako bi lanak osorik ez ematearen arrazoiak: dena garbira pasa beharko genuke (bostehun orrialdetik gora dira) edo informatikaz egin; baina informatikaz egiteko, prestatutako tresneriaren balioaren berri jakin beharko genukeen.

Horiek horrela, egin dugun bezala jokatzeko erabakia hartu genuen; eta prestatutako tresneriaren balioa zeharbidez edo probatu eta frogatzea: Oindegiko eta Errimategiko datuak aplikatuz. Eta aplikazio horren emaitza da bigarren helburuaren ildotik Uztapideren Oin-errimen almazena berrosatzen egindako ahalegina.

1.3.2.3. *Pare bat ohar metodologiko*

Begien bistakoa denez, ezinezkoa gertatzen da edozein bertsolariren errima aztertzean, bertsolariak bere bizitzan zehar erabilitako bertso guztiaz baliatzea. Eta fisikoki ezina dena (bertso gehienak haizeak eramanak ditu eta jasotakoak biltzeko egunak eta urteak beharko genituzke, eta halere geratuko litzaiguke bildu gabekorik), metodologiaren ikuspegitik ez da nahitaezkoa. Hortaz, ezinbestez eta halaberrez, bertsolari baten bertso guztiekin ez baina batzuekin lan egin beharrean aurkitzen garenez gero, erabil dezagun metodologia egokia, azterketa baliagarria gerta dakigun.

Lehenbiziko urratsa aukera egitea da, bertso batzuk hartuz eta beste batzuk kanpoan utziz. Baina aukera, jakina, ezin daiteke nolana hikoia izan. Izan ere, errima eta oin guztien ordeztatik batzuk bakarrik erabiliko ditugu, oin- eta errima-multzoo osoen ordeztatik sail mugatu eta jakin batzuk. Beraz, aukeratutako saila, zerbait izatekotan, eta gure azterketak baliorik izan dezan, multzo osoaren ordeztatik izan behar du, haren bereizgarrien jabe; bestela esan, Estatistikan erabiltzen diren hitzez baliatuz, sail aukeratuak multzo osoaren *lagin adierazlea* izan behar du.

Lagin hori egoki aukeratzea; horra hor lehenengo arazoa. Bada, ordea, besterik. Argi eta garbi eduki behar dugu beti aurrean zer-nolako azterketa egin nahi den: azterketa diakronikoa (bertsolariaaren errimaerak urteetan zehar izan duen bilakaeraren azterketa) ala azterketa sinkronikoa (bertsolariak une batean, bilakaera kontuan hartu gabe, darabilen errimaren azterketa).

Bi arazorekin egiten dugu topo gutxienez, bada, alorra mugatzeko orduan: zer-nolako azterketa egin nahi denarekin eta aztergai izango den bertso-saila nola aukeratzearekin.

1.3.2.4. *Sasoia joan da gero aztergai*

Gure kasuan, Uztapideren Oin-errimen almagari dagokionean alegia, ez da bilakaera gehien axola zaiguna, baizik eta bizitzaren azkenean, urte luzeetako jardunaren bilduma eta sintesi bezala, Uztapidek darabilen errima. Eta, zorionez, badugu non aurkitu bilduma eta sintesi hori: *Sasoia joan da gero* liburuan, hain zuzen ere.

Beraz, Uztapideren bertsogintza osoa ezin aztertu eta, bere azken emaitzako bertsotara mugatuko dugu geure azterlana, bertsolari guztien almazena ezin aztertu eta bakarraren almazenera mugatu dugun bezalaxe.

1.3.2.5. *Azken oharra*

Azkenik, bada beste oharrik ere. Baina ez gara luzatuko, begien bistakoa bait da bertsolaritza arloan aditua den edonorentzat. Norbaitek galde lezake ea nola, bat-bateko bertsogintza izaki aztergai, bertso jarriak aztertzeari ekiten diogun. Lehen momentuan kontraesan baten aurrean gaudela ematen badu ere, ez da hala gertatzen. Izan ere, Uztapide handiak *Sasoia joan da gero* liburuan emandako bertsoek, nahiz eta jarriak izan, ez bait dute bat-bateko bertsoen ez freskuriarik, ez grazuriarik, ez egiturariarik, ez taxuriarik galdu. Bat-batekoak dira, beren akats eta guzti.

1.4. **Atalez atal**

Sarrera gisako lehenengo atal hau bukatuko, eman dezagun labor datozenen berri.

Beste sei atalek osatzen dute lan honen muina, zortzigarrena ondorioei emana dagoelarik. Bigarren atalak, datorrenak, *Sasoia joan da gero* liburuaren aurkezpen orokorra egiten du. Hirugarren atala liburutik Oindegira bitarteko zubi da, bosgarrena Oindegitik Errimategira bitartekoa den bezalaxe. Zazpigarren atala, berriz, aurreko guztiak bereganatuz, eginkizun geratzen den almaginarekiko zubibide izan nahi du. Beraz, *Sasoia joan da gerotik* Uztapideren Oin-errimen almazenera doan zubi luzea izan nahi du honako gure lan honek, Oindegia eta Errimategia zubipilare.

Azkenik, eranskin moduan doa hiztegia, lan honetan zehar moldatutako (eta birmoldatutako) zenbait termino berri biltzen dituen; eta bibliografiarekin bukatzen dugu, erabilitako liburu eta artikuluen berri emanez.

2. **LIBURUA: *Sasoia joan da gero***

Beraz, ezer baino lehen, eta oso labor bada ere, aurkez dezagun *Sasoia joan da gero* liburua, beraren datu esanguratsenak emanez. Bide batez, azal dezagun nola egingo ditugun bertso, puntu eta oinen aipuak.

2.1. *Sasoia joan da gero: 67 bertso-sail, 842 bertso eta 3.660 puntu eta oin*

Guztira, 67 bertso-sailek, 842 bertso eta 3.660 puntu eta oinek osatzen dute Uztapideren *Sasoia joan da gero* bertso-liburua.

Bertso-sailak zenbatzean egon daiteke zalantzarik, dela sail baten barruan bi sail txikiago daudelako, dela zenbait sailen artean handiago bat osatzen dutelako... Guk honela jokatu dugu zalantzazko puntu horietan: 1) lehenengo bertso-sailtzat “Eskeintza” izeneko hartu dugu; 2) “Gizonaren lau aroak” izenekoan lau bertso-sail berezi ditugu: “Gizonaren udaberria”, “Gizonaren udara”, “Gizonaren udazkena” eta “Gizonaren negua”; eta 3) “San Juanak” izeneko bi sail-txoak bakartzat hartu ditugu.

Horiek horrela, hona hemen, ondoren, liburuko 67 bertso-sailen zerrenda, bakoitzaren hasierari dagokion orrialdearekin. Hemendik aurrerako bertso-sailen aipua zerrenda honetako zenbakien arabera egingo dugu batipat. Beraz, esate baterako, 5. bertso-saila “Nere jaioterriari” izeneko da; 19. bertso-saila “Zakurra” izenburuduna; 34.a “Gizonaren udazkena” delakoa...

Besterik gabe, eman dezagun zerrenda.

SASOIA JOAN DA GERO liburuko bertso-sailak

1.	Eskeintza	17
2.	Aita zanari	27
3.	Ama zanari	31
4.	Uztapide'n nintzan sortu	35
5.	Nere jaioterriari	43
6.	Guk sasoia bagendun	47
7.	Zestua	53
8.	Artzaia	59
9.	Basoko lanak	67
10.	Garia Euskalerrian	73
11.	Garoak biltzen	77
12.	Artoak eta babarrunak	83
13.	Elurtea	87
14.	Gaztañak biltzea	91
15.	Laiariak	95
16.	Astoaren lanak	99
17.	Garai bateko eztaiak	103
18.	Orain irurogei urteko apaizak	109
19.	Zakurra	113
20.	Uztapide'ko familiaren kaleratzea	117
21.	Gerra	123
22.	Zubeltzu	127
23.	Perretxikoak	132
24.	Lasarte bertsolaria	135
25.	San Antonetan Getaria'n	141
26.	Zepai	145
27.	Euskalerrria	153
28.	Osinbeltz'eko ezbearra	157

29.	Oiartzun	167
30.	Basarri ta ni	171
31.	Kontrabandua	177
	Gizonaren lau aroak	
32.	Gizonaren udaberria	183
33.	Gizonaren udara	187
34.	Gizonaren udazkena	191
35.	Gizonaren negua	195
36.	Arakiñak	199
37.	Gure ezkontzea	203
38.	Nere semiari	207
39a.	San Juanak (I) (21)	211
39b.	San Juanak (II)	212
40.	Jaungoikoaren legeko aginduak	215
41.	Arrantzalien bizitza	219
42.	Bodegon Alejandro	223
43.	Euskaldunak	227
44.	Ostalariak	231
45.	Tratanteak	235
46.	Gaurko mutil gaztiak	239
47.	Baserriko bizimodua	243
48.	Gure lengo baserria	249
49.	Gu orain bizi geran etxea	255
50.	Gaurko neskatzak	257
51.	Jose Lizaso'ri	261
52.	Agorrillaren amalaua	265
53.	Lazkao-Txiki	269
54.	Aurtengo loteria	273
55.	Xalbador	277
56.	Artikutza	281
57.	Gure euskera	289
58.	Jose Salaberria'ri	293
59.	Eriotza	297
60.	Idiazabal'ko Zepai Saria	301
61.	Ura	305
62.	Ereñozu'ko omenaldia	313
63.	Egunsentia	319
64.	Pelota	323
65.	Lore-illa	329
66.	Martiñ Estanko'ren gizatasuna	343
67.	Naparru alde ortan izan naiz lenguan	355

Bestalde, hona hemen, bertso, puntu eta oinen kopuruak:

— 4 puntuko bertsoz osatutako 51 bertso-sail: 654 bertso eta 2.616 puntu eta oin;

(21) Arestian esan bezala, "San Juanak" saileko bi sailtxoak bakartzat jotzen ditugu, baina bereziz; eta aipatu ere bereziz aipatuko ditugu: 39a eta 39b.

- 5 puntuko bertsoz osatutako 11 bertso-sail: 129 bertso eta 645 puntu eta oin;
 - 6 puntuko bertsoz osatutako 3 bertso-sail: 38 bertso eta 228 puntu eta oin;
 - 7 puntuko bertsoz osatutako bertso-sail bat: 9 bertso eta 63 puntu eta oin;
 - 9 puntuko bertsoz osatutako bertso-sail bat: 12 bertso eta 198 puntu eta oin.
- Beraz, guztira, 67 bertso-sail: 842 bertso eta 3.660 puntu eta oin.

2.2. Bertso-sailak, bertsoak, puntuak eta oinak aipatzeko modua

Hiru zenbakiz adieraziko dugu lan honetan halako oina zein bertso-sailtako zenbatgarren bertsokoa den:

- goraxeago aurreratu bezala, lehenengo zenbakiak bertso-saila adieraziko du;
- bigarren zenbakiak, aipatutako bertso-sail horretako zenbatgarren bertsoaz ari garen;
- eta hirugarrenak, berriz, bertso horren zenbatgarren puntuaz edo oinaz dihardugun.

Honela, aipatu berriak ditugun *goguan*, *zeguan*, *daguan* eta *obiaguan* oinei honako zenbaki hauek dagozkie hurrenez hurren: 1.1.1; 1.1.2; 1.1.3 eta 1.1.4; lehenengo bertso-saileko lehenengo bertsoaren lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren puntuak bait dira, hain zuzen ere. Hona hemen, esate baterako, 13.7 bertsoa: 13. bertso-saileko ("Elurtea") 7. bertsoa, alegia (89. or.):

Mendi altu samarrean
otso zarrak marmarrean;
oiek gosiak egoten dira
amaikatik amarrean,
Jaunak aparta animala bat
olakuaren aurrean!

Honako zenbaki hauekin adieraziko dira, berriz, oinak: 13.7.1, *samarrean*; 13.7.2, *marmarrean*; 13.7.3, *amarrean* eta 13.7.4, *aurrean*.

3. LIBURUTIK OINDEGIRA: OIN EZBERDINAK, HITZ-ERROAK ETA OINBURUAK

Sasoia joan da gero aukeztuta, bi bide har ditzakegu liburuko oin-errimak sistematizatzeari ekiteko: oinetatik hasi edo errimetatik hasi. Lehenengo bidea hautatuta, zenbait termino berri taxutu behar izan dugu, Oindegia moldatu ahal izateko. Hona hemen, atal honetan, horien berri.

3.1. *Sasoia joan da gero: 2.100 oin ezberdin inguru*

Esan dugunez, 3.660 oin daude Uztapideren *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan. Baina nahikoa da irakurketa soil bat, oin batzuk behin baino gehiagotan ateratzen direla eta denak ez direla berdinak konturatzeko. Hain zuzen, 2.100 oin ezberdin inguru dira denera. Baina zer ulertzen dugu "oin ezberdin" terminoaz? Berdinak ez direnak, jakina. Ez pentsa, ordea, batzuetan bereiztea hain erraza denik; gerta bait daiteke zalantzarik bi oin berdinak diren ala ez erabakitzeko orduan.

Lan honetan nola jokatu dugun adierazteko, aipa ditzagun zenbait kasu, errazen erabaki ditugunetik hasita.

– *Esamesa / esan / esan du / esan zan / esana / esanak / esanda / esanean, esanian / esanez / esangai / esango / esateko / esaten / esatera / esatiak...* eta antzekoak. Ezberdintzat jo ditugu, ez bait dira berdinak errimaz, nahiz eta hitz-erro berekoak izan.

– *Barrena (barrua) / barrena (barrura) / barrena (zehar); artian (noiz) / artian (non); ura (hura) / ura (edaria); berri (adjetiboa) / berri (notizia)...* eta antzekoak. Ezberdintzat jo ditugu, jakina, ezberdinak bait dira esanahiez.

– *Gaiña / gaña; gaiñetan / gañetan; gaiñezka / gañezka; altxa / altxa; bearra / biarra; gaubero / gauero: zaiñetan / zañetan...* eta antzekoak. Berdintzat jo ditugu, aldaketek ez bait dute zerikusirik ez esanahiarekin, ez neurriarekin, ez errimarekin.

Zailagoa gertatu zaigu, ordea, honako kasu hauetan erabakitzea:

– *Dia / dira; dala / dana* (hau ere konpletiboa)... eta antzekoak. Ezberdintzat jo ditugu, ezberdinak bait dira errimaz, nahiz eta berdinak izan esanahiaz.

– *Lenbizi / lendabizi; berarengana / beregana...* eta antzekoak. Oin beraren aldaki ezberdintzat jo ditugu, silaba-kopuruz ezberdinak bait dira, nahiz eta esanahi bereko izan eta bertso berean elkarrekin joanez gero poto egingo luke ten. Zenbatzean, oin ezberdinak bezala zenbatu ditugu.

– *Joana / juna...* eta antzekoak. Hauek ere oin beraren aldaki ezberdintzat eman ditugu aurrekoak bezala, ezberdinak bait dira errimaz eta neurritz, nahiz eta hitz bera izan funtsean.

– *Bearrean / bearrian; duanean / duanian; egiñalean / egiñalian; esanean / esanian; marmarrear / marmarrian; onean / onian; otoitzean / otoitzian...* eta antzekoak. Berdintzat jo ditugu, errima berekoak bait dira funtsean, nahiz eta itxuraz eta azalean ezberdinak izan. Aurrerago itzuliko gara honetara.

– *Duala / duela; baztarrak / bazterrak; edarrak / ederrak...* eta antzekoak. Berdintzat jo ditugu, errima berekoak bezala jokatzen bait dute, nahiz eta zertxobait ezberdinak izan. Aurrerago itzuliko gara honetara ere.

3.2. Hitz-erro bereko oinak eta oinburuak

Behin oin ezberdinena ikusi ondoren, norbaitek esan lezake badagoela oinea gehiago ere laburbiltzerik: zergatik bi oin ezberdintzat jo, adibidez, *esatea* eta *esateak*, *izatea* eta *izateak*?, zergatik ez oin berdintzat jo hitz-erro bereko oinak?

Azter ditzagun galdera horiek, merezi du eta. Saia gaitezen, era berean, zertxobait argitzen; goraxeago aipatutako *esamesa*, *esan*, *esan du* eta abarrek lagun diezagukete horretan.

Bi kontzeptu berezi beharrean gaude: *hitz-erroa* eta *oinburua*. Goiko *esamesa*, *esan*, *esan du*, *esan zan*, *esana*, *esanak*, *esanda*, *esanean/esanian*, *esanez*, *esangai*, *esango*, *esateko*, *esaten*, *esatera* eta *esatiak* hitz-erro berekoak dira: *esan* aditza dute denek oinarri. Ez ditugu, ordea, denak oinburu bereko jo. “Oinburu” kontzeptuak errimarekin du zerikusia, eta oin batek bertsokide dituen oinekin. Adibidez, lau oinburu berezi ditugu *esan* hitz-erroko 15 oin ezberdin horietan: *esamesa*, *esan*, *esangai* eta *esate*; *esamesa* eta *esangai* oinburuek ez dute Uztapideren Oindegian beste oinik; *esan* oinburuak, berriz, bederatzi ditu (*esan*, *esan du*, *esan zan*, *esana*, *esanak*, *esanda*, *esanean/esanian*, *esanez* eta *esango*) eta *esate* oinburuak lau (*esateko*, *esaten*, *esatera* eta *esatiak*). Ez gara hemen puntu honetan gehiago luzatuko. Izango dugu, ordea, lan honetan, zeharbidez bada ere, hona itzultzeko aukerarik. Besteak beste, datorren atalean Oindegiaz eta Oindegiko sarrerez eta azpisarrerez jardutean, eta bosgarren atalean errima-alorrak ikustean.

4. OINDEGIA

Hirugarren atalean taxututako “oin ezberdin”, “hitz-erro” eta “oinburu” kontzeptuek eman digute Oindegia moldatu eta Uztapideren almazena berrosatzten hasteko aukera. Baina lan honetan ez dugu Oindegia hori kaleratuko, eskuz egina egonik luzeegi joko bait ligute denboraz eta orrialdez osorik bildu eta ematea. Ezin, ordea, beraren berri eman gabe geratu; ezta beraren zenbait datu azpimarratu gabe ere.

4.1. Sarrerek eta argibideak

Hasteko, errazena eta argiena *esan* hitz-erroko oinak Oindegian nola doazen azaltzea izango da. Hona hemen transkripzioa:

esamesa (1)

ESAMESA	- 1
	- 20.16.2 (4)
	- babesa, erreza, eza
	- Es/(ts)/ZA

ESAN (17)

- ESAN –2
 –4.6.2 (4); 55.3.3 (4)
 –bazan (bald.) (2), dezan, etzan (ez zan), pasan, plazan
 –a/e., s/ts/tz/zAN
- ESAN DU –2
 –37.14.3 (4); 47.15.1 (4)
 –bagendu (bald.), egondu, izandu (2), konpondu, zuzendu
 –NDU
- ESAN ZAN –1
 –22.6.3 (5)
 –an zan, bazan (bald.), itzantzan, izan zan
 –a/e., s/ts/tz/zAN
- ESANA –4
 –19.1.3 (5); 22.5.3 (5); 26.1.3 (4); 44.1.3 (4)
 –dana (zenb.), dana (ad.), emana (2), izana (2), lana (2), neregana, nintzana, zana (ohia) (2), zana (2)
 –Am/nA
- ESANAK –3
 –6.2.6 (9); 17.12.1 (4); 44.2.3 (4)
 –danak (zenb.) (2), diranak, eranak (edanak) (2), emanak, geranak, izanak (2), juanak, lanak, pamak, zanak, ziranak
 –Am/nak
- ESANDA –1
 –64.15.1 (4)
 –izan da, juan da, txanda
 –ANDA
- ESANEAN/
 ESANIAN –2
 –48.3.1 (4); 58.7.2 (4)
 –danian (ad.), duanean, lanean, onian, zanean, zeradenian
 –NEAN
- ESANEZ –1
 –27.7.3 (4)
 –amets, danez, emanetz
 –Am/nEts/z
- ESANGO –1
 –36.15.1 (4)
 –emango, izango, oraingo
 –NGO

esangai (1)

- ESANGAI - 1
 - 19.3.1 (5)
 - artzai, jai, lasai, nai
 - AI

ESATE (14)

- ESATEKO - 2
 - 10.8.1 (4); 44.11.3 (4)
 - izateko (2); jateko (2), juateko, kalteko
 - a/e TEKOKO
- ESATEN - 11
 - 2.6.3 (4); 12.11.3 (4); 18.12.5 (6); 19.7.1 (5);
 26.10.3 (4); 37.1.3. (4); 44.8.3 (4); 46.9.1 (7);
 48.7.1 (4); 56.1.2 (4); 61.18.1 (4)
 - aurtan, baten (6), diratan (didatan), ematen (5),
 eramaten (2), eraten (edaten), izaten (11), jaten
 (5), juaten (3), zeraten (3), ziraten (zidaten)
 - ATEN
- ESATERA - 1
 - 54.4.1 (4)
 - atera, batera, tartera
 - TERA
- ESATIAK - 1
 - 59.2.4 (5)
 - atiak, betiak, juatiak, kaltiak
 - TEAK

Beraz, Oindegiko 4 sarreratan geratu dira *esan* hitz-erroa izan eta 15 oin ezberdin diren hasierako 33 oinak. Beste hainbeste gertatu da gainerako oinekin ere.

Horiek horrela, argi ditzagun azaldutakoak, *sarrerak* eta *azpisarrerak* zer diren esanez eta ematen dituzten informazioak zer-nolakoak diren adieraziz.

Sarrerak. Oiburuak besterik ez dira. Hauek ditugu, jakina, Oindegiaeren osagai nagusiak. Goiko adibidean lau dira: *esamesa*, *esan*, *esangai* eta *esate*.

Azpisarrerak. Sarrera batzuek azpisarrerak dituzte eta beste batzuek ez. Goiko kasuan, *esamesa* eta *esangai* sarrerek ez dute, eta beste biek bai: *esan* sarrerak zortzi (*esan*, *esan du*, *esan zan...*) eta *esate* sarrerak lau (*esateko*, *esaten*, *esatera* eta *esatiak*).

Azpisarrerarik gabeko sarrerek eta azpisarrerak hiru informazio ematen dituzte: 1) zenbat aldiz azaltzen diren, zenbakiz adierazita, 2) zein bertsoan dauden eta bertsoak zenbat puntukoak diren eta 3) zein oin dituen bertsoakide (oin hauen parentesi arteko zenbakiak zenbatekoa adierazten du).

Esate baterako, *esan* oina bi aldiz azaltzen da: lehenengo aldiz 4. bertso-saileko 6. bertsoa (eta bertsoak lau puntu ditu; beraz, *esan* azken-hirugarrenean doa) eta bigarren aldiz 55. bertso-saileko 3. bertsoa (bertsoa lau puntukoa da; beraz, *esan* azkenbigarren doa). Eta bertso horietan honako oin hauek ikusiko ditugu *esan* oinarekin batera: *bazan* (bi aldiz), *dezan*, *etzan*, *pasan* eta *plazan*.

Puntu hau bukatzeko, egin ditzagun hiru ohar oinburuez eta sarrerez:

Oinik gabeko sarrerak (*esamesa* eta *esangai*, adibidez) minuskulaz doaz Oindegian eta oin bat baino gehiagokoak, berriz (*esan* eta *esate*), maiuskulaz.

Aditzak bi oinburutan (sarreratan) berezi ditugu, horretarako aukera izan dugunean: batetik, partizipioa (*esan*, *izan*, *ikasi*, *ikusi*...) eta, bestetik, aditz-izena (*esate*, *izate*, *ikaste*, *ikuste*...); tartean bada aditz-oinik ere oinburu (*luza*...).

Gehienetan oinburua oina ere bada (*esamesa*, *esan*, *esangai*); batzuetan, ordea, ez (*esate*).

4.2. Bi datu azpimarragarri

Oindegiaeren berri emanik, azpimarra ditzagun bi datu: *Sasoia joan da gero* liburu osoan behin bakarrik azaltzen diren sarrerena (hau da, oin bakarreko sarrerena) eta azpisarrerarik gabeko sarrerena. Horiek lagun diezagukete Uzta-pidek erabilitako oinak bere almazenean nola zeuden ordenatuak agitzen.

4.2.1. Oin bakarreko sarrerak

Liburuan behin bakarrik azaltzen dira oin hauek eta 832 inguru ditugu gutzira. Hiru sailetan bana ditzakegu:

Lehen sailean sar ditzakegu oso oinburu arraroak; gutxi erabiltzen diren hitzak, alegia; hitz bitxiak direlako edo/eta oso errealitate konkretuei lotuak. Esate baterako: *abaro*, *abelera*, *adurra*, *altabozikan*, *armairuan*, *arakintzan*, *arbiak*, *ardaillan*, *armak*, *arpana*, *arri!* (*arre!*, astoari mugitzeko esaten zaiona)..

Bigarren sailean izen nagusiei dagozkienak sar ditzakegu. Berezi egin ditugu; nahiz eta, errealitate konkretuei lotuak daudenez gero, aurreko sailekoak ere izan daitezkeen. Esate baterako: *Agirre*, *Aiako-arri*, *Arrua*,

Basarri (22), *Bermeo'n*, *Bianditz*, *Bizkaia*, *Canarias'era*, *Donostia'ri* (23), *Ekaiña* (kobazuloak), *Erreterin*, *Erroiarr...*

Hirugarren sailean, berriz, sar ditzakegu bukaera edo errima bitxiko oinburuak edo errima antzeko duen bertso gutxi azaltzen direlako gehiagotan ateratzeko aukerarik izan ez dutenak. Esate baterako: *ajia*, *alde*, *aldira*, *aldiz*, *aldrebes*, *alia*, *alkar*, *amets*, *ankak*, *antzirik*, *antzua...*

Sailen arteko mugak ez dira batzuetan garbi ageri, baina sailkapenak balio digu oro har nahi duguna adierazteko. Oker handirik gabe esan dezakegu lehenengo eta bigarren saileko oinburuak ez direla Oin-errimen almagaztekoak; ezta hirugarren saileko asko ere. Edo, hain urrutira joan gabe, ez direla behintzat ohizko oinak.

Bego oraingoz horretan. Aurrerago itzuliko gara puntu honetara.

4.2.2. *Azpisarrerarik gabeko sarrerak*

Bada Oindegian azpisarrerarik ez duen sarrerarik. Guztira, 241 inguru. Kopuru horretan, jakina, ez ditugu aurreko puntuan ikusitako oin bakarreko sarrerak sartu.

Bi multzo bereiz ditzakegu azpisarrerarik gabeko sarreretan: 1) berez direnak azpisarrerarik gabeak eta 2) aukerarik izan ez dutelako-edo daudenak azpisarrerarik gabe. Lehenengo sailekoak ditugu, esate baterako, *aietan*, *al du*, *aldian* (hurtean), *alkarri/elkarri*, *alperrik...* Bigarrenengoak ditugu, berriz, *agurra*, *amorio*, *aparia*, *aritz*, *arpegi...* Bigarren sailekoak errazago alda daitezke formaz (*agurra*, *agurrak*, *agurrean*, *agurrik...*; *amorio*, *amorioa*, *amorioak*, *amiorik*, *amiorotan...*) lehenengoak baino; eta sarreraz aldatu gabe, jakina, hau da, oinburu izateari utzi gabe. Halere, batzuetan izan dezakegu zalantzarik azpisarrerarik ez duen sarrera bat sail batekoa ala bestekoa den bereizten. Dena dela, guri hemen lehenengo sailekoak zaizkigu interesgarri, ez bigarrenak; ezta duda-mudakoak ere.

Bi arrazoiengatik jotzen ditugu interesgarri berez azpisarrerarik ez duten Oindegiko sarrerak. Batez ere, neurri batean argi egiten digutelako bertsolariak oinak nola ordenaturik dituen ikusteko. Eta, gainera, zenbait oin bukaerari lotuta, errimari lotuta, dagoelaren salagarri delako.

Adibide batekin ikusiko dugu argien zer esan nahi dugun zenbait oin errimari lotuta dagoela diogunean. *Dedin* oinarekin, esate baterako. Hiru bertsoan azaltzen zaigu *dedin*; 28.18.4 (4), 53.7.5 (5) eta 59.11.5 (5) puntuetan, hain zuzen; eta honako oin hauekin batera: *aldegina*, *atsegina* (2), *berdina*, *egina* (3), *gordina*, *itzegina*

(22) *Basarri* oina da salbuespen bakarra, bi aldiz ateratzen bait da izen nagusia izaki: 30.8.3 eta 30.15.4ean, "Basarri ta ni" saileko bertsoan.

(23) *Donostia'ri* ez ezik, *Donostia'n* eta *Donosti'ra* ere azaltzen dira liburuan; baina, oinlagun ezberdinak izaki, sarrera ezberdinak dituzte Oindegian.

(2) eta *zedin*. Oin hauek (*zedin* ez beste guztiak; hau ere berez bait dugu azpisarrerarik gabea) beste bukaerekin ere elkarrekin ikusiko ditugu beste errima duten bertsoan: *aldeginda*; *atsegiña*, *atsegiñez*; *berdina*; *egiña* (2), *egiñak* (3), *egiñez* (2), *egiñik*, *eginda*; *gordiña* (3); *itzegiña* eta *itzegiñez* (3). *Dedin* oina, ordea, IN errimari lotua ikusten dugu, aldaketarik gabe, *zedin* bezala; izan ere, ez bait dira euskara honako forma hauek: **dadiña*, **dadiñak*, **dadiñez*, **dadiñik*, **dadin-da...*; ezta **zediña*, **zediñak*, **zediñez*, **zediñik* eta *zedinda* ere.

Besterik ez. Puntu hau bukatzeko, esan dezagun azpisarrerik gabeko sarrerek edo oinburuek toki garrantzitsua dutela Oindegian, oinbarrerako sarrerek ez bezala. Aurrerago itzuliko gara puntu honetara ere.

4.3. Oindegiko zenbait datu

Llabur-llabur bada ere, eman dezagun Oindegiko zenbait daturen berri soila (datu hauek gutxi gorabeherakoak dira ezinbestez, hariak eta informatikaz berrikusi arte): 1.447 sarrera (oinburu) ditu hiztegiak, 832 inguru oin bakarrek eta 615 inguru sarreradun; oinburu sarreradunek 1.290 oin dituzte beren baitan, hauetako 241 azpisarrerarik gabeak direlarik.

5. OINDEGITIK ERRIMATEGIRA: ERRIMA-ALORRAK

Itzul gaitezen hirugarren atalaren sarrerara eta gogora dezagun oin-errimak sistematizatzen hasteko bi bide genituela eta oinen sistematizazioari ekin diogula. Baina ikusi berria dugu laugarren atalean errimari zein lotua dagoen zenbait oin. Lotura hau ez da, ordea, oin batzuetan bakarrik ematen; guztietan baizik, neurri batean edo bestean. Horrexegatik, sistematizazio-lanean aurreratu ahalean, elkarrekin aurkituko ditugu oinak eta errimak. Eta elkarrekin erabiltzeko eta aztertzeko tresnaren beharrean gaude. Horixe da atal honetan, besteak beste, aurkeztera goazen *errima-alorra*.

5.1. Errima-alorra eta osagaiak (oinburuak eta errimak): IN errima-alorra

Dedin eta bere oin lagunekin jarraiki, osa dezagun zerrenda, oin lagun horien lagunak ere erantsiz. Emaizta sarrera biko taula bat da, goitik behera Oindegiko sarrerek edo oinburuak dituena, eta ezkerretik eskuinera errimak. Taulak adierazten du oinburu bakoitza zenbat aldiz azaltzen den eta zein errimarekin (eta errima bakoitzarekin ere zenbat aldiz). Esate baterako, *EGIN* 14 aldiz erabiltzen du Uztapidek bere liburuan: 5 *egin* formaz, 2 *egiña* bezala eta 3 *egiñak*, 2 *egiñez*, 1 *egiñik* eta 1 *eginda* formez.

Besterik gabe, hona hemen taula:

		IN	INA	INAK	INEZ	INIK	NETAN	INTZEN	INDA	INDUA
adin (edade)	1		1							
agindu	2							1		1
aldegin	3	2							1	
alegin	2	1	1							
antziña	1		1							
aña	1		1							
arin	5		2	2				1		
atsegin	6	3	2		1					
atzegin	2	1			1					
aundiña	1		1							
baiña	2		2							
berdin	3	2	1							
bikain	4		1	2			1			
dakiñik	1					1				
dedin	3	3								
desegin	2	2								
egin	14	5	2	3	2	1			1	
Ekaiña	1		1							
eragin	2		1	1						
Erreterin	1	1								
Ertziña	1		1							
etzina (etzana)	1		1							
ez egin	1	1								
ezin	4		1			1			1	1
ezpain	1			1						
eztedin	1	1								
gain	6		2	1	1		2			
gaztain	2		1	1						
gibelurdin	1		1							
Goizarin	1	1								
gordin	4	1	3							
grina	1			1						
gutxiñez	3				3					
Ibañetan	1						1			
iriña	2		1	1						
itzegin	9	5	1		3					
jakin	3				2				1	
maña	1		1							
min	7			1	4	1		1		
mingain	3				2		1			
nagusiarekin	1	1								
oin	5			1	3		1			
ordain	3		1	1						1
pin	4		3		1					
samindu	1							1		
soin	1				1					
txitxardiña	1		1							
ugariña	1		1							
utsegin	4	3	1							
zain	2						2			
zedin	1	1								
zikin	2			1						1
zin	1						1			
		34	37	17	24	4	9	4	4	4

Beraz, zenbait oin errimaren bati lotuta egon eta aldaezina bada, beste zenbait errimarekin batera aldatzen da. Izan ere, oinburu batetik zenbait oin ezberdin sortzen den bezala sortzen bait da errimaburu batetik (gure kasuan IN da errimaburua) zenbait errima antzeko, erroz berdin eta bukaeraz ezberdin (gure kasuan, IÑA, IÑAK, IÑEZ, IÑIK, ÑETAN, INTZEN, INDA eta INDUA).

Horiek horrela, *errima-alorra* deitzen diogu errimaburu bateko errimek (errimaburua bera ere barne) eta errima horiek dituzten oinek osatzen duten sailari (gure kasuan, 9 errimek eta 53 oinek osatutakoari). *Errima-alor* batekoak izango dira alor honetako errimak dituzten bertsoak. Hona hemen, adibidez, zeintzuk diren *Sasoa joan da gero* liburuko IN errima-alorreko bertsoak (parentesi arteko zenbakiek bertsoak zenbat puntukoak diren adierazten dute):

IN errimadunak: 26.12 (4), 28.18 (4), 50.10 (4), 53.7 (5), 56.8 (4), 57.5 (4), 59.11 (5), 66.5 (4).

IÑA errimadunak: 2.11 (4), 7.2 (4), 7.6 (4), 10.6 (4), 10.15 (4), 23.3 (4), 33.2 (4), 53.9 (5), 61.12 (4).

IÑAK errimadunak: 43.5 (4), 56.13 (4), 59.7 (5), 61.4 (4).

IÑEZ errimadunak: 3.11 (5), 18.3 (6), 32.2 (4), 45.5 (5), 48.2 (4).

IÑIK errimaduna: 36.13 (4).

ÑETAN errimadunak: 29.2 (5), 67.3 (4).

INTZEN errimaduna: 35.5 (4).

INDA errimaduna: 30.13 (4).

INDUA errimaduna: 16.10 (4).

Beraz, IN *errima-alorra* deituriko hau 9 errimaz eta 53 oinburuz dago osatua, eta 32 bertso hartzen ditu. Portzentaiatan, oinetan liburu osoko % 3,7 hartzen du eta bertsoan % 3,8.

5.2. TE errima-alorra: salbuespenezko oinak, oinburu solteak, oinburu-multzoak eta oinburu nagusiak

5.2.1. TE errima-alorra

Ikus dezagun oraingo honetan TE *errima-alorra*. Honek 51 bertso (222 oin) hartzen ditu bere baitan, 11 errimak eta 41 oinburukoa izaki. Hasteko, hona hemen TE alorreko bertsoak, errimaka emanda.

TE errimadunak: 18.1 (6), 24.1 (4), 30.4 (4), 41.3 (4), 56.6 (4).

TEA errimadunak: 26.11 (4), 44.9 (4), 64.4 (4).

TEAK errimaduna: 59.2 (5).

TEZ errimadunak: 10.14 (4), 55.15 (4).

p/t/kEAN errimadunak (24): 2.12 (4), 5.9 (4), 6.12 (9), 7.12 (4), 19.6 (5), 25.4 (5), 38.3 (4), 39a.4 (5), 40.3 (2), (25), 41.6 (4), 45.12 (5), 47.5 (4), 48.1 (4), 48.10 (4), 54.2 (4), 58.10 (4), 64.11 (4).

TETAN errimaduna: 32.4 (4).

TEKOA (26) errimaduna: 34.2 (4).

RTa/eTIK (24) errimadunak: 20.12 (4), 42.9 (4).

ATEN errimadunak: 2.6 (4), 12.11 (4), 18.12 (6), 19.7 (5), 26.10 (4), 34.8 (4), 37.1 (4), 44.8 (4), 46.9 (7), 48.7 (4), 56.1 (4), 61.15 (4), 61.18 (4).

a/eTEKO (24) errimadunak: 9.3 (6), 10.8 (4), 10.13 (4), 12.4 (4), 44.11 (4).

a/eTENDA (24) errimaduna: 84.4 (4).

(24) Errimen berri ematean, batzuetan p/t/k, a/e edo antzeko letrak erabili ditugu, barraz (/) berezita. Horrela adierazi nahi da letra horietako edozein aurki daitekeela erriman. Adibidez, p/t/kEAN errimakoak ditugu *kolpian*, *katian* eta *pakian* (ikus beherago (26) oin-oharra); RTa/eTIK errimakoak *artatik* eta *artetik*; a/eTEKO arrimakoak, *bateko* eta *beteko*; a/eTENDA errimakoak, *etenda* eta *izaten da*; eta abar.

(25) Iparragirren doinukoak dira 40. saileko bertsoak (hamar, guztira); beraz, bi errima ezberdin izango dituzte bertso horiek (lehenengo bi puntuek eta azkeneko biek, bat; hirugarren eta laugarren puntuek, bestea). Horren berri ematean bertso bakoitzean bi bertso baleude bezala jokatu dugu. Esate baterako, 40.3 (4) signaturaz lehenengo eta azkenengo lau puntuez osatutako bertso-zatia adierazten da; eta 40.3 (2) signaturaz, berriz, hirugarren eta laugarren puntuez osatutakoa. Adibidez, *batian* (40.3.3) eta *bitartian* (40.3.4) dira goiko 40.3 (2) bertso-zati horren oinak.

(26) Gerxeago, 60. orrialdean hain zuzen, argituko dugu zergatik 34.2 bertsoaren oinak, *artekua*, *batekua*, *jatekua* eta *artakua* izaki, TEKOA errimakoa direla diogun; baita (24) oin-oharreko *kolpian*, *katian* eta *pakian* oinak zergatik diren p/t/kEAN errimakoak ere.

Besterik gabe, azal dezagun taula:

	TE	TEA	TEAK	TEZ	p//NEAN	TETAN	TEKOA	RT _{de} TIK	ATEN	ai/TEKO	ai/TEENDA
alkate	1	1									
aparte	7	3			3	1					
artatik	1							1			
arte (noiz)	13	1			11		1				
arte (non)	8	1			5			2			
ate	5		1	1	2	1					
aurten	1								1		
baitia (bait dira)	1		1								
bat	23				11		1	1	8	2	
batian (batera)	1				1						
bertatik								1			
bete	5	1	1	1						2	
bitarte	19	4	1		2	12					
borondate	1				1						
dirate (didate)	3	1							2		
emate	7								6	1	
eramate	4								3	1	
erate (edaten)	1								1		
esate	14			1					11	2	
eten	1										1
gaitian	1					1					
illabete	2					2					
izate	19		1		2				12	3	1
jate	14		1				1		6	5	1
juate	13		2			2			3	4	1
kalte	2			1						1	
kate	3				1	2					
kolpe	1					1					
lagunarte	1			1							
lurperatze	1					1					
maite	2			1		1					
Lasarte	1	1									
ortatik	1					1					
pake	1					1					
parte	13	3	1		2	6		1			
tarte	5					3	1			1	
torpe	1					1					
urte	17	4	1			9	1	1			
zaramaten	1								1		
zerate	5	2							3		
ziraten (zidaten)	1								1		
	22	12	5	8	75	4	4	8	58	22	4

Aurreko adibideko IN errima-alorra lagun errima-alorra zer den eta zer osagai dituen aditzera eman dugun bezala, honako TE errima-alor hau lagun dugula oinburu-multzoen berri emango dugu.

Azter ditzagun alorreko 41 oinburuak.

5.2.2. Oinburu solteak

TE errima-alorreko oinburu horietatik 18 oinburu ditugu behin bakarrik azaltzen direnak: izen nagusi bat (*Lasarte*), oso errealtate konkretuei edo lotuak lau (*alkate, kolpian, lagun artea, torpian*), aukera handirik gabeak beste lau oin bitxi (*artatik, bertatik, ortatik, eten da*); tartean bada azpisarrerarik gabeko oinbururik [*aurten, baitia* (bait dira), *gaitian, zeramaten, ziraten* (zidaten)]. Eta hemezortziak osatzeko *batian* (batera), *borondate, pakian* eta *lurperatzian* geratzen dira; horietako hiru lehenengoak gehiagotan ateratzea esperoko zukeen batek baino gehiagok, baina hor daude datuak. Hemeretzigarren bat ere badago errima-alor honetan behin bakarrik ateratzen dena: *eraten* (edaten); baina talde honetatik kanpo utzi dugu, NA errima-alorrean gehiagotan ateratzen delako, besteak beste.

5.2.3. Salbuespeneko oinak

Gera gaitezen zertxobait *baitia* (bait dira) eta *lurperatzian* oinak aztertzen, merezi du eta.

Baitia behin besterik ez darabil Uztapidek aztergai dugun liburuan: 64.4 bertsoaren bigarren puntuan, *betia, juatia* eta *maitia* oinekin batera (27). Beraz, TE errima-alor honetan du bere tokia, nahiz eta berez k/tI errima-alorrean egon beharko lukeen, *egoki, txiki* eta abarrekin batera. Baina dagoena ari gara hemen biltzen eta aztertzen, eta ez norbaiten iritziz beharko lukeena.

Lurperatzian oinaren kasua ere bitxia dugu. Berez s/ts/tx/tz/zIAN errima-alorrean behar luke; besteak beste, *aitzian, azaltzian, bazkaltzian, estaltzian, etortzian, ezkontzian, galtzian, gogoratzian...* oinekin batera. Baina berriro ere liburuak agintzen du. *Lurperatzian* oina dakarren bertsoa aztertuz gero, badirudi Uztapide *lurpian* oinarekin hasiko zela bertsoa moldatzen (azkeneko puntukoa denez, hortik hasiko zela pentsatu behar), eta moldatu ere horren arabera moldatuko zuela, nahiz eta azkeneko momentuan *lurpian* ez baina *lurperatzian* jarri; horrek argituko luke, *lurpian* TE errima-alorrekoa izaki, bertsoaren beste oin guztiak alor horretakoak izatea, *lurpian* oinak hain hurbilekoak dituen *urtian, kolpian* eta *torpian* oinekin batera. Hona hemen bertsoa (6.12):

(27) *Bait* aurrizkia beste bi puntutan azaltzen da liburuan: *baitzegon* (62.12.4) eta *baizian* (bait ziran) (56.11.2). Eta *dia* beste behin *dira* formaren ordeez: *badia*, 10.7 bertsoaren laugarren puntuan, *gabia, labia* eta *obia* oinekin batera.

Bertsuak jartzen ditut
 Oiartzun partian,
 ni saiatu naiz beintzat
 al dan artian;
 aurten ezin dedana
 urrengo urtian,
 jarraitu onenbeste
 geran bitartian;
 ez dana kolpian
 da era torpian,
 patxara batian
 laguneren tartian;
 ixilduko gerade
 lurperatzian.

Beraz, lekuz kanpoko edo salbuespen gisako bi oinekin topo egin dugu TE errima-alorreko 41 oinen artean. Eta guri hala adieraztea dagokigu, nahiz eta horiek gabe txukunagoa edo egokiagoa iruditu oinburu-zerrenda. Adieraztea eta azpimarratzea, beste zenbait errima-alorretan ere aurkituko bait ditugu.

5.2.4. Oinburu-multzoak

Eta behin bakarrik azaltzen diren oinak utzita, jarrai dezagun aurrera gehiagotan ateratzen direnekin; 28 dira guztira. Horietan bi oinburu-multzo azpimarratu nahi ditugu, oraingoz *ate*, *bete*, *didate*, *illabete*, *kalte*, *kate*, *maite* eta *zerate* oinak baztertuta: *batetik*, *aparte*, *arte* (noiz), *arte* (non), *bitarte*, *parte*, *tarte* eta *urte* oinek osatutako multzoa dago; *bestetik*, *berriz*, *emate*, *eramate*, *erate* (edate), *esate*, *izate*, *jate* eta *juate* oinek osatutakoa. Azter ditzagun banan-banan.

5.2.4.1. *Aparte*, *arte* (noiz), *arte* (non), *bitarte*, *parte*, *tarte* eta *urte* oinburuen multzoa

Hona hemen zenbait bertsoren oinak, hauek azaltzen diren ordenan emanda:

30.4 (4): *urte*, *aparte*, *bitarte*, *arte* (noiz).

41.3 (4): *arte* (non), *aparte*, *parte*, *bitarte*.

2.12 (4): *artian* (non), *urtian*, *artian* (noiz), *bitartian*.

25.4 (5): *apartian*, *partian*, *urtian*, *bitartian*, *artian* (noiz).

38.3 (4): *artian* (noiz), *bitartian*, *apartian*, *urtian*.

47.5 (4): *partian*, *artian* (noiz), *urtian*, *bitartian*.

64.11 (4): *partian*, *artian* (non), *bitartian*, *urtian*.

Beraz, zazpi bertso horien puntu guztiak goian aipaturiko oinburuetatik daude aukeratuak. Eta *aparte* oinburua lau aldiz azaltzen da, *arte* (noiz) bost aldiz, *arte* (non) hiru, *bitarte* zazpi, *parte* lau aldiz, *tarte* behin ere ez eta *urte* bat ez beste guztietan.

Horrenbestez, bada arrazoirik aipaturiko oinburuen artean (oraingoz *tarte* kanpoan utzirik) loturarik badagoela aitortzeko. Baina jarrai dezagun datuak bilduz. Honako bertso hauetan oin bat ez beste guztiak goiko zazpi oinburuetakoak dira: 18.1 (4), 24.1 (4), 26.11 (4), 32.4 (4), 39b.4 (5), 54.2 (4), 58.10 (4); eta oraingo honetan tartean da *tarte* oinburua ere lau bertsoetan. Horiek horrela, Uztapidek bere liburuan guztira 83 aldiz erabiltzen dituen zazpi oinburu horiek 51 aldiz daude erabiliak aipaturiko hamalau bertsoetan. Horrenbestez, esan dezakegu lotura sendoa dagoela oinburu horien artean; eta sendotasun hau egiaztatu besterik ez da egiten oinburu horiek azaltzen diren gainentzeko bertsoetan.

Beraz, oinburu-multzo trinko baten aurrean gaude. Nolabait esateko, oinburu hauek leku berezia zuten Uztapideren almaganean eta zazpiak elkarrekin zeuden bertsolari handiaren eskumenean, behar izanez gero erabil zitzaizkion. Eta badirudi nahikoa zuela bati tiratzea, besteak ere atzetik joateko bertsoa osatzera, elkarrekin korapilatutako gereziak bailiran.

5.2.4.2. *Emate, eramate, erate (edate), esate, izate, jate eta juate* oinburuen multzoa

Lehengo oinburuez esana errepika dezakegu honako zazpi hauei buruz ere. Hona hemen hasteko, bost bertsoen oinak, ordenan emanda:

2.6 (4): *jaten, juaten, esaten, izaten.*

10.13 (4): *jateko, juateko, eramateko, emateko.*

26.10 (4): *juaten, jaten, esaten, izaten.*

44.8 (4): *eraten, ematen, esaten, izaten.*

44.11 (4): *jateko, juateko, esateko, izateko.*

Oraingo honetan oinburu guztiak azaldu dira: *emate* bi aldiz, *eramate* eta *esate* behin, eta gainerako laurak launa aldiz.

Honako bederatzi bertso hauetako oin bat ez beste guztiak ere goiko oinburuetakoak dira: 8.4 (4), 10.8 (4), 12.11 (4), 19.7 (5), 44.9 (4), 48.7 (4), 56.1 (4), 61.15 (4), 61.18 (4).

Beraz, lehengo oinburu-multzoaren antzeko baten aurrean gaude. Hau txikiagoa izatea. Beste datu bat ere gerta daiteke azpimarragarria: *esate* eta *izate* oinburuen arteko lotura estua. *Esate* ateratzen den 14 aldietatik 13tan *izate*arekin batera ateratzen da; eta hauetatik 10etan justu aurreko puntuan (goraxeago adierazi bezala). Antzeko zerbait gertatzen da *jate* eta *juate* oinburuekin ere, baina ez hain lotura estuz.

Bestalde, ez guke aukera hau beste zerbait azpimarratu gabe galdu nahi, hain da kasu bitxia Uztapideren liburuan: oinburu berak eta ordena berean izatea bi bertsoak, goraxeagoko 2.6 eta 44.11 horiek bezala. Hona hemen bi bertsoak, lehenengoa "Aita zanari" sailekoa (2.6) eta bigarrena "Ostalariak" (44.10) sailekoa:

Azitzeko ainbeste
eman zuten jaten,
eskolara're giñan
batzuetan juaten;
zortzi seme-alaba
errez da esaten,
azitzia ez da ain
erraza izaten.

Ostatuak da jan-etxiak gaur
aukeran daude jateko,
da askatasun osoa berriz
nai dan tokira juateko;
ez du gizonak deretxorikan
nai ditunak esateko,
pazientzia ederra bear da
ostalari izateko.

Kasu hau hain bitxia izateak egiten du argirik bertso gintzaren inguruan, eta horrexegatik dakargu hona. Alegia, garbi erakusten digu malguak direla bertsolariak darabiltzan oin-klitzeak: ez dagoela oin berdinak eta ordena berean erabili beharrik; hori baino aberatsagoak direla bere baliabideak.

5.2.5. *Oinburu nagusiak*

Berriro ere TE errima-alorreko oinen zerrendara itzuliz, hor dugu *bat* oinburua oraindik ere aztertu gabe. Guztira 16 aldiz ateratzen da: hamaika aldiz *batian* formaz, behin *batekua*, *batetik* eta *batera*, eta bitan *bateko* formaz (ez dugu, jakina, *batian* (batera) forma zenbatu, ezberdina bait da esanahiz; ezta ere, nahiz eta hitz-erro bereko izan, beste oinburu diren *baten* (zortzi aldiz) eta *batenak* (bi aldiz)). Bada ateratzea gero! Zenbait bertsoetako oin guztiak ez badira ikusi berri ditugun oinburuen multzoetakoak izan, *bat* oinburu honek du errua (zortzi bertsoetan, hain zuzen ere). Baina multzo horietako oinburuak elkarrekin ibiltzeko joera bezala, *bat* honek gehiago du bere gisa eta bakarrik ibiltzekoa. Beraz, komodinarean papera jokatzen du, behin eta berriro jokatu ere.

5.3. AN, EN, ON eta UN errima-alorrak: N errima-gainalorra

AN errima-alorrekin hasiko gara. Hona hemen beraren taula:

	Am/nA	AK	ANDA	Am/n ETS/z	NEAN	NIK	NGO	NDit/k	NETAN	o/UNTZIA	m/nATU	m/nKAN
ama	5	3	1					1				
amets	1			1								
antzean	1		1									
apan	1		1									
arma	1		1									
arpana	1	1										
bana	2	2										
berarengana	1	1										
beregana	2	2										
dan	25	7	14		4							
dan (ad.)	9	1	1	1	6							
dana (dala)	1	1										
daukan	2		2									
dedan	2	1				1						
diana	1	1										
diran	10		8		1	1						
ditudana (ditudala)	1	1			2	1						
duan	6	3										
eman	19	9	6	1	1		1	1				
eraman	3	3										
eran (edan)	5		4		1							
esan	12	4	3	1	1		1					
etzan (ez zan)	5	1		1	3							
etzeran	1	1										
geran	7		7									
izan	12	2	3	2		3	2					
jan	2	1	1									
juan	6	2	1	3								
kanpana	1		1									
lan	37	12	10		13	1						1
laztan	1	1										
nuan	1	1										
neregana	2	2										
nintzan	5	1		1	3							
nuan	3	1			1	1						
pama	3		3									
Sant'Anak	1		1									
txanda	3			3								
zaidan	1	1										
zaizkidan	1		1									
zama	2	2										
zan (ad.)	13	3	1		9							
zana (ohia)	3	3										
zeraman	1	1										
zeran	1	1										
zian (zidan)	1	1										
ziñana (ziñala)	1	1										
ziran	9		7		2							
zuan	3	1			1	1						
	79	78	12	4	48	9	4	2	-	-	-	1

Errime buruz ezer esan aurretik, oinburuen inguruko bi puntu azpimarratu nahi ditugu: 1) horra hor non dauden berriro ere *emate*, *eramate* eta abarren

Errimei buruz ezer esan aurretik, oinburuen inguruko bi puntu azpimarratu nahi ditugu: 1) horra hor non dauden berriro ere *emate*, *eramate* eta abarren hitz-erro bereko *eman*, *eraman*, *eran* (edan), *esan*, *izan*, *jan* eta *juan* oinburuak elkarrekin, nahiz eta oraingoan ez diren TE errima-alorrean bezain elkarri lotuak azaltzen; eta 2) TE errima-alorrean *bat* oinburua bezala, oraingo honetan *lan* eta *dana* (zenb.) ditugu oinburu nagusi: 37 eta 25 aldiz azaltzen dira alajaina!

Baina beste zerbaitegatik ekarri dugu hona AN errima-alorraren taula. Lehenengo lau errima-zutabeen eta hurrengoan artean marra lodia dago bereizle, eskuineko errimak alor honetakoaz gain beste batekoak ere badirela adierazten. Berriro ere bertso batek egingo digu argi: "Guk sasoi bagendun" saileko bederatziz puntuako 6.3 bertsoak, hain zuzen.

Nola ibiltzen giñan
sasoi gendunian,
gogoratutzen bati
zartu danian;
nekatzeko bildurrik
batere etzarian,
etzan gabe ere berdin
iru egunian;
alare lenian
jarraitu lanian
sasoi onenian
da umore onian,
gurputz-aldi bat ona
zeguanian.

Horra hor bederatziz oinetatik lau AN errima-alorrekoak (*danian*, *etzarian*, *lanian* eta *zeguanian*), bi EN alorrekoak (*lenian* eta *onenian*), bat ON alorrekoa (*onian*) eta bi UN errima-alorrekoak (*gendunian* eta *egunian*). Eta behin eta berriro ikusiko ditugu alor horietako oinburuak elkarrekin nahasian, batzuetan gehiago bestetan baino, honako errima hauek dituzten ondorengo bertsoetan:

NEAN: 2.7 (4), 6.3 (9), 8.5 (4), 9.10 (6), 11.4 (4), 12.6 (4), 16.7 (4), 17.3 (4),
17.17 (4), 19.8 (5), 24.4 (5), 24.15 (4), 26.8 (4), 32.3 (4), 32.9 (4), 32.11 (4),
34.7 (4), 37.9 (4), 37.12 (4), 38.7 (4), 48.3 (4), 50.6 (4), 55.2 (4),
56.12 (4), 58.7 (4), 62.10 (5).

NIK: 12.13 (4), 13.8 (4), 18.7 (6), 30.12 (4), 35.6 (4), 40.2 (4), 42.6 (4).

NGO: 7.14 (4), 36.15 (4).

NDIt/k: 20.2 (4), 24.12 (4), 34.6 (4), 40.8 (2), 52.8 (4).

NETAN: 22.9 (5), 25.1 (5), 65.5 (4).

o/uNTZEA: 37.15 (4).

m/nATU: 20.3 (4).

m/nIKAN: 20.5 (4), 40.10 (4).

Beraz, AN, EN, ON eta UN errima-alorrek amankomunean dituzte zenbait errima, nahiz eta beste batzuk bakoitzak bere-bereak izan. Eta hainbat oinburu berdin ikusiko dugu alor bakoitzak bere-bereak dituen errimetan eta besteekin amankomunean dituenetan.

Hona hemen, ondoren, ON, EN eta UN errima-alorren taulak. Goitik behe-rako marra lodiak, lehen AN errima-alorrean bezala, alor bakoitzaren barnean bere-bereak dituen errimak eta besteekin amankomunean dituenak bereizten ditu.

	ON	Om/nA	ONAK	NEAN	NIK	NGO	NDI/k	NETAN	o/nNTZIA	m/nATU	m/nIKAN
amona	1		1								
baitzegon	1										
Bermeo'n	1										
broma	2	1									1
dagon	3	2	1								
dion	1		1								
egon	5	2	1	2							
Gabonak	1		1								
geiona	1		1								
gizon	4	1	2	1							
gozona	2		2								
kanpeon	1	1									
on	16		4	8	2		1				1
sona	2		2								
txanpon	2		1	1							
zaion	1		1								
zegon	2	1		1							
zorion	3		1								1
	9	17	8	9	2	—	1	—	—	—	3

	EN	ENA	ai/eNAK	NEAN	NIK	NGO	NDIU/k	NETAN	o/uNTZIA	m/nATU
aberatsen	1	1								
aitormen	1	1								
alkarrena	1	1								
ardien	1		1							
atzen	1	1								
aurren	9	7		2						
azken	2	1		1						
aztarren	1	1								
barren (barru)	6	2		3		1				
barren (zehir)	2	2								
barrena (barrura)	1	1								
baten	2		1		1					
baziñuzen (bald.)	1	1								
bigarren	3	2		1						
dan (ad.)	1		1							
daukaten	1	1								
den (guztia)	1	1								
diraden	1	1								
duen	1	1								
duten	1		1							
eibartarren	1	1								
emen	1	1								
emeretzigarren	1	1								
errien	1		1							
erten	1		1							
gatzen	1	1								
geien	3		2	1						
geraden	1	1								
giñaden	1	1								
giñuzen	1	1								
guzien	1		1							
irugarren	2	2								
jaten	2		1		1					
kemen	1	1								
latzen	1	1								
laurden	1	1								
leiken	1	1								
len	6			1			4			
nabarmen	4	3								
onen	4	3		1						
ordena	2	2								
orren	2	2								
pena	4	1						2		1
txarren	4	4								
urren	5	4				1				
zaien	1		1							
zarren	4	4								
ziñuzen	1									
ziraden	1	1								
ziran	1		1							
zuena (zuela)	1	1								
zuten	1	1								
zuzen	4			2	1					
	12	56	12	12	3	2	4	2	-	1

	UN	UNA	UNAK	s/ZUNEZ	NEAN	NIK	NGO	NDIu/k	NETAN	o/UNTZIA	m/nATU	m/nIKAN
aberastasan	1											
alastasan	3	3										
askatasun	1	1										
astun	1	1										
aunditasun	1	1										
babarrun	1	1										
batzuna	2		1									
baziñun	1	1										
bazkun	2		1		1							
bigun	2		2									
dakigun	1	1										
dakizun	2	1	1									
datorkigun	1	1										
degun	9	1	5	2			1					
dezagun	1	1										
dezun	7		2	1	1	2						
diogun	1	1										1
ditugun	4			4								
ditun	3		1	2								
dituzun	3	2		1								
dizun	2	1				1						
dun	3		2	1								
edertasun	3	2										
eginkizun	2			1								
egun	27	1	12	6	4	2			2			
elzikizun	1											
entzun	5		5									
erantzun	2	1										
etzagun	1											
etzun	2		1									
estusun	1			1								
euskaldun	2	1		1								
ezagun	5	1	2	2								
gaitun	2		2									
gacientzun	2		2									
gendun	10	1	6			3						
gentakizun	1			1								
gintun	1			1								
gizatasun	2		1									
illun	4	1	2			1						
inun	6	3						3				
izitun	1		1									
jakinitsun	1		1									
jardun	4	1	3									
juun	3		1	2								
jun	5		2	3								
kutun	2		2									
lagun	12	1	5	3		2				1		
lasaitasan	1		1									
legun	1			1								
maitusun	1		1									
naitasan	1		1									
nazun	1		1									
nizun	1											
odoldun	1			1								
Oiartzun	1	1										
ondasun	2			1								
osasan	9		5	2	1							1
txapeldun	1			1								1
txukun	1		1									
zaigun	5		1		1	1						
zaitugun	1			1					2			
zentzun	1		1									
zigun	4		1	2	1							
zitun	1		1									
ziñun	1	1										
zitazun	2		2									
zitazkizun	1	1										
	25	89	47	4	14	6	-	3	4	1	-	3

Errima-alor horiek osatzen duten gainalorra ez litzateke osorik egongo 47ko oin-zerrenda berezia gabe. Oin-zerrenda hau AN, EN, ON eta UN alorretan azaldu gabeko oinez osaturik dago. Zerrenda zehatz-mehatz aztertu gabe, zenbait puntu azpimarratu nahi ditugu: oinburu batzuk berez AN, EN, ON edo UN alorrekoak dira, baina horien zerrendetan azaldu ez direnak (*alargun, aldamen, anaiarenean, anaitasun, astelen...*); beste oin batzuk alor horietako bakoitzak besteekin amankomunean dituen errimakoa bakarrik izan daitezke (*an, benetan...*); beste oin batzuk, berriz, berez beste errima-alorrekoak izanik gainalor honetako errima bati edo besteri lotua ageri da hemen (*genbiltzan, zeguan, zeraden*); bada, azkenik, oinen artean salbuespen moduan dagoenik ere (*igande*).


Besterik gabe, hona hemen zerrenda berezi honen taula:

	NEAN	NIK	NGO	NDIu/k	NETAN	o/ONTZIA	m/nATU	m/nKAN
alargun	1					1		
aldamen	1	1						
anaiaren	1	1						
anaitasun	1	1						
an	1			1				
astelen	1	1						
benetan	3				3			
damakizun	1	1						
datorren	1	1						
datozen	1	1						
daukazun	1							1
dijuzun	1	1						
ederren	2	2						
emen	1			1				
eskasen	1	1						
estuasu	1	1						
etan (etanda)	2	2						
ez-entzan	1	1						
gabetanik	1		1					
genbiltzan	1	1						
guregana	1						1	
igande	1	1						
iraupen	1		1					
ixiltasun	1	1						
izen	3	1	2					
kompondu	1					1		
lenengo	1			1				
luzen	1	1						
naizen	3	1	2					
netorren	1	1						
ni	5		4					
nun	1			1				
okerrren	2	2		1				
onetan	3				3			
orain	5			4				
ostegun	1	1						
sakabanatu	1						1	
San Anton'etan	1				1			
sumatu	1						1	
tren	1	1						
une	1				1			
zaizkigun	1	1						
zakarren	1	1						
zeguan	1	1						
zeraden	1	1						
zetorren	1	1						
zituzen	1	1						
	32	10	2	8	8	2	3	1

Honez gero, aski adierazia dago zer den errima-gainalorra. Grafikoz adieraziko dugu azkenik. Dena dela, esan dezagun aurretik, zalantzak zalantza, IN


errima-alorra ez dugula N gainalorrekoa joko (geroxeago itzuliko gara puntu honetara). Honenbestez, IN errima-alorra itxia dela esango dugu, TE alorra bezala, eta ez duela beste alorrekin gainalorrik osatzen; AN, EN, ON eta UN errima-alorrak, berriz, irekiak dira eta N errima-gainalorra osatzen dute elkarrekin, errima batzuk bakoitzak bereak izaki eta beste batzuk lauen amankomuneko.

Honela adieraziko genuke grafikoz N gainalorra:




N GAINALORRA

TE eta IN errima-alorrak, berriz, beste era honetara:



TE ALORRA



IN ALORRA

5.4. s/z, o/u errima-alorra: errima-alor bikuna

Bada zailtasunik errimak sistematizatzerakoan. Horietako bat adibide batez adieraziko dugu errazen. Hona hemen, 6.5 eta 15.7 bertsoak:

Naiz basarian izan
da berdin kalian
gu pake billa beti
egiñalian;
umore ederra berriz
gendun axalian,
bost duro baginuzen
gure sakelian;
ez jan "hotelian",
segi jorñalian,
era apalian,
obe iguñalian;
olako gutxi da gaur
lur zabalian

Lauko zoia izaten
zan jeneralean,
iru edo lau bat zoi
soro zabalean.
Danak ixil-ixilik
ta egiñalean,
zein lenago iritxi
beste egalean.

Ezberdinak al dira errimaz? Zergatik lehenengo bertsoan *egiñalian* eta *zabalian*, eta bigarrenean *egiñalean* eta *zabalean*? Horretarako arrazoirik egon zitekeen, esate baterako, lehenengo bertsoko oinen bat *erregalian* balitz; ez da, ordea, hala. Garbi dago bi bertsoak errima berdinekoak direla funtsean, nahiz eta ezberdineko azaldu. Egokiena *barneko errimaz* eta *azaleko errimaz* hitz egitea dugu. Beraz, bi bertso horiek berdinak dira barneko errimaz eta ezberdinak azalekoz.

Hori horrela, guk barneko errimari erreparatu diogu errima adieraztean. Horregatik esan dugu 533. orrialdeko (24) oharrean [ikus, baita ere (26) oharra:] *kolpian*, *katian* eta *pakian* oinak p/t/kEAN errimakoak ditugula; eta horrexegatik, TEKOA dugula *artekua*, *batekua*, *jatekua* eta *artekua* oinen errima.

Errima-alorretara iztuliz, orain arte ikusitako errima-alorretako errimetan ez da arazorik izan barneko eta azaleko errimen artean. Ez da, ordea, guztietan hala gertatzen. Hona hemen, esate baterako, s/z, o/u errima-alorraren taula:

		s/zO	s/x/zUA	UAK	UAN	UETAN
abisu	2		1	1		
arazo	1			1		
auzo	5	1	1	1	2	
balioso	1		1			
baso (mendia)	3		1		1	1
baso (ontzia)	1			1		
batzu	1					1
bazuan (bald.)	1				1	
bazuan	1				1	
bertso	3			2		1
beso	3			3		
betisu	1			1		
gaixo	2			2		
gozo	7		1	5	1	
guraso	1			1		
jaso	4	1	1	2		
kaso	3			1	2	
lauso	1			1		
Lizaso	1	1				
oso	9	1	2	3	2	1
pauso	5	1		3	1	
penoso	2			1	1	
su	1			1		
zuan	3				3	
		5	8	30	15	4

Horra hor oinen zerrendan s/zO barne-errima duten *arazo*, *auzo*, *balioso* eta abarrekin batera s/zU barne-errimako *abisu*, *batzu* eta abar. Ekar ditzagun alorreko bi bertso ere, errima-nahasketa nola gauzatzen den ikusteko: lehenengoa, 39a.4, “San Juanak” sailekoa dugu eta bigarrena 22.4, “Zubeltzu” bertsolariari eskainia.

Jeneralian basarrietan
egin izan dira suak,
batek piztutzen duanerako
oartzen dira auzuak.
Aguro asko artutzen dira
bat bestien abisuak,
andikan laste sua egingo
baitu ballara osuak,
era ontantxe lengo oiturak
dauzkagu emen jasuak.

Gaztetan morroi egona nintzan
Zubeltzu zarren auzuan,
emezortzitik ogei urtera
bi urte oso-osuan;
semien gisa artutzen nindun
beti joera gozuan,
ogei ta amasei urte geienaz
sasoiare ala zuan,
nerekikuak egingo zitun
nai izan baldin bazuan.

Nori ez datozkio gogora Xalbadorren honako hitz hauek?

Maizegi entzuten da zenbait holako konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia,
maitatzen baitut bizia.

Biziarekin ongi joanarazi nahiz, eman du horrek *hiltzia*, hiltzea delarik hitz xuxena. Poto egitea baino lotsagarriago zaut eni hori (28).

Honelako errima-nahasketak badira Uztapideren liburuan, baina lehen irakurketa azkarrean ematen duen baino gutxiago. Guri dauden-daudenean uztea besterik ez dagokigu.

Horrelako errima-nahasketa duen errima-alorrari *bikuna* deitu diogu; bi barne-errima-sail bakunez bait dago osatua.

(28) *Odolaren mintzoa*: 59. or. (Azpimarrak egilearenak dira.)

5.5. RIO errima-alorra: errima bakarreko errima-alorra eta oin-ardatzak eta oinburu-ardatzak

Errima-alorrei buruzko atal hau bukatzeko, eman dezagun errima-bakarreko alor baten taula:

	RIO	
amorio	2	2
ario (adio)	1	1
jario	1	1
kontrario	2	2
merio (medio)	5	5
millionario	1	1
serio	5	5
ugario	2	2
Zeberio	1	1

Alor interesgarria bere txikian: trinkoa (bederatzi oin nahikoak izan dira bost bertso osatzeko), bi oin nagusitan oinarritua (*merio* eta *serio* bertso guztietan ateratzen bait dira).

Merezi du *merio* eta *serio* oinen kasua azpimarratzea, hau da, errima bati hain estu lotuak dauden oin eta oinburuen kasua aintzakotzat hartzea; izan ere, horietako errima bat ateratzen den guztietan ateratzen bait dira oin eta oinburu horiek ere. Oin eta oinburu horiei *oin-ardatzak* eta *oinburu-ardatzak* deituko diegu.

Luza gaitezen zertxobait azken puntu horren inguruan. Har ditzagun, esate baterako, AGO errima duten bertsoak. Hamaika dira denera [23.7 (4), 27.9 (4), 36.9 (4), 40.1 (4), 41.5 (4), 48.9 (4), 55.8 (4), 56.21 (4), 57.8 (4), 64.5 (4) eta 67.12 (4)], eta hamaiketan azaltzen da *lenago* oinburua, honako puntu hauetan: 23.7.1; 27.9.1; 36.9.1; 40.1.1; 41.5.2; 48.9.1; 55.8.1; 56.21.1; 57.8.1; 64.5.4; 67.12.1. Beraz, *oinburu-ardatz* dugu *lenago*, AGO errimari lotu-lotua. Era berean, lotura estukoak dira *dago* (zortzi aldiz ateratzen da), *nago* (beste zortzitan ateratzen da) eta *geiago* (zazpitan). Gainerako oinak, berriz, honako hauek dira: *badago* (bost aldiz), *banago* (bald.) (behin), *eztago* (behin), *gutxiago* (behin) eta *naiago* (bitan).

Badago zenbait *oin-ardatz* eta *oinburu-ardatz* Uztapideren almazenean; baina, orain arte ikusitakoaren arabera, errima bakarrari lotua: dela errima bakarreko alorrean (*merio* eta *serio*), dela errima anitzeko alorreko errima bati lotua (*lenago*)... Ba ote dago, ordea, errima-alorreko errima guztiei lotutakorik, hau da, errimaburuari lotutakorik? Agian *beste* oinburua dugu adierazgarriena.

Sei errima ditu s/zTE errima-alorrak eta 26 bertso: s/zTE (2 bertso), s/zTEA (6 bertso), s/zTEAK (10 bertso), s/zTEAN (3 bertso), s/zTERIK (4 bertso) eta s/z,k/tETAN (bertso bat). Hona hemen zenbatetan azaltzen den *beste* oinburua: *beste*, behin (6.1.7); *bestia*, hirutan (8.14.2; 28.9.3 eta 40.9.1; *bestiak*, hamar aldiz, s/zTEAK errima duten guztietan (8.1.3; 17.15.3; 22.10.2; 30.3.2; 37.3.2; 40.2.4; 60.7.3; 64.3.2; 65.12.2 eta 67.10.1); *bestian*, hiru aldiz, s/zTEAN erriman duten

guztietan (20.17.2; 35.11.4; 59.3.2); *besterik*, lau aldiz, *s/zTERIK* errima duten bertso guztietan (4.13.4; 22.7.5; 57.1.4 eta 58.9.4) eta *bestetan*, behin, *s/z,k/tETAN* errima duen bertso bakarrean (3.12.5). Beraz, oro har, lau ez beste bertso guztietan azaldu da *beste* oinburua, lau errimatan *oinburu-ardatz* izaki. Ez ote dago esaterik, neurri batean behintzat, *beste s/zTE* errima-alor osoko *oinburu-ardatza* denik?

6. ERRIMATEGIA

Ikus dezagun seigarren atal honetan zenbat errima-alor (eta gainalor) hartzen dituzten *Sasoia joan da gero* liburuko 842 bertsoek (29) eta 3.660 oinek; baita alor (eta gainalor) bakoitzari zenbat errima ezberdin eta zenbat oinburu dagozkion ere.

Datu horiek taula batean bildu ditugu zenbaki hutsez. Gero, ondorengo puntuetan, zehatzago adieraziko dira errimak; baita errima bakoitzari dagokion bertso-kopurua ere.

Garbi dago informazioa erabatekoa izateko, alor bakoitzari buruz aurreko orrialdeetan emandako datu guztiak eman beharko genituzkeela: zeintzuk diren oinburuak, oinburu bakoitza zein errimatan eta zenbat aldiz ateratzen den... Baina luzeegi joango litzaigukeenez, lana mugatu beharrean gaude. Oindegiaekin gertatua gertatzen zaigu hemen ere.

Beraz, lehenengo puntuko taulara eta datozen puntuetarara mugatuko gara ezinbestez.

6.1. Errimategiaren datu orokorrak

Besterik gabe, hona hemen taula:

(29) Liburuan 842 bertso badaude ere, horrako taula horretako kopuru totalen 852 azaltzen dira; izan ere, 40. saileko 10 bertsoak (*Iparragirre abilla dela* doinukoak), bi errimakoak izaki, bi bezala zenbatu bait ditugu, lehen ere 533. orrialdeko (25) oin-oharrean adierazi bezala.

ALORRAK	ERRIMAK	BERTSOAK	OINAK	OINBURUAK	(GAINALORRAK)
1 AN	4	40	173	49	} N 22 153 655 236
2 EN	3	20	80	53	
3 ON	3	8	34	18	
4 UN	4	37	165	68	
(5) AN-EN-ON-UN	9	48	203	+48	
6 IN	9	32	137	53	} R 14 58 259 83
7 NDU	1	10	42	18	
8 a/eR	3	16	72	30	
9 OR	3	4	18	13	
(11) a/eR-OR-UR	6	24	105	+20	
12 RTU	6	21	98	35	} LA 5 28 125 67
13 a /eLA	2	19	86	46	
14 OLA	1	4	18	13	
15 ULA	1	1	5	5	
(16) a/eLA-OLA-ULA	1	4	16	+3	
17 IL	5	12	51	30	} s/z-Ts/x/z-KI 15 64 269 76
18 LDU	3	13	58	19	
19 s/zI	6	34	147	31	
20 Ts/x/zI	2	7	29	17	
(21) s/zI-Ts/x/zI	4	12	50	+11	
22 KI	2	5	20	13	} b/d/g/rI 5 26 111 63
(23) s/zI-Ts/x/zI-KI	1	6	23	+4	
24 GI	1	3	13	8	
25 RI	1	9	38	26	
(26) b/d/g/rI	3	14	60	+29	
27 A.s/z/ts/tx/tzA	4	8	34	22	} .s/zTs/x/zA 17 47 205 101
28 Es/ts/tzA	1	3	13	10	
29 I.s/z/tzA	4	9	37	20	
30 O.s/z/ts/tzA	3	12	52	20	
31 U.s/z/ts/tzA	1	4	16	9	
(32) A-E	1	6	28	+13	} b/d/g/rE 8 23 101 44
(33) O-U	1	1	4	+2	
(34) A-E-I-O-U	2	4	21	+5	
35 Ab/d/rE	1	8	35	10	
36 Eb/d/g/rE	1	1	4	4	
37 Id/rE	2	1	6	6	} b/d/g/rE 8 23 101 44
(38) A-E	1	1	7	+5	
(39) A-E-I-O-U	3	12	49	+19	

ALORRAK	ERRIMAK	BERTSOAK	OINAK	OINBURUAK	(GAINALORRAK)
40 AGO	1	11	44	9	} <i>d/g/r,o/u</i>
41 a/eRO	1	4	16	11	
42 IRO	1	1	4	4	
43 d/gU	1	5	22	17	
44 GOA	1	1	4	4	
45 Ro/uA	1	1	4	4	
46 Rd/g,o/uA	1	1	4	4	
(47) a/eRO-IRO	1	2	8	+3	
(48) d/g/rUAN	1	29	130	+29	
49 p/t/kU	6	24	98	75	
50 s/z/ts/tx/tz,eliAN	1	15	70	46	} <i>s/zTs/x/z,eli</i>
51 s/z/ts/tx/tzERA	1	4	16	+7	
52 TE	11	51	222	41	
53 s/zTE	6	26	111	31	
54 RRI	3	35	144	43	
55 AI	6	17	70	34	
56 s/z,o/u	5	14	62	24	
57 NTs/z,o/uA	1	2	8	7	
58 s/z,t/k,o/u	7	16	64	32	
59 s/z,p/t/kl	4	7	29	17	
60 ALDe/i	4	5	20	12	
61 a/eR/l,b/d/gi	3	6	25	12	
62 a/eNDe/i	2	2	9	6	
63 ERA	2	15	62	34	
64 Id/rA	2	13	55	16	
65 ORA	1	2	9	6	
66 URA	1	6	26	13	
67 RIO	1	5	20	9	
68 Es/z,t/kA	1	3	14	7	
69 Is/z,p/k jO	1	2	8	7	
70 LIA	1	2	8	5	
71 OI	1	2	7	5	
72 AIO	1	1	4	4	
73 AJE	1	1	4	4	
74 ALE	1	1	4	4	
75 ANp/t/kA	1	1	4	4	
76 AÑO	1	1	4	4	
77 ISp/tA	1	1	4	4	
78 JO	1	1	4	4	
79 NI	1	1	4	4	
80 Os/zTA	1	1	4	4	
81 o/uSt/kATU	1	1	4	4	
82 RRU	1	1	4	4	
83 RTAN	1	1	4	4	
84 Beste	24	24	108	+36	
	227	852	3.660	1.477	

6.2. Gainalorrak, alorrak eta errimak

Hona hemen, banan-banan, taulan emandako 70 errima-alorren (30) berri zehatzagoa: alor batzuk (33) gainalorren barnean doaz eta besteak (37) solte, aurrerago argituko denez.

N gainalorra (1-5) (31)

ALORRAK: AN, EN, ON, UN.

ERRIMAK:

AN: Am/nA (18), Am/nAK (18), ANDA (3), Am/nEts/z (1).

EN: EN (3), ENA (14), ENAK (3).

ON: ON (2), Om/nA (4), ONAK (2).

UN: UN (6), UNA (19), UNAK (11), UNEZ (1).

AN-EN-ON-UN: NEAN (26), NIK (7), NGO (2), NDI/t/k (5), NETAN (3), NTZEA (1), m/nATU (1), m/nIKAN (2)

GUZTIRA: 4 alor, 22 errima, 153 bertso, 655 oin eta 236 oinburu.

IN alorra (6)

ERRIMAK: IN (8), IÑA (9), IÑAK (4), IÑEZ (5), IÑIK (1), ÑETAN (2), INTZEN (1), INDA (1), INDUA (1).

GUZTIRA: 9 errima, 32 bertso, 137 oin eta 532 oinburu.

NDU alorra (7)

ERRIMAK: NDU (10), NDUTA (1).

GUZTIRA: 2 errima, 11 bertso, 46 oin eta 18 oinburu.

R gainalorra (8-11)

ALORRAK: a/eR, OR, UR.

ERRIMAK:

a/eR: AR (1), a/eRRA (5), a/eRRAK (10).

OR: OR (1), ORRA (1), ORRAK (2).

UR: URRA (8), URRAK (6).

(30) 6.2 puntu honen bukaeran argitzen da nola diren 70 errima-alor, nahiz eta taulan 84eraino iritsi zenbakiak.

(31) Parentesi arteko zenbaki hauek eta ondorengoak 6.1.eko taulako zenbaki berberak dira.

a/e-R-OR-UR: RRIK (7), RRIKAN (1), RREAN (11), RREZ (1), RREA (1), RRETAN (3).

GUZTIRA: 3 alor, 4 errima, 58 bertso, 259 oin eta 83 oinburu.

RTU alorra (12)

ERRIMAK: RTU (8), RTUA (2), RTUAK (2), RTUTA (7), RTZEN (1), RTZEA (1).

GUZTIRA: 6 errima, 21 bertso, 98 oin eta 35 oinburu.

LA gainalorra (13-16)

ALORRAK: a/eLA, OLA, ULA.

ERRIMAK:

a/eLA: a/eLA (17), a/eLEAN (2).

OLA: OLA (4).

ULA: ULA (1).

a/eLA-OLA-ULA: LAKO (4).

GUZTIRA: 4 alor, 28 bertso, 125 oin eta 67 oinburu.

IL alorra (17)

ERRIMAK: ILLA (7), ILLAK (2), ILLAN (1), ILTZEN (1), ILTZEKO (1).

GUZTIRA: 5 errima, 12 bertso, 51 oin eta 30 oinburu.

LDU alorra (18)

ERRIMAK: LDU (11), LDUAK (1), LDUTZEN (1).

GUZTIRA: 3 errima, 13 bertso, 51 oin eta 30 oinburu.

s/z, Ts/x/z, KI gainalorra (19-23)

ALORRAK: s/zI, Ts/x/zI, KI.

ERRIMAK:

s/zI: s/zI (16), s/zIA (8), s/zIAK (7), s/zIKO (1), s/zIKOA (1), TZEKO (1).

Ts/x/zI: Ts/x/zI (6), Ts/x/zIA (1).

KI: KI (1), t/kIA (4).

s/zI-Ts/x/zI: s/zTEN (5), s/z, TS/x/zITZEN (4), s/z, Ts/x/zITAN (1), s/z, Ts/x/zIRIK (2).

s/zI-Ts/x/zI-KI: ...ITA (6)

GUZTIRA: 3 alor, 15 errima, 64 bertso, 269 oin eta 76 oinburu.

b/d/g/rl gainalorra (24-26)

ALORRAK: GI, RI.

ERRIMAK:

GI: GI (3).

RI: RI (9).

GI-RI: b/d/g/rIA (7), b/d/g/rIAK (6).

GUZTIRA: 2 alor, 4 errima, 25 bertso, 106 oin eta 63 oinburu.

s/z/ts/tx/tzA gainalorra (27-34)

ALORRAK: A.s/z/ts/tx/tzA, Es/z/ts/tx/tzA, I.s/z/TZA, O.s/z/ts/tzA,
U.s/z/ts/tzA.

ERRIMAK:

A.s/z/ts/tx/tzA: As/zA (3), A.ts/tx/tzA (2), A.z/ts/tzAK (2),
A.s/z/tzAd/rA (1).

Es/z/ts/tx/tzA: Es/(ts)/zA (3).

I.s/z/tzA: I.TZA (4) ITZAK (1), I.TZEZ (1), I.s/z/tzAN (3).

O.s/z/ts/tzA: O.s/z/ts/tzA (7), O.s/z/ts/tzAK (4), O.s/z(ts)IKAN (1).

U.s/z/ts/tzA: U.s/z/ts/tzaA (4).

A...-E...: a/e,s/z/ts/tzAN (6).

O...-U...: O/u,s/zATUTA (1).

A-E-I-O-U...: z/ts/tzIK (3).

GUZTIRA: 5 alor, 16 errima, 46 bertso, 201 oin eta 102 oinburu.

b/d/gE gainalorra (35-39)

ALORRAK: Ab/d/g/rE, Eb/d/g/rE, Id/rE, (O...E, U...E).

ERRIMAK:

Ab/d/rE: Ab/dE (8).

Eb/d/g/rE: s/z/ERE (1).

Id/rE: Id/rE (1), IDEAK (1).

A...-E...: b/d/g/rEs/z (1).

A-E-I-...: b/d/g/rEA (3), b/d/g/rEAK (5), RETAN (3).

GUZTIRA: 3 alor, 8 errima, 23 bertso, 101 oin eta 44 oinburu.

b/d/g/r,o/u gainalorra (40-48)

ALORRAK: AGO, a/eRO, IRO, d/gU, GOA, Ro/u, Rd/g,o/u.

ERRIMAK:

AGO: AGO (11).

a/eRO: a/eRO (4).

IRO: IRO (1).

d/gU: d/gU (5).

GOA: GOA (1).

Ro/u: RUA (1).

Rd/g,o/uA: Rd/gUA (1).

a/eRO-IRO: ROA (2).

...: d/g/rUAN (29).

GUZTIRA: 6 arlo, 9 errima, 55 bertso, 236 oin eta 85 oinburu.

p/t/kU gainalorra (49)

ALORRAK: ...(*)

ERRIMAK: p/t/kUA (10), p/t/kUAK (2), NTa/e.TU (1), ITUTA (1),
t/kURIK (1), p/t/kUAN (9).

GUZTIRA: ... alor, 6 errima, 24 bertso, 98 oin eta 75 oinburu.

*s/zTs/x/z,e/i gainalorra (50-51)**s/z/ts/tx/tz,e/iAN erdigainalorra*

ERRIMA: s/z/ts/tx/tzIAN (15).

GUZTIRA: errima 1, 15 bertso, 70 oin eta 46 oinburu.

s/z/ts/tx/tzERA erdigainalorra

ERRIMA: s/z/ts/tx/tzERA (4).

GUZTIRA: errima 1, 4 bertso, 16 oin eta 13 oinburu.

TE alorra (52)

ERRIMAK: TE (5), TEA (3), TEAK (1), TEZ (2), p/t/kEAN (17),
TETAN (1), TEKOA (1), RTa/eTIK (2), ATEN (13), a/eTEKO (5),
a/eTENDA (1).

GUZTIRA: 11 errima, 51 bertso, 222 oin eta 41 oinburu.

s/zTE alorra (53)

ERRIMAK: s/zTE (2), s/zTEA (6), s/zTEAK (10), s/zTEAN (3),
s/zTERIK (4), s/z,t/KETAN (1).

GUZTIRA: 6 errima, 26 bertso, 111 oin eta 31 oinburu.

RRI alorra (54)

ERRIMAK: RRI (8), RRIA (16), RRIAK (11).

GUZTIRA: 3 errima, 35 bertso, 144 oin, 43 oinburu.

AI alorra (55)

ERRIMAK: AI (4), AIA (3), AIAK (2), AIAN (5), AIZ (2), AIETAN (1).

GUZTIRA: 5 errima, 14 bertso, 62 oin eta 24 oinburu.

s/z(ts),(tz)o/u alorra (56)

ERRIMAK: s/z,o/u (1), s/z,o/uA (2), s/z/(ts)UAK (7), s/zUAN (3),
s/z/ts/tzUETAN (1).

GUZTIRA: 5 errima, 14 bertso, 62 oin eta 24 oinburu.

NTs/z,o/uA alorra (57)

ERRIMA: NTs/zUA (2).

GUZTIRA: errima 1, 2 bertso, 8 oin eta 7 oinburu.

s/z,t/kl,u/o alorra (58)

ERRIMAK: s/z,t/kU (3), s/z,t/kUA (4), s/z,t/kUAK (4), s/zTUTA (2),
s/zTURIK (1), s/zTUKO (1), As/zKORIK (1).

GUZTIRA: 7 errima, 16 bertso, 64 oin eta 32 oinburu.

s/z,p/t/kl alorra (59)

ERRIMAK: s/z,p/t/kl (2), s/z,p/t/klA (3), s/z,p/t/klAK (1), s/z,p/t/klAN (1).

GUZTIRA: 4 errima, 7 bertso, 29 oin eta 17 oinburu.

ALDe/i alorra (60)

ERRIMAK: ALDE (1), ALDIAK (1), ALDIAN (2), ALDEKOA (1).

GUZTIRA: 4 errima, 5 bertso, 20 oin eta 12 oinburu.

a/e,R/l,Ib/d/gI alorra (61)

ERRIMAK: ARb/d/gI (1), a/eRb/d/gIA (3), a/e,R/l,Ib/d/gIAK (2).

GUZTIRA: 3 errima, 6 bertso, 25 oin eta 6 oinburu.

a/eNDeli alorra (62)

ERRIMAK: a/eNDIA (1), a/eNDIAK (1).

GUZTIRA: 2 errima, 2 bertso, 9 oin eta 6 oinburu.

ERA alorra (63)

ERRIMAK: ERA (14), ERAN (1).

GUZTIRA: 2 errima, 15 bertso, 62 oin eta 34 oinburu.

Id/rA alorra (64)

ERRIMAK: Id/rA (9), IRAN (4).

GUZTIRA: 2 errima, 13 bertso, 55 oin eta 16 oinburu.

ORA alorra (65)

ERRIMAK: ORA (2).

GUZTIRA: errima 1, 2 bertso, 9 oin eta 13 oinburu.

URA alorra (66)

ERRIMAK: URA (6).

GUZTIRA: errima 1, 6 bertso, 26 oin eta 13 oinburu.

RIO alorra (67)

ERRIMA: RIO (5).

GUZTIRA: errima 1, 5 bertso, 20 oin eta 9 oinburu.

Es/z,t/kA alorra (68)

ERRIMA: Es/z,t/kA (3).

GUZTIRA: errima 1, 3 bertso, 14 oin eta 7 oinburu.

Is/z,p/k/jO alorra (69)

ERRIMA: Is/z,p/k/jO (2).

GUZTIRA: errima 1, 2 bertso, 8 oin eta 7 oinburu.

LIA alorra (70)

ERRIMA: LIA (2).

GUZTIRA: errima 1, 2 bertso, 8 oin eta 5 oinburu.

OI alorra (71)

ERRIMA: OITAN (2).

GUZTIRA: errima 1, 2 bertso, 7 oin eta 5 oinburu.

Bertso bakarreko alorrak (72-83)

Orain arteko errima-alor eta gainalor guztiek bertso bat baino gehiago dute, aztergai dugun Uztapideren liburuan. Badira, ordea, bertso bakarra dutenak ere; honako hauek, hain zuzen: AIO, AJE, ALE, ANp/t/kA, AÑO, ISp/tA, JO, NI, Os/zTA, o/US/t/KATU, RRU, RTAN. Beraz, guztira hamabi.

Taularen datuak eta aurreko gainalor, alor eta errima horiek kontuan izaki, azpimarra eta argi ditzagun zenbait puntu:

Guztira 70 errima-alor osatzen dituzte Uztapideren *Sasoia joan da gero* liburuko bertsoen errimek. Taulan 83raino zenbatu badira ere (84.ak *beste* izenaren pean bildutakoak adierazten ditu, berehalaxe aztertuko direnak), parentesi artekoak (13, denera) ez dira berez alorrak, *gainalor-zatiak* baizik, 7.1. puntuan ikusiko denez.

Hamar gainalorretan biltzen dira aipatutako 70 errima-alor horietako 33. Gainalorrak giltza baten barnean ematen dira taulan. Batzuetan gainalor baten barnean eman daiteke erdigainalor bat edo beste, gainalorreko oinburu guztiz ez baina batzuek osatua. Erdigainalor hauek azpimarratuta ematen dira: *s/zI-Ts/x/zI, A-E, O-U...* Bestalde, bada gainalor bat alorrik gabea edo: p/t/kU, hain zuzen ere; agian egokiago litzateke esatea alor sakabanatuz dagoela osatua.

Azpimarra daramate taulan erdigainalor berezi bik ere: *s/z/ts/tx/tz,eiAN* eta *s/z/ts/tx/tzERA* alorrek; hauek *s/zTs/x/z,ei* gainalorra osatzen dute.

Taulan alorrei dagokien zutabean *beste* izeneko sail bat ipini dugu, 24 bertso eta 108 oinez osatua. Hauek, hain zuzen, gure sailkapenetik kanpo geratutako bertsoak dira, beren oin eta guzti. Ondoren argituko dugu sail hau.

6.3. Sailkatu gabe geratutako 24 bertsoak (beste)

Ezer baino lehen, zein bertsoz ari garen adieraziko dugu eta bakoitzaren berri emango. Hona hemen, liburuko ordena berean (azpimarratutako oinburuak berriak dira, alorretan azaldu gabeak, alegia):

3.4 (5): *supritzen, kupitzen, luzitzen, gutxitzen, bizitzen.*4.14 (4): *idia* (ideia), *bidia*, *ai dia* (ari dira), eskubidia.8.10 (4): *baguaz, dijuaz*, amilduaz, bilduaz.9.4 (6): euritan, sarritan, begitan, egitan, *zaitan, egualditan.*

9.11 (6): kanpuan, lekuan, juan, onduan, moduan, munduan.

- 10.7 (4): labia, gabia, obia, *badia* (badira).
 17.13 (4): orduan, *saltuan*, kantuan, juandakuan.
 18.4 (6): *illunpetan*, benetan, danetan, garretan, txarretan, zorretan.
 18.10 (6): lanikan, danikan, onikan, *egiñagatikan*, *larunbatetikan*, *paltikan*.
 27.5 (4): *batzutan*, *puntan*, *dutan*, *dirutan*.
 27.8 (4): bidia, jendia, *dia* (dira), obia.
 28.13 (4): *bietan* (ordu-), aietan, garaietan, *goietan*.
 39b.1 (5): goizian, oi zian (ziran), atian, batian (batera), bitartian.
 44.10 (4): *aldatu*, *moldatu*, *saltatu*, *paltatu*.
 45.8 (5): *kejatu*, pekatu, *merkatu*, artu, sartu.
 47.7 (4): *pabrikari*, lanikan, andikan, danikan.
 48.6 (4): *txutik*, *petxutik*, estutik, eskutik.
 50.8 (4): egia, *gaztedia*, ibilia, geiegia.
 55.4 (4): sarritan, erritan, alditan, aspalditan.
 56.9 (4): aietan, oietan, garaietan, mendietan.
 60.4 (4): maia, aundia, *Gabiria*, bertsolaria.
 62.10 (5): zanian, gañian, *jakiñan gañian*, bazkunian, izenian.
 64.2 (4): askotan, *lotan*, besotan, *pelotan*.
 67.11 (4): neurritz, egiz, erriz, *berriz*.

Beraz, 24 bertso horien 108 oinetatik 36 oinburu berri dira (taulan +36 honekin adieraziak) eta gainerako 72ak zahar. Horien azterketak eskain diezaguke argirik.

Hiru bertso, 4.14, 10.7 eta 27.8 berez *b/d/g/rE* gainalorrekoak ziratekeen, baldin eta *ai dia*, *badia* eta *dia* oinik ez balute. Hori horrela, bi eratara joka genezakeen alorrak mugatzean: 1) egin dugun bezala, hiru bertso hauek salbuespen gisa kanpoan utziz edo 2) *ai dia*, *badia* eta *dia* oinak gainalor horretako gainerakoen gainalorkidetzat joz eta gainalorra *b/d/g/rE* ez baina *b/d/g/r,eli* bezala mugatuz. Lehenengo aukera hobetsi dugu. Dena dela, bigarrrena ere egokia zatekeen. Beraz, neurri batean eztabaidagarria da guk moldatutako sailkapena; Uztapideren errima-sistemak bai bait du zenbait salbuespen eta inkongruentzia antzeko edo, aurrerago ikusiko dugunez.

Bi bertso, 9.11 eta 17.13, gainalor berekoak ziratekeen, baldin eta *p/t/kU* eta *d/g/rUAN* alorrak berezi ordeztu batean bildu izan bagenitu *d/g/r/p/t/k/ljUAN* arloan. Bigarren aukera honen aldeko arrazoirik bagenuen: 1) *bietan* azaltzen da *juan* oinburua eta 2) horrela, goian aipatu bi bertsoak ez ziratekeen sailkapenetik kanpo geratuko. Dena dela, egindako aukera jo dugu egokiena, bi bertso hauek osatzeko Uztapide bi gainalortetako oinburuz baliatu zela pentsatuz.

Bi (gain)alorretako oinburuz baliatu izana nabarmenagoa da 39b.1 eta 55.4 bertsoetan. Garbi daude bi oinburu-multzoak, nola 39b.1 bertsoan (batetik, *s/z/ts/tx/tz,e/iAN* erdigainalorreko *goizian* eta *oi zian* eta, bestetik, TE alorreko *atian*, *batian* eta *bitartian*) hala 55.4 bertsoan ere (batetik, RRI alorreko *sarritan* eta *erritan* eta, bestetik, *a/e,R/l,b/d/gI* alorreko *alditan* eta *aspalditan*). Ia beste hainbeste gertatzen da 18.4 bertsoan ere, non batean ikusten bait ditugu *N* gainalorreko *benetan* eta *danetan* eta *a/e,o,uR* gainalorreko *garretan*, *txarretan* eta *zorretan*. (“Ia beste hainbeste” diogu, *ilunpetan* oina geratzen bait da solte; nahiz eta *ilun* oinburua *N* gainalorrekoa izaki, *ilunpetan* ere ia bertakotzat joa izan daitekeen.) Hain da nabarmena bi alorretako oinburuz baliatu izana, alor bereko oinak elkarren ondoan bait doaz bertsoan, hasieran edo bukaeran, baina inoiz ez nahasian.

Era berean, bada 24 bertsoetan bi (gain)alorretako oinez osatutako beste bat: 62.10 bertsoa, alegia. Horra hor batera, *N* gainalorreko *zanian*, *bazkunan* eta *izenian* eta *IN* alorreko *gañian* eta *jakiñan gañian*. Hemen nahasiago ikusten ditugu (gain)alor ezberdinetako oinak, baina ez hain nahasian ere; elkarrekin bait doaz *IN* alorrekoak (32).

Beste zenbait bertsoetan ez da hain garbi ikusten Uztapide bi alorretako oinburuz zerbitu izana, oinburu bakarra geratzen bait da alorrez kanpo; hala nola, 28.13 bertsoan *bietan* oina, 50.8 bertsoan *ibilia*, 56.9 bertsoan *mendietan* eta 67.11 bertsoan *egiz* oina. Oinburu solte horiek salbuespentzat har zitezkeen, esate baterako, 56.10 bertsoa *pamiliak* oina bezala, berez *LIA* arlokoa izaki, *RRI* alorrekoekin batera jarri bait dugu. Salbuespenak egin beharrak eta izandako zalantzak sistematizazioaren zailtasunaren adierazgarri dira eta Uztapidek bere bertso gintzan erabilitako lizentzien (33) erakusle.

Arestian aipaturiko bertso horietako oin solteek (*bietan*, *ibilia*, *mendietan* eta abarrek) beren alorra badute ere, ez da hala gertatzen 3.4 bertsoa *supritzen* eta *kupitzen* oinekin edo 8.10 bertsoa *baguaz* eta *dijuaz* oinekin; ezta 9.4eko *zaitan* oinarekin eta 47.7ko *pabrian*, 48.6ko *txutik* eta *petxutik* eta 64.2ko *lotan* eta *pelotan* oinekin ere. Eta oin hauek beste alorretako oinekin elkartu ditu Uztapidek bertsoak osatzeko: *supritzen* eta *kupitzen* *s/zI-Ts/x/zI* erdigainalorreko *luzitzen*,

(32) Hona hemen aipatutako 62.10 bertsoa, *gañian* oinen poto-arriskuarekin jolasean:

Erregalo denbora
iritxi zanian,
zillarrezko bandeja
zegon mai gañian;
aurrez jarria nengon
jakiñan gañian,
sekretario jaun bat
bazan bazkunan,
artxek eskeñi ziran
denen izenian.

(33) “Lizentzia” diogu, halakotzat jo bait ditzakegu Uztapideren sistematizazioaren barnean, nahiz eta beste sistematizazio bat duten bertsolarietan gerta daitekeen hala ez izatea.

gutxitzen eta *bizitzen* oinekin; *baguaz* eta *dijuaz* LDU gainalorreko *amilduaz* eta *bilduaz* oinekin; etab. Badu honek garrantzirik Uztapideren bertsogintza argitzeko; baita bat-bateko bertsogintza hurbilagotik ezagutzeko ere: bertsolariak ez du edozein hitz hartuko bere bertsoen oinetako, lagunak dituenak baizik; eta inoiz hitz bitxiren bat sartzen badu, lehendik sailkatuta dituen oin-multzoetara joko du lagun hoskidearen bila. Eta erabili nahi duen oinak antzeko lagunik ez badu? Bilatu egin behar nola edo hala, 27.5 eta 44.10 bertsotan gertatu den bezala. Puntu honetan aztertzen ari garen 24 bertsotako bi hauek ez bestek dituzte puntu guztiak erabat berriak, gainerako (gain)alorretan atera gabeak: *batzutan*, *puntan*, *dutan*, *dirutan* eta *aldatu*, *moldatu*, *saltatu*, *paltatu*.

Eta puntu honetako bertso guztiak azaletik bada ere aztertzeko, ez zaizkigu hiru besterik gelditzen. Bat, 45.8 bertsoa, *RTU* alorrean sar genezakeen, alor honetako oin-zerrendan bai bait dago salbuespenezko oinik (*batuta*, *tratu...*; baita 45.8 bertso honetako *merkatu* honen hain gertukoa den *markatu* ere); baina *kejatu* oinak urrun samar dagoela dirudi. Beste bertso batek, 18.10 bertsoak alegia, badu 18.4 bertsoarekin gertatutakoarekin antzik, eta haren ondoan joan beharko luke agian. Eta, azkenik, 60.4 bertsoa gelditzen zaigu. Lau oinekoa izaki, hiru alorrekoak ditu: *AI* alorreko *maia*, *aleNDeli* alorreko *aundia* eta *RI* alorreko *Gabiria* eta *bertsolaria*. Hona hemen bertso osoa, merezi du eta (“Idiazabal’ko Zepai saria” izeneko sailekoa da):

Bost gizonekin osatutzen zan
an zeguan epai-maia:
Aita Zabala lenbizikua
eta Bordari aundia;
beste aldetik Olea zegon
ta Luzio Gabiria,
ta Abel Muniategi berriz
Bizkaiko bertsolaria.

Bat behar eta, hau da gure iritzirako *Sasoia joan da gero* liburuko berrosik ahulena oinez; baina oso baliotsua, puntu honetako beste 23 bertsoak bezala. Batetik, liburu horretako bertsoak idatziak izanik ere, bat-bateko bertsoen teknikaz eginak dauden seinale eta, bestetik, Uztapideren bertsogintzaren erakusgarri.

7. ERRIMATEGITIK OIN-ERRIMEN ALMAZENERA

Izan dugu aurreko ataleko azken puntuan zertxobait gelditzeko arrazoirik. Aztertu ditugun hogeitalau bertso horiek sistema bateko salbuespen direlakoan bait gaude. Izan ere, hau da gure hipotesietako bat: Uztapidek bere bertsogintzan erabiltzen dituen oinek eta errimek sistema bat osatzen dutela. Eta sistema horretan badago esparrutik eta arautegitik ihes egiten duen elementurik: besteak beste, aurreko puntuan ikusitako bertsoak.

“Sistema” kontzeptuak multzo ordenatuen eta arauz elkarlotutako elementuen aurrean jartzen gaitu. Errealitateko arlo asko ulertzeko, aztertzeko eta sakontzeko tresna egokia eta erabakiorra suertatu da “sistema” kontzeptua; baita sarri erabilia ere. Horri esker, hasieran nahasmendua eta nahaspila dirudien eremuan

ordena sumatuko dugu pixkana-pixkana, eta halabeharraren azpian araua aurkituko... eta ulertezina ulerterrazagoa bihurtuko zaigu.

Berdin gertatu zaigu Uztapideren oin eta errimekin ere (baita beste hainbat bertsolarirenarekin ere). Hasieran mundu ulertezina osatzen zuten oinek eta errimek; zaila eta korapilotsua. Pixkana-pixkana razionalagoa bihurtu zaigu mundu bihurri hori; eta ulerterrazagoa.

Hemen ilunpeak argitzen, korapiloak askatzen, muturrak lotzen eta ezkutuko loturak eta arauak argira ateratzen saiatzen ari gara.

Salbuespenak aztertuta, has gaitezen zazpigarren atal honetan Uztapideren *Sasoia joan da gero* liburuko bertsoen oinek eta errimek osatzen duten sistemaren berri zehatzagoa ematen, 550 eta 551. orrialdeetan azaldutako taula lagun.

7.1. Hirurogeitamar errima-alor

Sasoia joan da gero liburuko 852 bertsoetatik (34) salbuespenezko 24ak kenduta gelditzen diren 828 bertsoen errimek 70 errima-alorretan banatzen dira, 6.2. puntuan azaldu bezala.

Errima-alor horietako batzuek gainalorrak osatzen dituzte bilduta; besteak, berriz, solteak izaki, ez dira gainalorretan biltzen.

7.1.1. Gainalorrak

Honako zortzi gainalor hauek osatzen dituzte errima-alor horietako 30ek: 1) *AN-EN-ON-UN*, 2) *a/eR-OR-UR*, 3) *a/eLA-OLA-ULA*, 4) *s/zI-Ts/x/zI-KI*, 5) *b/d/g/r/l*, 6) *A.s/z/ts/tx/tzA-E...A-I...A-O...A-U...A*, 7) *Ab/d/g/rE-E...E-I...E-(O...E-U...E)* eta 8) *dlg/rUAN*. Badira beste bi gainalor berezi ere, (erdi)gainalor sakabanatuz edo osatuak: 1) *p/t/kU* eta 2) *s/zTs/x/z,eli*, hau *s/z/ts/tx/tz,eliAN* eta *s/z/ts/tx/tzERA* erdigainalorrek osatua.

Bestalde, badira taulan, ALORRAK izeneko zutabeen, azpimarratz adierazitakoak eta berez alorrak ez direnak (honexegatik parentesi arteko zenbakiez zenbatu ditugu). Horiek dira daudenen gainalor horietako alorrek amankomunean dituzten errimez eta oinburuz osatutako gainalor zatiak: *amankomuneko gainalor-zatiak*, alegia. Amankomuneko gainalor-zati hauek gainalorreko arlo guztiei legezkieke edo batzuei bakarrik. Lehenengoak *amankomuneko gainalor-zati orokorrak* dira; bigarrenak, berriz, *amankomuneko gainalor-zati partzialak*. Taulan ageri denez, denera 16 dira: 9 orokor eta 7 partzial. Partzial hauetako bi arestian erdigainalor izenez adierazitakoak dira: *s/z/ts/tx/tz,eliAN* eta *s/z/ts/tx/tzERA*; gainerako bostak, berriz, honela banatzen dira gainalorrez gainalor: laugarren gainalorrak bat du (*s/zI-Ts/x/zI*), seigarrenak bi (*E...-A... eta O...-U...*), zazpigarrenak bat (*A...-E...*) eta zortzigarrenak bat (*a/eRO-RO*).

Seigarren gainalorreko zenbait bertso aipatzea egoki datorkiguke amankomuneko gainalor-zati orokorrei eta partzialei buruz esandakoa zertxobait argitzeko; baita laburbide ere, luzeegi joko bait liguke zortzi taulak ematea eta aztertzea.

Beraz, hona hemen, adibide gisa, seigarren gainalorreko (.s/zTs/x/zA) alor eta gainalor-zati bana, pare bat argibiderekkin batera:

A.s/zts/tx/tzA alorrekoa

Gazte denboran Euskalerrian
pasiak amaika plaza,
azkeneko aldiz ikusirikan
dirade lau urte pasa;
Uztaillaren ogei ta lauan
eman zun azken arnasa,
alako lagun maite batekin
ez da aztutzen erraza.

(“Zepai” bertso-saileko 26.19 (4) bertsoa; 151. or.)

Alor honetako beste bertsoak

A.s/z/.ts/tx/tzA errimakoak: 15.3 (4), 35.7 (4), 51.10 (5), 59.10 (5).

A.s/ts/tz/zAK errimakoak: 54.7 (4), 56.18 (4).

A.s/tz/zAd/rA errimakoa: 5.8 (4).

Es/zts/tzA alorrekoa

An utzi zuten basarria ta
lengo etxien babesia,
bolara artan ipiñi zuten
makiña bat esamesa;
ondo pentsatzen jarri ezkeru
ez da aztutzen erreza,
gaur ez daukate beste penikan
lenago etorri eza.

(“Uztapide”ko pameliaren kaleratzea” saileko 20.16 (4) bertsoa, 121 or.)

Alor honetako beste bertsoak

Es/ts/zA errimakoak: 62.2 (5), 64.8 (4).

A.s/z/ts/tx/tzA-Es/z/ts/tzA gainalor-zati partzialaren adibidea eman aurretik, azpimarragarria iruditzen zaigu *erraza/erreza* oinaren bikoiztasuna, gainalor-zatiaren aurrelari (baita aipatutako bertso bietan lerro oso bat berdina izatea ere, *a/e* hori gorabehera: ez da aztutzen erraza/erreza).

A.s/z/ts/tx/tzA-Es/z/ts/tzA gainalor-zati partzialekoa

Gu oso lagun izanak giñan
 biok ogei urte pasan,
 da perlesiak jo ninduen ni
 bein Anoeta'ko plazan.
 Berriz kantatuko ez nuela
 ezin zitekien esan,
 baiña ez dago zer egiñikan
 onela komeni bazan.

(“Xalbador” saileko 55.3 (4) bertsoa; 278 or.)

Alor honetako beste bertsoak.

a/e/.s/ts/tz/zAN errimakoak: 4.6 (4), 8.3 (4), 18.9 (6), 22.6 (5),
 62.8 (5).

I.s/z/tzA alorrekoa

Zubeltzu zarreatik egin
 bear baldin banu itza,
 gaurko gizonak nere ustetan
 oso biurri gabiltza:
 alkarri ezin sufritu ezinda
 ori da daukagun gaitza,
 beñere ez gera ondo izango
 ola baldin bagabiltza,
 ez Zubeltzuren antzeko asko
 mundu onetan balitza.

(“Zubeltzu” saileko 22.8 (5) bertsoa; 130. or.)

Alor honetako beste bertsoak

I.TZA errimakoak: 9.5 (6), 23.4 (4), 64.9 (4).

ITZAK errimakoa: 56.14 (4).

I.TZEZ errimakoa: 63.3 (4).

I.s/tz/zAN errimakoak: 27.3 (4), 36.1 (4), 40.10 (2).

O.s/z/ts/tzA alorrekoa

Gaztetan probatua
 ziñaden morrontza,
 ikusiko ziñuzen
 berua ta otza;
 orain nunaitik dator
 eskutara sosa,
 berak ematen baitu
 bizitzeko poza
 zeure pameliakin
 urte askoz goza.

(“Jose Lizaso'ri” saileko 51.8 (5) bertsoa; 263. or.)

Alor honetako beste bertsoak

O.s/ts/tz/zA errimakoak: 3.2 (5), 17.8 (4), 37.6 (4), 42.8 (4),
54.5 (4), 59.1 (5).

O.s/ts/tz/zAK errimakoak: 8.2 (4), 14.10 (4), 21.7 (4), 51.4 (5).

O.s/ts/zIKAN errimakoa: 26.15 (4).

U.s/z/ts/tz/A alorrekoa

Zestua'tikan espero zuten
izango zala laguntza,
ezin zeikela ikusitzian
serio jarri zan gauza;
ura gero ta arruago ta
denborale txarrak luza,
orduko batzun erabakia
utzitzia autobusa.

(“Osinbeltz’eko ezbearra” saileko 28.8 (4) bertsoa; 163. or.)

Alor honetako beste bertsoak

U.s/ts/tz/zA errimakoak: 15.4 (4), 24.7 (4), 37.13 (4).

O.s/z/ts/tzA-U.s/z/ts/tzA gainalor-zati partzialekoa

Gizona bere andriarekin	ez da ezer ere irabazitzen
dago ondo osatuta,	gerorako luzatuta,
urte batzuek pasako ditu	kontu obia izango baitu
nai bezela gozatuta;	lenbailen esposatuta.

(“Gizonaren udara” saileko 33.7 (7) bertsoa; 189. or.)

Ez dago gainalor-zati honetako beste bertsoarik.

Oso bertso egokia da hori errimaren inguruko honako hau argitzeko: errima askotan oinburuan bertan hasten dela eta atzizkia eranskina besterik ez dela. Esate baterako, bertso horretan -TUTA atzizkia kenduta ere hoskideak dira lau oinak: *osa*, *goza*, *luza* eta *esposa*; *O.s/z/ts/tzA* alorrekoak bi lehenengoak eta azkenekoa (*O.s/z/ts/tzA* alorreko adibidean ere azaldu da *goza*) eta *U.s/z/ts/tzA* alorrekoa hirugarrena (alor honetako adibidean ere azaldua).

A...A-E...A-I...A-O...A-U...A gainalor-zati orokorrekoa

Guri etzaigu palta	ez sendatzen gaitzik,
gorputzeko otzik,	ontan iraun baizik,
ardo pixka bat ezin	non det lengo antzik?
eran det utsik;	Len etzan akatsik,
janarekin ere ez	berriz osatzeko're
piperrik da gatzik,	ez esperantzik.
mediku jaunari ez	
kontra egin itzik;	

(“Guk sasoi a bagendun” saileko 6.11 (9) bertsoa; 51 or.)

Gainalor-zati honetako beste bertsoak

ts/tz/zIK errimakoak: 66.7 (4), 67.7 (4)
s/zATU errimakoa: 37.7 (4). (35)

Azken gainalor-zati honetako bertsoen 21 oinei begiratuta, konturatzen gara horietako 16 atereak direla aztergai dugun gainalorreko beste alorretan; baina honako 5 hauek berriak direla: *antzik* (6.11.7; 67.7.2), *baizik* (6.11.6), *beltzik* (67.7.4), *gatzik* (6.11.3), *zalantzik* (67.7.1).

Berdin gertatzen da bi gainalor-zati partzialetan ere: 13 oinburu dira berri lehenengoan eta 2 bigarreanean.

Bestalde, lehen emana dugu 544. or.) *N* gainalorreko gainalor-zati orokorran oinburu berrien zerrenda osoa.

Gainalor-zatietako oinburu berrien kopurua ere adierazita dago 550-551. orrialdetako taulan, gehi (+) ikurra aurrean dutela: +13, .s/zTs/x/zA gainalorreko *A...A-E...A* zatikoak; +2, *O...A-U...A* zatikoak; +5 zati orokorrekoak; +48 *N* gainalorreko zati orokorrekoak...

Eta buka dezagun datu esanguratsu batekin: guztira, 2.145 puntu dituzte hemen ikusitako hamar gainalor hauek, *Sasoia joan da geroko* %60, alegia (2.145/3.552).

7.1.2. *Alor solteak*

Hamar gainalor horietatik kanpo geratzen diren alor solteak 37 dira. Halere, kontuan izan behar da alor solte hauetako bost, gainalor batzuetatik oso gertu daudela eta neurri handi batean gainalor horietakoak direla (zalantzan ere ibili gara sartu ala ez, aurreko orrialdeetan idatzi dugunez): *IN* eta *NDU* 1. gainalorrekoak; *RTU* 2.ekoak eta *ILLA* eta *LDU* 3.ekoak (36).

Hamar gainalorretako puntuei gertuko alor hauetakoenak (386) batuz gero, denera liburu osoko %71 hartzen dute (2.531/3.552). Eta gainera hiru alor solte

(35) Bitxikeria moduan, hona hemen bertsoa:

Bein erabaki genduanian
ezkontzak etzun luzatu,
zerbaiten palta sentitzen nuan
da egun artan osatu;
len jaten nengon etxe artako
neskatxakin esposatu,
arrezkeroko egun guziak
berakin ditut pasatu.

Interesgarria da aipatu berria dugun *O...A-U...A* gainalor-zatiko adibidearekin alderatzeko: 1) hiru oinburu berdinak dituzte; 2) berriro ere hoskideak dira lauak, atzizkiaren hoskidetasunik gabe ere; 3) zein zaila den erabat oinburu bereko bertsoak aurkitzea.

(36) Bitxikeria moduan, ohar gaitezen zein antzeko diren 1, 2 eta 3. gainalorrak; 2.ak *IR* ez izatea.

ugarienenak gehituta [TE (222), RRI (144) eta s/zTE (111)], denera 3.008ra iristen dira puntuak, liburu osoko % 85era, alegia. Bada iristea gero!

Alor urrienetik hasita, berriz, eta gainalorretakoak ere kontuan hartuta, 19 alor dira bertso bakarrekoak: 12 solte (AIO, AJE, ALE, ANp/t/kA, AÑO, ISp/tA, JO, NI, Os/zTA, o/uSt/kATU, RRU, RTAN) eta 7 gainalorreko (ULA, Eb/d/g/rE, Id/rE, IRO, GOA, Ro/u, Rd/g,o/uA). Horiezaz gain, bi bertsokoak dira sei alor, hirukoak hiru eta lauokak beste lau.

Honako hauek dira, aldiz, puntu gehieneko alorrak: arestian aipatutako TE (222), RRI (144) eta s/zTE (111) horietaz gain, AN (173), UN (165), s/zI (147) eta IN (137). Denera, 1.099 puntu eta 255 bertso hartzen dituzte: liburuko % 31, hain zuzen; ia-ia herena.

7.2. Hirurogeitamar errimaburu

Bigarren atalaren sarreran esan bezala, bi bide genituen *Sasoia joan da gero* liburuko oin-errimak sistematizatzeari ekiteko: oinetatik hasi edo errimetatik hasi. Oinen sistematizatzearen bidea hautatuta, honaino iritsi gara; baina berdin-berdin iritsiko ginatkeen errimena hartu izan bagenu ere, bide erdian errima-alorrekin egingo bait genuen topo, hau da, oinek eta errimek bat egiten duten taulekin (ikus 5.1.). Dena dela, puntu honetaraino ekarri dugun bidea dela eta, eman lezake errimak gehiegi aztertu gabe pasa ote ditugun; gera gaitezen, beraz, zertxobait errimen eremuan.

Itzul gaitezen 6.1. puntuko taulara. Denera, 227 errima ezberdin darabiltza Uztapidek *Sasoia joan da gero*ko 842 bertsoetan; beraz, bada aberastasunik errimaren eremuan ere. Baina, zorrotzago begiratu gero, oinekin gertatua gertatzen da errimekin ere: hasierako 3.660 oinak 1.447 oinburutara bezala jaisten direla 227 errimak ere 70 errimaburutara, eta hauek ere 70 errima-alorretan biltzen direla haiek bezala. Baina ez gara hemen gehiago geratuko, nahiz eta mereziko lukeen.

7.3. Sistematik almazenera

Xehetasun handiz ez bada ere, saiatu gara osatu (berrosatu) dugun oin eta errimen sistemaren berri ematen. Azken batean, 70 alorretan laburbiltzen dira *Sasoia joan da gero*ko 3.660 oin eta 227 errima ezberdinak. Orain ulerterrazagoa eta bilduagoa azaltzen zaigu hasieran oin eta errimen multzo nahasia eta ugaria zena.

Baina eman dezagun urrats bat gehiago eta jar dezagun ordena pixka bat Uztapideren Oin-errimen almazenean. Lan honetan zehar, han-hemenka, aurre-ratutako zenbait puntuz baliatuko gara: oin bakarreko sarrerak (4.2.1), bi datu azpimarragarri (4.2), oinburu solteak (5.2.2), oinburu-multzoak (5.2.4), oinburu nagusiak (5.2.5) eta oinburu-ardatzak (5.5).

7.3.1. *Lau maila*

Berriro ere oinetara itzuliz, lau maila bereiz ditzakegu Uztapidek erabilitako (eta ez erabilitako) oinen artean.

1. *Erabili gabeko oinak*

Gurekiko, oso da garrantzizkoa honako puntu honetaz jabetzea: bertsolariak ez duela edozein hitz oin bezala erabiltzen; bestela esanda, mugatua dela bertsolari baten oin-kopurua. Garbi dago Uztapideren kasuan ere. Har ditzagun, esate baterako, erakusleak: au, auek, ori, oiek, ura, aiek (Uztapideren grafiaz). Eta konta ditzagun zenbat aldiz erabiltzen dituen horrela edo beste formetan:

– au, auek: *onetan* (3), *oni* (1)

– ori, oiek: *ori* (5), *ori da* (1), *orri* (2), *orrena* (2) *orretan* (2), *ortan* (1), *ortatik* (1), *ortaraño* (1), *oietan* (2), *oitan* (1)

– ura, aiek: *ura* (5), *artan* (1), *artatik* (1), *aietan* (3)

Zergatik forma batzuk hainbestetan, beste batzuk hain gutxitan eta beste batzuk (au, auek, oiek, aiek...) behin ere ez? Besteak beste, batzuek badituztelako oin hoskideak aukeran Uztapideren almazenean eta besteak oso nekez topa ditzaketelako. Eta horiekin bezala gertatzen da gainerako hitzekin ere.

Beraz, kopuruz mugatua da Uztapideren oin-multzoa, mintzatzean erabiltzen den ohizko hiztegia baino askoz mugatuagoa. Bestela esanda, asko eta asko dira Uztapideren –eta edozein bertsolariaren– Oindegitik kanpo geratzen diren oinak; baita errimak ere.

Gure kasuan, *Sasoia joan da geroko* 3.660 oinak 2.100 oin ezberdin inguruan utzi ditugu lehen inausketan eta 1.450 oinburu inguruan bigarrenan. Beraz, 1.450 oinburu horiek ditugu lehen hurbilketa honetan Uztapideren almazeneko gai.

2. *Oso aldian behineko oinburuak*

Uztapidek erabilitako oinetara etorritz, badira 4.2.lean *oin bakarreko sarrerak* eta 5.2.2an *oinburu solteak* deitutakoak. Gogora dezagun 4.2.lean idatzia [528-529. orr., (22) eta (23) oin-oharrik gabe oraingoan]:

Guztira 832 inguru dira. Eta hiru sailetan bana ditzakegu:

Lehen sailean sar ditzakegu oso oinburu arraroak; gutxi erabiltzen diren hitzak, alegia; hitz bitxiak direlako edo/eta oso errealitate konkretuei lotuak. Esate baterako: *abaro*, *abelera*, *adurra*, *altabozikan*, *armairuan*, *arakintzan*, *arbiak*, *ardaillan*, *armak*, *arpana*, *arri!* (*arre!*, astoari mugitzeko esaten zaiona)...

Bigarren sailean izen nagusiei dagozkienak sar ditzakegu. Berezi egin ditugu; nahiz eta, errealitate konkretuei lotuak daudenez, aurreko sailekoak ere izan daitezkeen. Esate baterako: *Agirre*, *Aiako-arri*, *Arrua*,

Basarri, Bermeo'n, Bianditz, Bizkaia, Canarias'era, Donostia'ri, Ekaiña (kobazuloak), *Erreterin, Erroiari...*

Hirugarren sailean, berriz, sar ditzakegu bukaera edo errima bitxiko oinburuak edo errima antzeko duen bertso gutxi azaltzen direlako gehiagotan ateratzeko aukerarik izan ez dutenak. Esate baterako: *ajia, alde, aldiro, aldiz, aldrebes, alia, alkar, amets, ankak, antzirik, antzua...*

Sailen arteko mugak ez dira batzuetan garbi ageri, baina sailkapenak balio digu oro har nahi duguna adierazteko. *Oker handirik gabe esan dezakegu lehenengo eta bigarren saileko oinburuak ez direla Oin-errimen almazeneoak; ezta hirugarren saileko asko ere.* Edo, hain urrutira joan gabe, ez direla behintzat ohizko oinak.

Testuko azpimarra berria da, orain egina; horretara itzuli nahi bait dugu: Uztapideren Oindegian behin bakarrik azaltzen diren 832 oinburu horietako gehienak ez dira Oin-errimen almazeneoak; almatzen horretan ez dute lekurik hartzen. Bertsoetako gaiak edo momentuan momentuko arrazoi batek tirata datoz bertsoetara, eta baldin almazenean oinburu hoskiderik badago.

Beraz, jarrai dezagun almazenerako gaien kopurua urritzen eta zehazten: 1.450 oinburuei behin bakarrik ateratzen diren horietako gehienak kenduz, 650 inguru geratzen zaizkigu Uztapideren Oin-errimen almazenerako.

3. *Maiztasun txikiko oinburuak*

Hauek dira Oindegian bizpahirutan edo gehixeagotan ateratako oinburuak; hau da, behin baino gehiagotan bai, baina ez hainbestetan erabilitakoak. Ez da erraza mugak zehazten. Dena dela, datozen mailako oinburukoengatik ingurukoak dira eta Oin-errimen almazeneoak, aurrekoak ez bezala.

4. *Maiztasun handiko oinburuak*

Ikusiak ditugu hauek ere lanean zehar: oinburu-multzoak (5.2.4), oinburu nagusiak (5.2.5) eta oinburu-ardatzak (5.5); adibide eta guzti ikusiak ere.

Horrela, bi oinburu-multzo azaldu ditugu: *aparte, arte* (noiz), *arte* (non), *bitarte, parte* eta *urte* oinburuek osatua eta *emate, eramate, erate* (edate), *esate, izate, jate* eta *juate* oinburuena (*eman, eraman, eran, esan, izan, jan* eta *juan* oinburuek osatua ere aditzera eman da). Oinburu nagusiez jardutean, berriz, guztira 16 aldiz ateratzen den *bat* oinburua eman dugu adibidetzat, *lan* (37 aldiz) eta *dana* (25 aldiz) oinburuekin batera; eta agian sail honetakoa dugu errima-alor osoko erdi oinburu-ardatz bezala hartu dugun *beste* ere. Oinburu-ardatzetako dago-kienean, hor aipatu ditugu *merio* (medio), *serio* eta *lenago*.

Berez maiztasun handikoak ez izanik ere, horiek bezainbesteko garrantzia dute Oin-errimen almazenean errima bati lotutako errimek. Gogora ditzagun 4.2.2an adibidetzat emanak: *dedin* eta *zedin*.

Horiek horrela, Uztapideren Oin-errimen almazenean gaia zehazteko honako galdera hauei erantzutea besterik ez zaigu geratzen: 1) lehen aipatutako 650

oinburuetan zeintzuk dira maiztasun handiko eta zeintzuk maiztasun txikiko?, 2) maiztasun handiko oinburuetan zeintzuk dira oinburu-multzoetako, zeintzuk oinburu-ardatz, zeintzuk oinburu nagusi, zeintzuk errima bati lotutako?

7.3.2. Uztapideren Oin-errimen almagaren egitura

Oraingoz erantzuteke utziko ditugu galdera horiek. Baina, oso labur bada ere, zerbait aurrera dezakegu Uztapideren almagaren egituraz.

Bi oinburu-sail nagusi ditugu almagaren bihotzean: batetik, oinburu-multzoak eta, bestetik, oinburu nagusiak, oinburu-ardatzak eta errima bati lotutako oinburuak. Oinburu-multzoak hogeitamarren bat izan daitezke; bigarren multzoak, berriz, gehixeago.

Almagaren bihotz edo erdigune horren inguruan daude behar diren etariko maiztasun txikiko oinburuak.

Eta hortxe bukatzen da almagara, nahiz eta zabalagoa izan Oindegia; beti bait dago almagara armiarma-sarearen gisa bertako ez diren oinak (bertsoari grazia berezia ematen diotenak, bestalde) bereganatzeko prest, baldin eta bere oinburuen hosi badi.

Beraz, hasierako 3.660 oinak oso kopuru urrira etorri dira azkenean beren errima eta guzti. Eta honaino iritsi nahi genuen hain zuzen, lanaren hasierako susmoak gidari eta 1.2.3 puntuan aipatutako Stern-en hitzak gogoan.

7.4. Oinburu erabiliak

Eman dezagun azkenik Uztapidek *Sasoia joan da gero* gehien erabiltzen dituen oinburuen berri. Hona hemen, besterik gabe, alfabetoaren arabera zerrendatuta, zortzi aldiz eta gehiagotan erabiliak. Parentesi arteko zenbakiak horixe adierazten du hain zuzen: zenbatetan erabiliak izan diren (kontuan izan behar da oinburuz ari garela eta ez oinez; beraz, eta esate baterako, adierazi bederatzi aldiz atera dela irakurtzean ez da ulertu behar adierazi oina bera bederatzitan atera denik; kasu honetan, adibidez, adierazi zortzitan atera da adierazten behin).

adierazi	(9)
al du	(8)
aparte	(8)
arte (noiz)	(13)
arte (non)	(9)
artu	(22)
asi	(14)
aurrean	(9)
aurrena	(9)
azi	(8)
aztu	(9)
bakarra	(8)
basarria	(10)

bat	(16)
baten	(8)
bearra	(13)
beldurra	(14)
berri (notizia)	(8)
berri (adj.)	(13)
beste	(22)
bezela	(8)
bitarte	(20)
bizi	(29)
dago	(8)
dana (zenb.)	(25)
dana (ad.)	(11)
degun	(9)
dira	(9)
diranak	(10)
ederra	(14)
egin	(15)
egun	(27)
ekarri	(8)
eman	(17)
erria	(13)
esan	(17)
esate	(14)
etorri	(9)
gabe	(11)
gaiña	(8)
galdu	(11)
garaia	(12)
gazte	(17)
genduan	(10)
gendun	(10)
goguan	(11)
guzia	(13)
guztia	(12)
ikusi	(21)
irabazi	(9)
itzegin	(9)
izan	(15)
izate	(20)
jabe	(9)
jai	(10)
jarri	(12)
jate	(17)
juate	(13)
lan	(39)
lenago	(11)
lurra	(11)
munduan	(8)

nago	(8)
nagusi	(8)
obe	(10)
on	(20)
onduan	(14)
orduan	(13)
osasan	(9)
osua	(8)
parte	(13)
sartu	(9)
txar	(12)
urte	(18)
zana	(13)
zar	(14)
zartu	(10)
ziranak	(10)

Kopuruaren arabera zerrendatuta, berriz, honako hauek dira ugarienak:

lan	(39)
bizi	(29)
egun	(27)
dana (zenb.)	(25)
beste	(22)
artu	(22)
ikusi	(21)
on	(20)
izate	(20)
bitarte	(20)

Azkenik, esan dezagun 78 oinburu horiek 1.003 aldiz izan direla erabiliak; beraz, % 27,4etan.

8. ONDORIOAK

Honaino iritsi eta hemen lana etenda ikusteak sor lezake irakurlearen baitan halako zera gazi-geza, egilearenean irrika eta egonezina sortzen duen bezalaxe: bide luzean ibili eta atarian gelditu beharra!

Baina Oindegia eta Errimategia, eskuz bada ere, eginak ditugun bezala, burutu gabea dugu Uztapideren Oin-errimen almazena. Eta hala izanik, hala eman behar aditzera.

Dena dela, begira dezagun atzera eta, honaino egindakoa ikusiz, zenbait ondorio atera eta jar gaitezen aurrera begira.

8.1. Zenbait ondorio

Ezer baino lehen, gogora dezagun behin-behineko lan baten aurrean gaudela eta, aurkezpenean esan degunez, bi berrespenen beharrean dagoela: informatikaz

berretsi beharko ditugu eskuz egindako Oindegia eta Errimategia, eta gu baino adituagoek eman beharko dute egokitzen Oin-almazeneraino ekarritako bidea eta prestatutako tresneria.

Halere, eta berrespenen zain, aurrera dezagun gure uste apala (ez ahal da erdi ustela izango!); bere behin-behinekotasunean ere, badu lan honek garrantzirik. Besteak beste, gure bat-bateko bertsogintzaren errimaren arazoa ikuspegi berritik ikusteko aukera eman digulako, eta lehen begiratuan hain zaila eta nahaspilatua dirudien oinen eta errimen eremua orain ordenatuagoa eta ulerterrazagoa azaltzen zaigulako. Horrezaz gain, informatikaren aldetiko berrespina ere jasoko balu, aurrerapauso bikaina emana izango genukeelako bertsogintzaren azterketan. Izan ere, 1) bertsolarien oin-errimak informatizatzeko egokiera eskainiko bait liguke, horrekin batera beste zenbait lan ahalbideratuz; 2) Uztapideren bertso-laginarekin eginga egin ahal izango bait genuke besteenarekin ere, bertsolari bakoitzaren Oin-errimen almazena berrosatuz; 3) bertsolari bakoitzaren Oin-errimen almazena zehaztuz, elkarren arteko antzak eta aldeak ikusi eta elkarrekin parekatzeko bidean izango bait ginatke, eta eskolak, joerak, estiloak, errimamotak eta abar zedarrikatzeko moduan.

8.2. Aurrera begira

Azkenik, jar gaitezen aurrera begira eta eman dezagun, egindako lana oinarri hartuta, egin daitezkeen beste zenbaiten berri:

Hasteko honako bi lan hauek burutu beharko liriateke:

1. Uztapideren Oin-errimen almazena berrosatzea, oinburu-multzo, oinburu-ardatz, oinburu nagusi eta abar zehaztuz.
2. Uztapideren Oindegia eta Errimategia informatikaz osatzea, horretarako behar den programa ere moldatuz.

Bada hirugarren lan bat ere, benetan tentagarria, eta Uztapideren Oindegian eta Errimategian oin harturik egin daitekeena, Oin-errimen almazenera bezala:

3. Uztapideren Oin-errimen almazenera erabilera. Oin-errimen almazena berrosatzean, zein oin eta zein errima eta nola dauzkan ordenatuak eta sistematizatuak ikusi dugun bezala, Oin-errimaren almazenera erabileran honako hauek ikusiko genituzke: nola baliatzen den oin eta errima horiez, zeintzuk aukeratzen dituen, zeintzuk dituen gogokoan, zeintzuk erabiltzen dituen moduin moduan, zeintzuk diren Uztapideren konstanteak eta joerak, nola ordenatzen dituen oinak bertsogintzan...; hitz batean, nola egiten zituen bertsoak Uztapidek. Gehiegixko lertizoke norbaiti hainbeste hurreratu ahal izateari Uztapideren bertsogintzaren barne-prozesura; baina uste dugu badagoela bide hori urratzen hasteko aztarnarik.

Bestalde, bertsolari-eskolei begira, ezin egokiagoa litzateke beste honako lau hau ere:

4. Gure lan honetan emandako ikuspegitik gidaren bat moldatzea, zenbait oinburu-multzo, oinburu-ardatz, oinburu nagusi eta abarren berri emanez.

Ondoren letozte beste zenbait bertsolariren Oindegia eta Errimategia osatzea. Basarrik behin ta berrito aipatu dituen hiru errima-moten ordezkariekin edo has daiteke:

5. Joera estuko Lasarteren Oindegia eta Errimategia (Uztapiderenen osagarri).
6. Joera lasako Balendin Enbeitaren Oindegia eta Errimategia.
7. Erdibideko Xalbadorren Oindegia eta Errimategia.
8. Basarriren beraren Oindegia eta Errimategia.

Interesgarria bezain argigarria izango litzateke beste honako hau ere:

9. Oin-errimak sistematizatzeko dituen bertsolari baten bertsogintza azterzea. Horrelakorik ere badagoelakoan bait gaude.

Eta gero gerokoak. Badago, beraz, zer eginik bat-bateko bertsogintzaren azterketan. Baita biderik ere, gure ustetan.

HIZTEGIA

Badira lan honetan lehenengo aldiz erabilitako zenbait termino berri eta birmoldatutako zahar pare bat, zerrendatzeari egoki deritzoguna. Horrela, termino horien zerrenda eskaintzen dugu Hiztegi honetan, lanean atera diren ordenari jarraiki gehienbat. Parentesi arteko zenbakiak adierazten du zein/zeintzuk orrialdetan aurki dezakeen irakurleak termino berri horien argibiderik egokiena.

Puntua	(510-511)
Oina	(511-512)
Oin ezberdina	(524)
Hitz-erro bereko oinak	(524-525)
Oinburua	(525)
Oindegia	(525)
Oin bakarreko sarrera	(528-529)
Azpisarrerarik gabeko sarrera	(529-530)
Errima-alorra	(530-532)
Errimaburua	(532)
Oinburu soltea	(535)
Salbuespenezko oina	(535-536)
Oinburu-multzoa	(536-538)
Oinburu nagusia	(538)
Oinburu-ardatza	(548-549)
Oin-ardatza	(548-549)
Errima-gainalorra	(538-545)
Errima-alor itxia	(545)
Errima-alor irekia	(545)
Barneko errima	(546)
Azaleko errima	(546)

Errima-alor bakuna	(545-547)
Errima-alor bikuna	(545-547)
Errima bakarreko errima-alorra	(548)
Erdigainalorra	(558)
Gainalor-zatia	(558)
Amankomuneko gainalor-zatia	(562)
Amankomuneko gainalor-zati orokorra	(562)
Amankomuneko gainalor-zati partziala	(562)
Oin-errimen almazena	(510-512)
Erabili gabeko oinak	(568)
Oso aldian behineko oinburuak	(568-569)
Maiztasun txikiko oinburuak	(569)
Maiztasun handiko oinburuak	(569-570)

ERRIMA UZTAPIDEREN BERTSOGINTZAN: EZAUGARRIETATIK SISTEMARA

Ausardiaren ausardiaz (ezjakinena izan nonbait ausardia!) bat-bateko bertso-gintzaren muinera iristeko erabakia hartu nuen behin batez. Eta bertsoaren osagaietako bat —errima— jo nuen begiz, hura aztertuz helburua lortzeko uste osoan. Bertsolari bat aukeratu behar gero, eta Uztapide nuen hautatu; eta haren bertso-sail bat ondoren, eta *Sasoia joan da gero* bertso-liburua berezi.

Uztapidek bere liburuan erabilitako errimak arakatu eta arakatu jarri nizkion oinarriak ondorengo lanari. Uste baino lehenago etorri zitzaidan lehen urrats haien barri emateko aukera, Euskaltzaindiak 1988an Manuel Lekuona ikerketasaria eratu zuenean. Hala moldatu nuen “Uztapideren Oin-errimen almazena berrosatzen” izeneko lana, sari hura jaso eta aurreko orrialdeetan doana.

Izenburuaz gainera, badu lehen lan horrek izenburu-ondokorik ere, honela amaitzen dena: “ondorengo lan zabal eta osoago baten hasikin”. Eta badu zortzigarren atal bat ere, “Ondorioak” izenburukoa, aurrera begira geratzen dena, lan zabal eta osoago horren nondik-norako nagusiak aipatuz. Lan hori era askotan bidera daiteke; lan apalagoak eginez, besteak beste. Lan apal horietako bat dugu hemen ondoren datorrena.

Bigarren lan hau lehenengoaren haritik dator, eta haren jarraipen eta osagarri da. Haren oinarri eta asmo berak ditu eta haren ondoren irakurrita ulertzen da bete-betean. Baina badu entitate propiorik ere; nahiz eta, hemen honela argitaratzean, zenbait kasutan lehenengo lanaz baliatu, liburu berean gauzak ez alferrik errepikatzearren. Esate baterako, lehenengo lanean azaltzen dira *Sasoia joan da gero* liburuko bertso-sailak, eta bertso-sailak, bertsoak, puntuak eta oinak aipatzeko modua (ikus 523. or.); horregatik, hemen ez dugu berirro bertso-sailen zerrenda emango eta berdin jokatuko dugu bertsoen aipuak egiteko orduan.

Baina bigarren lan hau jarraipen hutsa baino gehiago delakoan nago. Jauzia ere bai bait dago bien artean. Baina, jauziak jauzi, aurrekoaren ildoari jarraiki moldatu dira honen bi puntu nagusiak: Uztapideren errimaeraren ezaugarriak aztergai dituen lehena eta haren errimek osatutako sistema atzematzen saiatu den bigarrena.

Geroak esango du asmatu dugun ala ez.

I. UZTAPIDEREN ERRIMAERAREN EZAUGARRIAK

Uztapidek bere *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan darabilen errima aztertu-ta, lau puntu nagusitan eman dezakegu haren zer-nolakoen berri:

1. Bikoitza da Uztapidek darabilen errima: bi zatiz osatua. Lehenengo zatiari *erroa* deituko diogu; bigarrenari, *amaiera*.
2. Uztapideren errima ez da amaierara mugatzen; erroan hasten da.
3. Uztapideren errima-sistemak deklinabide-sistemaren antza du.
4. Uztapideren erriman *amaiera* ez da eranskin hutsa.

Ahalik zehatzen eta laburren jardungo dugu puntu horiek azaltzen: argibideak erabiliz, baina alferrik luzatu gabe.

Bada argibideetan bat, lehenengo lanean ere aipatua (ikus 514. or.) eta oso lagungarri gerta dakigukeena: Manuel Lekuona eta Antonio Pildainen arteko eztabaida edo, oihartzuarrak berak egoki kontatzen duena [ikus *Lekuona*, M. (1980): "Bertsoen metrika". In, *Jakin* 14/15. zenb., 50-66]. Merezi nuelakoan nago ondorengo lerroak eta Lekuona zaharrarenak paretsu irakurtzeak. Hemen ez dugu, ordea, halakorik egingo. Hurrengo baterako geratzen da, gure aldetik behintzat.

1. Errima bikoitza

Uztapidek *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan darabilen errima bikoitza da; bi zatikoa, alegia. Lehenengo zatiari *erroa* deituko diogu eta bigarrenari *amaiera*.

Argi dezagun "Gizonaren udaberria" sailetik hartutako bertso batez (32.4).

Gero hor dator komunioa
zazpi edo zortzi urtetan,
bikaria zai egongo da
sankristiako atetan;
egunen batzuk juan gabe ere
pasako ditu tartetan,
nola bizitzen diran batzuek
txit basarri apartetan.

Bertso honetan *te* dugu errimaren erroa eta *tan* amaiera.

Bide batez, azter dezagun astiroago bertso horretako errima. Honako ezaugarriak ditu: 1) aldiko hitz bakarrak hartzen du parte erriman; 2) lau hitzak –hiru izen eta adjetibo bat– deklinagarriak dira; 3) errimaren erroa bat dator lau hitzen erroaren bukaerarekin: *urte*, *ate*, *tarte*, *aparte*; 4) errimaren amaiera bat dator deklinabidearen kasu-markarekin: *urtetan*, *atetan*, *tartetan*, *apartetan*.

Ez da beti hala gertatzen, ordea; izan ere, 1) batzuetan hitz batek baino gehiagok hartzen du parte erriman: *bik* (*ai dia*, *al du*, *an zan*, *arrapa zak*, *bear zan*, *edo ez*, *esan zan*, *ezin du*, *gauza da...*), hiruk (*ez al zen*, *al da or...*); 2) gerta daiteke ez deklinagarria izatea errima daraman hitza, aurrerago ikusiko denez;

3) gerta daiteke bertso bateko erriman parte hartzen duten hitzen erroak amaiera berekoak ez izatea; 4) gerta daiteke —sarritan gertatu ere— ez izatea kasu-marka berdinekoak erriman parte hartzen duten hitzen amaierak. Hona hemen 15.10 bertsoa, aurreko 3) eta 4) horietan esandakoaren ilustragarri:

Lan ori baztatu da
urtetik urtera,
laiarekin ez leike
juan apartera.
Gaur bestela badago
laneko aukera,
azkeneko tontuak
gu izandu gera.

Errimaren bikoiztasuna dela eta, egin dezagun ohar bat: errimarekin eta gerta daitekeela, deklinabidean gertatzen den bezala, kasu-markarik ez azaltzea; errimak bigarren zatirik ez izatea, alegia.

Hona hemen, adibide bat:

Erljiua bai gaur
irurogei urte
ta bagendun parte:
beste batzuk etziran
ibiltzen aparte:
elizara bidian
al gendun bitarte,
apaizen aginduak
behar ziran bete:
“Bestela kondenatu
egingo zerate!” (18.1).

Kasu honetan esan dezakegu errimaren bigarren zatia \emptyset (hutsa) dela; hau da, honelakoetan ere errimak bi zati dituela.

2. Erroan hasten den errima, amaierara mugatu gabe

Erroan hasten da Uztapidek *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan darabilen errima, amaierara mugatu gabe.

Esate baterako, liburu horretan ez ditugu inoiz errimakide ikusiko *goizean, danean, gañean, atean* eta *aldean*, nahiz eta denak —*ean* izan amaieraz. Joan Bautista Elissanburuk elkarrekin erabiliko ditu, ordea, bere bertso bikain hartan:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe ttipitto aintzin xuri bat
lau haitz-ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean?...
Han bizi naiz ni bakean.

Hona hemen, adibidez, Uztapidek zein errimakiderekin erabiltzen duen bertso horretako errima bakoitza.

goizean (goizian): atzian (ahitzean), arkaitzean, atian, bakoitzian, batian, bitartian, eriotzian, gurutzean, oroitzean, oi zian (ziran), otoitzean/otoitzian, zorigaitzian (ikus 9.9, 59.12 eta 39.1b bertsoak).

denean (danian): aldamenian, aurrenian, danian (adjetiboa) (2 aldiz), datorrenian, duanian, egunian, esanian, etzarian (ez zarian), gendunian, lanian (2 aldiz), lenian (lehenean), naizenian, nintzarian (2 aldiz), nuanian, onenian, onian (3 aldiz), zeguanian, zeradenian (ikus 6.3, 32.3, 32.11, 34.7, 55.2 eta 58.7 bertsoak).

gainean: ez du erabiltzen. Erabiltzen du, ordea, *gaiñetan/gañetan* (honela azaltzen dira liburuan idatziak), honako hitz hauekin batera: *bikañetan, Ibañetan, mingaiñetan, oiñetan, zaiñetan/zañetan, ziñetan* (ikus 29.2 eta 67.3 bertsoak).

erdian: ez du erabiltzen. Erabiltzen du, ordea, erdiak, honako hitz hauekin batera: *alderdiak, ibilli-aldiak, arbiak, ardiak, belardiak, sagardiak, zal-diak* (ikus 2.9 eta 29.8 bertsoak).

atean (atian): artian (noiz) (2 aldiz), batian (non) (2 aldiz), batian (nola), bitartian, goizian, juatian, katian, oi zian (ziran), urtian (ikus 19.6, 39.1b eta 48.1 bertsoak).

aldean (aldian): aldian (partean), arratsaldian (2 aldiz), aspaldian, sukaldian (2 aldiz) (ikus 49.3 eta 52.2 bertsoak).

bakean (pakian): artian (non), batian (non), gaitian (ikus 5.9 bertsoa).

Zerrenda hauek irakurri ondoren merezi du gorago esandakora itzultzeak; alegia, Uztapideren liburuan ez ditugula “inoiz errimakide ikusiko *goizean, danean, gañean, atean* eta *aldean*”. Hor ikusten ditugu, ordea, *goizian* eta *atian* errimakide; eta horiekin batera *oi zian, batian* eta *bitartian*. Beraz, beroarenak kendu beharko goiko *inoiz* horri. Salbuespen bat besterik ez da, ordea; salbuespen bakarra (aztertu berri ditugun 18 bertso horietako bakarrean ematen da), arau orokorra indartzen duena, eta honako bost puntuko bertso honetan gertatzen dena:

Beste oitura bazan
San Juan goizian,
basarriko gizonak
esnatu oi zian,
ta lizar-gurutze bat
ataiko atian
jarriko zuen, jaiki
zanakin batian,
seme-alabak lotan
zeuden bitartian. (39b.1)

Ikusten denez, gainera, ez doaz bost oinak nahasian; bi zatitan baizik, elkarren artean ondo berezia, bi hasieran eta hiru bukaeran, bi puntuko eta hiru puntuko bertsoak bostekoa osatzen baleude bezala (guztira, sei bertso bakarrik

aurkitu ditugu horrelakoak Uztapideren liburuan). Alegia, lehen aipatutako *inoiz* ez dela batere desegokia.

3. Errima deklinatua

Beraz, gehixeago ere zehaz dezakegu *Sasoia joan da gero* liburuan erabilitako errimaz: oro har, amaiera hoskideko hitz-erroak dira errimakide Uztapideren bertsoetan, batzuetan deklinatuta doazenak (*partean* eta *artean* bezala) eta bestetan ez (*parte* eta *arte* bezala).

Jarrai dezagun erriman TE amaierako hitzak dituzten bertsoekin. Adibide batzuk jartzera mugatuko gara oraingoz.

Lehenengo bertsoa Uztapidek Lasarte bertsolariari jarria da, eta TE ez ezik RTE du errima.

Guk alkarrekin pasa ditugu
bertsotan zenbaitxo urte,
bein ezagutu giñanetikan
gaixotu nintzan bitarte;
Euskalerriko zenbat pestetan
artu ote gendun parte?
Aspaldi ontan nola zeraden
berririk ez det, Lasarte. (24.1)

Hona hemen ondoren, berriz, Uztapidek Zepairi jarritako bat, RTEA errima duena (parentesi tartean bada ere, merezi du gogoratzeak lehenengo lanean, 546 orrialdean, *barneko errimaz* eta *azaleko errimaz* esana).

Egun batian barrikoitia,
bestian lagun-artia,
orrelakorik iñon bazegon
beti bagendun partia;
larunbatian jakiña beintzat
nola pasa bitartia,
olako gauzak bukatu gabe
juaten zitzaigun urtia. (26.11)

Heriotzea gaitzat hartuta jarritako honako bertso honetan, berriz, TEAK erri-
marekin egingo dugu topo.

Mundu onetan ia
denbora betiak,
eta pena ematen
bestera juatiak;
projimuari egin
dizkagun kaltiak
lotsa ematen digu
gero esatiak;
ia ixten dizkuen
zeruko atiak. (59.1)

Era berean jarrai dezakegu TEZ, p/t/KEAN (1), TETAN, TEKOA, RTa/ eTIK, ATEN, a/eTEKO eta a/eTENDA errimadun bertsoen adibideak emanaz. Bada aukerarik *Sasoia joanda da gero* liburuan; izan ere, guztira 51 bertso (%6) bait dira bertan TE errima-alorrekoak (2) (ikus 532-533. or.).

Bestalde, 51 bertso horietako errimak osatzeko (guztira, 222 oin) nahikoak izan dira 41 hitz; honako hauek, hain zuzen (parentesi artean adierazten da bakoitza zenbat aldiz ateratzen den): *alkate* (1), *aparte* (7), *artatik* (1), *arte* (noiz) (13), *arte* (non) (8), *ate* (5), *aurten* (1), *baitia* (bait dira) (1), *bat* (23), *batian* (nola) (1), *bertatik* (1), *bete* (5), *bitarte* (19), *berondate* (1), *dirate* (didate) (3), *emate* (7), *eramate* (4), *erate* (edate) (1), *esate* (14), *eten* (1), *gaitian* (1), *illabete* (2), *izate* (19), *jate* (14), *juate* (13), *kalte* (2), *kate* (3), *kolpe* (1), *lagunarte* (1), *lurperatze* (1), *maite* (2), *Lasarte* (1), *ortatik* (1), *pake* (1), *parte* (13), *tarte* (5), *torpe* (1), *urte* (17), *zeramaten* (1), *zerate* (15), *ziraten* (zidaten) (1).

Zerrendaren azterketa soila eginez, azpimarra ditzagun bizpahiru puntu:

- Aldez aurretik jakina genuenez, hitz gehienak TE silabaz amaitzen dira: 29; ez guztiak; halere; 12k bait dute bestelako amaiera.
- TE silabaz bukatzen ez direnen artean, aditzak dira bost [bat infinitiboa (*eten*), bi iraganean jokatuak (*zeraten*, *ziraten*), bat orainaldian (*baitira*) eta azkenekoa aginteran (*gaitian*)], bat aditz-izena (*lurperatze*), bi erakusle deklinatuak (*artatik*, *ortatik*) eta hiru adizlagunak (*bertatik*, *batian*, *aurten*). Eta errima-alor osoan gehien aterea geratzen da: 23 aldiz ikusten dugun *bat* zenbatzailea.
- Gehiago aztertuta, esan dezagun 41 hitz horietako batzuk deklinatu egiten direla eta beste batzuk ez (aditzak jokatu egiten dira). Eta deklinatzen direnak ere ez dira denak berdin deklinatzen. Esan nahi da 41 hitz horiek ez dituztela denek bukaera berdinak hartzen; eta hartu ere ezin dituztela hartu.

Horiek horrela, argiago dago 1.3 puntu honetako hasierako enuntziatuaren esanahia: “oro har, amaiera hoskideko hitz-erroak dira errimakide Uztapideren bertsoetan”. Hona hemen, zergatik “amaiera hoskideko hitz-erroak” diogun eta ez “amaiera berdineko hitz-erroak”: amaiera berdineko hitzekin batera ikusiko bait dugu batzuetan errimakide amaieraz antzekoa izan eta deklinabidez haien bukaera hartzen duena (esate baterako, ikusi berria dugun *bat*). Baina gehiago zehaztu beharko genuke, halere; hor azaltzen bait dira errima bereko, aipatu berri horiekin batera, a) jokaturako edo jokatu gabeko aditzak (*zeraten*, *ziraten*, *eten*...) eta b) dena delakoagatik, amaieraz errimakide izateko egokiera duen odozein hitz (*gaitian*, *artatik*, *aurten*...). Dena den, dagoen horretan utziko dugu oraingoz.

Buka dezagun puntu hau begien bistakoa den zerbaitekin: zenbat eta berdina izan bi hitz amaieraz, hainbat eta aukera gehiago elkarren errimakide

(1) Ikus (24) oin-oharra, 533. orrialdean.

(2) Ikus 532. orrialdean zeri deitzen diogun *errima-alorra*.

izateko, nahiz bere erro soilean, nahiz deklinatuz. Esaterako, *esan* eta *izan*: modu batera edo bestera, 32 aldiz izango da *esan Sasoia joan da gero* liburuan errima eta 37 aldiz *izan*, eta 23tan elkarrekin ikusiko ditugu biak. Hona hemen zerrenda osoa, argigarria delakoan:

	zenbatetan		zenbatetan	elkarrekin
esan	2	izan	3	0
esan da/ esanda	1	izan da/ izanda	2	1
esan du	2	izan du/ izandu	3	2
esan zan	1	izan zan	1	1
esana	4	izana	2	2
esanak	3	izanak	3	2
esanez	1	izanez	0	0
esanean/ esanian	2	izanean/ izanian	0	0
esanik	0	izanik	1	0
esangai	1	izangai (?)	0	0
esango	1	izango	2	1
esateko	2	izateko	3	2
esaten	11	izaten	12	11
esaten da	0	izaten da	1	0
esaten dia	0	izaten dia	1	0
esatez	0	izatez	2	0
esatea	0	izatea	1	0
esatiak	1	izatiak	0	0
	32		37	23

4. Eranskin hutsa ez den amaierako errima

Uztapidek *Sasoia joan da gero* bertso-liburuan derabilen errimaren amaiera ez da eranskin hutsa.

Orain artekoak irakurrita hala pentsa badaiteke ere, eranskin hutsa baino gehiago da Uztapidek derabilen errimaren amaiera; izan ere, zenbat eta luzeagoa izan amaiera, orduan eta aukera gehiago bait dute erroz desberdinak diren hitzek errimakide izateko; eta alderantziz.

Ikus dezagun, esate baterako, zein hitz dituen *egun* hitzak errimakide amaiera desberdinekin.

EGUN: *dakigun, diogun, ezagun, iñun* (3.3).

EGUNA: *astuna, biguna* (2), *datorkiguna, deguna* (5), *dezuna, dituna, duna* (2), *entzuna* (3), *erantzuna, ezaguna* (2), *etzaiguna, gaituna, genduna* (6), *illuna* (2),

jarduna (3), *Jauna, juna* (2), *kutuna* (2), *laguna* (5), *maitasuna, osasuna, zaiguna; ziguna, zitzaiguna* (2) (6.6; 7.15; 9.6; 11.8; 17.16; 21.6; 22.1; 46.3; 47.3; 52.1; 53.11; 63.2).

EGUNAK: *batzunak, degunak, ditugunak* (3), *ditunak* (2), *ezagunak* (2), *geien-tzunak, giñunak, Jaunak, junak* (3), *lagunak* (2), *zaitugunak, zigunak* (2) (3.15; 21.4; 23.9; 24.2; 26.3; 62.1).

EGUNERO: *aro, ezker, gero* (35.10).

EGUNETAN: *benetan* (2), *onetan* (honetan) (2), *penetan, San Antonetan, zaigunetan* (25.1; 65.5).

EGUNIAN: *danian* (ad.), *diranian, etzanian* (ez zanean), *gendunian* (3), *igandian, lanian* (2), *lenian* (lehenean), *onenian, onian, ostegunian, zaigunian, zaizkigunian, zeguanian, zigunian* (6.3; 17.3; 24.4; 50.6).

EGUNIK: *degunik, lagunik* (2), *uste nik, nunik* (nuekin), *zaigunik* (30.12; 35.6).

Osa ditzagun zerrenda horiek bestelako argibidez.

- a) *Egun* hitza ez da inoiz errimakide azaltzen *UN* bukaerako *dezun, entzun, erantzun, maitasun* eta *osasun* hitzekin *UN* errimadun bertsoetan; bai, ordea, *UNA* errimadunetan. Halere, beti dago bigarren taldekoak —eta beren kideko *-SUN, -ZUN, -IZUN* amaierakoak— beren aldetik elkarrekin ibiltzeko joera. Hona hemen bost bertso, *egun* eta *entzun* hitzen joeren argigarri:

Amak supritzen dula
ez al da ezagun?
Lorikan egin gabe
or dabil gau ta egun;
deskantsurikan ez du
billatutzen iñun,
baietz uste izan arren
ez dakit dakigun,
semiak ama bati
zenbat zor diogun. (3.3)

Alde ortan badira
milla edertasun,
ez dakit nik bezela
ikusten dituzun;
ardiaren orruak
mendian oiartzun,
alde baten egin da
bestian erantzun. (67.4)

Txantxangorria laguna
zabaldurduko eguna,
eguneroko diana berak
kantatuko duna;
amaika bider entzuna
alako txori kutuna,
baso-mutillen ogi-apurrak
bilduko dituna. (9.6)

Mutill askoren jarduna
bertatik nagi entzuna,
gitarra dute laguna;
ez da besteri entzundakua,
geok ikusi deguna;
olako soñu kutuna
pasatutzeko eguna,
danok txoratzen gaituna. (46.3)

Kantu-lana izan det
 oso ezaguna,
 orain eduki arren
 burutik juna;
 egokitzen zanian
 gustoko jarduna,
 gogoratu baño len
 pasatzen eguna;
 jan guk nai genduna,
 bazan osasuna,
 naikua laguna,
 bi bertso entzuna,
 beti pronto izaten
 nun erantzuna. (6.6)

Benetan da argigarria gertatzen dena: non eta sei, zazpi eta bederatzi puntuko bertso luzeetan ez bestetan izan errimakide *egun* eta *entzun*.

- b) *Egun* hitza ez da inoiz errimakide *-AN*, *-EN*, *-ON* amaierako hitzekin *-NA* eta *NAK* errimadun bertsoetan; bai, ordea, *-NETAN*, *-NIAN* eta *-NIK* amaieradunetan.

Ikus dezagun orain zer gertatzen den “bide” hitzarekin, “egun”-ekin egin dugun bezala. Hona hemen zein hitz dituen errimakide amaiera desberdinekin:

BIDE: *adiskide, eskubide, ni're, senide, Uztapide* (18.5).

BIDEAK: *adixkideak, aideak (ahaideak), senideak* (20.1).

BIDIA: *ai dia* (ari dira), *dia* (dira), *eskubidia, idia* (idea), *jendia, obia* (4.14; 27.8).

BIRETAN (BIDETAN): *Ireta'n, seiretan, uretan* (28.4).

Zerrenda hauen ondorenean ere badago zer erantsirik argibide gisa:

- a) “Bide” hitzarekin ere, “egun” hitzarekin bezala gertatzen da: zenbat eta luzeagoa izan amaiera, orduan eta aukera gehiago duela erroz desberdina diren hitzen errimakide izateko.
- b) Bestalde, “egun” hitzarekin gertatzen ez zen zerbait gertatzen da “bide”-rekin; alegia, bi erro desberdin balitu bezala jokatzeko duela: *de* eta *di* (honexegatik izan ditzake *ai dia* eta *dia* errimakide).

II. ERRIMAK SISTEMATIZATZEN ETA ERRIMAERAREN BARNE-ARAUAK ATZEMATEN

Behin Uztapideren errimaeraren ezaugarri nagusiak azaldu eta gero, prest gaude urrats berri bat emateko: errimak sistematizatzen hasi eta errimaeraren barne-arauak atzematuko. Horixe egitera goaz datozen bi puntuetan.

1. Errimak sistematizatzen

Has gaitezen Uztapideren errimaeraren lehenengo ezaugarria gogoratu: bikoitza da, *erroz* eta *amaieraz* osatua. Beraz, erroak eta amaierak sistematizatuz sistematizatuko dugu errima ere.

1.1. Errima-erroak sistematizatzen

Deklinabidearen ereduari jarraiki (Uztapideren errima deklinatua izatea jo dugu hirugarren ezaugarritzat), errima-erroak bi multzo handitan bana ditzakegu: bokalez amaituak eta kontsonantez amaituak. Baina, oro har, ez bokalez amaitutako errima-erroak osatzen dira bokalez soilik, eta ez kontsonantez amaitutakoak kontsonantez soilik.

Besterik gabe, zerrenda ditzagun multzo bakoitza osatzen duten errima-erroak.

Bokalez amaitutako errima-erroak

s/x/zE	(SE)	s/x/zI	(SI)
Ts/x/zE	(TSE)	Ts/x/ZI	(TSI)
p/t/k/E	(TE)	p/t/k/I	(TI)
s/x/z, p/t/kE	(STE)	s/x/z, p/t/kI	(STI)
LE	(LE)	LI	(LI)
b/d/g E	(BE)	b/d/gI	(BI)
ALDE	(ALDE)	ALDI	(ALDI)
Rb/d/gE	(RBE)	Rb/d/gI	(RBI)
RRE	(RRE)	RRI	(RRI)
RRO	(RRO)	RRU	(RRU)
RDO	(RDO)	RDU	(RDU)
b/d/gO	(BO)	b/d/gU	(BU)
p/t/kO	(TO)	p/t/kU	(TU)
s/x/z, p/t/kO	(STO)	s/x/z, p/t/kU	(STU)
s/x/z, Ts/x/z)	(ZO)	s/x/z, Ts/s/zU	(ZU)
	AI	(AI)	
	OI	(OI)	
	AIO	(AIO)	
	IO	(IO)	
	AJE	(AJE)	
	JO	(JO)	
	NI	(NI)	
	Np/t/kA	(NTA)	
	Es/x/z,p/t/kA	(ESTA)	
	Is/x/z, p/t/kA	(ISTA)	
	Os/x/z, p/t/kA	(OSTA)	

Eta aurrera jarraitu baino lehen, egin ditzagun ohar batzuk. Has gaitezen erabilitako formulak argitzen, lehenxeago ere esana berrituz:

a) Marra (*/*) erabiliz adierazi nahi da berezitako letretatik edozein azal daitekeela erriman. Esate baterako, *s/x/zE* errima-errodunak ditugu *gose*, *auxe* eta *luze*; *Ts/x/ZI* errima-errodunak *etsi*, *itxi* eta *utzi* eta *p/t/kE* errima-errodunak *torpe*, *bete* eta *pake*.

b) Koma (,) erabiltzen da marraz berezitako bi kontsonante-sailen artean (aurrerago bokal-sailen artean ere erabiliko da). Esate baterako, *s/x/z,p/t/kE* errima-errodunak ditugu *eske*, *uste*, *gazte*, *dituzte*, *ospe*...

c) Parentesi artekoak laburdurak dira, errima-erroen berri ematea errazteko asmatuak, ez dezagun aldi bakoitzean errima-erroak osorik eman beharrik izan. Ikus daitekeenez, honako baliokidetza hauek egin dira:

S = *s/x/z*: *oso*, *goxo*, *auzo*... (SO).

TS = *ts/tx/tz*: *etsi*, *gutxi*, *eutsi*... (TSI).

T = *p/t/k*: *torpe*, *bete*, *pake*... (TE); *ospe*, *gazte*, *eske*... (STE).

B = *b/d/g/r*: *bi*, *adi*, *begi*, *ari*... (BI).

Z = *s/x/z*, *ts/tx/tz*: *oso*, *goxo*, *auzo*, *bertso*, *mantxo*, *atzo*... (ZO).

Parentesi arteko gainerako letrek (bokalek eta errekek) ez dute aparteko baliokidetzarik.

Ondorengo bi oharrak orokorrak dira.

d) Azpimarratuta doaz, eta hala joango dira hemendik aurrera, aipatutako *S*, *T*, *B* eta *Z* horiek besteren ordezkotzat direnean.

e) Zerrendaren bukaeran doaz *A* bokalez amaitutako errima-erroak. Lau besterik ez dira.

f) Bitxi samarra iruditu arren, dauden moduan zerrendatu eta ordenatu ditugu, geroago ikusiko dugun arrazoiatatik.

Baina bada ohar garrantzizkoagorik ere, zerrendaren funtsari dagokionik; Uztapideren errimaeraren bereizgarriak islatzen bait dira zerrendan. Aipa ditzagun bi:

g) Zerrendan berezi egiten dira *TE* eta *STE*, *TI* eta *STI*, *TO* eta *STO*, *TU* eta *STU*, Uztapidek ere berezi egiten bait ditu errimagintzan. Bada, ordea, bereizten ez dituen bertsolaririk.

h) Erroen zerrendan ipini ditugu *BU*, *TSE*, *TO* eta *TU* erroak, nahiz eta gero errima-amaieren zerrendetan ere azalduko diren.

Beude bere horretan oharrak, eta zerrenda ditzagun ondoren kontsonantez amaitutako errima-erroak.

Kontsonantez amaitutako errima-erroak

An/m	(AN)
EN	(EN)
IN	(IN)
On/m	(ON)
UN	(UN)
AL	(AL)
EL	(EL)
IL	(IL)
OL	(OL)
UL	(UL)
AR (arr)	(AR)
ER (err)	(ER)
OR (orr)	(OR)
UR (urr)	(UR)
As/x/z,Ts/x/z	(AZ)
Es/x/z,Ts/x/z	(EZ)
Is/x/z,Ts/x/z	(IZ)
Os/x/z,Ts/x/z	(OZ)
Us/x/z,Ts/x/z	(UZ)

Egin ditzagun hemen ere ohar batzuk:

- Honako ere balio dute, noski, lehen egindako a), b), c) eta d) oharrek.
- Bitxikeria moduan esan dezagun IR errima-errorrik ez dagoela zerrendan; izan ere, ez bait dugu ezagutzen bertsozik, ez Uztapiderenik, ez beste inorenik, horrelako errima-errodunetz osaturik.
- Esan gabe doa zerrenda hau ere Uztapideren errimaeraren ezaugarrien ispilu dela.

1.2. Errima-amaierak sistematizatzen

Behin errima-erroak finkatuta gero, ez luke lan zaila izan behar errima-amaierak zerrendatzeak: nahikoa dugu errima bakoitzari erroa kentzearekin. Eta hala egingo dugu, orain ere bi sailak kontuan izanik: bokalez eta kontsonantez amaitutako errima-erroei dagozkienak.

Honako amaiera hauek dagozkie Uztapiderenean bokalez bukatutako errima-erroei: Ø, A, AK, N, AN, ANDA, TA, TAN, ETAN, Z, RIK, KO, KOA, TZEN eta TZEKO.

Beste honako amaiera hauek dagozkie, berriz, kontsonantez bukatutako errima-erroei: Ø, A, AK, AN, DA, EAN, ETAN, IK, IKAN, DIK, EZ, GO, AKO, DU, DUA, DUAK, DUTA, DUAZ, TU, TUA, TUAK, TUTA, ATU, ATUTA, TZEN, DUTZEN, TZEA, TZEKO eta (RA).

Eta egin ditzagun zenbait ohar:

a) Lehen ere esan dugu, Uztapideren errimaeraren lehen ezaugarria azaltzean: zenbait bertsotan (bertso askotan) Ø (hutsa) dela errima-amaiera; eta bikoitza dela horrelakoetan ere errima, nahiz eta bigarren zatirik izan ez. Horrexegatik ipini dugu errima-amaieren bi zerrendetan Ø amaiera ere.

b) Parentesi arteko azkeneko RA amaiera horrek ematen digu bigarren ohar hau egiteko aukera: behin bakarrik azaltzen da gorago zerrendatutako errima-erroren bati erabat lotua; honako bertso honetan, hain zuzen:

Meza aundia bukatu eta
txistulariak plazara,
erriko pestak diradenian
Euskalerriko gauza da;
berialaxe neska ta mutil
ertengo ziran dantzara,
era ortantxe egingo zuten
bazkal aurreko pasara. (5.8)

Azaltzen den beste guztietan errima-erro ezberdinekin nahasian azaltzen da. Hona hemen adibide bat:

Egin bear danian
kalerako jira,
gaurko andre askori
jar zaitetz begira:
kotxe eder askuan
datoz baserrira,
astoakin juatia
lotsatutzen dira. (16.8)

Egindako sistematizazioa berrikustera garamatzake horrek. Eta ez dago zaila egiten: RA hori amaieratzat ez baina, errotzat joz eta A bokalez bukatutako errima-erroekin zerrendatuz. Halere, egokiago iruditu zaigu hirugarren bidea aukeratzea; izan ere, bai bait dago Uztapiderenean zenbait errima-amaiera, lehen zerrendatutako amaiereri ez baina, amaiera soilagoei lotua. Guztira, 53 bertsotan gertatzen da hori. Hona hemen, zein errimatan eta zenbatetan: ARA (1), ERA (18), ERAN (1), IRA (9), IRAN (4), ORA (2), URA (6), ITU (5), OTAN (1), UTAN (1), RTAN (1), UTIK (1), RTa/eTIK (2), A.r/bAÑO (1).

Beraz, b) ohar honen edukiarekin lotuz aurreko a) oharrean ikusia, honako hau esan genezake: Uztapideren bertso batzuek hain dute errima-erro betea,

apenas behar duten errima-amaierarik errima egokia osatzeko; eta, era berean, beste batzuek hain dute errima-amaiera betea, apenas behar duten errima-erorrik errima egokia osatzeko. Baina bai batzuetan eta bai besteetan, beti da bikoitza Uztapideren errima.

Beraz, orain artekoa osatzeko, kontuan izan behar da badirela zenbait errima, errima-amaierarekin lotuagoak daudenak errima-erroekin baino. Edo, bestela esanda, errima-erroek baino pisu handiagoa dutela errima-amaiera batzuek erriman.

c) Lehen egindako f) oharraren jarraipena da honako hirugarren ohar hau. Honela dio f) oharrak: "Erroen zerrendan ipini ditugu *BU*, *TSE*, *TO* eta *TU* erroak, nahiz eta gero errima-amaieren zerrendetan ere azalduko diren". Eta horra non aurkitzen ditugun errima-amaieren zerrendetan lehendik iragarriak: *DU*, *KO*, *TZEKO*, *AKO*, *TU* eta *ATU*; baita *TZE* errokoak diren *TZEN* (*TZEKO*) eta *TZEA* ere. Izan ere, zenbait hitz-zati berez berdin izan bait daiteke errima-erro edo errima-amaiera; *-RI*, esate baterako. Uztapiderenean, ordea, garbi dago *BI* errima-errokoa dela. Baina beste zenbait hitz-zatirekin ez da hala gertatzen; ez bait dago garbi nola hartu: errima-erro bezala ala errima-amaiera bezala. Are gehiago: zenbait hitz-zatik batzuetan errima-erroen moduan jokatzeko dute eta besteetan errima-amaiera bazala; adibidez, goian aipatutakoek.

d) Jarrai dezagun arestian aipatutako *DU*, *KO*, *TU* eta *TZE* errima-amaierekin. Laurek onartzen dituzte amaiera berriak (*A*, *AK*...); eta orduan errima, bikoitza ez baina, hirukoitza ere gertatzen da. Honako bertso hauetan bezala (lehenengoaren errima *ALDE* dugu erroz eta *KOA* [kua] amaieraz, eta bigarrenarena *IN* erroz eta *DUA* amaieraz):

Esposatzen zan maiorazkua
baizan gure taldekua,
bi eguneko jan da erana
gendukan debaldekoa;
bezperan ilko zuten txalen bat
berrogei erraldekoa,
arekin kezka kenduko zuten
gutxiñez sukaldekua. (17.4)

Astoa dabil beti
loitán zikindua,
zarra izan liteke
edo ezindua;
alare egin bear
gure agindua,
langille ona baña
gaizki ordaindua. (16.10)

Uztapideren errimaren sistematizazioari eskainitako puntu hau bukatzeko, egokia litzateke sarrera biko taula pareá eskaintzea: bata bokalez amaitutako errima-erroz eta hauei dagozkien amaieraz osatua, eta bestea kontsonantez amaitutako errima-erroz eta hauei dagozkien amaieraduna. Baina geroragoko utziko dugu: datorren puntuan emango ditugu, landuago eta osoago.

2. Errimaeraren barne-arauak atzematzen

Aurreko puntuan xehetu, zehaztu, nabarduraz jantzi eta hornitu ditugu Uztapideren errimaeraren lehen hiru ezaugarriak. Laugarren ezaugarriaren ardatzean harilduko dugu bigarren hau.

Ezer baino lehen, laburbil dezagun laugarren ezaugarri horri buruz esana: errima-amaiera ez da eranskin hutsa Uztapideren errimaeran, eragina bait du errima-erroan; izan ere, zenbat eta pisu handiagoa izan amaierak, hainbat eta pisu gutxiago izateko joera du erroak (eta alderantziz). Arestian ere izan dugu gogoratzeo aukerarik: aurreko 1.2 puntuko b) oharrean, hain zuzen.

Horixe dugu Uztapideren errimaeraren laugarren ezaugarria, eta horixe Uztapideren errimagintzan erroaren eta amaieraren arteko lotura arautzen duen printzipioa. Baina xehe eta zehaz dezagun gehiago. Hiru taulaz baliatuko gara: lehentxeago agindutako biez eta hirugarren batez.

Bokalez bukatutako errima-erroena dugu lehenengo taula: hor ditugu goitik behera errima-erroak eta ezkerretik eskuinera erro horiei dagozkien errima-amaierak. Guztira, 417 errima dira.

Bigarren taula, berriz, kontsonantez bukatutako errima-erroena da. Lehenengo bezala dago egina: goitik behera errima-erroak dituela eta ezkerretik eskuinera amaierak. Guztira, 376 errimaren berri ematen du.

Beraz, 793 errima daude bilduta bi tauletan. Guztira 852 errima direnez (842 bertso ditu Uztapideren *Sasoia joan da gero* liburuak; eta horietako hamar Iparragirrearen doinuko errima bikoitzekoak dira), 59 errima ditugu oraindik taulara gabe. Horietako 53 errima-erro ahulekoak ditugu, 1.2 puntuko b) oharrean aipatutakoak eta beste bakan batzuk; eta hirugarren taulan doaz. Taulara gabe geratu dira gainerako seiak, bi errima-errodunekotzat jo ditugulako. Hona hemen bat (a/e/uN eta a/oRR errima-erroduna):

Mezetara juaten
 giñan illunpetan,
 itxusi benetan;
 oitura orixen zan
 basarri danetan:
 lasto-zuziak artu
 eskuan garretan;
 ibiliakgatikan
 postura txarretan,
 ez giñan geldituko
 mezakin zorretan. (18.4)

Gainerako bostak honako hauek dira: 3.4; 3.14; 39b.1 (1.2 puntuan aipatua); 45.1 eta 60.4. Sei bertso hauek ematen dute hizpide egokirik, baina oraingoz bere horretan utziko ditugu. Besterik gabe, beraz, goazen hiru taulekin.

TAULA 1.

	∅	A	AK	N	AN	NDA	TA	TAN	ETAN	Z	RIK	KO	KOA	TZEN	TZEKO			
SE																		
SI	16	8	7		15							1	1				33	15
TSE		1					4				2			4	1		1	11
TSI	6	1						1									8	
TE	5	2	1	13	17	1		1		2		5	1				48	
TI	1	5					1										7	
STE	2	6		5				1			4						18	
STI	2	3	11		4												5	15
LE		1															1	
LI		1	1														2	
BE	a/oBE	8		1						1								
	EBE	1		5				3									21	
	IBE	1	15	1														15
BI	RI	9																
	GI	3		7													19	
ALDE	1		1		2							1					2	3
ALDI																		
RBE			2															2
RBI	1	3						2		2							4	
RRE		1															1	
RR1	8	16	11														35	

TAULA 1. (jarraipena)

		Ø	A	AK	N	AN	NDA	TA	TAN	ETAN	Z	RIK	KO	KOA	TZEN	TZEKO					
BO	RRo/u		1	30													1	30			
	RDo/u		1														1				
	AGO	11	3														19				
	a/eRO	4																			
	IRO	1																			
	BU	5	1	6																	
	TO		8	1	7													1	15		
	TU	3																1			
	STO	2	4	4	3													1	8		
	STU	3																		1	
	So/u	1	2	7	3													1	1		
	Zo/u		2																		
	AI	4	3	2	5													1	3		
	OI																	2		3	2
	AIO		1																1		
	IO	5																	5		
	AJE		1																1		
	JO		1																1		
	NI		1																1		
	ANTA			1														1			
ESTA		3															3				
ISTA		1															1				
OSTA		1															1				
																		295	103	19	417

TAULA 2.

		0	A	AK	AN	GO	DA	EAN	ETAN	K	IKAN	IKK	EZ	DU	DUA	DUAK	DUTA	DUAZ	DUTZEN	TU	TUA	TUAK	TUTA	ATU	ATUTA	TZEN	TZEA	TZERO	AKO				
UZEN	AN		18	18			3						1																40	2			
	EN	1	14	3		2																							19				
MEN	ON	2	4	2				27	3	7	4	5		9			1							1			1		8	1	23	34	
	UN	5	19	10									1																37				
SUN	UN	2																															
IN	IN	8	9	4			1		2	1			5	1	1														33				
	AL		8	(3)				2																									
EL	EL		6																												19		
	OL		4											11		1		1	1										4	4		18	
UL	UL		1																										1				
	IL		7	2	1																					1		1	12				
AR	AR	1	3	4																										2			
	ER		(2)	(4)	2																									15			
OR	OR	1	1	2				10	3	8	1		1							9	3	2	7						4			44	
	UR		8	6																									14				
S/Z	AZ		3																														
	B/Z		2	2	6																									7			
EZ	EZ		3																											3			
	IZ		4	1	3					3	1		1																	9			4
OZ	OZ		7	4																										11			
	UZ		4																					1	1					4	2		
																												208	168				

TAULA 3.

	Ø	A	AK	N	AN	TA	
ARA	1						1
ERA	18			1			19
IRA	9			4			13
ORA	2						2
URA	6						6
ITU		1	1		2	1	5

OTAN	1
RTAN	1
UTAN	1
RTa/eTIK	2
UTIK	1
AÑO	1

Taulak egoki irakurtzeko, nahikoak dira hiruzpalau argibide:

a) Zenbakiak adierazten dute zenbat bertso dauden Uztapideren liburuan ezker aldeko errima-erroaz eta goialdeko errima-amaieraz osatutako errimadun. Esate baterako, 1. taulako lehenengo zenbakiaren arabera, 16 bertso dute SI (s/x/zI) errima (SI errima-erroz eta ø errima-amaieraz osatua), honako honek bezala:

Orrenbeste aundiko
 pamelia azi
 da itxura-antzian
 nai duanak bizi,
 gauzak ondo pentsatu
 bear lendabizi;
 alare bear ziran
 gorriak ikusi. (2.13)

Lerro berean jarraiki, 8 bertso dute SIA errima, 7k SIAK, batek SIKO eta beste batek SIKOA.

b) SI errima-errokoa izan eta aipatzeke utzitako 15 zenbakiarekin du zerikusia bigarren argibideak, eta lauki batean doazen zenbaki guztiekin. Errima-erro bat baino gehiago hartzen dute beti laukiek eta amaiera bakarra, eta hauxe esan nahi dute: errima-erro horiek amankomunean dutena dela errimaren erroa (eta goikoa amaiera). Esate baterako, aipatutako 15 horren arabera, hamabost bertso

dira Uztapideren liburuan *Ze/i* (s/x/z, Ts/x/z, e/i) errima-errodun eta AN amaieradun, honako bertso hau bezalakoak:

Ain bizimodu latzian
zortzi illabete pasian,
lana sobrian izaten gendun
jana eskasian;
ara gauzak nola zian,
ez naiz ari jolasian,
uda ona zan milla pezeta
ekartzen bazian. (9.13)

Aurrera baino lehen, egin ditzagun bi ohar:

1. Gogora ditzagun berriro ere “azaleko errima” eta “barneko errima” kontzeptuak. Bertsoan ageri dena adierazten du lehenengoak; *berezkoa* bigarrenak. Adibidez, ATZIAN da *latzian* azaleko errimaz eta ATZEAN barrukoaz. Hona, konparazio baterako, beste bi bertso lauki berorretan bilduak, esandakoa-ren indargarri:

Jainkoakin oroitzean
asten giñan otoitzean,
estrapozon bat egin baño len
goiko arkaitzean;
gaubean edo goizean,
oitura zan bakoitzean,
jakiñik Bera guregatik il
zala gurutzean. (9.9)

Gaztetan pasa diran egunak
gogoratutzen zartzian:
nola ez baizan ezeren paltik
eztaiak ziran etxian,
une gozuak pasatzen giñun
juaten giñan bakoitzian;
negar-malkuak etortzen dira
gauza ortaz oroitzian. (17.19)

2. Azken hiru bertso horien harian dator bigarren oharra. Arestian esan dugu errima-erro bat baino gehiago hartzen dutela beti laukiek. Horrek ez du esan nahi, ordea, bertso bakoitzean irten behar dutenik errima-erro desberdin guztiek. Horra hor, esate baterako, SE, SI eta TSE errima-erroak, hirurak nahasian, 9.13 bertsoan; baina 9.9 bertsoan ez dago SI errima-errorik; 17.19 bertsoa, berriz, errima-erro bakarreakoa da: TSE errokoa.

c) Azkeneko argibidea tauletako zenbait kopururi dagokio. Hiru kopuru-mota bereiz ditzakegu: 1) \emptyset errima-amaierari dagozkion zutabeak, 2) kopuru totaletako lehenengo zutabeak eta 3) kopuru totaletako hurrengo zutabeak. Azal ditzagun banan-banan.

\emptyset *errima-amaierari dagozkion zutabeak kopuruak*. Besteak beste, informazio garrantziko bat ematen digute: errima-erro bakoitzak nola jokutzen duen amaierarik gabe; bestela esanda, berezi ote daitekeen errima-erro batean azpierrima-errorik. Adibidez, lehen ere aipatu dugu UN errima-erroarekin gertatzen dena: errima-amaiera \emptyset denean, berezi azaltzen direla SUN errima-erroa eta gainerakoak; baina nahasian, ordea, beste errima-amaierekin, nahiz eta beti dagoen bereizteko joera. BE errima-erroari dagokion \emptyset zutabea, berriz, hiru azpierrima ematen dira taulan: a/oBE, EBE eta IBE. Hona hemen azpierrima horietako bakoitzaren adibide bat:

Aspaldian badegu
milla atsekabe,
noizbaiten auek ere
pasako dirade;

bertan konpondutzia
danentzako obe,
etxe onetatikan
berriz erten gabe. (49.5)

Len ere esan det amaika aldiz
da esango det berriz ere:
guztiak ziran arentzat onak
baña batzuk batez ere;
Martínek zeñi etzekiela
egiten zekin mesere,
borondatia dadukanari
etzaio kosta ezere. (66.6)

Mezetara askotan
sei zazpi senide,
tartian an ni're,
goizian goiz jeikita
ori zala bide;
elizatik urruti
zegon Uztapide
Jaungoikuarekin nai
gendun adiskide,
uste det bagendula
ainbeste eskubide. (18.5)

Kopuru totaletako lehenengo zutabeokak. Errima-erro bakoitzeko zenbat bertso dauden adierazten dute, laukietakoak kontuan izan gabe. Beraz, \emptyset zutabeokak ere biltzen dira kopuru hauetan.

Kopuru totaletako lehenengoa ez beste zutabetakoak. Laukietakoen batuketak dira, beti ere kontuan izanda zenbat errima-erro hartzen duen lauki bakoitzak. Adibiderik argienak AN, EN, ON, UN eta IN errima-erroetako kopuru totaletan ditugu. Horra hor zenbait kopuru, bakoitzari dagokionaz aparte: bi bertso daudela a/eN errima-erroko; bat o/uN errima-erroko; hogeitahiru a/e/o/uN erroko eta, azkenik, hogeitamalau a/e/o/u/iN errima-erroko. Ez gara adibideak ikusten hasiko, azalpen hau gehiegi ez luzatzearren.

Baina ezin geratu argibide bat erantsi gabe: nola ulertu, alegia, itzalez ilundutako laukiak? Esanahi argia dute: laukiak ez dituela itzalari dagozkion erima-erroak hartzen; esaterako, SI, TSE eta TSI errima-erroak hartzeko itxura duten lauki horiek ez dutela TSE hartzen, SI eta TSI soilik baizik, honako 4.2 bertso honetan ikusten denez:

Atzoko egunez egin bainuen
Uztapide'ra bixita,
ezin egonik nenguan len an
berrogei urtez bizita;
gure antziñako babes-lekua
zegon ezurrak autsita,
nere begiak busti ziraden
nola zegon ikusita.

Behin taulak aurrean izaki eta irakur ditzakegularik, ikus dezagun nola hezur-mamitzten den puntu honen hasieran aditzera emandako printzipioa, Uztapideren errimagintzan erroaren eta amaieraren arteko lotura arautzen duena: zenbat eta pisu eta presentzia handiagoa izan errima-amaierak, hainbat eta pisu eta presentzia gutxiago izateko joera du errima-erroak; eta alderantziz.

Oro har, hiru errima-mota bereiz ditzakegu Uztapideren errimagintzan, erroaren eta amaieraren pisuen arabera. Lehenxeago c) argibidean egindako bereizketaren ildotik dator hiru errima-mota hauen bereizketa ere. Errima-mota ezberdinen kopuruak bait dira funtsean argibide horretan bereziak. Ikus ditzagun banan-banan, labur bada ere.

Lehen errima-mota: ø amaiera duena. Errima-mota honek du errima-erorrik luzeena; hain hala, batzuetan azpiero bihurtzen bait da. Gogora dezagun ZUN azpieroarena. Baina, azpiero bihurtzen ez direnetan ere hor izango da ia beti errima-erroa atzetik galdua aurretik osatu nahiko balu bezala. Errima-mota haue-tako 108 ditugu lehenengo taulan eta 21 bigarreanean; guztira 129. Kopuru hone-tatik kanpo gelditu dira hirugarren taulako ø amaierako kopuruak; ezin bait ditugu mota honetakotzat hartu.

Bigarren errima-mota: bitarteko errima-erroa eta -amaiera dituen. Bitartekoa diogu, lehen errima-mota eta hirugarrenaren artean dagoelako. Errima-mota honetan erroaren pisua txikiagoa da aurrekoan baino eta ez hurrengoan bezain txikia. Eta alderantziz gertatzen da amaieraren pisuarekin: handiagoa da aurrekoarena baino eta ez datorrenarrena bezain handia. Bestalde, errima-mota honen erroa da tauletako zutabe nagusikoa: SE, SI, TSE...; AN, EN, ON... Eta totaletako lehenengo zutabekoa dugu, berriz, bi lehenengo errima-mota hauei dagokien zenbatekoa: 295 lehenengo taulan eta 208 bigarreanean. Kopuru hauei lehenengo errima-motena kenduta eskuratzen dugu bigarren errima-motena: 187 lehenengo taulan eta beste 187 bigarreanean; guztira 374.

Hirugarren errima-mota: erro urrikoak eta amaiera luzekoak. Esan bezala, tauletako kopuru totaletako lehenengoan dugu lehen bi errima-motaren berri. Era berean, hurrengoetan aurkituko dugu hirugarren mota honetakoen zenbatekoa: lehenengo taulako 122 eta bigarregoko 168. Hauei, batetik, hirugarren taulako kopuruak erantsi beharko zaizkie (53), mota honetakoak bait dira hirugarren taulako errima guztiak; eta, bestetik, bi errimako jo ditugun 6 bertsoen errimak. Beraz, guztira 349 errima erabili ditu Uztapidek bere *Sasoia joan da gero* liburuan hirugarren mota honetakoak. Bestalde, lehenengo bi tauletara itzuliz, gogora dezagun hirugarren errima-mota honetakoen errima-erroa ez dela tauletako zutabe nagusikoa; baizik eta, lehen azaldu dugunez, lauki bakoitzak hartzen dituen erroek amankomunean dutena.

Beraz, horra hor Uztapideren liburuko 852 errimak motaz mota banatuta: 129 lehenengo motako, 374 bigarregoko eta 349 hirugarregoko.

Eta besterik ez. Puntu bat baino gehiago geratzen da zehazkizun; baina ez zen gure asmoa gaia agortzea.

LITERATURA KLASIKOA

ESTILISTIKAZ LEHEN JARDUNALDIAK.

Jardunaldiotan irakurritako zenbait lan.

Gernika, 1988

GERNIKAKO EUSKAL JAIEN (1888) OROITZAPENETAN ESTILISTIKAZ LEHEN JARDUNALDIAK

Gernika, 1988-IX-29

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

Juan Luis Zuzaeta, Gernika-Lumoko alkate jaun agurgarria.

Euskaltzainak.

Jardunaldiotara etorritako txostengile nahiz entzuleak.

Jaun-Andreak:

Eskerrik asko, Alkate jaun horri, zure hitz amultsuengatik eta Gernika-Lumoko herri honek Euskaltzaindiari egiten dion harrera ezin hobea. Pozgarri eta eskergarri da hori. Eta nerau gernikar izanik, are pozgarriago eta eskergarriago. Zinez uste dut egun hauetan hemen Euskaltzaindiak egin gogo dituen kultur ekintzek ondorioz izango dutela euskararentzat.

Bai. Euskaltzaindia Gernikara etorri da bertako Udalak eskaturik eta egun hauetan askotariko ekintza, batzarre eta kultur jardunaldi egingo ditu. Lehenik, Estilistikari buruz aurrengo aldiz eratzten diren Jardunaldiak, Euskaltzaindiko Literatura-Batzordeak antolatuz; gero, hileroko akademi batzarrea; hurrengo, Lexikologi erizpideak finkatzeko batzordearen bederatzigarren Jardunaldiak. Batzorde hau hitz-elkarketa deritzon aztergaia aztertzen ari da une honetan. Eta azkenik, Onomastika-batzordearen bilera.

Castigu oiec bada igarotzen dira, ta ez dute iñor bildurtzen; beraz, Jaunaren justiciari dagocana da, dio S[an] Gregorioc²², gure gaiztaquerien ugoldeari, penazco beticotazun bat aurpeguiz aurpegui ipintzea. Esan dezagun bada, cen, beticotazun au, ceñaren gañean deadareguiten dezuten aimbeste, dala, Jaunaren justicia-ren neurri berecoa.

3.º Esaten dute azquenic: “Norc daqui, beste bicitzan igarotzen dan-á?: infernutic, eta²³, beste mundutic ez dator ona berriric ez cartaric: iñor eztegu icusi biurtzen andic, oiala, ai bada, baletor, sinistuco²⁴ guñioque”.

Eranzun bear da, J[esu] Christo berac eman zuan eranzueraquin²⁵, icusten degun becela, Evangelioac dion aberatz zequen condenatuaren gañean, ceñec erregutzen zion Abrahameri, esanaz: Ayta Abraham, biraldu ezazu Lazaro mundura, aurkitzen naizan zorigaiztoaren berri neri anayai ematera, bada ill-en arteco bat²⁶ juater; bazaiete esaterá, emen igarotzen dan-á, onbiurtuco dira, ta eguingo dute penitencia; Ta Abrahamec eranzun zion: Moyses ta Profetac an dauzcate, baldin Moyses ta Profetai sinisteric ematen ezpadie, ez diote sinistuco ill biztu bati ere²⁷.

¡O ceñ jaquintsua dan eranzuera au, ill biztu baten presencia escatzen, ta Jaungoico baten esana despreciatz[e]n duten sinisgorrentzat!

Aitortzen det ala ere, ill biztu baten aguertutzeac sugarrez inguraturic sartuco liequetela ezurretaraño bildurric icaragarri-ena: ¿baña orregatic onbiurtuco liraque? Ez, ez liraque onduco, ala nola Saul, Samuelen aguertuteac²⁸ zaiñezurre-tarañoco ta desmayatzerañoco birdurra sartu bazion ere, etzan orregatic onbiurtu, ez obeditu, ez Jauna[re]n aserrea samurtzeco sayatu.

[4] Ongui ezaguna da sinisgorren aberequeria ta genioa: ozta ozta aguerpená desaguertu, bereala esango luquete izan zala irudia uts uts bat, ta len baño leya ta setá gueyagorequin dudatu, ta ucatuco luquete infernuaren izatea: baño ecer ez dute balio duda-blasfemia-ta ucac, arrazoe-buru-ta centzunic erdia, desonestidade ta larreguacquin³⁹ galdu duten-enac, munduco jaquintsu guciac beti beti aitortu-ezagutu-ta iracatzi duten eguia onen beguietan.

¡Oh Jaungoico andia, cer icaragarria zeran, castigatzen dezunean sinisgorra-biotzgorra, ichutazunarequin³⁰!

Berac ez du sinistutzen infernua, ez penazco beticotazun zorigaiztocoa, conveni zaiolaco eztedilla egon, obeto berea eguiteco desordenu mota gucietan; Baña, naiz sinistu dezala, naiz ez, orregatic ezta jaincozco itza guezurtuco: Berac icusico du infernua egunen batean, aserratuco da³¹ beragan, ortzicaracquin orroa-eguingo du³², pe[c]cato videbit, esanaz: ¿nola da posible, ni becelaco christau batec despreciatu duala J[esu] Christoren errenua ta loria, munduco humequeriatic? ¡Oh, ondazun madaricatuac, ceruco ondazunac gal-erazo ziñizquidatenac! ¡Oh, amodio ta gozatazun araguizco igarocorrac, nere Jesus Jaungoicoaren gorroto beticoa ta tormentu betirauncorrac eracarri zinizquidatenac! ¡oh, emen penitencia eguiten, ta animaco estutasunaren indarrez negar-eguiten egon bearra betibetico, paenitentiam agentes, eta prae angustia spiritus gementes³³, munduan, infernuaren gañean ondo pensatu ez guendualaco!

Orain bada, N, ¿nola da posilbe ez pensatzea infernu-an? Ichutazun icusgarria da, ez pensatzea infernu-án: pensatu beragan, ta ez ari bildur izatea, da arrigarizco furia ta suira bat: ta pensatu beragan ta ari bildur izan bai, ta aleguñ guciac ez eguitea igues-eguiteco ari, da eroqueria negargarri bat. Pensatu dezagun infernu-an, ari bildur izateco; ta bildur izan daguiogun, ara ez juateco, dio San Chrisostomoc³⁴, ceren eciñ izan litequean, sugar gorigori artan benetan pensatz[e]n duan arima batec asmoartzea pecatueguiteco, ain erraz, beñitzat. Pensamentu au da olesi bat ebaquitzen diozcana pecaturaco pausoac; graciac aurrean ipintzen dion eragozpen bat, demonio ta pasioac eraman nai duten pecatu lecura joatea eragozten diona, ta pecaturaco zabalbide guciac zarratutzen diozcan-á, ez bideeguiteco. Pensamentu onec eguiten du arimea humillago, beguiratua, zuhurrago berberagan; ta a-trebétzen naiz esatera, dio Santuac, cen, iñor ere, infernua beti gogoan daucanic, eztala juango ará, ala nola inorc ere, beti aazturic daucanec, eztion igues-eguingo ari. Bai, N, Bildur osasungarri au, ceñi, Daviden esaeran³⁵, dan jaquintazunaren asiera, da, J[esu] Christo amatzeco bide bat: bada bildur izan ezquero Juezari becela, amatzen da Ayta becela; eracusten zaizco pecatuen zauriac; escatzen zaio humillqui ayen barcacioa, ez gueyago ofenditzeco asmo sendo-zolizoli bateq[ui]n.

[5] † Nic aitortzen det, o nere Jesus ona, zu zerala eguiaz vengancen³⁶ Jaungoicoa, ta orain itzilic bazaode, ori dala zure misericordia-gatic. ¿Noiz artean baña ichodongo dezu, galdu dezatela zure artalde ta erligioa, beren burla, eraso³⁷, ta gaizqui esateac-quin? ¿Noiz artean pecatariac gloriatuco dira zure contra esanaz: irintzi dezagun justoa, bada Jaunac eztaqui, ta eztu icusten ecer³⁸? ¿Noiz artean egongo zera jaiqui bague Zu, lurra juzgatzen dezun-á, botatzeco infernura zure icen santuaren etsáy pecatari arroac? Baña ez, nere Jesus ona; oraindic ere³⁹ zagan misericordia, ceren ceren oraindanic abiatzen dira esaten Profetarequiñ: nere bicitzaren erdian juango naiz pensamentuarequin infernuco atetara; ta Jobec becela esanaz: Infernua da nere echea, ta bertan ipini det nere oea. Nere J[esu] Chris]to Jauna.

2. TESTUA

Infierno

Introduccion. ¿Infernuric bagó, galdetzen dute christau ascoc, Framas[one]n dicipulu eguiñ diranac?

Jaincoari nai leguiquiola, dio San Chrisostomoc, irtetzea infernutic condena-tu bat, gucia sugar-ez inguraturic, eta, sarturic, orraco andraqueriaco batazunetan, orraco ordiqueriaci basterretan, orraco canta-danza-jocu loiqueriaco batzarrretan, ay-oiii-ta deadar andiacquin esatea: ¿beraz infernua da, non azquena-cabu-ta muga iduqui bear duten, anditazunac-onoreac-eta ondazunac? ¿zuetatic nori irudico zaio, munduco poztazun ero burubagueai guertatuco zaietela negar samiñ garratzac? ¿nori irudico zaio, canta araguiti berdeai suertatuco zaietela inciria-orroa icaragarriac, gozaldi lizunai aguiñ orz etaco garrasiotzac, eta laguntazun gozagarriai demonioen lagunquidac, birao-desesperacio-ta erneguz naztuac?

Ala ere, eztago mirari onen premiari¹; dauzcagu Leguea ta Profetac; gueyago daná, daucagu J[esu Chris]toren² Evangelioa, non ematen digun onbiurtzeco epai bildurgarri bat esanaz: Alde nigandic, zoazte madaricatuoc betibetico surtara³, sugar gorigorira⁴, illuntazun campocoetara⁵, non engongo diran negarrac, eta ortzen irringa⁶, iNegar⁷ tristea! baña ongui merecia⁸.

Milla bider zematu degu pecataria infernuarequin, ta milla bider artu ditu gure esanac burlazat⁹, esanaz: ¿cergatic premiatzen gaituzte sinistutzera gauza batzuc, arrazoeac ucatzen dituan-ác? ¿eztauzca bicitza onec pena eguiazcoric asco, or ibilli bague turbatzen jendea oraindic ere, bildur alperricacoa[qui]n-icara guezurrezcoaq[ui]n-ta icusqueta despreciagarriquin?

Au gucia ta gueyago ere esan dute christau ascoc, Framasonen escolauac, igaroco constitucio egunetan: baña nai baldin badute icasi borondate onaz, iracori bitzate gure liburu santuac, gogoartu¹⁰ bitzate arduraz, galde bezaiote beren arrazoeari, baita beren biotzari, ta gauza oiec gucioc eranzungo diete, cen, alperri-caco itzaldi, infernucio penaen eguia ta beticotazunaren contra asmatzen dituzten-ac, bacarric dirala balio guchico argüimendu batzuc, ceiñ Espiritu santuac lotsatu¹¹ dituan bere Igarleen aoz bi milla urte ta gueyago igaro dan oetan, ta ceiñ nic ere oraiñ aguereracico dedan daodela lotsaturic arrazoe ta Escritura sagradu-etic, esanaz puntu bacar onetan:

Punto. Infernua bai dagó, gucia suturic, inoiz ere cabutuco eztiran pena gogorracquin.

[2] Au da eguia bat, J[esu Chris]toc¹² infernuari eman cion icenac, eta norberaren arraz[oea]c aguererac[itze]n dutená. J[esu] Christo da lenbicicoa, infernuari deitu zioná “Geheénna”, dio San Geronimoc. Icen au Euscaldun labort-arrac bere itz-eran, beste moduz arnasa-eguiten ta ebasten du, esanaz: ē Gèнна, au da, eXe, eXetu, iXio; esan nau du, eXehénna, eXetuená: Ta onela dio J[esu] C[hristo]c lurbarrucio ondalecu ari; Arrazoeac, ceren, esperenciaz daquigu guc ere, lurpean daodela lecu batzuc¹³, a-súbrez-azoguez-cillar biciz, eXe-iXio-irazequiatic; lecu ceiñtzuc, idiquipena aoa¹⁴ daucaten-ác, botatzen dituzte campora sugarrac auts, ta queé mémeac, icusten dan becela Bésúbioco ta Enáoco¹⁵ mendietan, eta campora errebesatzeco zabalpenic eztaucaten-ác, estanda-lér-ta zart eguiten dúte lurpean, nondic datocen luricarac, icusi dan bezela, oraiñdic urte asco eztala, San Joserén egunean Españan, Calaurra, ta beste erri ascotan.

Eguia onetan cimendaturic, arrazoeac¹⁶ ateratzen ditu bere contuac, eta esaten dú: culparic bat ere ezta gueldituco castigu bague; beraz aitortu bear da, justicia-zuzentazun-ta ongui eguina dala, eGehenna pena eXetu-iXio-iracequi ayen beticotazuna.

Eguia esateco, bicieracitzen digun arimeac batetic, eguin gaituan ta irauneracitzen gaituan jaincozco¹⁷ zuzentazun ta providenciatic bestetic, ta pecatuari laguntzen dioten biotzaguincadac azquenic; onec gucionec ezagueracitzen du beguiarguiró premia bat, castigulecu batena, Jaunac gordebereturic daucan-á, castigatzeco pecatariac euren esaneguinen eran.

Icasbide andi bat ipintzen dute gay onetan Theologo¹⁸ guciac, beren Maiss[u] S[an]to Thom[ase]q[ui]n esanaz: contaeciñgarriac izan arren condenatuen penac, ala ere, bitan zarratuzten dirala, ta deitzen dirala pena caltecoa ta pena sentiducoa. Pena caltecoa dago, Jaungoicoa ez inoiz icuste-an, bere erri cerucotic betico deserrituric egotean, on suerte guctic baguetua izate-an: ta pena sentiducoa da, araco, ceñagatic condenatuaren gorputza ta sentidu guciac diran betico tormentatuac, suarequin. Pena bi oiec datozque, pecatuac sortuzten dituan desordenu biri; ta dira, desprecio lotsabaguea, guizonac bere Eguileari¹⁹ eguin dioná; ta amodio desordenatu desuzena, criaturari iduqui dion-á.

Onez gañera, Theologo guciac San Agustin ta S[an]to Thomas escoletaco Maissu[a]q[ui]n esaten dute: infernuco pena sentigarri guciatic andiena dala duda bague, suac ematen duan-á; su au ezala irudigarria, baicic[a]n eguiazco ta izatezcoa, gorputz ta anima berdiñ erret[ze]n dituana; ta ausardia andi bat bague ecin ucatu litequeala eguia bat, ain arguiró Escriturac eta Evangelioac esaná, ain irmé Elizaco gurasoac escudatua, ta ain sendo munduac sinistua.

¿Ondo ezagutzen degu menturaz su onen bicitazuna, ta lureco elementu au, ain gogorra ta eramaneciña daná, infernucoaren parean, Escriturac dionez, anz erbal bat baño ezta-a?

[3] Ongui esaten dute bada Theologoac, cen infernuan condenatua tormentatzen duan suac, bere laná eguiten ta obratzen duala eguiaz ta izatez bere arimearen gañean; ¿ta nola da au?

1.º Ceren Jaungoicoac prestatzen du arimea zabalduaz gaytazun, padecitze-co berac daucan-á:

2.º Ceren bere aháltazunac altchatzen du suaren indarrá izateraño gay, eguitemo arimetan minic²⁹ samiñena; bi modu oiec dira miragarriac, ez guchiago ciertoac, miris sed veris modis, dio S[a]n Agustinec²¹, au da, suác, mirarizco baña eguiazco moduaquin eguiten duala bere eguitemo arimen gañean.

Au berá iracazten²² digu Espiritu santuac, esaten duanean, ecen, suac, criatura dan aldetic, obeditzen diola bere Eguillearen borondateari; ta aserratzen ta iracequitzen dala eciñ gueyagoan pecatariaren contra, nor bear duan castigatú²³. Ta emendic valiatu ziran Theologoac, azaltzeco arguitazun gueyagorequin, ipiñi ziotenean su ari icen berri bat, au da, potencia obedillea, ceñ dan bicia-lasterra-ta presta suaren aldetic, ta padecicoyá, icututzen dion animaren aldetic.

Ucututzen²⁴ dio bada sú arec arimeari, sinisgorrac eguia icaragarri au sinistu nai ez arren:

ceren, San Gregorioc dionez²⁵, sú icusgarritic bere ondoren dator bero irazequi ta miñ ezicusgarri bat, onela, su gorputzdunaren bidez anima gorputzbaguea ere sugar gorputzdunareq[ui]n tormenta didin.

ceren, Sutil Doctor Escotoc inorc baño obeto dionez, nola gorputz onezaz inguraturic egoteac sortutz[e]n diozcan arimeari pozaldi edo penac, ala suaren elementu billau arzaz inguraturic egon bearrac ceren sortutzen diozcan suzco arrabio ta erretazun portitz-énac.

Ceren San Agustinec dionez, suaren arimeari icututze au alá dan, aditu eziñ badegu ere, ala nola arimagorputz-en²⁷ batutazuna ala eguia dan, nola dan, ezagutu eciñ badegu ere.

Eguia au illundu nai dute ala ere oraiño biotzgororrecoac-sinisgorrac-eta Framasonac, ontzat eta oiñean iduquitzeco beren desoneztidadeac-lapurretac-edoceiñ modutaco lasaitazunac, onetaraco asmatutzen²⁸ dituztela aitzaquia-escupeda²⁹-ta iguesinguru asco, ceñ ateraco ditudan arguitara³⁰, aitortu dezazuten dira-la, arrazoe-buru-ta centzunbagueac.

3. TESTUA

Inmortalidad de la alma

Introduccion. Con estos pocos renglones, se saltara al primer parrafo de la buelta¹.

N: Gure Erregue Jaunac aguintzen digu predicatu dezagula arimearen ille-ciñtazunaren gañ[ea]n ceren dion, fedeco cimenduric sendoena dan² onen contra zabaldu dirala icasbide galgariac, igaroco guerrataco urte negargarrietan, fede ceña ucatzetic datorren, beste articulu guciac lur jotzea. Nic badaquit, nere euscaldun maiteen artean eztala aurquitzen casta onetaco pecatariric, ceren fedeco gauzatan beti diran christau zaar, sendoac; eta munduaren lau aldetaco gendeac, ezjaquiñac izan arren, erligio guezurrezcoac eguiazcotzat iduqui arren, baña animaren illeciñtazuna, sinisquera sagradutzat beti iduquiric: ¿galdetzen det, ote daode asco ta asco Ezpaña barruan ere, ezsinsicorrác, impio-biotzgororreco-fracmas[o]n direztenac? bai badaode; ongui arguiro aditzera eman duten becela³ beren pensatzeco modua, beren liburu ta esan-eguinacquin: bada Española diru ederren costura arrotzen liburu ziquiñac ona ecarriric, eta ayetan icasbide galgariac icasiric, eztira lotzatu esate-az: “eztago bicitza guerocoric, ez etorquizunic, eriotzarequin cabutzen da gucia; ere esanaz, contuac eta ipuiñac dirala, Sacerdoteac asmatuac, gendeac bildultzeco, ta bildur onen bidez ayec menpetu, ta sacramentu ta Elizaco cer-emonia utz batzuquin pecatuac barcatuco diezabela guezurrez irudituric, onela guero poliqui poliqui ta itzill itzillic ayen odola chupatzeco; ere esanaz, errico izainac-lapac-ondaquinac becela, argatic, amarrenbagnetu-gosetu-ill bear dirala, zeuroc zer[a]t[e]n becela Testigú”.

Onelako sinisquera galgarri ta guezurrezcoac zabaldu dituzte gau ta egun, beren andraguela, ardanguela, ta batzerretaco baster gucietan, intencio galduz beteric, [J]esu [C]hristoren erligioa ta Erregueen tronuac mundutic⁴ quentzeco, ta oien ordez Framasonen legue ziquiña zuti ipintzeco; onen menpean gendeac obeto aurquituco dirala⁵ esanic, ta poztazun guezurrezco onequin ayec engañaturic-eztituristic-zoraturic, guero eurac, aguintariburu paratu, erreñuco armac eta ondazunac beretu, gendeac menpetu, ta naturaleza lizunaren desordenu ta libertadean bicitzeco.

Guerta eztedin bada onelaco negargarriric, ez guizonezco odola berriro botazeric, asmo-eguin det ipintzeá osagarri[tza]t gucien aurrean fedeco eguia bat, naturaleza berac ta arrazoeac ere aitortutzen duten-á, gay onetan gaizto diranac ondutzeco, ta on diranac obetutzeco, puntu bacar batean ezanaz onela:

Punto. Gure arimea da ezillgarria, illezcorrá edo, iñoiz ere illeciña.

[2] Punto onen prueba, edo, ezagungarriraco, jaquiñ bear degu lenbico lecuan, ecen, icen oiec, “arimea, álma, izpiritua”, eusquera garbi garbiac izanic, ardura ta arreta andi batequin ipiñi zizcoela gure izate arrazoedunari antzínaco euscaldun, erdaldun beste guciac baño filosofo jaquitunagoac; badá “arimea” deitu zioten iru emacuméc, araco, batac liñoa apaindu, besteac arimetu eta meémeé ardazquetu, ta besteac arilldu zutenean, aditzera emanaz onetan, iru persona jaincozcoac⁶ eguin zutela beren irudia ta semeanz-era gure arimea, iru ayéc eguin zuten ari hura baño neurribague méméago-piñpiñago-utsutsago, antzínaco euscaldunen canta ta ipuiñ-etatic ongui daquigun becela: “alma” deitu zioten beste batzúc, au da, *ál*, edo, ahál izate, *má*, edo mea ta gorputzbaguea: “espiritua” deit[u] zioten beste batzúc, au da, *espi*, edo izpia, *iritua*, edo gure gorputzeco iri-uri-echean bicilecutua: ta “espiritua” deitzen badá, esan nai du, dala espia bat, esan ta eguin bear ditugun edo ez ditugun gauzatan, betibeti irritu, beti aguiracari, beti alacá, barruan dagoquiguná.

Icen oiecquin mundu jayo berritic euscaldun jaquitunac ezagutu ta onrratu zuten gure arimearen izate noble icen andicoa, [señalé, ceruco aguerpenez icasi zutela Erligio eguiazcoa]; inoizco demboran gendeac hurá desezagutu-desonrratu ez zezaten⁷ beren becatu, gaiztaqueri, ta desordenuacquin; ta hura nahastu ez zezaten abereen arimearequin, eguin nairic anima gurea ayenarequin bapat-anzeco-ta gorputzdun.

Emendic atera ditzagun arrazoe indar andico batzúc, inorc ere ucatu eciñ ditzaquean-ác: naiz dalá filosofo, edo, jaquituna; naiz dala sinisgor, edo, sinisteric nai eztuana; naiz dala basotar, edo, basoan bacarric acitacoa; arguitazunic andienarequin esanaz guciai onela:

Gure arimeac pensatzen dú; beraz gure arimea da espiritua. Emen cimenda-t[ur]ic goacen aurr[er]a.

Gure arimea da aditzallea-gogotzallea-pensatzallea; aditzeá-gogotzeá-pensatzeá, eguiteco edo eguinbide au, eciñ sortu liteque ezpada izate espirituzco batetic: Etá, emendic aguertzen da arguiró, eztauca-la nahazteric bat ere, izate gorputzdu-

na dan gauzacho ere batez; ta emendic ateratzen ere da, cen, izate aditzallea, edo, arimea, banatu-bestetu-diferenciatzen⁸ dala izate gorputzdun-etic: beraz, bata galtzen dala-tic, eztá beraz edo ondorea ateratzen, galtzen ere dala bestea: Izate gorputzduna izategaltzen da, ascaturzen dalaco zati-tan, edo, zatitzen dalaco; izate aditzallea, edo, arimea, ceñac eztaucan zatiric, ezta ascaturzen zati-tan, eta, eciñ zatitu liteque, zatiric eztaucalaco: beraz au iñolaco ere moduz eztá izategaltzen; beraz dá, iñoiz ere illeciña. Ta oná emen, arrazoe bat, esandaco puntua⁹ azaltze-co, berau bacarric asco dan-á; ta munduaren asieratic onaco guizon zentzundu-néc aitortu bai, baña ucá ta contra eciñ eguingo dion-á.

[3] Ipiñi dezagun beste arrazoe bat, esanaz: ala batá, nola bestea, eztirala biurtzen ecerecerá. Ta eguiaz: eriotzac aldendutzen du arimea gorputz-etic; baña, batu bat edo compondu bat eguiten duten zati biren aldendutzeá, eztá beren ecerezututzea-ecerecerá biurt¹⁰-izatea galtzea: ¿cer da badá? ez besteric, ezpada, len baturic zeodetenian, batu edo compondu onec zeucan anzá, echura-irudia-tajua, ordezco, ta azalecoac galdu bai, baña izateac, lengoac guelditzea; Ta ala, gorputza guelditzen da, izatez len zaná, au da, lur; ta arimea guelditzen da, izatez len zaná, au da, espiritu. Naturalezac, eztú ecercho ere baguetic-eguiten, ez eta ecerecerá biurtzen: eztaqui, ta ez ere dezaque beste gauzaric, ezpada, batú, aldendu, besterátú, edo, beste erá ta irudia bat eman, lotuaz¹¹ ta ascatuaz lau elementuac, oiec ecereztu bagué, zati eguinaz; ala nola suac eztan ecereztutzen, erretzen duan egurrá, bai zatitzen, auts biurtuaz. Naturalezac, beñ izatea iduquitzera eldu zan-ác, irauñ bear du betibeti, aric eta Eguilleac ecereztu dezan artean, fisicaco erreguelaen eran: baldin Eguilleac autortu, edo, ematen badie elementu ta izate gorputzdunai betibetico iraupen naturala, ¿ucatuco die au izate espiritu-dunai?: baldin gaya, edo gueya, erderaz materia deitzen dan-á, badá betibeticoa: beraz, arrazoe gueyagorequin betibeticoa, espiritua.

Onez gañera, gure arimeac dauzca idea, gaytazun, ta gura andi, berarequin jayoac, bere azqueneco azquena ta espirituzcoa betibeti gozatzeco. Ta eguiaz: gure arimeac dauca gaytazun, berequin jayoa, bere centro ta Ontazun gozatzeco: gaytazunac edoceiñ ere criaturatan aditzera ematen du bere izatea: beraz, baldin gure arimeac badauca gaytazun berequin jayoa, gozatzeco Ontazun nagusi betibeticoa, bere izatea ere izan bear da betibeticoa; ceren bestela, alper ta lotsagarria izango litzaque Eguillearentzat, bera gozatzeco, gura ta gaytazun betibeticoac arimeari eman bai, ta izate betibeticoa ez emateá. Ala badá, gurá, edo, naitazun, ez-illcorra izateco arimeac daucan-ác, aguereracitzen digu, batetic bere izate beticoa, bestetic bere gaytazun barrucoa, gaytazun beticoa gozatzeco daucan-á: Ta orregatic, esateracó, edoceiñ ere aberé, guizonen erregue izateco gay eztan-á, ciur da, ez ere dala gay, guizonezco erreñua gurá, edo, nai izateco; badá, alaco guraric baleuca, dudabague naturalezac etzuan egingo gauz-etzá izatez, hura ál-gaiñ-zá-tzeco. Onez gañera, munduco ondazun cabudun ta galcor guciguciatic eztira asco, arimean ichtizen duten utsuné, edo, errayarteá betetzeco; beraz, on, edo, ondazun cabubaguea da, bete bear dituan-á, bere errayarte ta gura asebeté-eciñac: Gurá asebeté-eciñacquin eztago paqueric ez zorionic, ezpada eciñegoná ta zorigaiztoa, gozatu artean on, edo, ondazun cabubaguea; beraz, gurá asebeté-eciñac, illeciñtazunaren gañean arimeac dauzcan-ác, dira senale ciur-ciurrac,

aditzen ematen dutenac, gaytazuna daucala, hurá gozatzeco. Itz batean, illeciñta-zuna da cabubagueco On bat, eciñ ezagutu liteque, hurá guratu bague: baldin arimeac hurá ezagutzen badu, premiaz hura gura dú: gura badú, premiaz da, hurá algañzatzeco gay; beraz, gaytazun au, dá, izate bere berea.

[4] Ucatu eciñ ere liteque, gure arimeac daucala ezauera arguia ta libertade osoá, nai duaná, eguiteco edo ez eguit[e]co. Ta eguiatz: ezauera-argui zuzi-candela jaincozco, beti iracequi au, dá, aráco concienciaco iritzia deitz[e]n diogun-á, Jaunac cilluz moldeztua, ceñec agueracitzen digun eguitada gucietan, dagoan ontazun edo malicia: libertadea berriz da ahaltazun eta escubide bat, daucaguná, ezitzeco gure griña char ta zaletazunac, ta ecarteco arrazoearen menpera gure aserre, edo, eci-gaitza, Jaunac aguertu digun becela: “sub te erit a[p]petitus, Gen. 4”.

Ezauera ta libertade au palta zaielaco abereai, beren eguitadac dira beti erabatecoac, eta onetan ezaguteracitzen digute, euracgan dagoala obratzeco asiera edo legue bat, premiaz premiazcoa, naita ez erasotzen ditena; ta orregatic, accio char lotzagarrizco bat eguin arren gure aurrean, ala ere, ezтира lotsatzen-damutz[e]n-bildur[tze]n. Baña ezauera-arguizuzi-&^a, gurequin jayo onec argueguiten digu ezagutzeco ona ta charra beguiz icusi-ecinac izan arren ere; ta onez gañera, sortutzen ditu gugan eguicunde, edo, ecandu miragarriac, nola poza, tristura, &^a, lotzari-damu-ta bildurra.

Ta emendic dator araco bildurrá, guizon biotzgorreco batec daucan-á, ceñec eztuán nai, ezcutuan eguin duan gaiztaqueria bat, inorc jaquiñ daguion; ta contrara, emendic dator araco paque ta poz gozo-gozoa, guizon justu batec daucan-á, creitu baguetua-perseguitua-ta deserritua izan arren: birai concienciac sartzen die, batari penaren bildurra, &^a. Ucatueciñac izanic guizonezco gogo, edo, biotzicututze oiec, ¿cergatic, galdetzen det, cergatic guizon, ezcutuan gaztaqueria¹² eguiten duan-a, da bere pe[catuen] bild[ur] ta on estaldua eguiten duanac, ichodotz[e]n du beti bere saria? ¿Cer bildur dira auéc, inorc icusi ez jaqu[ín] arre]n¹³, [ditua]lla eriotza, edo, &^a, edo beste charqueria bat-egatic? ¿Cer ichodomen, edo, esperanza da au, on eguin [ba]tec¹⁴ daucana, ceñ, ezcutuan eguina izanic, dan, ezpalitza becela? ¿cer azquen daucate azqenic gauza contrari oiec; au da, char eguinac bildurtzea-estutzea-larritzea, ta oneguina? &^a.

¿Baldin guizona bada oso-oso librea, concienciaren contra eguiteco edo ez eguiteco; cergatic ezta librea bere deadarrac ez enzuteco? ¿Baldin bada librea, ona edo charra eguiteco; cergatic da erazoa edo premiatua, ona ontzat, eta charrá chartzat ezagutzeco?

Beraz, gogo contrari oiec aditzera ematen dute dagoala gugan izate espirituzco bat, Jaunac eguina, norc pagatuco duan ona, ta castigatuco charra. AVE Maria.

Au gucia onela izan arren, ala ere, argüitzen dute gaiztoac, ezanaz: gure arimea dala arnasa bat.

[5] Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, lenbicoico lecuan, baldin galdezen badiogu arrazoeari arima onen izatearen¹⁵ gañean, lengoaz gañera eranzungo

digu, cen, anima au, gugan aditzen duaná-gogoatzen duaná-pensatzen duaná, asmatzen ta uste izaten duan-á, poztutzen ta larritzen dan-á, bildurtzen dana ta naitatzen duaná: itz batean esateco, adimentua-gogoa-centzuná, poztazuna ta tristura, bildurra, ta naitazuna, gauza gucioquin conturatzen gaitu arrazoeac, arimau ecin izan litequeala arnaza ez baoa bat, barrutic irten ta quea edo laiñoa becela deseguiten dan-á; ez auts zatibat, aiceac desaguertz[e]n duana; ez eta, elá ta lausoen eoa bat, euleac aria batutzen duan becela, ustecabeac batua, ta bere naira banatua: arrazoe berac¹⁶ sentieracitzen¹⁷ digu, araguiac ta odolac, eciñ littequeala marcatzea gure biotzetan amar mandamentuac, ez eguiaren misterio sagraduac, ez eta zuzentazunaren erreguela santuac, marcatuac daoden becela berez gure sortutzetic. Adimentu laburreco batec ere eztu naico sinistu, nola izan litequean egotea guizon ain burujausiac, arrazoearen abo-ozá ito nai luqueten-ac, izanic eguia, onec diola: arimea dala izate espirituzcoa, eztagoala iñor, escuac ezarri ta ill dezaqueanic; ta gorputzetic irtetze-an, bearco duala, edo batutu Jaungoicoareq[ui]n, edo aldendua izan beragandic; eciñ gozatzea, dan betico zoriona, ta eciñ galtzea, betico zorigaiztoa.

Argüitzen ere dute esanaz: gure arimea ecereztu, &.ª dala; ta au asco dala, Jaungoicoac onaren eta gaiz[oare]n venganza artzeco.

Eranzutzen zaie, eciñ izan litequeala; ceren arrazoeac dion, cen, arimearen ecereztutze au erorico litzaqueala berdin berdiñ onaren ta gaiztoaren gañean, ta orduan ¿cer castigu andiagoa sufrutuco luque errudunac errubagueac baño?. Beste aldetic, ecerecera¹⁸ biurtzeac ez luque ichico ezagueraric-centzunic-ez sentiduric; ¿ta nola ecerecera biurtze au izan liteque tormentu bat, Jaunac venganza artzeco?: Azquenic, ecerecera biurtze au da, egungo biotzgogorreco-gaizto-ta lasaiac gueyen maitatzen ta naitatzen duten gauzá; ecerchori ere ez diote aimbat bildur nola bicitza guero-coari, ill ezquero ere, bici bearrari; ta baldin eurac gozatu ta paquetutzen badira beren desordenuetan, bacarric da, betico illico dirala uste duten esperanza eró ta icaragarriarequin. io, nere Jaungoicoa! ita ez dituzun-á castigatuco gaiztoac, ezpada beteaz beren gura ta naitazun-en neurri osoa!

Baldin ona eguiteac eta charra eguiteac ezpaleucate beste beguiurreco ta beguiragarriric, bicitza oraiño au baño, ¿nolacoa izango litzaque naturalczaco ondazunen Emallearen providencia, baldin, emanaz¹⁹, gaizqui usatzen dituzten gaiztoai ugari, ta ongui usatzen dituzten justuai negarrezco ogui bat ere urri, baldin, diot, eguingo balú erortea intzá bere icen santuaren etsayen gañera, ta bere serbitzari leyalentzat izatea, cerua, burniazcoa; lurra, zequená; ta naturaleza gucia, sentiezarria, sorra-gorra-ta cordebaguea?

[6] Baldin arimea bada illgarria, ¿cer gayon ta ongarri dacar, birtutearen bide penazcoetan necatutze-ác²⁰?

Baldin ezpadago beste bicitza guero-coric, bildurti ta biotz chiquiaren jabe izatea dá, ez ostutzea adisquideari²¹-anayari-lagun urrecoari, bere ondazunac, bere diñadeac, bere emaztea: ollo izatea da, ez burruca²² eguitea, ez venganza artzea, ez cuchilladaz-maquilladaz-venenoz bicitza quentzea: lala gatzbagueco izatea da, ez nai dan gucia esanta eguia²³, mundutic juan ziran aytá baten-ama baten-emazte baten gomuta eguitea²⁴, beren azqueneco borondateac betetzea; baldin au gucia ta gueyago ere eguin al baliteque castiguaren bildurbague, norberac badu onetan gozaldi-placer-ta poz. Onela, biotzeco gogoargui, gurequin jayoac,

eta munduaren asieratic onerañoco Naciño gucien legue sagraduenac, ezтира besteric ezpada humechoen ipuiñaldi-eciñquizun-ta zolasac; ta azquenic, bicitza onen ondoren ezpadago cer bildurtu, ez cer ichodon, gure arrazoea aurkitzen da bide-galduric, guizartean bacarric aguintzen du desordenuac, birtuteari equitea da choraqueria ta utzirudi bat, ta providencia da bidebaguea.

Argüitzen dute azquenic esanaz: gure arimeac eztaucala idea &.^a, baicic[a]n, ala nola abere batzuc diran beste batzuc baño arguiago ta zoliago, beren gorputzaldeac diralaco osobeteago, ala gugan ere, gorputzeco tallu on batetic datocen perfeccioac dirala.

Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, arrazoeac esaten digu, cen, ori ala balitza, animalia batzuc, guizonezco gorputzaren anz ain andi ta berdiña daucaten-ác, berdin berdiñ iduquico lituzquetela idea &.^a, berequin jayoac.

Animalia batzuc daodela, daquigu, ala lurreco nola ichasocoen artean, guizon ta andre diruditen-ác, beren tallu-tajú, ta gorputz alde gucietan: lurrecoen artean daode chimio casta batzuc, gure tercijo tercijocoac American, motivo augatic ango gendeac “basaguizon” deitzen dieten-ác; uretacoen artean daode arraiñ mota batzuc, gure chit anzberdiñecoac African, Zambre Congo icen onetaco ichas-basterrean, “igárimar-uguermarrac” deitzen dieten-ac; baña gorputzeco perfeccio orrezaz guciáz ere, ezтира beste animalien aguintari, ez escolau, ezpada besteac bezaiñ mutú, edo mutuagoac: Ta emendic ezagutzen du guizonac, cen, bera ere ez litzaqueala²⁵ izango ayec baño nagusiago, baldin balitzaque antzeco beren arimean, nola dan gorputzean; ta ezagutzen ere du, bere arimearen ideac-gatic &.^a, ezta la gorputzean baño ayen anzeco.

[7] Baña, ¿nondic[a]n datozquite oraiño gaiztoai onelaco dudac asmatzea, ezpada beren pecatutic? Da bada eguia ucacingarri bat, ecen, pecatua biotz barruan daraman-ác, ere daramala berarequin icara-bildurra-turbacioa: pecatu bat eguiten duan-ác, bereala sentitzen du bere biotz barrumbean antsia bat, pena bat, eta odeicho batzuc zabaltzen diran-ac bere arimearen gañean; ta bere damuz dala ere, naita ez dator egotera catibaturic, eciñ egonic, turbaturic, eta tristeturic; eta orduan guertatzen da ascotan billatzen dituala dudac, paquean jartzeco: ceren, jaquiñ bear dezute, cen, bacarric macurtzen dala dudatze-rá, bere obligacioetatic aldendutzen abiatzen dan-á: evangelio santua ez dator izatera suzpitZagarria abiatu arteraño izaten gogaitcarria: ez dezute icusico batere guizonic, justua, jaquintsua, oitura zuzenecoa, gogourritua, ta batez ere garbicastoa izan, da, fedean ontzizgaldu-eguiteco tentatua izan ditequeanic; bacarric gogo aragui-zalea, ta gozatzun araguizcoa da, creitua quentzendum-á²⁶ gure erligioco gauza altu ta santuai; biotzeco jaiquera ta griña lotzagarrienac eguiten dute aberetarra arimea, ta illundutzen²⁷ dute arrazoea. Guizon abereac ez ditu ondo aditzen gauza jaincozcoac, dio San Pauloc, 1. Corinth[ios] 2: Ez dezute icusico batere libertinoric, bere biotzeco lizuntazuna-gatic²⁸, buruausten-caltetutzen-descalabratzen abiatu eztanic, bada bacarric naitatzen dute dudatzea paquetutzeco biotzburuac beren desordenuetan, baña alperric; ceren Jaunac baimendutzen du pecataria izan dedilla perseguitua pecatu bere bere-gatic; bere concienciaco aguiñcada beti daode bicibici; indareguin arren ere, ayec itó edo osatutzeco; ta indareguita oiec dira ascotan ain bici ta portitzac, nonda, azquenic dacarten bat desesperaciara: ¿Ta cer esaten digute aguiñcada ain samiñ oiec, sentitzera naturalezac beartzen gaituana-?; ¿cer berri-ematen digute biotzaren ustecabeco icarac, bildurrac, turbacioac,

ezpada illeciña, dala gure arimea, ta ere dagoala Jaungoico vengatzalle bat, noren justiciari bear zaion bildur izan?; bada eguiten ezpadu justicia beti bicitza onetan, ori da, dalaco betibeticoa ta guciz alduna; Ta ala, beticoa dan aldetic, eztago beretzat beranduric, eta guciz alduna dan aldetic, iñorc ere eciñ igues-eguiñ lezaque bere justiciatic.

Orañ badá, ô Framason gaiztoac, arimea betico izatearen gañean, ala nola Jaungoicoa izatearen gañean, ta J[esu Chris]toren erreligio eguiazcoaren gañean, beti argumentu modu batzuc ipiñi oi dituzuten-ác.

[8] Aditu dituzute gure arrazoe indar andicoac, baita guc ere aditu ditugu zuen argüimendu irudipeneco, edo diruditenac; ceñ, daquigun, icasi ta atera dituzutela, “Sistema de la naturaleza” deitzen dan liburu ziquiñ batetic, ceñ munduco Naciño guciguciac daucaten iracurtea eragotziric, arrazoeaz, ceren iracazten duben, guizonac eta abereac dirala semeanzecoac arimean, dirala cerbait desberdiñac gorputzean, baña beti bapat eriotzan; iracazte ceña sinistutzetic etorrico litzaquean, erreñuetan, ez erreligioric-ez legueric-ez ordenuric egotea, indar-dunagoac berea eguitea, aberetzar ta arraintzarrac chiquiagooquin eguiten duten becela, guc ere alcar ill, ta jatea, igaroco urteetan icusi degun becela.

Eguizute oraiñ contu, ta duaric demagun, gure ta zuen arrazoeac dirala indar berdiñecoac gay onetan: Icasi bear dezute baña, ondoreac eztirala berdinarac; ceren bataren sinistecac dacarren betico zoriona, ta bestearen[a]c &.^a:

Ondu zaitezte bada, eztalaco chanchaco gauza, ez bi aldiz erratu litequean eguitecoa, ez eta dudatan ibilltzeco gaya; ceren, dudac nai diranian edoceñ ere gauzaren gañian, orduan prudenciatic esaten du jarraitzeco seguruagoari: Seguruago da²⁹ dudabague jarraitzea J[esu Chris]tori, bere erligio ta evangelio santuari, non iracazten duben, arimea dala illeciña, ta bildur diozagula, gorputz da arima infernura bota gaitzaqueanari. Orañ bada, ¿cer calteac ez dacazqui edocententzat, perseguitzeac [Chris]tori? ez guchiago ezpada condenacioa. Onda bedi bada len bait len esandaco liburua, ceñ Españatar batec etzuan iduqui lotzaric ecarteco amazapi milla errealen costura beste erreñu batetic: Iracorri bedi Escrit[ur]a sagr[adu]a, ondugaitecen: Ta orain, Urreratu gaitecen J[esu Chris]togana

4. TESTUA

Obligacion de confesar

Introduccion.

Punto.

Baldin escritura sagradua ondo iracurri ta considera badezagu, aurquituco degu, eztala egundaño iñor salbatu ta ez salbatuco ere, aldez edo moldez, nolabait, confesatu bagué. Egundainoz gueroz, legue gucietan, eta guizaldi gucie-

tan, usatu da ta usatzen da confesatzea: ez ordea, berdiñ. Legue naturaleko confesatzea, oraiño confesatzearen itzala becela zan: orducoa zan, oraingoaren señaie bat, irudia-figura-ta significantza bat.

Legue naturalean asco zan, biotzeco damutazun batequin, eta norberari bere gogoac bere barrumbean esaten zion campoco señaieren batequin, contu dezagun, begui altchatze batequin, edo, belaunicatze batequin, Jaungoicoari berari confesatzea, ta barcacio escatzea... Deitu zuan Jaungoico Jaunac Adan, eta galdeguin zuan, ¿ea non zan? vocavit Dominus Adam, et dixit, ubi es? Eta galdeguite hura etzuan ez eguin jaquin baguez, baicic[a]n alatan bere becatua ezagutu zezan, eta ezaguturic, confesa zezan amore-gatic: eta ceren etzuan bear zan bidean confesatu, baña bai ceren edertu nai izatu zuan, esaten¹ zuala, cen, bere emazteac eraguin ziocala, alatan, escusa chiqui bat bada ere, bildurraren bildurrac erazo zion-á, aibat calte ta damu artu zuan.

Modu berean iracurtzen da, galdeguin ziola Caini ere, bere anaya Abel ill zuanean, ¿non da zure anaya Abel? ubi est Abel frater tuus? ¿Eta cergatic galdeguin zion onela? bere becatua gogora zezan, eta gogoraturic, confesa zezan-gatic: eta ceren etzuan Adanec becela nolabait ere confesatu, bana bai ceren zuan guciz ucatu, alatan, ain on bear ta erruquigarri eguin zán; eta mundutic erbestetua ibiliric, azquenean condenatu zan. Bada Adan eta Cain ere legue naturalean ziran, gendeac bere naturalezaren eran, itzquiribituzco quin², edo, quidaric-gui-aric-lagunic, eta eracusleric ere bague, bicitzen ziran demboran. Baña, ceren naturaleza berac ere eracusten bai du, bear dala bici arrazoiaren bicia³, gaizqui eguitea utciric, laincoarequin ondo iduqui, ta ari bere faltac airtortu; alatan, etzan legue naturalean ere, cerbait moduz, gogoz, eta biotzez beintzat, cerbait señaierequin confesatu bague, iñor salbatzen. Beraz &. ³ del punto. Eguia da, etzan oraindic orduan, confesatzeco ceremonia señaleturic. “Ala dio Santo Thomas, escoletaco Eracusle aingueruzcoac⁴: Asco zan, dio, barreneco damua; ta damu hura, norberari bere baithan, edo, biotzeco gogorgui santuan iruditzen zitzacan, campoco señaieren batzucquin aguertzea ta adieracitzea: etzan oraindic orduan, dio Santuac, beste confesatze moduric, eta ez erremedio itzquiribituz ezarriric eta ipiñiric”.

Baña gueró, mundua apur bat aurrerago igaró zanean, legue naturaletic legue izcribitura, au da, Moisesen demborara eldu zanean, asi zan usatzen beste confesatze modu bat. Etzan ya orduan asco, norberac bere barreneco damua, poza zuan señaiearequin campoan aguertzea: baña bear zuan, barreneco damu hura, cenbait ofrendaz ta sacrificioz, ta ez, ceñezaz nai zana, ezpada artaco esquiribituz ordenaturic zeodecenaz, declaratu ta eman aditzera.

[2] Baciran legue zahar esquiribituan sacerdotiac, eta temploco cargu-dunac. Eta persona batec becatu bat eguiten zuanean, bear zuan, becatu hura-gatic, damutazun batequin, ta gueyago ez eguiteco borondatearequin, sacerdote ayen aurrean eguin ofrenda ta sacrificioaren bat, eta artan eman aditzera, becatari zala. Ala aguintzen za Leviticoaren capitulu batzuetan⁵. Etzan oraindic orduan, oraiñ dan becela, iñori bere gañera ezarri bere becatuac confesatzeco aguinduric ez obligatoric, ez eta, nola-noiz-eta ceibat eguin zituan, esateco premiariac. Asco zan orduan, damutazun batequin, legueac aguintzen zituan ofrenda ta sacrificioac

eguitea. Hura zan, orduco confesatze modua. Erregue David-ec besteren emaztearequin becatu eguin zuanean, eta becatu hura estaltzea-gatic, emazte aren senarra ill eraci zuanean, esaten du Glosac, au da, nire habituco⁶ Eracusle famatu Nicolao Lyrac⁷, aren gañean esanaz: “Erregue Davidec, ahalquez-lotsaz-ta bere burua ez nabarbendutzeagatic, utzten zituan eguin bague, aren becatuentzat ordenaturic zeuden sacrificioac; eta etzitian beñ ere eguin, aric eta Nathan Profeta, meachatzera-zematzera-ta eranzute eguitera etorri zequidion arteraño: baña bai orduan, lotsa garaituric, eguin zituan, bear ziran ofrenda ta sacrificio guciac, eta guero ayecquin batean alcanzatu⁸ zuan barcacioa; ceren orduan ere, legue zahar escriptuan ere, eguin bear ziran, becatuen erremedioraco, ordenaturic zeuden ofrenda ta sacrificioac; eta hura zan, orduco confesatze modua”.

Baña oraiñ, legue berrion evangelio santuac declaratuz gueró, usatzen da christauen artean beste confesatze modu bat, sacerdotearen aurrean eguiten dan-á, legue naturalecoa eta escriptucoa baño indartsuagoa, seguruago, ta valio-soagoa; ceren, itz batean esateco, oraingo confesatze-an, obratzen du J[esu] Christo Jaunaren pasio ta eriotzac. Becatua confesatzen degunean, eta sacerdoteac absolucioa ematen digunean, án da bereala⁹ J[esu] Christoren pasioco meritu ta valioa, án da bereala aren gracia ta faborea, ta arequin batean becatuaren barcacioa. Bi arrazoi eman ahál ditezque lenendic-óró, probatzeco, oraingo confesatzeac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño: 1.^a, ceren oraingo confesatzeac, legue zaharrecoac etzuaná, badu bere baitan barrena, edo, berez, indarra, garacia emateco; legue zaharreco confesatzeac eta orduco beste sacramentuac etzuten eurac bere indarrez ta birtutez garaciariac ematen, baicic[a]n, ematen zuten garacia, ematen zuten, artzen zituanac, zuan devocioaren ta prestaeraren erara, au da, nola prestatzen ziran artzeco, ala artzen zuten, “sacramenta veteris legis conferebant gratiam ex opere operantis”: baña oraingo confesatzeac eta sacramentuac ematen dute, gure devocio ta prestaerari dagocan garacia, ta are gueyago, sacramentuac eurac beragan dutenetic ere zatiematen dute, ta artzen degu guc ere zati ta parte hura, baldin guero guere aldetic arazo-eragozqueta-catibuera ta traburic ipiñtzen ezpadegu, “sacramenta novae legis conferunt gratiam ex opere operato” au da, J[esu] Christoren merecimenduac-gatic¹⁰: 2.^a arrazoea eman ahál diteque, probatzeco, oraingo confesatzeac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño; ceren, orduco confesatze-an, baldin erditšico bazan barcacioric, bear zan biotzeco damutazun zolizoli bat, Jaungoicoa beragatic eta beraganaco amorio-agatic izaná ta artua, ceñ deitzen dan, “contritio”, contricioa-onesdamua-damu gucien gañeco damua: baña oraingo confesatze-an asco da sacerdotearen absolucioarequin batean beste damu modubat, ceruco loria galtzeco, edo infernuco penatara joateco bildurtazunetic eldu daná, dalaco consideratzeco puntua, ta chit erraz salbatzeco mesedea, ceñ deitzen dan, “atritio” atricioa-bildurdamua-infernuaren bildurraz artzen degun damua, “ex atrito per sacramentum fit contritus”, esan nahi du, asco dala oraingo confesatzean uste izatea baduela contricioa; ceren ezpadu ere atricioa baic[ican]¹¹, cumplitzen ta usbetetzen¹² du sacramentuac, bitartean dan usaldi-falta-ta escastazuna. ¡Oh, au mesede parebaguea, sacerdoteac sacramentuarequin eguiten duan-á, motivo ceñagatic bacarric, bear luqueten gendeac amatu-eztimatu-ta onrratu Jaungoicoaren oiñordea becela.

[3] Hain andia da mesede au, cen, (quando se quiera hecharlo como brebe platica, se concluirá con este mismo ff.^{o13}) arrazoearequin galdetzen du Jerem[ias] Igarleac¹⁴; ¿numquid¹⁵ resina non est in Galaad? ¿aut medicus non est ibi? ¿quare ergo &.^o? ¿cer da au? ¿ez ote da erresinaric¹⁶ Galaad-eco errian, edo medicuric an bertan? ¿nolatan bada nere errico alabaren zauria ezta sendatu? Esan nahi du. Christau errian, arimaco eritazuna sendatzeco, ain erremedio andia ta medicina escuarra dan lecuan, cein diran confesoreac, ¿nolatan guciarequin ere aurquitzen dira aibat zauri eta eritazun? ¿aibat becatu ta gaiztaqueria? ¿ta nolatan eztira, lasterrago sendatzen, urte gucian ta batzutan gueyago ere, becatuaren eritazunean, quiraztuac-ustelduac-ta ziquinduac badaode?

Eranzuten du Glosac¹⁷: Eztira sendatzen, ceren eztiran sayatzen; eztira medicagana consejatzera, ta medicina artzera joaten; esan naidu, eztira bear becela confesatzen, ez confesorea-gana¹⁸ urreratzen.

Arimaco eritazunetic sendatzeco, erremedioa, da confesatzea. ¿Ontzia galduz guero, cer erremedio izango du mariñelac, salbatzeco? Zul pusca bati lotzea, ol bat atrapatzea¹⁹, ta arequin batean, ari dache cala, dautzala²⁰, igari itsasaldea irabaztea, “paenitentia est secunda post naufragium tabula”, esan nai du, ontzia galdu ondoan arrapatzen dan ol baten pare dala, becatuan erori ta ontzigaldu eguin duanarentzat, confesatzea. Baldin eguiten ezpadezute penitencia, dio San Lucas Evangelistac²¹, gucioc azquen gaiztoa alcarrequin eguingo dezute; bada penitenciaren partetic²² bat, da confesatzea; beraz, ez azquen gaiztoa eguiteco, bear da, ongui confesatu.

Hau onela izan arren, dan becela fedeco eguia, J[esu] Christoc eman zietela apostoluai ta ayen icenean sacerdoteai escubide jaincozco bat, barcatzeco²³ becatuac, eta lotu edo guelditzeco araco barcatu bear eztiranac, orrez guciac ere, españaco heregeren batzuc nai luquete guezurtu eguia au esanaz:

1.^o Eztala iracurtzen iracazderic ez lecucotazunic, esango dubena, badala obligacio ta premia confesatzeco becatuac bana-banan²⁴-bat banaca; ta ongui guerta zitequeala, Salbatzalleac ez nai izatea ipiñi alaco obligacioric, ezpada eman bai escubide bat barcatzeco becatuac baquidan²⁵, becatuaren contricio-bitartez, eguin zuan becela Salbatzalleac becatariacquin”.

Guezurra ta abarra da au, dariena, batez ere gonadunen artean, onela bildurra quenduric, obeto berena eguiteco desordenu gucit[al]n. ceren eguia esan, guc bezain ondo daquite, San Juanen evangelioco ogeugarren capituluan aurquitzen dan iracaste ta lecucotazuna, beneric ezpalego ere, bera bacarric asco daná, probatzeco, confesatzeco obligacioa; non Salbatzalleac, illen artetic biztu ezquero, apostoluai bere elyzaren governu²⁶ oneraco bear ziran iracasteac ematen zebillela, esan zien: “paquea izan dedilla zuecquin: nic biraltzen zaituet mundutic escubide berbera ta berdiñ berdiñarequin ceñarequin nere Aytac biraldu ninduen ni lurraren gañera: orduan aicea-eman zien esanaz, artu ezazute Espiritu santua; araco nortzuen barcatzen dieztezuten becatuac, barcatuac izango zaiezte, ta araco, nortzuen guelditzen dieztezutenac, &.^o”:

[4] Itz oiec berberoc dira, Obispoac esaten dituanac sacerdoteen ordentzean, ematen dienean absolbitzeco escubidea ta eciñ asmatu ta esan ere liteque itz acabatuago ta erabaquiagoric, gomendatzeco confesioaren obligacio ta premia.

Testimonio onetan cimendaturic, eranzuten diet, imposible²⁷ izango litzaqueala barcatzea becatuac guizon batec, ayec lenengo ezagutu bague, ta eciñ ezagutu ahalco liraqueala, azalduac eta declaratuac²⁸ izan bague, declaracio ceñari deitzen diogun confesioa. Bacar bacarric bada Jaungoicoa da, guizonen biotzac barrendu ta ezagutzen dituan-á; bacarric berac ezagutu ahal dezaque becatari baten damu benazco-cinezco-tolesbagea; ta ala, J[esu] Christo Jaungoico ta guizon eguiazcoac etzeucan premiariac enzuteco confesio, ez Madalenaren, ez Samarit[anare]n, ez besteren-ic. Baña bere apostolu ta sacerdote animen cargu-dunac, iduqui bear dute becatu banan-banango confesioaren ezauera argui bat; “bada bestela, Trento²⁹ Batzarre Santuac³⁰, arrazoiñ oietan cimendaturic dionez, eciñ ahalco luquete eguin juicioric becatari damutuen estaduaren gañean; eta medicu becela ezagutu eritazunaren nolacotazuna, urreratutzeco dagoquion erre-medioa; ez eta juez becela ongui beguiratu becatuaren piñutazuna, emateco dagoquion moduco sentencia zuzena, ta berdindutzeco berarequiñ penaren neurria, ceña gucia, dionez, eciñ ahalco luquete eguin gauzaren ezauera bague, baldin ain bacarric declaratuco balitzaiezquete generalean edo batuca, ta ez particularean edo bat banaca”. Testimonio, edo, esan dedan evangelioa[re]n capituluco esangay au azaltzeco, jaquitunbatec, Alcuinoc, batzarre au baño guizaldi ascoz lenago, esan zuan: “¿cer gauza da ascaturzen duan-á escubide sacerdotezcoac, baldin lenaz beguiratzen ezpaditu, lotua dagoanaren locarriac? medicuac eciñ ahálco dute sendatu, baldin gaitsoac aguertzen ezpadituzte beren zauriac: ¿baldin gorputzeco zauriac escatzen badute medicu bat, ceimbat gueyago premia izango dute medicu espirituco baten consejuena biotzeco zauriac?” Hau bera esaten dute guizaldi gucietaco Eracusle ta Guraso santuac, guchi gora bera itzqueta berdiñ berdiñacquin, probatzeco, Christoc ipiñi zuan, ta christau artean beti usatu dan, esandaco confesatzeco moduaren obligacioa ta premia.

2.^a “Eztala iracurtzen, diote berriro, becatuac banaca confesatzeco obligaci[on]c, Inocencio 3.^o, icen onetaco Aya³¹ S[antu]ac ipiñi arteraño”.

Guezurra ta abarra da au ere, dariena, gende emeac engañatzeco, ta obeto berena eguiteco, desordenu gucietan³²; ceren, guc bezain ondo daquite, cen, erligioco punturen baten gañean jaiquitzen diran ezdabaidac-galdeac-eta leyac erabaquituzco, jaquin ta jarraitu bear dirala, San Agustinec iracatzi zituan erregla oiec:

1.^o Dio, oieztan eroqueria bat dala a-trebe-tzea³³ leyan, Eleyza guciac eguiten duaná, ea eguin bear ote danen ganean.

2.^o Dio, Eleyza guciac eguiten duaná, ta ez, eleyzaguizonac batzarren batean ipiña, ezpada, betibeti eracatzia eta gordea, lecu gucietan usatua izandu daná, “quod semper, quod ab om[n]ibus, quod ubique”, au iduqui bear dala, etorritaco becela, jaincozco edo apostoluzco doctrina[re]n escuraematetic.

[5] Erreguela cimenduzco, artacotzat Theologo ta Canonista jaquitun guciac ezaguturic dauzcaten, oien odoren, arrazoe zentzun onecoac sinisteracitzen du, berritazun bat eciñ sartu litequeala gende gucien artean, ayetatic batzuc³⁴ ari contraesan bague; bada, alacoren bat guertatu danean, esperenciac eracutzi du, bereala iratzarri dirala leyac-galde-ta eranzunac³⁵, bai fededunen, ta bai animen arzaian artean: guerra dembor[a]n legue berri bat sartu nai izaten danian becela.

Fedeac ere iracazten du, Espiritu santuac aguindu diola bere lagun-eguitea Elizari, igues, ta useguin ez dezan eguiac iñoiz, ta artu eztidin heregiaren sinisquera guezurrezcoa fedearen abé ta cimendu irme sendo onetan: esperenciac³⁶ ere agueracitzen du, munduco elyza guciac, eguzquiaren sortualdetic sartualderañoac, beti egon ta izan dirala a-corde batecoac-erabaqui batecoac-itiz batecoac, dotrinaco puntu onetan:

elyza ayetatic batzuc³⁷ aldendu baciran ere, elyza-batazun-ta fede gucieracotic puntu batzutan, baña etzan inoiz icusi aldendu zirala, becatu banan banango confesio belarricoaren premiaren dotriña puntutic, gorde zan ayen artean inoiz ere ausi bague mandamentu ta doctrina, apostoluac danic artutaco au; ta erromaco elyzaren batazun ta fede gure guciaquicotic urratuac egon arren, ala ere, eraman zuten euracquin legue baten beguiracune on ta gordetzen leyal beti betico bat, legue ceñari, ezta iracurtzen iñore eguin diola contraric Lutero daño, ta Llorente deitzen zan³⁸ herege españatar escomulgatua daño:

armenioac, etiopeac, cophtoac, griegoac, guciguciac dira alde onetan sinisquera batecoac Erromaco elyzarequin, ta ala, eciñ artu zezaqueten doctrina au Inocencio 3.^{en}, icen onetaco Ayta santuagandic, ceren au jayo baño urte ascoz lenagotic zeodeten gende ayec aldenduric gure elyzatic, baña beti siniscor ta sendo confesioco puntuan.

